

**Eusebio Erkiaga**

**ARAIBAR ZALDUNA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Araibar zalduna*, Eusebio Erkiaga. Kuliska  
Sorta, 1962

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=338>

KULISKA SORTA

**EUSEBIO ERKIAGA**

# **ARAIBAR ZALDUNA**

1958 DOMINGO AGIRRE NOBELA-SARIA

Euskaltzaindiak sortutako saria

Itzaropena Argitaldaria

ZARAUTZ-EN

1962

Kirrinkada latza egiñaz, dendako ate biak ertsi zituan mutil batek. Arratsaldeko bostak ziran, ordea, eta an kalean zear zioaztenak, arriduraz beatu zuten, ezordu artaz konturaturik.

Gaztea zan ateok ertsi zituan mutilla, ongi jantzia, arpegi borobil, bizkar sendoa, ille gorritzat, begi urdin.

Berealaxen, ate bien arteko orman, arrizkoa bera, paper zuri bat itsatsi zuten. Papertxo bat, lau aldetik berdin sarnarra, eta inguru biran lerro beltz gizona zuana. Mutil koxkor batzuek zeuden begira, geldi; gizonezko batzuek ere, begiraldia egiñaz, aurrera ekin zioten.

Neskatxa gazte bi geldi lotu ziran ; liraiñak, metalzko takoiak orpoetan; saku-marrazko jantziaz bata; bestea gerri estu medarra. Begi aundiak biak, ertzak illunez beteak. Emakume zaarrago bat, koipetsua bera, antxen beari josia bezela, begiak zabal eta aoa zabalago zegoan, itz egin bearrez larri:

-Andertxo, nor il zaizu? Aitona? Denda onelan bapatean izteko...

-Bai.

-Noiz, ordea?

-Ordu beterik ezta.

-Ta nola ba, atzo bertan nik ikusi nuan-ta?

-Baliteke. Gaur goizean ere, kalean eta emen ere egon da-ta...

Neskatxak alkarri begiratu zioten, eta andra gizen arek noiz aldegingo ote zuan, urduri zeuden.

-Orain nor izango dugu emen dendari buru. Ander-txo? -atsoak, bere matraka atertu nai ezta.

-Gure amak esan bearko du ori.

-Amarena al da denda au, bada?

-Andretxoa, aski da galdekizunik, ereti ezegoki ontan.

Neskatxak berriro alkarri keiñu-zolia. Atsokote arek sudurrak astindu zituan, ustegabeko erantzuna irabazi zuanean. Orduan, bira egin eta an joan zan zazpi kaleetan barruna.

Neskatxak itz egiteko abagune aukerakoa ote zanentz, zalantzaz bezela agiri ziran. Andertxo-k, ostera, itsumustu antzean, aldegin zuan andik. Arkupe luze artako jende artean naastu zan, eta lendabiziko filobusa artu ta abiatu zan.

-Zergatik ez diozu itzegin, mamala orrek?

-Zagoz isilik, Karmele, zuk naastatu bait nauzu.

-Nik naastatu, Marga? Ez zazula orrelakorik asma-tu ere egin. Zu beti Izango zera lotsorra, eta ez duzu nai duzunik iritxiko santa sekula.

-Bai, lotsatia naiz, eta naiago dut, lotsagabea izan baiño.

-Tira, tira, Marga. Ikusi ere egin zaituala uste dut nik gero, Andertxo-k. Eta zuk, ezertxo ere esateko ausarkuntzarik ez izatea... Eztakit, eztakit...

-Aren amak ongi ezagutzen nau ni, eta... ezin dizut orain ezer geiago esan.

-Ezer geiago? Entzun, zu gauza ez baldin ba zera Ander-ekin mintzatzeko, nik neonek asiko dizut urrengoan jarduna.

-Orrenbesterako ez ote naiz ni ere, ba?

-Baietz uste nuan, baiñan gaurkoa ikusita gero...

-Ander larri ta esturaz zegoala antzeman diot eta... Aitonaren eriotze-unean bertan ez nintzan beste zer ortaz jardunean asiko, noski.

-Ereti ederra galdu duzu bada, xamur-xamur zegoala uste dut nik eta...

Jendea pasatzen zan kalean beera, eta an orman, atxikia, isil eta esale zegoan papertxo beltz txuri ura, pikaraza bezelakoa.

«Martin Usategi ta Astepe  
Gaur il da 68 urte dituala.  
Gorpu-lorra biar, igandean,  
eguerdiko amabietan.

Eriotzetxe: Alzola kalean, "Ene Kaiola"».

Duela 50 urte inguru, bere aita zanak utzi zion denda ori. Gauza ugari egon oi zan bertan. Salgei diranak eta egoki arean. Baiñan baita salgei izatea egoki ez diranak ere izaten zituzten bertan garabeerak. Eskaparate ta erakus-leio zabal eta edatsuak zituan. Batez ere, jazteko zerak saltzen zituzten, gizonezkoentzat eta emakumeentzat.

Kanpotik ez zuan ate zabal bat eta beste estuago bat baizik. Barruan, ordea toki edatsua zuan, sail bitan banandua. Barrentxoan, goirako eskaillera polita ere ba zegoan. Bereala ordaintzen zutenak, oiek erosi, ordaindu, gaiak artu eta beingoan aldegiten zuten. Epeka edo aldizka pagatu nai zutenak, ostera, txartel-txo bat eraman oi zuten, zorraren agiritzat.

Aitaren ondarea izan zan denda ortan eman zituan, beraz, 50 urte edo, Martin Usategi eta Astepek, orain il berria zanak.

Laneko orduetan, geienbat, izaten zan ori, iñoiz denda-orduetat kanpo ere antxen egoten zekian arren. Jazteko gaietan zala tratulari irakurri dugu. Baiñan, ba zuan andik gaiñerako arazu, zaletasun eta zeregiñik ere.

Goirako zurubian zear igonik, nai zutenak antxen proatzen zituzten soiñeko berriak. Gela bat, gonadunentzakoa zan; beste bat, gizasemeentzakoa, eta bien erdian, erroldeta kontuak erabilteko gela. Etxeko eskailleretara zedukan beste atetxo bat, lenengo oiñean edo pisoan. Orrela, denda aura, beti bai beti, bere ordu-orduan izten zuten; gero, goian, kontabilitate arazuak eta beste batzuek ere egiteko, edonoiz izaten zuten beta, legepean zeazki jardunaz.

Asko ta asko saldu izan zuten aldi batean saltoki artan. Azken urteetan, ordea, ez zedukan sartu-irten geiegizkorik jendeak, Martin Usategi-ren tegian. Gaiak, alabaiñan, beti izaten zituan modakoak, politak, bitxiak; denporen joan-etorrian ordea, nork-merkeagoka edo kompetentzia izugarritzakoa sortu zitzaion. Ala ta guztiz ere, ez zan, noski, ori bakarrik, oraintsu aldian denda orrek beerantza aundia egin zuanaren zio bakarra.



Zer esan makalak ez ziran izan iñoiz! eta inguru artako erritar elizarakoiak, apurka apurka, denda artara ez joateari amore-emanik ari ziran.

Batez ere, «Seiko»-ren bildur betean bizi ziranak.

Beste askoren artean -asko, amar omen dira-, bat zan «Seiko» orren begiko zamarra, zikiña, lastoa. Alderdi artako elizan, ba ziran bost apaiz. Oietariko bi, gazteak ziran. Bata musikaria; bestea gazteen aolkaria, mutil gazteena. Beste bat sasoikoa; au neskatxen arduraduna zan. Gero, parroku jauna, gizon jatorra, asko ikusia; eta azkenez, apaizetarik zaarrena, baiñan andre zaar, sasoiko ta gizon eldu-elduen artean, aldeko geien zedukana, begikoen zana. Oneri zeritzaten ain zuzen ere, «Seiko».

Gaitz-izen ori, mutillak ezarria zedukan. Igandero-ko gauza zan, onetariko solas-aldia:

-Mezatan izan al zera?

-Bai ba, goizekoan izan naiz, zazpiretan, gero mendirantz bizkor joateko.

-Nork egin du sermoia?

-Zaarrak, beti bezela.

-Erabiliko zuan ba, ark gaur, gai berriren bat, ezta?

-Bai ta zera ere! Aren gaurko gaia, zuk igarri ezetz alegia!

-Ja, ja, ja! Nik uste dut... seigarrenekoa izango zala.

-Juxto! Zer ortaz jardun izan du.

-Eta, beste bederatziak noizko uzten ote ditu ba orrek?

-Iztun bakoitzak bere jita ta kera ta esanbearra omen dituala, esan oi du ark, eta orra ba.

-Eta olan izango da, dudarik gabe, ark dionean. Baiñan... ez al dago beste milla zer, ara dioaztenai eta ez dioaztenai adierazteko?

-Baliteke izatea. Arek, ordea..., ortik galtzen dirala erruz gazteak eta...

-Baiñan gazte gutxi joaten bait-dira goizeko meza-tara!

-Ori ez da «Seiko»-ren errua. Gurasoak joaten dira, bai, eta batez ere, amonak. Eta amonak asko jakin oi dute.

-Isilik egoten beintzat, ez dute jakiten.

Eta Seiko orrek egin omen zion kalterik ugari, Usategi zanaren dendako bezeria leen aski barreatua zanari.

Gazteen esanak gorabeera, ez ote zukean arrazoi mamirik, «Seiko» apaiz jator arek? Seigarren agindua eta bere aizpatxo bederatzigarrena, a zer nolako bikote urduria!..

Usategi zanaren ilberriak, askoren mingaiñak eta matel-ezurrak dantza dantzari jarri zituan. Goizeko mezatan izan ziran atsoak errosarioa, parra parra alare, meza bitartean errezatu ondorean, gertakizun eta saio egokiak egiñik zetozten atadirakoan, gizartekoen solasak asteko. Etxadone artan, errosarioa, bai; baiñan, gero, atadian, gizarteari buruzko mingain-saioa.

Ez zuten naikoa tokirik izan izango goiz artan agertuko ziran egunkari biak, biografi lan guzti aiek argitaratzeko, jakiña, takigrafu egoki ta azkarrak an izan ezkerro beintzat.

-Arrazoi izan du beti ere, Seiko-k.

-Nor da Seiko ori? -galdetu zuan birramona zimel batek.

-Nor izango da ba? Gazteen kontua, Deograzi. Don Tomas-i deritzate orrela gazte txoroak.

-Eztaki gutxi Don Tomas-ek. Usategi defuntu ederrak baiño geiago bai noski.

-Berdin esango nuke. Ta orra ba... Usategirenak ere egin du!

-Amaika emakume ezagutu du orrek gero!

-Denda zedukan, eta, ezta arritzeko.

-Dendan eta kalean ere, begi ona zedukan orrek.

-Begia ezezik, sudurra ere bai.

-Sudurra ez ain zuzen, Deograzi, surmotxa zan-ta.

-Sudurmotx guztiak dira okerrak.

-Beintzat, alaba bat eta iru illoba eder utzi dituta...

-Oiek, ezagutzen ditugunak, eta ez dakizkigunak? Jainkoa lagun...

Orduan, atso urduriak isillagotu zuten beuren mintzoa, eta aien artean batek, eman zien besteai ofiziozko aitorkuntza.

-Oietaz gaiñera, errion berton, bizirik omen dagoz gutxienaz seme-alaba bi; esan nai nuke, semea eta alaba. Irugarren bat, kanpoetara bidali zuan eta laugarrena, il ote zanekoa edo.

-Eta lau oiek, bigarren andrearenak izango ziran ezta?

-Bai, zereko bigarrenarenak! Aur bakoitzat bere ama bereixia zuan.

-Kontxo! Beraz, Bizar-Urdin-en parekoa izan zan ia, gure Usategi geraka.

-Bai, alakoxe uso nabarra irten ere, zazpikaletar orixe.

Baiñan, Usategi-k, bilbotar jatorra baitzan, ez zuan bere denpora guztia eman gona-kontu oietan. Lanbidea ta ondasun-arazuetan ere sartua izan zan, eta azartua ere bai.

Garatz batzuek ongi irten zitzaizkion ; beste negozio batzuek, ez erdu ez merdu. Irabazpidearen sena, beiñipein, ba zuan, eta ara-ona zebillenetan, ez zituan aragiaren ertz politak eta bidaste irritsazkoak soillik somatzen; ondasun-iturriaren usmoa ere zaiñetan zeraman.

Oiñarria, aitak utzi ziona izan zala, begien bistakoa zan. Orraitio, aren aitak ez zuan izan bere bizitza osoan, diruaren balio urritze ondarrik gabekoak gogo-

an izanik ere, Martin seme bakarrak, urteren batean eralgi eta sakabanatu zuan aiña dirurik.

Alde aundia zegoan, aitak utzi zion bizimodu bakar artatik, geroago Martin-ek lortu zituanetara.

Diruok, ordea, sarri askotan, sakristauarenak bezelako martxan zebiltzan. Errez etorri, beste aintbestean joan.

Emazte zintzoa artu zuan eta ondo gaztea zala artu ere. Andre borobil biurtu zitzaion, ostera, denpora laburrean. Lendabiziko alaba izan zuanean, gaizki xamar egon zan, eta geiago aurrik izaterik ez zuala noski izango, aipatu ere egin zuten osagilleak. Alaba au, Balbiñe zan, amaren antzekoa. Onen seme-alabak Andertxo, Libe ta Jone, irurok ziran Usategi-ren oiñordeko, legezkoak eta osoro agirikoak, bederik, eta ondarearen jabe izango zirala uste zutenak.

Denda, beti ere, Martin-ek berak zuzendu oi zuan. Morroe bi zituan menpeko eta iru neskatxa. Azken aldian, orraitio, Balbiñe maiz agertzen zan dendara eta Andertxo ere bai. Alabak, Libe eta Jone, alegia, iñoiz bertara agertzen ba ziran agertu, amak berealakoan biali egiten zituan, bere alabak dendari txoil izateari gutxi iritzita noski.

Bilbotar errotuen artean, beraz, oso ezaguna izan zan Usategi. Ezaupide ugari zuan arek, zabal eta sakon, Nervion ertzeko uritzarrean. Azken-urteetan sortu izan ziran ekonomi-baltsuetan, gutxi edo asko, ba zuan arek ezarririk bere diru-ornia.

Lenengo gerrate nagusian irabazi izan zituanak gorde izan ba litu, gorde! Ez ordea, iñungo gizonek aldiz aurretik gerokoaren berri jakin... Aro artan naizunaizu ibili zan, eta geroago, bere txanponak ezarri zituan bazkuna batzuek, molokot egin zuten, eta Usategi-k, beste askok bezela, berriro jarraitu bear izan zuan bere bidezidor ezagunetik. Aren diruak, beste euskaldun anitzenak iduri, Bilboko diruetxe bik zartegin zutenean, orduan geienbat urrundu ta galdutzat etsiak izan ziran

Alzola kale bazterrean parrastaka agiri zan laguna. Jende dotorea erruz, buruan betiere kapela ta ginbail arroa darabilen oietakoa. Txapeldunak ere ez gutxiago, aspaldiko urte auetan lagunik asko buru-asibiltan dan arren.

Martin Usategi-ren adiskide barrukoak, ortxe, barruan zeuzkaten ainbat eta ainbat oroipen. Irian

edonork zekizkianak batzuek; agiriko gertaerak, gauza jakiñak eta amaika bider gizartean kontatuak. Besteak ordea, gazteak beintzat, iñundik iñora ere ez zekizkitenak. Iraganiko denboretakoak baitziran, ordukoen eta idekoen oroimenean zeudenak, eta alaz ere, ez guztien adimenetan errotuak.

Gizon ongi elduen solasak ala adiarazten zuan.

-Zenbat seme-alaba utzi ditu Martin-ek?

-Auskalo! Dendan alaba egoten da, alaba ezaguna. Onentzat utziko zuala, uste dut, denda; orixe adierazi bait zidan arestian Martin-ek niri.

-Denda bakarrik ezta izango, ordea?

-Jakiña ba! Denda eta zuan gein-geiena onentzat izango da, auxe baita mundu ontan utzi duan Usategi bakarra-ta!

-Eta besteak?

-Besteak, bakoitzak bere amaren abizena daramate. Eta oiek, leen gaztetan poliki aziak izan baitziran, Martiñ-ek utzitako edo emandako diruz, noski, oraingoan... eztute, nik uste e? -ez niri jaramon aundirik egin baiñan...- oraingoan, bidezko antzekoa da, ezer gabe utziko dituana.

-Beraz, ez deitura ta ez ezkur.



-Eta ezagutzen al dituzu zuk? -galdegin zuan irugarren batek.

-Ezagutzen nuan mutikoa zanean. Orain... aztarrena galdu dut. Aren abizena, zera... Insua zala deritzat, nonbait ere, eta geroztik...

-Eta neskak ere ba ziran, ezta?

-Neskak, orra-ara sakabanatu zituala uste dut, aurren laguntzailleentzat diru-mordoxkak zabalduaz.

-Erkabatzat edo jaio ote zanekoa zuan arek, nonbait, susmoa bere barruan. Alarik ere, guztietaz inguraturik bizitzerik ez zitzaion gogoko ta atsegin, agiri denez.

-Ez orixe! Bulko apartak zituan, buruera bereixiak. Mairutarren setako maiz eta sarri zirudian arren, emazteak edota beretzat gura zituan emakumeak urrun eta barreaturik nai izaten zituan. Eta beste teoria ere, ba zuan arek.

-Zein, ordea?

-Beretzat, emakume bakoitza, ama izan baiño leen...

-Milika zan egitan ura, e? Milika eta litxarra.

-Baita. Limuritu gabeko gauzen zalea, nolana ere. Arraiopola!

## II

Oi zuan ordua zala oartu zuanean, Araibar, bere beribilean sartuta, toki jakiñerako bidean zear abiatu zan.

Egun artarako lanak ondo atereak zirala uste zuan, eta ez zan gutxi, izan ere, ura bezela, beti ondatsun-ekintzetan ziarduanarentzat.

Gazte kriket eta txairoa zan, Araibar. Ogetamar urte inguruko gaztea, mutil ederra bera. Begitarte atsegiña. gorputzez lerdan, mintzoz gozo. Gizabide-tankera adiguri ta guztizko zera zedukana. Illeak, urrearen pare zituan, ta luze ta koipatsu, beti distiratsu, malgu ta atxiki. Beatzen zuanean, ontzaren gisan, batekotik bestekora bira eragiten zion buruari arrandiro. Izketan oso leguna zan, geientsu. Eta errikoia eta jendakiña ere bai, nai zuanetan.

Jantziak, girgilleri geiegizko gabeak izaten zituan. Baiñan bere txoiltasun artan zedukan gustoaren agerkunde berezia, txairotasun bedegarra, txukun-min nabaria.

Ez zan, bada, arritzekoa, iragaiten zan tokietan neskatxak, aren begirakunak ikertu-ala, zorabiatu-rik

jartzea. Gaiñera bere aldiko urteetan, *popo* txiker politaren jabe izanik...

Maiteñoaren billa zioan.

Ez zan, noski lendabizikoa neskatxa ura. Izan zituan bai, izateko aintzindari ta aurretikoak. Nolatan bada alako Apolo bat, emakume batekin ase?...

Aren maiteñoa, orduan, aldi artan, Loli zan. Loli Mena. Bizkaiko sartzealdetik eldua, Bilbo iri nagusira. Neskatxa polit xamarra zan Loli. Ogei urte ortxe ortxe izango zituan, eta gau batean Araibar ezagutzeko abagunea izan zuan, zorionez edo zoritxarrez.

Luzea baiño ere, goi-beean bardingoa zan. Arpegia ez luze ez zabal, begietan ba zuan alako xamurtasun-tanta. Taiuz erakoa. gerri inguru zardai, paparpe borobiltxoak. Buruko illea, garikara-garokara, ortxe. Izkeraz, otzana ta isilberaa zirudian.

Orrelakoxea ezagutu zuan Araibar-ek. Onen izena, Manu zan.

Loli, iri eder artara josten ikastera etorri zan. Izebaorde baten etxean zegoan, elduberria baitzan, artean, ostatari bezela zerbait ordainduaz.

Bizi, Errekaldeberrin bizi zan, etxe zaar bateko bizitza txiki ziztrin batean. Josten ikasteko tokia, Kasi-lla inguruko kale batean aurkitu zioten. Barruko jan-

tziak egiten baiño gaiñekoak egiten geiago irabazi zitekeala-ta, ortan jarduteko asmoz eldu zan Loli, eta pozik asi zuan bere lanbide berria, Pagasarriren oiñean zegoan ibarrean.

Adiskideak ere egin zituan, neskatxa gurbillak. Bat, bera zegoan etxekoen ezaguna zan eta beste biak, alkarrekin josten ari ziranak.

Igandea eldu zanean, ez zuan berez jakin nora joan, eta besteak esaten zutenera jarri zan. Kasilla dalakoan bertan gelditu ziran.

Ango musika soiñuan, dantzaketa izan oi da jaiero. Eta dantza-arora ezkerro, gazteak, batez ere ta len-dabizi neskatxak, txoriak garitzara bezela joaten dira. Eta nesken usaiean, jakiña ba, mutil anka luzeak anizaten dute biltzar atsegingarri, eta lanaren ta nekeen aztugarri.

Artean, Bandako mutillak ez ziran lanean asiak, soiñujoten alegia, eta lau neskek, guztiak batean besoz-beso, ara ta ona zebiltzan ibiltzen, paseoan.

Gazte bero ugari agertu zan geroago. Eta musika-riak ere, asi zuten beuren jarduna.

Loli Mena ez zan batere arritu dantzaketa artaz, bere errian ere balseoa erro zabalak emana zalako. Galai batzuek ere eldu zitzazkion eta auekin ere, egin zituan dantzaldi batzuek.

Erromeria bukatu zanean, lendabiziko jaia baitzan arentzat, ordu-orduan itzuli zan etxera, eta lagundu ere, iru lagunak egin zioten etxeko atadiraiño.

Igande geiagotan ere, berdintsu egin zuten. Baiñan laister asko, toki artara zioaztenak langille-langille utsak eta jende menuxa besterik ez zirala-ta, lau neskatxak, ao batez erabaki zuten bururatu zitzaiena.

-Naiz eta zerbait ordaindu, obe dugu, alajaiña, dantza-etxeren batera joan.

Eta esan eta egin.

Urrengoan, ba «Pumanieska»-ra joan ziran aipaturiko lau neskatxak.

Mutil batekin eta bestearekin dantzan egin ondorean, an beste guztien artean dotoreago ta oillarxamarrago zebillen zaldun gaztea eldu zitzaion Loli-ri aldamenara.

-Nirekin egin nai al zenduke dantzatu, soiñuketa au?

-Zergatik ez ba?

-Eskerrik asko.

Orrelaxen izan zuten lendabiziko jardunaren asiera Loli Mena-k eta Araibar zaldunak.

Soiñuketa arek luzaroan iraun zuan, jardun eta isialdi. Baiña neskak ez zuan izan beste beso aldaketarik. Aren neska-adiskideak arrituta zeuden Loli-ren *konkista* artaz, eta etxerako ordua eldu-urren zala, adierazi nai izan zioten.

-Loli: etxeratzeko aldia duzu eta dugu.

-Laister. Auxen azkena.

Iru ta lau aldiz orixe esan zien. Buruenik, neskak etsi zuten eta aldegiteko gertutzen asi ziran.

Gaiñeko soiñekoak artu zituzten gordagutik, eta abiatzeko unean:

-Zein ordutan joan bear duzu etxera, zera, Loli?  
-galdetu zion Manu-k.

-Ba... bederatzietan agindu didate.

-Eta orain... bost gutxiago dira -gaiñeratu zion Araibar-ek. Nik eramango zaitut. Zer derizkiozu? Esan egiezu zure adiskitxeko urduri oiei.

-Neskak: adi ezazute. Onek eramango... gaituala etxeraiño.

-Ez, esker milla. Gu emen urbiltxo bizi gera ta...  
Agur, bada, Loli. Zorion... eta biar arte!

-Tira ba, nai duzuten bezela. Biar arte...!

Andik aldegin zutenean, neskatzak bai alkar zirikatu ere:

-Loli-k bai egin digula gaur arratsean, egundoko biotz-lapurreta! Erri koxkor batetik oneratu, eta eman orri!... beribilla duan batek eramango omen du etxeraiño, panpoxa panpoxa!

Barre gazigozo egiñaz banandu ziran iriko iru alabak. Urrengo jaiean, nork jakin ote zezakean alako eskola maltzurrik, beste zaldun galanten baten kolkoan kabia egiteko?

Lillura omen itxaropen-zitzadaz, lotara bidean zioazten iru neskatzak alai aiek.

Utzi zioten bai dantza-egiteari Loli-k eta Araibar-ek ere. Naikoa egin zuten eta ez batek ez besteak ez zuten orduan beintzat, geiagoren bear-izanik.

-Onezkero ordua jota egongo da, ezta?

-Noiz, esan duzu ba, joan bear duzula, Loli?

-Bederatzieta.

-Orren goiz, Loli?

-Ezta goiz, urrun bizi naiz eta.

-Nun, bada?

-Errekaldeberrin.

Itz ori entzuteaz batera, irri emea piztu zan Araibaren begietan. Loli, Bilbon, berria zan. Eta gazte asiberria ere bai, agian.

-Auxen da nire gustoko diranetako zozo txuria. Iñork ukitu gabea.

Eta bera ere, noski, malizirik gabeko zalduntxo maitesamurberaa bezala agertuko zitzaion.

-Bai, Loli. Zuzen-pidean zaude. Ezta ain goiz. Alaz ere, nire automobillean saltu batean joko dugu ara. Ezer edan nai al duzu joan baiño leen? Ez al zera egarri?

-Ez ba, ez naiz egarri.

Kalera irten ziranean, urrats batzuek egin zituzten alkarrekin. Neskatzak, berriro ere orduaria ikusi nai izan zuan.

-Ez dago egon ere argi aundirik emen eta... -esan zion zaldunari, Loli neska pozez gaiñezkatuak.

-Bai, naikoa illunak ditugu emengo kale batzuek. Zuen auzotegi artan ere, eztuzu argi-kontu ortan aukera geiegirik izango.

-Egia esan, beribilean obeto joan liteke, oiñez baiño.



-Ba, gaur beintzat al dut eta, beribillean eramango zaitut.

-Ez al da zurea, *popo* ori? -galdegin zion neskek, asko amestu nairik eta larregizko lilluraz betetzen asi ote zaneko bildur-zimikoz.

Manu-ren buruan zear, oiñeztua bezela iragan ziran gogoeta bitarikoak. Zer erantzungo zion, baietz ala ezetz? Baietz adiarazi ezkerro, bearbada, neskatxari, iñoiz entzundako zaldun likiszaleen konturen bat gogoratzea izan zitekean eta... artean etzion bear aintzatean neska ari zera artu, izakera antzeman.

-Ez ba. Nire nirea, eztut osoro. Baiñan maiz izaten dut aukera, gaur bezela, nik erabilteko.

Neskatxari atsegin izan zitzaion Manuren esanaldi apal ta zintzo-itxurazkoa.

-Orduan, gaur, iñork galerazi gabe noake etxeraiño beribillean. Bai ederto!

-Galerazi... -jardetsi zion amarrukiro orduan muti-llak-; galerazi, batek bakarrik egin lezakizuke.

-Nork? -ziotsan arriturik, ta erdi tamalez, Loli-k.

-Zuk zerorrek...! -esanaz, parrari eman zion Manu-k. Eta orduan, neskatxak ere kaleak beteko parre algara ozena jaurtiki zuan.

Idiki zuan Manu-k, sakeletik giltz-mordoa atereaz, kotxearen ateko sarraillea. Isiotu zuan argi motel bat.

-Ez, zu ez emendik. Zu, beste ate ortatik sartuko zera, Loli. Emen neuk joan bear dudalako, gurpil au bear bezela erabiliaz, zuzen abiatu gaitezen. Aizu, ordea: ba al dakizu zuk beribilla zertzen?

-Ez nik; ez dakit.

-Eta ez al duzu iñoiz pentsatu ere egin orrelakorik?

-Egia esan ba... ez, ez dut pentsatu.

-Bestelako neskatxa atzeratua!

Neskak, irriparra egin zion ezertxore erantzun gabe, baiñan sorbaldak jasoteko ziñu egiñaz.

-Nire erritxoan onelakorik gutxi da-ta! -jalki zuan geroxeago.

-Izena esan didazu leen; deitura ez dut, oster, oraindaiño ikasi.

-Nire abizena Mena duzu.

-Loli Mena... Politik dituzu izen-abizenak. Zerori ere, orrelakoxea zera-ta!

Emakumeak, Ebaren alaba jator bezela, arropuzte anpaturik jaso zuan atsegiñaren aundiz, gizon gaztearen loisintxa ori.

Asi zan beribilla ibilten eta kale batzuek zear aurrerantz joan zan.

-Nire orduaria geratu egin dalata nago -ziotsan Manu-k-. Nai al duzu zuk zurea ikusi?

Neskatxak, oso-osoan siñistuta, jaso zuan apurtxo bat eskua eta soiñekoaren beso-muturra. Orduan, Manu-k, bigunkiro oratu zion ezkerreko eskubiturretik, eta:

-Jakin ezazu gaur poz aundi-aundia izan dudala zu ezagutu zaitudalako. Noiz berriro alkar ikusi al izango dugu? Ni, astean, kanpoan egongo naiz; igandean, ordea...

Orrelakoxea zan Araibar-en eskola.

Artu-emanetan sakon sartu gabe, betiere bitarteko egunetako askatasuna eskatzen zekiana zan, gauzak bere kabuz ta bere aldera zertuaz. Itaunea, zintzilik bezela utzi zion, ea neskatxaren barrutik nolako sentiera irtetzen zan.

-Igandean... eta ementxe, gaurko lekuan bertan esan nai nuan, -geitu zuan Loli-k.

-Gaurko tokian? Bai ba. Ala ere, bai luzea izango zaidala egun-sorta au... zure irudia zertu gabe!

-Niri, ordea, labur egongo zaizkit egunak eta lanak, igandiaz pentsatzen.

-Igandea dalako, ala... norekin?

-Zurekin -iardetsi zion, erdi lotsati, neska xalo arek.

-Nik ere bai.

Eta ez bat eta ez bi, muin egin zion kopetan muti-llak, txito birloratu ari. Isilik eta uzkur antzean jarri zan neskatxa.

-Baiñan, berandu izango da onezkero, eta nun gagoz egon?

-Ementxe. Bide illun madarikatu au igaro eta laister gera Errekalden.

Egunero berratuaz eta aundituaz dioan Errekalde auzotegi zabal ori eta iriko beste zati nagusiak alkartuko zituan zubi luze, mardo ta jaso egiten ari ziran inguru artan, obra eskerga ta gogorra. Andik igaro bidea zuten eta duten trenbideak, zubipe geldituko ziran aurrerantzean, oztopo, arrisku ta trabarik gabe. Santander-erako, Balmasedarako, Santurtzerako eta La Roblarako ta Oillargan alderakoa ere bai.

Alabaiñan, artean, zearbide ta zirkillu-txior aietan ibilli bearra izan zuten bai notiñak eta bai beribillak ere, eta benetan toki illun eta bildur-ekarkor ziran lanegite aldiko bazter ezkutu aiek.

Gure neska-mutillak, beuren maitakuntza asierako itz erdi-merdiak alkarri kontaka ari zirala, bapatean, geldi-arazi zieten, kotxea, gizonaeko batzuek. Gizon bi, besoak zabal, zut zutik, gelditu ziran, bide estu eta medar aren erdi-erdian, eta gurdia lotu zanean, beste gizon bi urbildu zitzaizkien alde banatatik.

-Aizu, adiskide! -oiu egin zuan aietariko batek, Manu-ren aldekoak, leiotxo idikiaraziaz. Guk ez dugu, ikus dezakezutenez, pake guraria besterik.

-Pakea! Ederki ba. Nik ere bai -erantzun zion Manu-k-. Baiñan, zer nai duzute, beraz?

-Gauza bat bakarra une ontan.

-Eta, jakin liteke zer dan?

-Dirua, adiskide, dirua.

-Lanik ez al duzute aurkitu? -axarikiro ta biguin, Manu-k.

-Lanean ez dugu diru larregirik jasotzen. Baiñan, esan bezela, eztugu guk emen berriketa luze ta solas gozorik nai. Ekatzu bada dirua eta...

-Zenbat zerate?

-Lau emen bertan, eta gureak, besteak, an txabola zikin aietan.

Karterara eraman zuan eskua Manu-k eta ura atereaz, zabaltzen asi zan, barrutik zerbait artzeko asmoz.

-Ez lanik egin alperrik, jauna; ekatzu osorik eta... isilik! -egin zion zema ta meatxu, lauretarik buruzagi zirudianak.

-Arren, paper ta agiri oiek niri itzultzea nai nuke bada, zuentzat utsaren pare baitdira.

-A, ori bai! -jardetsi zion musubeltz arek. Guk ez dugu bear iñoren paperik ez agiririk. Dirua bai, dirua, adiskide, edonorena da-ta. Duenarena, daukanarena, ez ote?

-Eiki, jaunak, eiki.

Eta lapur-nagusiak ere, itzari eutsirik, karteran zeuden diru-paperak poliki ebatsi ondorean, polikiro itzuli zion ziskua Manu-ri, agiriak barruan zituala.

-Gizonak! -orduan lasaiki, Manu-k. Gauza bat esan bearrean naukazute. Ez al didazute, nunbait ere, berriz onerakoan eskatuko dirurik, dakizutenez sosik gabe utzi nauzute-ta.

-Zaude lasai, iritar ori. Badakigu matrikulen zenbakiak ezagutzen. Eta gaiñera gu ez gera bete eziñeko lapur zekenak, ez. Orain, ordea, aditu ongi: kontuz

ñori jakin-arazi, guk emen izan dugun *adiskide-biltzar* au. Ekin aurrera!

Ekin zion, bai, beribillak aurrera eta Errakaldeberriko eliza-aurrean zear abiada gorrian joan zan, geroxeago bere burrundara makalduaz.

-Auxen da bildurra! Ikaraka nago! -esan zuan neskatxak, izu-lauorri ta dardaganean-. Ene!!

Eta ori aitortu bitartean, besotik eldu zion gogor ta estu Manu-ri.

-Lau-darduan al zagoz, Lolitxo?

Beribilla zearo geldiarazi zuan, eta neskaren burua igurtziaz eta aren arpegia bere bular aldera eramanaz, Manu-k, ausarkiro, musu egin zion ezpaiñetan.

-Bildurra uxatzeko zerik egokiena -esanaz neskatxari. Au, erdi zorabiatua zegoan gau artako jazoerak egin zioten zirkiñaldi bere modukoaz. Mutillak oartu zuan; laister oartu ere.

-Nun da zure etxea?

-Zerbait goraxeago. Baiñan, utzi nazazu ementxe. Ez dut nai...

-Zer ez duzu nai, Loli?

-Ez dut nai niregatik beste lapur batzuek gaizki artu zaitzaten.

-Ez, Loli, ez bildur izan. Arteak artu egizuz. Ni, beste bide ortaz itzuliko naiz, Torre Urizar-etik. Agur egiteko... musutxu bat!

-Leen egin didazu!

-Zuk ez ordea, niri!...

Eta emakumetxoa, otxan, Manu-ren esanera jarri zan.

Loli, ezin sinisturik zegoan, gertaturiko zer guztia. Paris zirudian egitan Bilbok. Edota, pelikuletako gauzak... egia ziruditen. Dantzaldian gazte galai kriket bat agertu; *popoan* eraman; maite-izketa xamurrak entzun; lapurrak bidean illunetan isil-isilik irten eta dirua ostu maiteñoari; eta geroago, maiteberri ark, goxo-goxo, musu beroaz igurtzi... Eta urrengo igandeartereko amets lillura, eztizko laiñoaz eundua, ezotua. Mundu bat ezerezetik sorgin-bizitzaz sortua.

Manu-k, etxera zioala ezker aldeko aldapan gora, bere artean bai esan ere:

-Kristau oiek, nik aldean dudan diru guztia karteran eramaten dudalakoan zeuden. Ederki eman ere! Ez dute, beintzat, kendu didaten diru ortaz oillasko askorik jango!



Irala-barritik zear irirantz jatsi zanean, laister arin egin zituan Komisaritegirako bideak. Ez zioten, egia esan, arentzat kaltegarri astun izan zitekean diru-lapurretarik egin. Baiñan, iñork bortxaz ta zemaiez kentzeak ez zion kilikili atsegingarririk sortu biozpean, beste edonori ainbatean.

Gaiñera, aurrerantzerako, oker zebiltzanen makur-zidorrak eta joera zitalak eragozteari, bidezko ta onuragarri zeritzon.

-Zer nai duzu?

-Gertatu berri zaidana azaldu bearra dizut, Komisari jauna.

-Jalki zazu bada. Baiñan, lendabizi, zure izena eta zerak idatzi bear ditut einen.

Eta betaurreko lodi batzuek sudurgaiñean ezarri-rik, artu zuan lumatzar bat ertzaiñen mailla jasoagoa zuan arek, eta axotontzian busti ere bai.

-Izen abizenak?

-Manu I. Araibar.

-Bizibidea zer duzu?

-Ekintzagizona naiz.

Urteak, nun bizi eta beste zeetasunak eskatu ondorean, agertu zion, Manu-k, gau artako lapurreta legunaren berri.

-Ezagutuko al zenituke ebasleak?

-Ezta zer erraza lapurrek ezagutzea, toki illunbezu artan katurik ere ezin diteke nabari-ta.

-Ba al duzu lekukorik iñor?

-Bai, andereño bat, nire adiskide berri-berri bat bera.

-Izena?

-Loli Mena.

Loli Mena-k, ordea, ez zuan izan Manu-k aiña adore ta baretasun, lapurren bildurra joan ostean.

Une artazko bildurra, kendurik zedukan. Baiñan beste gorabeera batzuekin naastua zebilkion barrua. Etxekoak, ordurako, afaria jana zuten. Eta izebaordeak atera zion baratxuri-zukua Loli-ri ere.

-Ez al zera gose, Loli? Onezkero ba da ba, izan, gazte bat gosetuteko sasoia. Begira nagokizu, eta ez duzu, oraindio, koillarakada bat edo beste baiño eraman aora.

-Laister jango dut guztia ere. Zera, bero xamarra dago ta...

-Beroa? Ba da ordu laurden edo apika geiago ere, atera dizudala-ta. Zuri, zerbait jazotzen zaizu, eta ez duzu esan nai.

Izebaorde arek ere, ba zuan noski, andreei adiñak eta oarmenak ematen dien zera. Ez zuan asmorik ziur asko Loli-k, are gutxiago gogorik, gau artan gertatu zitzazkionak kontatzeko. Zertan zuan zertan iñork jakin, lendabiziko *konkista* aren berri? Eta lendabiziko gertaera isildu ezkerro, nolatan egoki azaldu ba, bigarren aldikoa?

Alaz ere, izebaordea batetik eta bestetik aztarnak artu nairik zebillela oarturik, zelateko erasoaldi artatik onik irtengo zaneke segurantziarik ez zuan neskatxak.

-Andra sasoikoak sorgiñak ditun! -ziotsan bere buruari-. Zerbait gertatu danekoxe, ba dabiltz or bea, emen usai, an azter. Eztakit, eztakit zer egin... Biak azaldu, ala... bigarrena aipatu soil-soillik, eta ori ere urruntxotik ikusia ta entzuna bezela.

Orixe egin zuan. Eta ziria poliki sartu. Orrelan, azaldua zegoan neskaren izua eta kezka ta arbintasuna, eta jateko gogorik eza. Izan ere, nori ez lioke bil-durra barruratuko, gau beltzean ager diteken lapur-talde musu-asarreak?

Bigaramonean, jostelekuan, Loli-ren garaitza zera-bilten aotan, ango neska gazteak.

-Eztago emen bestetik! -zion ao larri batek-. Erbestetik etorri eta aise-aise, mutillik apaiñenak eta kriketenak barruna... Gu, bertokuok, ao bete ezurrez utzirik.

-Nik ez nuan ezer apartekorik egin.

-Ez, egin ez! Ongi dakizkigu zerzeladak.

-Eta, noraiño eraman zinduan ark?

-Etxeraiño bai gero? -beste batek, aura zirikatu naiean.

-Etxeraiño, edo beintzat, nik naikoa urbil zala esan nion tokiraiño bai. Errekaldeberriko eliza baiño pixka bat aruntzago jatsi nintzan.

-Mutil dotorea omen zan, neska, ta aberatsa gaiñera! -ziotsan beste batek.

-Itxurak ez dira izanak, enetxuok! -jardetsi zion usai txarra artzen zalea zan joskille zaartxoago batek.

-Gizabide onekoa eta zera danik ez duzu beiñipein ukatuko. Eta galanta, berriz, ezta, Loli?

-Bai, mutil ederra da oso. Nik ez dakit emengo guztien berri, baiña beste orrelako bat ez dut nik oraindaiño ikusi Bilbo osoan.

-Aiba!... Ta, maitemindua dagoala dagoneko, esango nuke. Zer aitortu zizun bada, edota, egin zizun, orrelako ao goxoa uzteko, ark?

-Gutxi al da ba lendabizikoz ikusi eta berealakoan etxeraiño *popoan* emamatea?

-Ez zinduan eramango noski, mutilla izan ba ziña. Ziur egon.

-Zuk zer dakizu ba orrelakorik ezer? Au bai ezti-metxa!

-Ni emen bizi naiz, gero! ta aspaldi ala ere. Ez naiz erritik elduberri.

-Benetan aspaldi! Orrelaxen egin zera mutxurdin putxurdin jatorra ere.

-Eskuan ditudan guraiza auekin ia mingain neurri-gabeko ori ebakitzen dizudan, gero! Ummmm!...

-Neurria bakoitzak lendabizi izango ba gendu, ez genduke orrelako naspillik sortzeko biderik emango.

-Ergela, ez bestena! Ezta sekulan mutil jaseko bat aldameneko maiteñotzat izan ezpa gendu ere. Egundo!

-Orixe da emengo iñork ez dakiguna, arean.

-Ez jakin? Zer jakin bear duzute zuek, oraindio sudurretako dindirriak garbitzen ere ez jakin-eta...

Egoki agertu zan jostelekuko ugazabandre laka-rra, gaiñerontzean buztan luzea izango zukean, lantokian ernatu zuten zezio arek.

-Tira, tira! Mingaiñak baratxeago, eta jostorrazak dantzariago bear ditugu. Ez al duzute astelen au egiazko bigaramontzat artu zeuek? Eta lana, ugari dugu, aste bitartean jada ere bada-ta.

-Jaia? -esan zuten guztiak ao batez, eta pozik, jakiña.

-Jaia, ez ain zuzen; baiñan nik dut erbestera bea-rra, eta zuek, zeuen kontura ez dakit noraiño elduko ziñatekean, neu ementxen akuillu zorrotzez gertu egon ezik.

Esanaldi sutsu ori atertut zuean, berriro aldegin zuan modista irakasleme latzak.

Orduan, azken-epaitzat, entzun-arazi zuan mindu-tako neskazaarrak:

-Atzoko kontu guzti oiek, utzi ditzagun ezpailan, eta obeki izango da.

Ez zekizkian asko arek, Loli-k kontatu ez zituan zerak.

Urrengo ostiralean, modista azkar arek, gaztigatu zien bezela, erbestera joatea izan zuan, eta joskillekumak zertxobait goizago irten ziran beuren lantegitik.

Kasilla aldetik Basurtorantz joan ziran, neskak, eta zerbait ibillita gero, banandu ziran eta bakoitzaren etxeetarantz abiatu.

Loli, Alzola kalean zear zioan eta bazkal-ostean dendan erositako eun polita zeraman eskuan, borobildua, paketetxo batean, beretzat lenbizi bere eskuz egin gogo zuan soiñekoarentzako tela merke bat.

Ontan, batbatez eta ustekabean, albora begiraka zioan nunbait eta, norbaitekin topo egin zuan eta neskak eskuan zeraman pardeltxoak, lurrean aurkitu zuan oe zabala, etzantegi erosoak. Bestea, mutil gaztea, egunkaria edo irakurtzen ari zan, alkar ikusi ez, eta orra...

-Barka ezadazu, andereño. Ez jakiñean izan da-ta. Eta arrapaladan jaso zion lurretik paketea eta eskura eman neskatxari.

-Ni ere saietsera bea nentorren eta...

-Apurtzekorik ezer al zenduan lotura ortan?

-Ez ba, tela bat da soillik.

-Eta, nolako tela? Nik ere ulertzen baitut ortan. Agian, zikindu edo egin izango zan. Nai al duzu ikusi dezagun?

Neskak parra egiten zion, eta erantzunik ez. Buruaz zirkin egiñaz, ezetz edo, adirazi nai zion.

-Nora zoaz orain? Jakin ote nezake? -galdegin zion Andertxo-k, aura baitzan esandako gazte irakurlea.

-Orain? Etxera.

-Etxera onen goiz? Zera, zazpi ta erdiak inguru dira-ta?

Eta mutillak, artaz pena arturik bezela, neskatxaren bidelagun egiteko ziztada nabari izan zuan bere barruan.

-Auxen ere ba da ba, lore polita! -zion berekiko-. Eta nola utziko dut bakarrik bide bakarti oietan?

Eta ez zuan bakarrik utziko, ziur asko, une artan kalean bertan barna, beste pinpilinpauxa arin bat agertu izan ezpalitz. Aura, Karmele zan, eta ba zekian zer nola atondu gorabeerak, bere adiskidetro Marga lotsatiari gazte apain bat eskuetatik egarazteko.

-Andertxo! Ander! -dei egin zion aots zoli ta biguiñez Karmele-k kaleko beste bazterretik-. Atoz onera unetro batean!...



Eta maiz oi danez, prakadunak gonadunaren ziztu-otsa bertatik jaso zuan.

-Andertxo! Ori kastigatzen ari al zifian? Ez al daki-zu zuri begira emen nor daukazun aspaldi? Biotzgabea zera, egia diotsut!

-Karmele! Azalduko dizut oraingo gertaera onek izan duan asiera.

-Aski dugu azalpenik. Goazen, maite.

Eta Karmele-k bere besoa eskeifiaz, an joan zan Ander onen aldamenean, bizkitartean urrutiratzen zioan Loli-ri soaldi lasai bat egiteko betarik gabe.



Larunbateko lanak egin ondorean (illunduta zegoen zearo ordurako) ba zioan etxerabidean zear Loli Mena.

Alzola kalean barna iragaitea otu zitzaion, an ere, ezagupide berri-berria bai zedukan, eta badaezpada... Ez zuan ez aurkitu, bezperako mutil gazte eder aura. Etzekian asko neskatzak, mutil arek ordu artan izango zuan lan gozoaren izaterik. Izan ere, anartean, Andertxo-k, larunbatetan zazpikaleetako dendak gainean izan oi duten zirriparra ta urduritasuna beregan zuan, emakumerik geienak bat etortzen baitira astearen azkenengo egun ortan guztiak dendarik denda, erosketa izugarri ta zoragarriak egitekotan.

Mostradorean dagoan dirukutzak txilin jotzen asteko gogoia agertzen duanean, dendari-buruak izaten duan gorputz osoko dardare dantzaria, mozkorantzekoa izan oi da-ta, Andertxo-k ere, su ta garzitan bere kemen eta kirioak, aitonak utziriko saltoki artan.

Biotzak orduan, oporraldi izan bear, interesak bait zizkion barruko zerak guztiak menperatzen eta lotutzen.

Loli-k, aurrera ekin zion bere bideari. Kolkoan, ordea, alako mingostasun-kerrua nabaritu izan zuan. Baiñan tupustez uxatu nai izan zuan zetorkion burue-  
ra.

-Asmatu ere, nola egin dut nik, ordea? -ziotsan bere barruari-. Nire begira egongo al dira Bilboko zal-duntxoak? Ergela! Baserritar bat besterik ez naiz eta. Arrazoirik etzaio falta gure jostelekuko «mutxurdiña» deritzanari. Nire begira egongo dira emengo mutiko aberatsak!...

Alarik ere, txairoak, aziera onekoak eta eskuarte-dunak izatea, atsegiñago zan, dudarik gabe. Bestela-ko aldea zeukaten bere erritxoko ta inguruetakoko auzo-etan ezagutu zituan mutil traketz, oles eta esgotak. Aien ezpaiñetatik gauza biguin eta samurrik entzun neskaxeri buruz? Tokitan!! Izan ere, ezta ez izaki astoaron aorako egiña.

Eta begi aurrera, urrengo eguna zetorkion.

Igandea; Pumanieska; eta geroago, Manu, maitari berria, lenbiziko xalanta...!

Lapurreta egin zieten tokira eltzen zan bakoitzean, egunero izaten zuan kolkoan zarrada. Ebasle aiek gaizkiñak ere izan ba lira!... Eta tiroz artu izan ba lituzte? Egunkari guztietan agertu izango ziran bere irudia eta Manurena, bizirik edo illik.

-Ai, ez, ez! -zioan berealaxe-; il ez. Oraindaiño ez il. Gazte naiz, eta bizitza bat eta gaztezero bat baizik ez dugu.

Gero, berriro bildurrak gainditzen zuan, eta bere errian zer esango zutekeen, pentsatzen asten zan.

-Loli, nola baiña mutil batekin, biak bakar ta txoil, beribil batean sartuta, erriko kanpoaldetik, bide ulun eta medarretatik? Ezin zitekean orrelakerik siñistu ere egin. Edota, auzoko errementariaren emazte guztiazekianak esan oi zuanez: «Josten ikastera joan zala Loli edo Urlia? Ez ote dabil ori urratuak egiten, konponketan ari gabe?... Ai, neska jakiñezak!!».

Onelakoak gogora etortzen zitzazkionean, burura eramaten zituan bere esku txuriak, eta norbaitzuekin bidean topezegitean, burutik arin asko jatsi ere bai, buruko miñez edo zoratuta zegoala zabaldu ez zezaten.

-Eta tiro bana eman izan ba ligute ere, zer ba? Alako alkarrenganako naiak baturik giñoazan, alkarri begira, alkarri... Niregatik sartu zan, dana dala, arrisku artan, eta niregartik izan izango zukean kalte ori Manu-k.

Aste osoan, ez zekian, ordea, aren berririk. Igan-dean, berriro erriratzean, ez ote zioten ezer egin?

Duda ortaz kutsutua, loak artu zuan neska samurra, igande bezperako gabaz.

Igande goizeko orduak eta alaber arratsaldekoak, idi nagiak bezenbat etzuten aurrerarik egiten. Luze bai luzeak izan ziran Loli-rentzat.

Eta «Pumanieska» dantza-etxean zegoanetik igesi zioazten orduak berriz, laburrak eta ariñak! Eta artean, Manu-rik agertzen ez. Latzikara ematen zion erloiuaren iges egin bearrak. Gaiztoa zan izan ere orduaria!

Gazteak, dantza dantzari ari ziran, beste egunetan bezela. Neska ta mutil, ezkongak, ta ezkondu bakanak ere bai noski. Nola ba dantzan egin gabe egon, emazteak gogorik ez dualako edo, ainbeste lili atsegingarri torika zeuden artean?

Jotaldi batzuetan dantzan egin zuan Loli-k ere, itxaropenaren ilintia izeturik zeukala, artean. Beste batzuetan, an bazterrean egoten zan, nekatua bai legoan. Berriketan asi eta egin nai, eta ezin ezertaz axolapetu.

Ormako orduari begira eta atera begira. Noizean bein areto artatik irten ere bai, eta malladi aldean eta, ikusmiran ibilli. Alperrik. Ez zegoan oraindio mutil arroaren aztarrenik. Aztu egin ote zitzaion? Bai zera! Maitetasunaren kaltezko ogen garratza zitekean. Kanpoan? Agian, orixe bai ziurrago. Eta, bear bada, «Arizona»-n edota nik dakit ba nun, beste neskatxa apaiñagoren batekin, ondasuntsuagoren batekin...?

Beste pentsamenturik ez zebillen Loli-gan. Eta lagunak (auzokoaren samiña, ene atsegiña) ziri ta ziri zebilzkion.

-Nun sartu ote zaizu zure printze urrezko illeduna?

-Bidea aztu ote zaio?

-Zure irudimenak atsedeenik ez al du izan, iragan zortzi egunetan guri alako lillurak barneratzeko?

Loli naigabetuak egonarri ta eroapenez jasaiten zituan irain eta arinkerizko ele oiek.

-Ez al dut nik naikoa zerik, zuek niri burutik eragin gabe? Zoazte zerera!

Eta berriro dantzari ekiten zioten; Loli-rekin biñako egiten zuanak ezpait zeukan ez esatea besterik, mutilen aukera gabe zegozten, ura zala ta etzala.

-Zure zera eldu ez dalako, emen egon bear dugu irutatik bein, mutil alaiekin dantzan egin gabe. alargu-nak bai giñan? A zer nolako...!

-Ondo al derizkiozu, Loli? Urrengorako beste zer bat asmotan artu bear dugu. Au ezta, egitan, igande baterako *plana*!

-Ez, ez, eta ez! Ez derizkiot ongi onela mintzatzeari. Ez dakit zer diodan ere! -esanaz, erdi negarrez, begiak ezoz disdis, beeko ezpaiñari agiñak ezarri zizkion Loli-k, amurruz-. Zuek ere, ba zerate ba, aialdeko izateko pertsona egokiak, alazaiña, niri pare bat orduan lagun egiteko damuz zaudetenok. Ara, garbi entzun: nai baldin ba duzute, zoazte; utzi nazazute bakarrik, bertanbeera. Baiña jakin ezazute, egun eta eguzki, etzeratela zintzoak, betiere durdurika eta zalantzaz bizi izango zeraten aurrak baizik.

Izutu-xamar egin zituan esanaldi orrekin bere neska-lagunak, eta oiek parkeske antzean egon ziran geroztik. Eta andik laisterrera, zaldun lerdena agertu zan sarrerako ate zabalean.

-Loli, ikusten? Orixe ez al da? -adiarazi zion batek.

-Baita; berbera da. Berritsu alenok -ziotsaten geroxe pozez parrastan-; ez dakit nik zer egingo nizuteken ere...

Esku-gaiñez legortu zituan begietan irten nairik zeduzkan malko lodiak, eta ispillutxoren baten billa asi zan esku-karteratxoan.

Anartean, Manu, batera ta bestera bea ta bea ari zan. Neskatzak, oiñak eta gorputza eta burua zutikago jarriaz, ikusmenarekin, begiekin dei egin nai zion.

-Loli, ezin izan dut oraintxe arte onera eldu. Onik al zagoz?

Ez zekian neskatzak egoera ta asperraldi luze mingotsaz mintzatu, ala pozez bere burua agertu.

-Aspaldi... leentxeago beintzat.

-Eta...?

-Kezkatzen asia nengoan. Zertarako esango dizut gezurrik?

-Jakin ezazu, berankor izaten naizela geinetan... Orra ba, urrengorako.

Ondo zekian Manu-k ze ordu zan, eta Loli-k etxeratzeko ordua gaiñean zuana. Ez zuan izan ezin etorririk. Axari-axariki, bere gizarte-jokabideak oi zituan Araibar zaldunak. Lendabiziko egunean ez zuan neskatzak barru-barru ezagutu; eta erritxoetako emaku-



metxoak ere, batzuek nolako *prendak* izan oi diran, ba zekian ark jakin.

Orregatik ba, bere eskolako gaia zuan, emakumeari, geienetan, astapenetik nekea ematea, jasanbearra, eramanzale biurtzea, jasangor itzultzea; orrelan gero, uztarriaz oituta, asaldatzerik eta goragoraka asterik izan ez zezan.

Etzan zozoa, ez, Araibar zalduna; ernea baizik. Atsegin izaten zitzaion, bertzalde, maitadoiñu ta intziri samurrak, neskatxaren aotik minberati emanak, patxadaz entzutea.

Dantzaldi bat bakarra egin zuten.

-Etxera joan beariko duzu onezkero, Loli? Goazen bada. Urrengoan izango dugu nai aña dantzaketa.

Manu-k sumatu zion negar egin zuana. Ez zion ordea, aipatu ere egin. Isilik gorde zuan, kolkoan, bere oarkizun ori.

Kalera ziranean, neskatxak beatu zuan ingurura, aren beribilla ezagutu nairik. Bost edo sei an zeuden kale-albeniaren ertzean.

-Zein da zurea?

-Adiarazi nizon nire-nirea ez zala. Gaur ezin izan dut ekarri. Ni baiño nagusiago danak eraman du. Oñez ez al duzu joan nai?

Neskak, baietz erantzun zion buruaz. Bearko! Pozik zeukan barrua, eta leentxoago izandako ito bearrereko larritasun aura, ezin esan bestean arindu ta ibitu zitzaion. Eta neska-lagunen arantzazko itz aiek! Eta orduari piperraren zoratu-erazi bearra!

Alaz ere, bere mutil potoloa, iraganiko igandean bezin eztitsu ez zegoala berarekin, iruditu zitzaion. Mingaiñera ere irristatu zitzaion Loli-ri zerbait esateko zera, baiñan une egokian balazta emanaz, ito zuan aitor-asmu ori, ausarkeria ta oieskeria besterik ez zala izango-ta. Manu, eize-zakur azkarra zan. Arduratan egon zan aste osoan, lendabiziko alkarrekin egoteaz geiegi linburtu ote zan-ta.

Beti alkarren ondorik, kaleak iragan zituzten, biak aske ta jarei. Arako lapurren tokira ziranean, Manu-k, besotik sendoro oratu zion eta legunkeri geiegi gabe, esan ere bai neskatxari:

-Ementxen, arriskuan geundela alkar maitatzen asiak gerala oroitzen al zera?

Eta neskatzak berriro lilluraz ta sentimentuz, begiak uxter zituala, gazteari so-egin zion, ezer erantzun gabe.

Manu, poztu zan, aren zintzotasuna oartuaz.

Olaxe, mutillak besotik elduta joan ziran bidealdi luzexkoan. Neskatzak, bere barruko poza irauliaz, asteko kontuak-eta esaten zizkion. Manu-k, egia esan, ez zuan arreta aundirik deusezkeri aietaz. Ba zekian Manu-k bien artean zegoan alde nabaria, gorabera ezagun-ezaguna. Baiñan, ordurartean bezela, kolko-pean zeraman irriksak aurrerapidea ematen zion, neska bakun eta malizi aundi gabeko artaz pozaldi ta aragi-asetzeren batzuk izatekotan. Asko zituan ezagunak, emakumeen artean; guztiak ez osasunez gaiñez-kakoak. Batzuekandik artu ere izan zuan gorputzean zerbait gaitzeri.

Errekaldeberriko bolatokiaren ondoan dagoan arbolateri inguruan gelditu ziran neska-mutillak. Bazter illunbezu artan aurrez aurre jarri ziran, ez asarre, ori ez.

-Loli, zergatik negar egin duzu?

-Noiz negar nik?

-Gezurak oiñak labur ditu, edota luzeegi.

-Bai... egin dut.

-Eta zer dala-ta?

-Zuregatik. Ez ditut oraindaiño gizonak ongi eza-  
gutzen.

-Nik ere ez zu. Ez ditugu guk emakumeak beingo-  
an ikasiko.

-Zer dute ba emakumeak?

-Zuek zer? Milla katramilla.

-Eta besterik ezer ez?

-Bai. Auxen, gizonen nekeak arintzeko.

Ta ori esanaz neskatzari irugarren musu luzea  
ezarri zion ezpain gazte bero aietan.

-Aizu, nire errian ez dute orren errez uzten, musu-  
rik egiten.

-Baserrietan, azaletiko itxurak aundiak eta gurbi-  
llak izaten dira, agirizko lotsarren. Baiñan an ere,  
bakartadeak, zabal, luze ta illunak... eta orduan iñor  
lekuko gabe.

-Nik ez nekian orrelako zerik.

-Utzi itzazu apaizen kontu oiek eta...

-Apaizenak bakarrik al dira, ba?

Ez zion Manu-k erantzun, itzez beintzat. Ez zuan  
orduan ortarako gogorik. Ezekieran zeuzkan bere zen-

tzuak. Loli ere isildu zan. Bestearen begietan, toki illunbezu artan ere, dirdari bakanak sentitu zituan, eta gizon maiteminduaren egoera zala senak emanik, pozik zegoan, atseginez burutik beatzetaraiño.

-Maite izango nauzun itza ematen al didazu, Loli?

-Bai, nik maite zaitut, zuk ere maite nauzula uste dut eta...

Ostoartean aizeak zinkurin egin zuan, neskatxare-naz bat etorririk.

\* \* \*

Jaieguna berriro eldu zanean, goizean, egoaizea putz eta putz jaiki zan. Neguko egun otzen artean, aize onek gazte ta zaarren gorputzak puxka bat zerbeltzen ditu, zuzperten ditu, ardauren izpirituak egiten dituan antzera.

Oartu zuan Manu-k eguraldiaren tankera, eta pentsaturikoa betebidean jartzea erabaki zuan.

-Zertarako illuntzerarte itxaron, ene usakume orri? -zion berekautan-. Asko itxarotea da. Ark geiegi jakin baiño leen, egingo ditugunak egin eta...

Eguberdi inguruan jaiki zan. Meza, Erroman entzun zuan, ardigaldu askok duten usarioz, eta nes-

katxari nundik-andik mezua igorriko, Indautxu alde-rantz joan zan, eta geroago Errekalde ingururantz abiatu.

Bazekian etxea zein zan, numerua zekialako. Bizkitartean, an kalean, atadian, leioan edo agertu zitezkean Loli, eta batera-bestera begiraka asi zan.

-Mutikotxo onek, ez dirudi motela. Dei egingo diot.

Eta tebeo zarpil bat irakurtzen ziarduan mutiko mee ta zorrotz bati ots egin zion.

-I, ator onera. Polita al duk kolorezko paper ori?

-Bai, jauna. Polita da.

-Zarra ta zikiña, ordea, ez?

-Baita ori ere, jauna.

-Beste berriagoren bat nai izango ukek, ba, ik?

-Bai, nork emana ba nu.

-Diruak emango dik, diruak.

-Ez dut dirurik ordea, ta...

-Oraintxen izango duk. Baiñan lendabizi niri, mandatu bat egin bear didak. Ara, ikusten an 48-gn. zenbakia, etxe kankail artan?

-Bai, jauna.

-Irugarren etxoiñera igongo aiz, eta iru ate izanik, erdikoan joko duk. Orduan, Loli etxean dan galdetuko duk, eta olan baldin ba da, auxen esango diok: «Manu-

k esan du, gaur lauretan, bolatokian itxaroteko». Etxean ezpaldin ba zegok, i etorri adi ezer esan gabe. Ulertzen?

-Bai, jauna.

-Artzak au iretzat. Joan adi azkar. Ni, ementxen egongo nauk.

\* \* \*

Eguzkia, nagi nagia, etziñalderantz joan zan, neguko argialdi motxetan joan oi dan bezela, ibillaldi labur xamarra egin ondorean.

Aren dirdai motelak eman zizkioten azkenengo igurtziak Arnotegi-ko piñadi zarratu eta trinkoari. Lendabiziko izar goiztarrak, keiñuka ziarduten Eretza mendi eskergaren goitian.

Askari gozoa eman zion Manu-k bere neskatxa berriari, janari fiñak, edari goxoak. Ametsezko bizitza baten asieran zegoala uste zuan onek, alako gauza xarmantak beretzat zirala oarturik.

-Erre nai al duzu, kutun? -zerraion bein eta berri-ro Manu-k.

-Ez dut oiturarik erretzeko.

-Beti du lelo berdiña zure jardespenak: ez dut iñoiz entzun; ez dut iñoiz ikusi; ez dut beiñere proatu; ez dut... Orrela, beti aurtzaroan bizi bearra izango duzu aurki.

Eta parra zabal eta ozenak egiten zituan mutillak. Guenerako, neskak ere, parrari eman zion.

-Sargore dagola dirudi, negua izan arren. Ez al zera bero?

-Bai, puxkat baietz esango nuke.

-Egarri ere ez al zera?

-Bai, egarri ere ba naiz.

-Eta zeren egarri? Emen ez al duzu edari onik?

-Bai, baiñan goxo izanik, egarria ematen dute.

-Zuk ere, goxo zeralarik, orixe ematen didazu niri.

-Nik?

-Nork, ba? Andrakilla lurrezkoa ote zera ba, eta ez emakume gordina? Egarri zeralarik, zergatik ez didazu beste zerbait eskatzen zure egarri ori ase dezazun? Zure ezpain lodi oien beroa arintzeko, ez al didazu ezer galdetzen?

-Lotsatu egiten naiz.

-Zu geldi egon zaite, eta nik lagunduko dizut alperreko lotsa ori uxatzen.



Iri aundian ere, an, or, emen, iñarika asiak ziran millaka ta millaka txingar isioberriak. Maitaketa ordua eldu zitzaien gazte ero aiei, Arnotegiko piñadi zarratu artan. Manu, ordurako maisu bikaiña zan eta...

Afal-aldian, etxean, Loli-k askari astuna egin izan zuala-ta, gabon! esanik bere logelara aldegin zuan, bere izakera zerbait bereiztua zegoala senti izan zuan eta alako baretasun-falta edo ekurueza oartzten zuan bere baitan. Alare, bere buruaz arrituta, loak artu zuan laister.

Astelenean, Loli, etxetik beti bezela atera zan. Baiñan jostelekura bereala joateko kemenik edo ez izan eta, Parke alderantz joan zan, beste kale batean zear.

Igandetako neska-lagunei azalpen bat zor izanik, zer esan eta nola, gogoetak egiten asi zan, joanaz.

-Ederki! Nire errian eta etxean izan nintzala azalduko diet. Edota nire lengusua eldu zala eta arekin joan nintzala arratsalde guztirako, eta azkenean, bai, ikusi nuela Manu.

Bapatean, ordea, zimikoak zuloa egiten zion barruan. Zertarako gezurrik bota? «Manurekin ibili nintzala eta kitto». Manu-rekin artueman aundiak egin

bai zituán igande artan. Arekin jan zuan askari ederra, arek eramanik, eta alkarri iñoiz baiño maite-kontu geiago esan ere bai. Agian, ez esan bakarrik. Eskeiñi ere, eskeiñi zion bere maitetasuna, bere biotza eta bere askatasuna. Ari lotua zegoan jadanik. Ari lotua!... Arena zan, mutil arena!...

Parkean eserita zegoala, goraki mintzatzen zan neskatxa maitemindua. Eta an inguru zebillen garbitzaille batek galdetu ere bai:

-Norena, neska? Nik ez dut bear orain emakumerik. Nireak egin zuan!

Eta neskatxa, zurbil eta izu, jeiki zan bereala eserlekutik, eta aguretzako ari bai esan ere, isilik bederik:

-Agure ezea, ez bestena!...

Igande berria eldu zanean, neska-lagunak alperrik jardun zuten Loli-zaz izketan eta ari itxedoten.

-Leengo jaiegunean ere, berdin egin zigun. Eta gero zer da kontu, eta bere errira joan zala edo norbait etorri zitzaiola eta geroago bere mutil kriket ori arkitu zuala ustekabeen eta... nik al dakit zenbat ipui berri.

-Baliteke errira joana izatea; baiñan adierazi genion geiago gurekin etortzerik baldin ba lu: edota toki jakiñera agertu edota adionez jakinerazi guri. Eta bestelan, or konpon.

-Ura gabe ibilten giñan leen ere!

-Bai eta lasai asko gaiñera.

-Neska ona dirudi, baiñan ni neu, ez nau osoro betetzen Loli-k.

-Egia esan, parkatu baiñan, zu egoki betetzeko gauzarik ez dut uste danik ere.

-Bai, morokilla nunbait.

-Orra or beste Tutuluberde. Eztakit nola zatozen gurekin, orrenbeste jakin e ta.

-Neska ! Asarrea artzeko aiñako zerik ez dudala aipatu, esango nuke.

-Bai, zuri errez zaizu nai duzuna esatea. Gero, ordea, oso zailla besteen azalpenak eta bearrezko akarrak irestea.

Pumanieska-ra joan ziranean, aiek ere, beste prin-tze odol urdiñeko edo gorrikoaz izan oi zuten lillura. Alperrik ostera.

Gauza batek arritu zituan baiña. Manu ikusi zuten dantza etxean sartzen eta geroxeago aldegiten ere bai. Ez zan iñondik iñora agertu izan Loli. Eta neska-

lagun azkar aiek, ez zuten kopetik izan gazte eder  
usaigozodun ari, galdekizunik egiteko.

## IV

Iñauteriak egundoko zalaparta ta iskanbilla ta batez ere eziñegona ekarri diete gazteai iri aundira. Ezin uka, ematen duan bizitasun eta kilikilia.

Neguaeren gorputz sendo, gordin eta trinkoari bere tristezia antza kenduaz, alako dardarakizuna ematen bait dio giza-soiñari, aragiari. Eta aragia ere, gizonarena baita, izpiritua dan bezelaxe. Biak batean, biak naaste jatorrean, batzuetan. Biok, alkarren kontra, alkar-uxaka, beste batzuetan.

Aratustearen zerak, orraitio, gazte ta zaarrai eman oi die alako askatasun-atximurkada gazigozoa. Batez ere, gizonezkoai.

Egundoko jaia ospatu nai dute «Fenix» *hotelean*. Iriko irteera batean dago etxe ori, Deusto aldean. Aundia da, ta inguru biran *jardin* polita du. Gelak ugari ditu, baiñan batez ere, areto zabal eta beste saloe batzuk ere bai aski txukunak. Lorategiak ditu, zatika zatika, arbolapeetan. Eserlekuak ere bai, ezipel eta zedro motxen bizkarrak gordeak. Baztertxu ezkutuak, txoko deigarriak an or emen.

Laguna erruz bilduko omen da. Ez edonor, ordea.

Jende bereixia, baimen apartekoa duena sartu al izango da hotelera. Ostatu eder onen diru-gorabeera nagusiak, Araibar-ek izaten ditu bere mende.

Papertxo bat beariko da, txartel bat, dantzaketara eltzeko, eskuan eramanik. Gaiñera, arpegiak estalduak beariko, mozorrokiz edo maskaraz, alegia. Gutxienaz, muxuazal edo antifaz dalakoa.

Argiak asi dira jaiotzen «Fenix»-ko leioetan. Gaba illunago eta argiak disdiratsuago.

Orra or lendabiziko beribilla. Bere begi zabal bietaz argi-adarrak zorrotz daramazki illunaadian barruna, erraiñuzko zuloak egiñaz. Atertu du bere martxa, eta kanpoko burni-ate aurrean gelditu da. Arrantza makal batzuk egin ditu aren *klaxonak*, sudur-mintzoaren antzekoak.

Hoteleko morroi bat agertu da beingoan, eta kirrinkarran idiki ditu ate astun aiek.

-Luki! -otsegin dio beribil barrutik gizonezko gazte batek.

-Zer, Araibar jauna? -izan da morroiaren erantzuna-. Laster ezagutu duaneko agiri nabaria, orixe.

-Lenengoak gu?

-Bai, olaxen da.

Ate burdiñazkoak idiki ditu Luki azkarrak, eta jar-diñean zear dioa beribilla, etxearen aurreko bost mail-len ondoraiño. Ortzen lotu da berriro, eta atetxoak klixka egiñaz, iru zaldun gaztek agertu dituzte beuren buruak. Jantzi bitxiak soiñean, mozorro-jantzi oietako-ak, kolorez beteak, beste aldi bateko taiuzkoak.

Bik kanpoan geldi-egin dute, eta geroxeago eskai-lleran gora igon. Irugarrena berriro ere, bere popora sartu da, eta, ariñak arin, aldegin du. Galdu da illune-tan «Dauphine» ariña.

-Luki, soiñulariak ere, ez al dira oraindio agertu onera?

-Ez, bada. Otsegin didate, ordea, telefonoz, beren tegitik ateratzen dirala eta aguro elduko dirala alde ontara.

-Zenbat dira?

-Amalau.

-Amalau? Amairu ez ote ziran etortzekoak?

-Lendabizi bai. Baiña nik gero, zera, lumeru txarra ere ba dala-ta, geixeago etortzeko adierazi diet, eta orra... amalau.

Araibar-ek irripar leguna egin du bere atezaiaren esakera utsa arreta ariñez arturik bezela. Isillune motxaren atzetik, eraso dio:

-Nire soiñeko au, gustatzen al zaizu, Luki?

-Polita da, noski, baiñan...

-Zer baiñan, gero...?

-Tela orrek beltz geiegi duala deritzat.

-Eta, zer dio ba, orregatik?

-Niri neuri, beltxak, alako ikara-dardare antxa sorrarazten dit emen.

Eta ori esatean, bular-ingurura eraman du eskuiko esku zabala, eta an, zerbait ba dala adierazi nai izan dio bere entzuleari.

Parre gozoago egin du orduan Araibar-ek.

-Eta zuk zeuk, mozorroz jantziko ba ziña, zein jantzi-modu aukeratuko zenduke?

-Nik? Ba, agian, Luis XV arena edo, eragozpen bat izango ezpa nu.

-Eta zein?

-Nire oiñok zatar aundiak ditudalako, eta gaiñera takoi puntetan ibiltzen ez jakiñik, erori egingo nintza-kelako, eta min artu ziur ziur.

-Orduan, abarka zabalak oiñetan eta, ikazkin jatorra zu, arraiopola!



-Barkatu, baiñan ori ere ez.

-Zer dala-ta?

-Ikazkiña ere, beltz xamarra dalako!

-Egia. Buru txarra dut benetan. Beraz,... iriña, zuria danez geroz, okin janzteari zer iritziko zenioke?

-Ezta gaizki. Edota, txiribogin ere berdin izango litzakit.

-Tabernari esan al duzu? Ardoa ere, beltza da, ba...!

-Noski. Baiñan... ardoa da.

Zalaparta ta izketa naastua dabtl edarietxe txiki batean. «Inguma Bar» du izen txanbeliña, eta erriko bazter egoki batean dago.

Gizonezkoak sar-irtenka dabilta eta neskatxa politak ere agiri dira prakadunen artean. Begi inguruak beltz-beltz, ezpaiñak gorrimin, or daude Mimex eta Ani, eserleku txorrotxen puntan kokaturik. Begi keiñu sarkorrek egiten dizkiete aldameneko gazteai. Iru mutil daude aien ondoan.

-Ani, gazte oiek ez dute gogorik ezertarako.

-Goiz da, Mimex. Baiñan, zuri entzun eta gero, oiek ere... besterikoak dirala esango nuke.

-Bai?

-Ez al duzu ikusten irurak dituztela bigotetxoak?

-Bai, ba dakust. Ez dut siñisten, ordea, ikusten dudan guztia.

-Baliteke itxurak egiaren berri ez ematea, iñoiz.

-Goazen, neska. Ea an ezer oberik izaten dugun, berandu ere ba da-ta. Emen ez dugu gaur giro-antzik batere. Esan digutena, berriro ere, irtengo da egia.

-Bai, gure merkatua estutzen ari dala, ezta gero, gezur.

-Noski.

-Eta besteena, zabaltzen ari dala, ere, bai.

-Baita.

-Nork esango zukean, emen ere orrelako emetxoak sortu zitezkeanik?

-Landare batzuentzat, lurrik geienak dira aukerako.

-Puf! Utikan! Leenago, guretarikoai zioten «galduak».

-Errazoi ederrik ba duzu, arean. Orain, berriz, besterik esan bearko: gizon galduak...! Ja jai...!

Otsedakiñak, zirikari edo animadore maritxu baten kanta mengel lirdingak entzun-arazten ditu, eta

neskatxak solasean ari bitartean, mutil lerdentxo aiek txoko batean eseri dira, aiei beatu ere egin gabe.

Ani-k eta Mimex-ek zangoak ezezik, belaunak eta abarrak ere, agirian dauzkate, mutil aien begien bistan. Jardun ondoren-gabekoa. Bizkar eder beltzeranetan aizea libre dabil ibili. Baita euli bat edo beste ere.

Aspertu dira, dirudianez, Eva-ren alaba guri ta mardulok. Eta etsita, Mimex eta Ani, beuren beso mamitsu ta lepo-inguru billoizak gaiñeko jantzi apaiñez estaliaz, kanpora dioaz. «Fenix» aldera, nunbait, dantzaketara, akelarrera, gizonezkoen billa.

«Inguma Bar» txukunean ez da orain emakumerik iñor gelditu.

Ez dute, agian, faltarik ere egiten. Gelditu diranak... naikoa baitira.

Doiñu zoliak, burundu ozenak, jazband orrotxoak dioaz aldean. Zarata oiek «Fenix» hoteletikoak dira. Zarata guztiak musika ez izan ba.

Jendez gaiñezka dago saloi ederra.

Jantzirik parragarrienak, soifieko apaiñenak, antxen agiri dira, dantzarien gorputzai atxikiak. Kapa zabal, praka lasaiak. Gona loratsu, azpilduriz beteak. Aintziñako tankerakoak, mende erdikoak; oraintsua-

gokoak; gaurkoak ere bai, eta orobat geronei edo futuristak ere.

Gezur-muxu estuak dituzte guztiak; antifazak alegia. Musikariak ere bai.

Asmatu diran koloreak dute an erakusleku. Argi ta illun, beltzeran eta arre; gorri, orlegi, urdin, ubel, orbelkara eta bitarteko litsetaz gogoak eman-ala. Historiako irudi-orri asko alkarren ondoan erkatuak, alkarren aldamenean jarriak dirudite.

Kolore bat dute nabarigarri, ordea. Kolorea ez-pa da ere, distira, suaren distira, griña goriaren ziztada. Araginaikeriaren begirakune likisperaa.

Soinu eta emakume. Emakume ta edari. Edari ta griña; sukia ta sua, eme ta giz.

Durunduaren iturriak zabal daude: rumba ta mambo, samba ta rock and roll.

-Araibar! Ikusi al dituzu aiek?

-Ez oraindaiño, ez dira agertu.

-Zenbat papertxo zabaldu zituzten, ba?

-Emen gaudenok baiño geiago bai beintzat.

Eta gazteak, musikaren doiñu-sarepean, bakoitza bere emakumeari gerri-gerritik estu eldurik, alkarrengandik urrundu egin dira.

Ba du noizpeinka aterruna ta geldialdi, musika ez-samur ta lizun arek.

Orduan, baztertxoetako mai tipien inguruetan biltzen dira dantzariak eta zomorruak, eta kopa garbien leiarrak, edarien lardeaz zikintzen dituzte. Edari txurizka, ori, sagardo murgil antzeko, gorribizi, piper-kolore eta anitz geiago.

-Kolombine eder, edan ezazu kopako au.

-Ez dut geiagorik nai, Arlekin lerdan.

-Dantzan poliki baiño polikiago dakizu, laztana.

Edaten, ordea, ez.

-Bai, Arlekin; ez esan niri dagoaneko *laztan* itzik.

Bai, dantzan ez dakizu orren egoki. Niri edariak eskeintzen, ostera, ez zera aspertzen.

-Ez al zera, Kolombine eder, egarri?... Ni neu, bai, ba naiz.

-Baita ni ere! Ain zuzen, ez edari zatar oietaz.

-Nola diozu? Itz ori jaurtikiaz, akuilluaren antzeko ziztada egin didazu barruan.

-Arlekin, zer dala-ta esaten diozu ezagutzen ez duzun emakumeari «laztan» itz goxo ori? Orrelan aritzen al zera zure amaigabeko neskatxa atzipetu oietaz ere?

-Nola dakizu orrenbeste ipui?

-Ni ere emakumea bait-naiz, izan ere.

-Zer duzu zure erranera oietan, Kolombine? Eta zer zure begietan ere?

-Zer nai zenduke zuk, nik izatea begietan, sua ala baretasuna?

-Sua, laztan, sua; soiñean bezela, zaiñetan bezela, odolean...

Eta orduan, neskatxak, zorrotz beatzen dio, eta onen ezpaiñetatik irri emea suntsitu ta atzendu egin da. Arlekin dalakoaren kopeta eta masailla ta sudurra, zurbil ta irritsez daude. Zerk aizatu ote du orrenbestean? Zein zauritan ukitu ote diote alako neska apaiñaren so sistagarriak?

Soiñulariak berriro egin diote musika dorpe ta itsaskorrari.

Giro artan, dantzari bikain izango, txerrentxoren menpeko zoliak ere.

Koparen zurrutadak eman dio barruan zuzperraldi berretua, Arlekin txairoari. Eta Kolombine-rekin berriro saio astean, beste mozorrodun bat eldu zaie baranora eta, gizabide biguiñez, emaztekoa eskatu dio Arlekin-i. Ezin ezetzik esan, eta orra or orain gaztea, gutarrez josia, gurariz blei, baiñan... Kolombine gabe. Etorriberriak eraman du aise ta biguin, neskatxa garri

liraiña, eta an beste lagun askok osatzen duten notin-itsasoan erretenik utzi gabe joan dira, konpas azkarraren kateak lotuak bai lirean.

Matel-ezurak alkar joaz, asarrearen zeinua agiri du Arlekin-ek bere betartean.

Urrengo soiñualdian, ordea, arrai labain artaz jabetuko da, noski.

Eta botako diona ezta sarea bakarrik izango, amu biurra ere sartu gogo izango dio, ongi atxikia ta kati-gatua geldi dedin bere maitakeri-ziskuan.

Orixe izan da Arlekin dotorearen asmoa eta erabakia.

Iritxiko ote, bein berriro, bere lardeaz, beste aingerutxo garbi bat zikiñaraztea, itz zuri ta amarrutsuak bide?

«Fenix» hoteleko saloi nagusiko orma-arteak ia iñor gabe lotu dira. Ango aize itoan, kirats minkatxak erro luze biur aritsuak edatu ditu.

Soiñu erogarrien oiartzuna ibitzenago eta pakearen iratxoak ernaiago, areto artan sartu bearrez. Artean, satsuñoak aztamuka dabiltz baranoko gelatxo aietan.

Hoteleko otseiñak erdi loak arturik, argiak itzaliak izan dira. Isillak, bere eskubideak galdetuaz, arra beteka ta baratxe baratxe, alderdien jabetasuna ardietsi nai du.

Mefistoren atsak utzi du nonbait, arrasto ta lorraztik; eta hoteleko areto nagusian eta beste batzuetan ere, irazekitako aragi-pindarrak erregaia eskatu izango zutenezkero, su-dei oiek alabearreko azkena ta burutzea izango, ziur asko.

Arlekin-ek, arako neskaren billa jardun ondorean, etsipena iretsia izan bear du, ezpaitu, damurik, geia-go aren gerizarik atzeman. Berealakoan aldegiña izan da, arean, Kolombine zoragarria toki artatik. Eta norekin?... Zozoa alakoa!! Zergatik utzi besteren besoe-tan?

Eta onek min ematen dio, saminki, Arlekin lerdinari. Nor ote zitekean etsai ori, oillar ori? Nor zitekean an, aura baiño pinpiriñago, giarrago, beroago, toago? Nork linburtu ote du neskatxa xarmanta, jai ederra bukatu baiño leen andik aldegitoko eta... Diruagatik baldin ba zan, Arlekin-ek ere dirua ba zuan ba, ortan eralgiteko!

Pentsamentu oietan igari dabillearik, eldu zaizkio gazte batzuek eta neska pertxenta bi ere. Jendarte



artako azkenak, noski; goenengo gau-txori narratsak agian...

Auek ezagunak beintzat: Ani eta Mimex, aragi-bizi saltzailleak.

-Ai emen zaude deslai eta soil, bakarrik, gogoetan ala edariaren losuna nagian, eta Arlekin jantzian? Ai, maite; muxu bat egingo dizut, bi, iru, luze luzeak, zure penak aztuarazteko -diotsa Ani-k, eta ezpain lodi gorrimin aietan txera xamurra eskeiñi dio gazte buruederrari.

-Geldi, Ani, geldi.

-Ez-ordu al da ba, maite? Ingumatxo berriren batekin izan al du dagoaneko jostaketa, gure mutil galant onek?

-Nardagarri zera une ontan, orrela ariaz, Ani.

-Zer du gure zalduntto gordin bipillak? Elbi gaizto-  
ren batek eztenka egin al dizu? -diotsa, katemeak bezela, Mimex-ek ere.

Eta beste musu ezo ta pinturatsua ezarri dio aoan Arlekin-eri.

-Urdanga labain ori!

Beste mutillak, edari geiago eskatu dute, eta mai borobil baten biran eserteko zera egin dute.

Otseiñak, mantal txuria aurrean, ba diotsate:

-Aski da, zaldunok, gaurko. Zer guztiak biltzen ari gera, eta guk biar lana izango dugu goizetik eta berandurarte.

-Atera zazute zerbait -dio Mimex-ek lotsagabeki-. Or duzute nagusia, eta alperrik izango duzute ukatze-ko gogorik izatea.

-Eta gaiñera, zaldun au gaur, bildur da andreekin egoteko, edaria zurrut artu ezik. Ja, ja, ja...!

-Kanta dezagun, gazteak, kanta -erran du irri gan-garrez Ani beroak-. Makaleri ergol batek joak al zaudete?

Beti eta beti jolasa,  
gazteriaren ametsa.

Ardo ta andre, andre ta ardo  
aragia ere bebil lasa...

Txolkada batzuek edan, besteetakoak maia ta lurra zikindu, gazteen batzarrak amaia bear zuala adierazi die Luki-k gozaro eta garratz, irriz baiñan bul-tzaraziaz.

-Tira ba, tira. Goazen beste txoko batera.

-Lotara obe.

-Nor norekin? Bost gaude ta... Bi eta iru.

-Nirekin ote? Au poza! -diotsa Ani-k igurtzizko ele amarrutsuaz.

-Zurekin ez! -erantzun dio Arlekin-ek.

-Orduan, maite, nola ez ba nirekin? -Mimex-ek adurretan bezela.

-Ezta!

-Beraz, nun dituzu Loli, eta Kolombine ori...? Ja, ja, ja! Aldegiñak edo ez agertuak baitira gau ontan?

-Alperreko orduak illunpe ontakoak, Arlekin. Gaur, baru eguna izango duzu, barualdi. Ji, ji, ji, ji!...

--Ja, ja, ja, ja!...

Eta dringili drangulu, albo alboka atera dira hoteleko jardiñeraiño, bai neskatxa gautar aiek eta baita aien adiskide zaldunak ere.

-Ordua zan -esanaz, ertsi du Luki-k poz apurra barneratuaz, kanpoko ate zabal burnizkoa.

Hotelean bertan bizi diranak, ba dukete orainez gero, lo egiteko beta gozoa.

Illargipean kalean zear dioaz bi eta bi. Irugarrenak agur egin die, erdi agur edo ordi agur. Arlekin-en gorputzak, moduren batean, atsedean izango du gau ontan. Besteen itzalak, bi eta bi, kale ertzean suntsitu dira. Gauaren isil beteak babespean artzen ditu gaizkiñak ere.

«-Nolakoa ote da Kolombine-ren arpegia, antifaz dalakoa gabe? Aren begiak ezagutuko ote nituzke, berriro ikusteko zoririk izan ezkeru? Musuz musu alkar aurkitu ezkeru?»

»Aren mintzoa, aren aots garbia bederen, bai, ezaugarri izango litzaidake.

»Nor ote da gero, emakume goxo ori? Emen irian diran neskatxarik asko neuk ezagutzen, eta ori, nor ote dut?».

Orrelako peñtsamentuak dabilzkio bere buruko errotan bira ta bira, «Arlekin» jantzia erantzita, unaturik, nekatuta ta asper-antxa duan Araibar zaldun galant eta emakume-zoratzailleari.

«-Zer ote du neskato arek? Zer, bere kolkoan eta buruan eta begietan? Ez ori, musu berorik, ez irritsa bereixirik eskeñi didalako, baiña... Aitzitik, esaera mingotsa jaurtiki dit, jaurtiki. Zelako esanaia ote dauka aren ele gogorak? Loli ere gogoratzen dit, baiñan ura ezta ain ederra, nirea dan arren... Loli gaisoa! Osatu ote da eri iragankor artaz?»

»Egarri dala esan dit Kolombine-k. Eta zeren egarri? Ez ote da ikasle oietariko, filosofi edo elertizale ameslariren bat? Eta nork eraman du, nire besoetatik kenduaz? Besoetatik kendu ain zuzen, ez. Aren dantzakera, beste modu batekoa izan da. Aren bularra niregandik aparte ibili da. Ez dit utzi arek bere soiñik marruskatzen, beste edonork bezela. Ezta gerria estutzen utzi ere. Ez aren masaillei igurtzialdirik egin nire bizar puntekin... Aren aoak eztu ezer eskaiñi, ez eskatu. Edaririk ere ez.

»Noren egarri ote da, ba? Nire ez, agian, beste norbaitekin joan baita...

»Eta aren begietan, begi berde eder aietan, ez zegoan alako griña-surik, amodio gar likiñik...

»Eta orduan, zertan eldu izan da onera, dantzaketara esan nai dut, "Fenix"-era aratuste dantza berogarrrira?

»Zergatik?

»Eztakit. Ni neu, badakit zergatik joan naizen, eta utsik atera naiz gaur, aspaldi ezta. Mimex-ek eta Anik, gaiñera, nire lepotik barreka jardun izan dute lasai-ki. Dirutrukeko neska merkeok!... Alaz ere, ez naute menderatu, ez batak eta ez besteak.

»Kolombine-k menderatu nau, garbiki ordea, gogoz, asmoz, gurari apartekoz!

»Nor ote dut nik neska eder ori? Gau berri eman didan unetxo gogoangarria!«.

\* \* \*

Araibar zaldunaren gelan, telefonoak axut egin du, isilari bere miesa fiña urratuaz.

Zalduna lozorropean dago oindiño, agian. Alaz ere jaso du urrutizkiñaren zera.

-Nor zaitut?

-Luki naiz, jauna.

-Zergatik deitu didazu, oraindik lo nengoan eta?

Ez al zenekian niretzat goiztxo zana?

-Bai, berandu-goiztxo da noski, amaikak or-or dira-ta.

-Naikoa duzu berriketarik. Zer duzu mandatu gai?

-Karta bat utzi dute zuretzat.

-Karta bat?

-Bai, ekarri dute beintzat eta ementxen dago.

-Orixe da itzaren etorria, gizona.

-Nai al du ofizinara bialtzea, ala teatrura ala...

-Ortxen eduki ezazu. Geroago agertuko natzaizu.

Besterik ezer?

-Bai ba. Berealakoan emateko adierazi dit ekar-leak eta...

-Zertarako ainbeste iraduz? Dantzariren bat ote zan edo, artistaren bat edo?

-Artista! Ez makada ere! Soiñean du ark arte bikain bikaiña.

-Zer diozu?

-Zera, neskaxa bat izan dala ekarri duana.

-Eta nun dago, nolakoa da?

-Nolakoa zan? Ederragorik ez dut ikusi... nire begien aurrean.

-Iparragirren eskolakoa al zera? Aizu, aizu, eta aren begiak nolakoak ziran?

-Zelan azaldu ba neki!.. Auxen bakarrik esango dizut, eta barkatu ni bezelako zaarrak zurekin duan konfiantza xamarra: ura ere txurikatu baldin ba duzu... zorionak! Eta nik, gero, nire urteetan amaika ikusi ditudala kalean eta kamerinoan ere... badakizu!

-Bidali ezadazu arrapatakan gutun ori, Luki.

-Baita.

-Agur, eta gero arte.

-Agur, jauna.

Araibar-en eskuetara da gutun txuri-urdinkara. Urduri, beingoan urratu du azala.

Barruko orrian agiri diran letrak, ona emen:

«Emen berton, iñauteritan.

Araibar zaldun gazte:

Ba nuan zure entzutea, eta zerbait geiago ere bai, arpegiz eta soiñez ere ezagutzen baitzindudan.

Ezer gutxi esan genion alkarri bart. Etzan komeni agian, geiago zertzerik. Gazte zera eta eder; argi, lillu-ratzaille ta diru-otsekoa. Doai guzti auek, zuregan ta zure giroan dituzu.

Grazi ta jas bereziz, urrenik urren, zure eskuetan erori dira neskaxa doakabe batzuek. Badakit. Aien ezpaiñetatik, lendabiziko beroaldian, birlora-aroan, ezta bezela ateratzen da zure izena, aipamen xaloz, oroi kutunez, zinkurin epelez gaiñezka.

Zutaz mintzatzen diranean, zurekin amesegiten dutenetan, neskaxak, bupera, jauskor ta malgu izaten dira maiz. Ai, Araibar, atzoko nire Arlekin denpora laburreko!..



Ta zu, arroxko zagoz. Nolatan ez ba? Eta zuk, aragizko jainkotxo egiten duzu zeure burua. Eta neskatxen soñekopean, odol gazteak, mami beroak dardar egin oi du zuri loturik diranean, zure besoartean, zuri bultzaka dantzaketan ari diranean, alkarmiñez eta zirriketan.

Arrokeri ergela zurea, ordea. Lurrezkoa, autsezkoa baita irudi ori. Biarko autsaren asikiña, utsaren pareko.

Alaz ere, zerana zera: gazte, eder, ondasuntsu.

Nork eman dizkizu oriek guztiak? Baiña, bizitzak muga laisterra du, eta amaia, urbil. Zure ta nire edertankera auek maskilduko dira eta zimelduko gera, eta ustelduko ere. Eskuartea? Urbil dugun munduko ondasunen banaketa orrek, aizatuko eta barreatuko eta sakabanatuko ditu zure lauakoak eta beste askorenak orobat..

Egarri nintzan eta egarri naiz. Zu etzera gai, ez dut zure gorputza eta ez gogoia gai, egarri au asetzeko, ezta arintzeko ere.

Ez dut, bada, zure gizon-aragirik nai. Ezta bear ere. Urbillekoegiak gera. Ni ere bilbotarra naiz, eta gaur ez dizut besterik esango. Baiñan kanpoan nabil eta berriro kanpora nioa, urrutira. Itsasoz araindira.

Ez zaite, bada, nitaz arduratu.

Arduratu zaite zure biotzaz, zure gogoaz. Orixe bakarrik eskatu nai nizuke. Ezta, orraitio, niretzat. Zure ta nire gain Dagoanarentzat. Betiko Zaldunarentzat. Zaite aren zalduntxo apal.

Europara berriro itzul nadiñean, egiazko zorion-zidorrean zear ikusiko al zaitut.

Ar ezazu nire maitetasunaren agiria eta odolaren dei gozoa,

*Kolombine».*

Alaz ere, bigaramon goizean, eguzkia azkar igon da bere eguneroko bide sotilletaz goieneko larre urdiñetarantz. Ortziak, itsasoaren antzeko soiña du, eta torre luzeenak ere, itzala, geriza, urri, txiki eta bildua egiten du lurraren bizkarrean.

Iri aundiko kaleetan jendeak, oi duan egonezin ta ibillimiña erakusten du. Aundikiak ere kalera irtetzeko ordua da. Gizon dexenteena, beraz.

-Aizu, -diotsa neskame baldarrari etxekandre beti langilleak, igandetan ere erropa garbiketan jarduten baitu-. Ez al da oraindio jeiki Araibar zalduna?

-Ez, eztut oraindiño ikusi. Ezta sentitu ere.

-Berandu xamar da ba, ta... Ots egiozu!

-Bai, andere.

Alfombra malgu biguiñean zear isil isil doa mandataria, gelarteko irangoan zear. Zaldunaren logela parera eldurik, atzaparren bizkarraz, exur soiñua atera du, atea kax-kax-kax joaz. Inguru osoan ezta zarata txikerrenik ere.

Berriro ere jo du ba, kax-kax-kax.

-Zaldun jauna!

Oiu alperrekoa, ordea. Ezpaitu batere erantzunik jaso. Orduan, eraso dio ukabil sendoaz, bun-bun-bun!

-Araibar zaldun jauna! Sar al nindeke?

Alperreko deia eta atejoka, ain zuzen. Alako batean, neskame urduriak, atea geldi geldiro idiki, eta berriro ere, zer gerta, adiarazten du:

-Sar al nindeke. zaldun Jauna?

Logelara da serbitzaria, eta begiraldi azkar zeatzez ikusi bide du toki osoa. Eztago iñor. Oatzea ere, oso osorik dago, poliki poliki, ukitu ere gabe. Eztu bertan iñork lorik egin gabaz, eta ezta atzekalderik atsendendu ere.

Oe-maitxo gaiñean dagoan erloiuia lo dago, geldi. Amabiak iragarten dituzte aren orratz luxeak. Afaria etxean jan zuan, eta arrezkero irten, eta itzuli ez, non-bait.

Ez zan, ordea, zer bakanegia ori, gela artan bizi zanarentzat. Bein baño sarriago gertatu oi zitzaion, astean.

Ez, izan ere, gaueko Gurketara, adoraziñora alegia, joan oi zalako.

Gorputzeko nekeak izaten dute bare-aLdi. Bai eta animakoak ere. Loli-ren ondoeza, erialdia, onezkero amaitua izango zala uste zuan Manu-k. Eta arako karta sakon eta iraulgarria gorabeera, urak leengo bidetik zioazten. Eguzkialdi eta euri-zaparrada bakar batek ezpaitu uzta mardulik sortzen.

Egun batzuek geroago, eguerdi aldean, Errekaldeberri inguruan, beribil txukun bat zegoan geldi, «Dauphine» bat.

Barruan zegoana, Manu zan, eleberri ontako ardatz-notiña. Zerbait baru aldi egiñik zegoan, arrigarrri ba zan ere. Araibar baru-egiten garizumako lenda-biziko astetik! Loli makal xamar zegoala jakin zuanean, aste bi leenago edo, berak ere urrutiratzeko beta izan zuan, kanpora joan bearra zuala adierazi bait zion neskakxa menperatuari, garatz eta negozio

kontuetara, alegia. Gona-kontuak baiño izan ezarren ere.

Anartean, ordea, emakume begi berde batek egin zuan agerraldi oi eza Manuren bidean, eta zalako Kolombine aren sermoi laztantsuak zulo txoa edo egin zion barruan. Beintzat, zerbait koxka bai. Egun batzuek iragan ostean, ordea, edarian bere sentipena irauli zuan arren, leengo senera urbildu zan, eta leengo adiskide emearengana jo nai zuan. Adimenak baiñon maizago oroipenak agintzen baitu gure zerean, borondatean; bide ikasiak bazter ezagunak, lagun jakiñak...

-Kolombine arraio ori! Begiak besterik ez ditu ederrak... Egia esan, gaiñetikoaren berri eztakit, besoak bai politak zituan arren. Gorputza estaldua, ta nola gaiñera, zedukan eta!... Nire nor izan nai ote zuan orrek? Emaztea ezpada; eta ez da; alaba gutxiago, nik semerik ez alabarik, dakidala, izango ez bait-dut, gauzak aldatzen ez baldin ba zazkit beintzat nire gorputzean... Nire arreba izan nai ote du ba?... Kristo-gan! Ori, ba liteke; orixe adierazten du gutunaren azkenaldean. Nola zan? Ixo!: «zaite Zaldunaren zalduntxo apal!» Ez da gaizki esana. Baiñan, ni neu ere, zalduna naiz, eta ez txo orrek ematen duan zeetasuna, txa-

txar-antza. Utikan!... Utzi ditzagun kontu auek zaar-tzarorako. Orduan, siñismen-gabeak ere elizaren babesera, eta dorrearen gerizara eramaten dituzte beuren ezur zimelak. Oroitzen naiz erritxo bateko mediku jaunaz. Ark ere, ba zituan amaika esanaldi apaizen kontra eta gero zer, ba? Bizkarra kako, sudurra luze, dindirri-jario ta malko-errez zegoanean, an dioa apaizen ipui ziranak entzutera, eta pozik gaiñera... Zertan, ordea, ari naiz ni emen agure biguiñen gogoak aipatzen? Kanpora, kanpora ezti-eleak. Eta noiz agertuko ote da Loli ori ere etxerantz?

Kotxean barruan Manu-k, radioak baiño berriketa geiago zerabilen, bera esale ta bera entzule.

Ez zuan asko uste izango inguru artan ezaguntxo bat zuanik. Mutiko batek jo zion beribileko kristala.

-Egunon, jauna! Ezer nai al du 48-gn. etxerako?

-Arraiopola!-oiu egin zuan Manu-k itzegiten zionaz konturatzean-. Mutiko au, arako ura duk, iñolaz ere. Aur oien begia eta burua, gureak baiño txintxoagoak dituk! Guk gerok aiña oz ote dakite aurrak sarri askotan?...

Idiki zuan kristala nagi nagi.

-Aizak! I nor aiz ba?

-Ni? Beste bein ere eman zidan *tebeotarako* diru-  
ta!

-Eta egingo al zenduke berriz ere...

-Mandatua? Bai pozik!

Eta eman zizkion zeaztasunak, Loli-rekin berarekin  
itz egiteko aginduaz. Ba zegoan, ongi; ezpa zegoan,  
ezer ez, eta kitto.

-Eta zer esango diot gero Loli-ri?

-Polita al duk, Loli?

-Bai, orixe esaten dute emengo tasketan gazteak,  
mutillak.

-Eta i, tasketara joaten al aiz, orren koixkorra iza-  
nik, umekondo ori?

-Batzuetan bai, otz dagoenean eta; euria danean  
eta. An ez baitute eskatzen ez dirurik ez txartelik, sar-  
tzeko.

-Aski duk, motell. Ar itzak, eta joan adi, ta beingo-  
an itzuli, e?

-Bai, jauna.

Mandataria eta Loli berdin-xamar agertu ziran,  
alazaiña, Manu-ren begien bistara. Mutikoa aren etxe-  
aldetik zetorren, eta neskatxa, jostelekutik etxerantz  
zioan.

-Loli!! -dei egin zion gozokiro ta alai Manu-k.

-Ene! Manu!... Sasoia zan berriro alkar ikusteko!  
-ziotsan atsekabe eta poz, biak batean, neskatilla baserritarrak.

Aurreko egunetan, adiskidetxoak, Loli-ri ziri ta ziri ekin zioten, oartu bai zuten, neskatxa, deslai eta bakar zegoala. Orrez gaiñera, garizumako itzaldiak entzuten ere asiak ziran eta, noizean beiñeko bide oneratze-saioak ematen zien emaitza, anima loak-artueri.

-Loli! -ziotsaten emekiro-. Zu, gu bezelako gaztea zera, gure erakoa, gisa onekoa, alaia, eta zintzoa ere bai. Erritar xeeak, jende laua gera. Eta egia esan, Manu ori ezta...

-Manu ori, beti? Zer duzute zer esan nire zaldun ortaz?

-Ene! Zalduna!... Eta gaiñera nire zalduna? Nungo andereño edo dama urdiña zera ba, zu? Ez da naikoa izen politaren jabe izatea, tratamendu biguiñaren arian oitutzea.

-Dirua, eta aziera ona ere ba ditu arek. Eta lanbide emankorrak ere bai.



-Lanbidea, ez dakigu guk oraindiño. Zuk ba al dakizu ziur?

-Ondamua ta bekaitza ta ikusieziña al duzute zuen kolkoetan?

-Zurekin bare-bareki mintzatzea, zer zailla izango zaigu, agiri danez. Baiñan, kezka bat dugula guregan, orixe bai, adierazi nai dizugu, argi ta garbi, orratio. Entzun ezazu, bada, mesedez, e? mesedez, zure onean ari gera-ta. Egonarri eta arretaz, eta gero, itze-gingo diguzu.

Arnasaldi sakon betea egin zuan Loli-k, nazkaz eta egoneziñez bezela.

-Itzegin ezazute, bada, baiñan iñor iraindu gabe.

-Ai, ori, Loli... Guk u, egia jakin nai dugu eta egiak iraiña berea baldin ba du, orduan, isilduko gera.

-Utzi itzazu lasto ta orbelak alde batera. Eta jo mamira, giarrera.

-Zuk zer duzu oraiñarte... Manu-rekin?

-Neskak, orixe da zuek jakin nai duzutena. Nik beste berri izango al duzute bada zuek? Ta, ta, ta!

-Ikusten? Zein baiña zurekin...

-Auxe bakarra jakin nai genduke: alkar-gei al zera-ten dagoneko. Itzik eman al dizu?

-Zeren itza, ordea?

-Ezkontzeko itza. Orixe da neskatxa batek ezer menpe utzi baiño leen, gizonagandik jaso bear duan itza. Eta ala ta guzti ere...

-Ez, ez dit itzik eman.

-Eskatu egin al diozu, ba?

-Ez..., adiskide barruko bat baizik ezpaita!

-Barrukoegia oz ote da, gero!... Belbillean eta, bide bakarretan eta, biok lasai ibilteko!

-Isilik zu, txatxala ori. Parkatu, Loli, onek beti izaten ditu mintzo aukeragaitzak.

-Ni bakarrik al naiz gazte batekin txoil, *popoan* dioana? Zuek ezin duzutelako. Ikusi or, aurreko usaitegiko neskatxa beltzeran ura ere; laugarren bizitzako *katu-nabarra* ura ere; eta zuen porteraren alaba, Kontxi, ura norekin ezta joaten? Eta alaz ere, xaloa da, polita da, begikoa da edonorentzat, nik baiño zango liraiñagoak edo gona motxagoak ditualako. Eztakit nik zergatik...

-Ez, noski, oz zera zu bakarra. Bai zera! Aiek ez digute axolarik ematen, pena ematen digute, orixe. Baiñan, zuk, Loli, gazte ori nor duzun ez dakizu, eta guk ere ez, baiñan ikasiko dugu orren ibillera ta izake-ra.

-Zuei bost, ardura zaizute!

-Ez diozu egiarik, Loli. Zu zera gure lagun urkoa, urkoena, eta orregatik gabiltz kezka, zuk uste ezaren. Edota, zuk ez al duzu nabaritzen zure neskatasunaren zerik?

-Nire neskatasuna? Nire izen onaz al diarduzute? Nork izan du ausarkeriarik aski, zer oietazko elea aizatutzeko?

-Ai, Loli, Loli! Gure izen ona ez diogu geuk gure buruari ematen. Besteak, enparaukoak sortzen dute, eta obetzen edota gutxiesten.

-Zuek ere, Aita jesulagun orrek buru-beroturik al zaudete?

-Ez, maite, arek ez du nai buru berorik; arek buru argiak nai ditu, eta biotz onak, griñak menderatzen dakizkitenak. Zuk ere gurekin etorri bear duzu kontu onak entzutera. Biartik, edo gaurtik obe, nai duzua? Edota, izaten al zera iñoiz elizaren baten Manu-rekin batean?

Ez zuan jakin Loli-k galdera orri zer erantzun, egia esan ala gezurra asmatu.

-Erantzun ezazu, Loli. Gure erako neskatiak orixe egon bear dute, mutil batekin bakarrean asi eta lenda-biziko egunetik. Elizarako bidea irakatsi, ez baldin ba daki, edota azturik izanezkero.

-Ni bide onez nioa arekin, asmo onez.

-Eta arek ere gogo orixe al du? Ez dugu guk lenda-  
biziko arririk jaurti nai.

Bakarrik gelditu zanean, negar egin zuan Loli-k.  
Amorruz edota lotsaz, arrokeriaz edota sentimentuz.  
Berak jakin zezakean iñork baiño obeki, bere gogoari  
eta bere gorputzari azterraldia egin ezkeru.

Egiña, egiña zegoan, ordea.

## V

Udara ondorean, berriro ere asia zegoan futbolaldia. Jendea, erruz zetorren illuntze-aldean, kaleak beteko ibaia iduri.

Baiñan beribillak, iraduzko izurriteak joak ziruditen, eta lagun-artetik igespidea aurkitu naiean, beuren turutak jo eta jo ari ziran, izugarritzko naasmendua sortuaz. Zaarrak, bildurrez bezela sartzen ziran atadietan, eta aurren arduratan zeuden umezaiak, gurasoak eta senideak. Millaka automobillek egin zuten bai atsedeen-aldi, inguruko lau kaleetan eta baita alderdi artako beste zenbait kale luzeetan ere, eta alaber, motxetan.

Adiskide batzuekin zioan Serafin, Araibar-en apoderadu zintzoa, eztabaika, partidu bukaeran tar itxuak eta etsaixkak oi duten joran, beroaldi eta berriketa miñez. Alegia, jokaldiko zerak, bakoitzak besteak baiño obeki ikusi, ulertu ta mamitu zitualako. Iruzkin oiek igandean asi oi ziran, obeto esan, aurreko ostira-lean eta urrengo ostegunerarte jarraitzen zuten egunerokoetan, kafetxeetan, eta are lantokietan ere, nagusien eta ugazaben amorruez eta madarikazioz.

Buztinkoloreko popo bat gelditu zan aren alboan, Serafin zioan kale-munan bertan.

-Serafin! -otsegin zion popo barrutik emakume aotsak.

-Aizu, Serafin, zure galde egiten dute emen eta zu erdilo, beti bezela!

-Kontxo! -orduan Manuren ogipekoak arriduraz-. Nor, eta ona emen Matilde bera, eta ez bakarrik gaiñera.

-Serafin -zion neskatxa ongi apaindu batek, irria ezpaiñetan, betilleak medar eta zorrotz, begiak birakari-. Ez zera merkea ikusteko, orraitio, mutil!

-Matilde! Aspaldikoa... nundik nora ibillia zaitut?

-Kanpoan. Esango dizut urrengo batean. Toki askotan ibili naiz.

-Idatzi ere gabe.

-Ixilik! Orrekin bait nago. Zera... au nire senargeia duzu, Serafin. Aurkeztu ere ez dizut egin eta, Larrunbe-tar Joseba, inginadorea. Ori, nire adiskide ona izandakoa, Serafin Gezala.

-¿Zer modu? Asko poztutzen naiz.

-Berdin esan bear dut, Larrunbe jauna. Eta noizko duzute... zera?

-Laister, Serafin. Zuk ez duzu nai izan eta, nik ezin beti zai egoterik gura.

-Badakizu, ba, amaren seme bakarrak zer izan oin duan.

-Bai, alaxen da.

-Eta nun biziko?

-Or, Euskalerritik ez irten bai irten. Batzuetan, Iruñan, eta besteetan Zaragoza-n.

-Zoroak ere, antxen ziran leenago.

-Zu beti narritari. Serafin.

-Zerbait bear dugu, umore apurtxo edo. Emen al duzu, Matilde, oraingoz egotea?

-Bai, ba. Nik deituko dizut egunen batean, itzaspertu bat izan dezagun, gure kontuak esateko. Eta ea zer erregalu egiten didazun, Sera?

-Bai, bai, ongi dago diozun guztia. Agur, ba, Larrunbe jauna.

-Agur!

-Agur, Matilde!...

Andara gorrian aldegin zuan beribil azkar arek, beste millaka aien artean, iriaren biotzaldeko kaleak iritxi bearrez.

-Aizu, Serafin! Ez dituzu nolanaiko ezagupideak, e? -zirikatu zuten aura, adiskideak.

-Emakumeengandik askatua dan bizitza dala esango digu, gero, onek, mundu ontako zerik ederrena. Esana bat, eta egiña bi...; ez siñistu ezer mutil zaarri.

-Ez dakit, ez dakit... -gaiñeratu zuan irugarren adiskideak.

-Geldi, lasai, gizonak! Ori, aintziñako neskatxa ezagun bat baiño ez da.

-Ezaguna soil soillik?... Baiñan nik, denduan utziko dut zure ele ori.

-Nai baldin ba duzute... zerbait aparteko ezaguna; adiskide aundia, garbi esateko.

-A!...

-Urte mordoxka izango da neskatxa ori ezagutu nuala. Orduan, jakiña, orain baiño pertxentago zan.

-Orain, eztakigu, ez du popotik zirkiñik egin eta.

-Ez da, beraz, egun bateko edo biko ezaguera ori, e, Serafin? Onek oraindio emango digu guri egun on bat, gutxien uste dugunean.

-Ez da erraz izango. Amarekin ongixto bizi naiz eta, al dantxoan aren kontura irautea zer bikaiña da, mutillak. Ama bezelako emazterik ez zegok!



-Ez da berdin, ordea. Amarekin, beti seme izango zera, eta emaztearekin, alegia, izan bear dana, orain badaezpadako ipuirik ugari entzuten dan arren.

-Zer diozu, bada? Adar kontu oriek, ala?

-Orrelakoak beti dute giro. Baiñan, beste... bizkarzale oiek dute orain entzute aundia; txarra badere. Orain ere, or ibili dira ertzaiñak eta artu dituzte... zenbat esan zuten? Zensu galanta omen dute emen ere.

-Ezta egia izango!

-Ez, zera, auntzaren gaberdiko eztula!

-Baiñan, utzi dezaiogun orain zer orri. Zuk zer asmo duzu, benetan, Serafin?

-Oraingoz ezer ez. Matilde orrekin ezkondu izango nintzakean ni pozik ere; baiñan ama dala, eta zerean... bestek eramaten utzi diot.

-Eta beste neskatxarik ez al da ba irian?

-Oiek, orren ugazabarentzat izango dira guztiak. Orain ere, entzun dut nik zerbait... Araibar gora eta Araibar beera.

-Tira, tira; emen ez dagoanagatik ez dugu gaizkitzik egin bear.

-Onek dion bildurra ugazabari!...

-Begirunea eta esker ona ere bai, batipat. Lanik gabe nengoanean, badakizute zergatik, aretxek eskei-

ñi zidan lanbidea, eta gero, ez duzute azturik noski, sari polita eta kargu atsegiña ere eman dit. Ez al da egia?

-Bai, bai, gizona, ez asarratu orregatik. Baiñan, esan nai nuana, guk guztiok ongi ulertu dugu.

\* \* \*

Ez zan, bada, ogei urteko neskatxa, Serafin-en adiskide aundi agertzen zan Matilde. Arpegiz mee xamarra, zango politak eta azal guri ta leguna zuan. Illeak, beti bezela, gusto egokiz orraztuak, gaztaiña kolorekoak. Aren begiak ez ziran ederrak, ez; kolorez eta neurriz ez zuten batere ezer aipagarririk, baiñan apaiñean, ezpa-ziran ere, jakituriaz eta zorroztasunez ornituak zituan, egiazki. Ogetamar urte ingurukoa zan orduan, eta latin zekiala esan ezkerro, larregikeri izugarririk aitortu ere ez.

Ez zuan, noski, aren garriak amar bat urte leenago izandako liraintasunik ez zume-tankerarik. Ba zituan, baiña, gorputzean, adin artan izan ez zituan beste doai erakargarri batzuek, batipat, gizona olesegin oi dietenak.

Uraxe ikustera joan zan Serafin, leenago ainbat bider joan oi zan bezela.

-Matilde! -ziotsan mutillak, ark atea idiki eta baka-  
rrik geratu ziranaz batera. Gustagarri aurkitu zaitut.

-Egitan, Serafin? Auxen da barregura! Eta orain arte zeri begira bizi izan zera, ba?

-Joana joan, gaur egia bat azaldu bearra sentitu dut barruan eta, orra, ba, argi ta garbi adierazi. Ta zuk, esker txarra besterik ez.

-Aspaldion ikusi ez nauzulako ez ote da zure iritzi ernagarri ori?

-Baliteke. Orain bestean, ostera, eztakit ba... Goseak ere, asko eragiten du-ta.

-Lotsagabea! Bai, bai; argi ageri da zuri zaiñak bizitzen uzten ez dizutela. Iñoiz agertu al didazu bene-tako ezkon-guraririk? Zu, bakarrik bizitzeko sortua zerala esango nizuke, bein eta berriro. Zuk, ez duzu nai lekukorik ez zure irabazietan ez zure logelan. Bakarrik, beti olaxen. Puritanu tajua ez al duzu, ba?

-Oiek dituzu erasoaldi edentsuak! Ni... lotsagabea. Ongi dago, ongi. Baiñan, ez ordea. Ni, betikoa naiz eta oraindio ez naiz aldatu. Eeta badakizu; edota zurekin edota... bakarti.

Eta ori azalduaz batean, muin-egin zion laztankiro esku-gaiñean neskaxari Serafin mutilzaar-gaiak. Matilde-ri dirdaitxoa aterarazi zion egitada orrek, bere begi zolietan. Silla batean eser-arazi zion mutillari, eta bera, *divan* gorri zabalean jarri zan. Soiñekoak ez ziran, noski luzeegiak, eta belaun gaiñetan -neskatxaren esku fin ekurugaitzak, zerbait egin bearrez edo-tiraka eta tiraka asi zan emakumea. Serafin-ek irriparre makurra egin zion.

-Dendariak tela-etzunean al dabiltz?

-Beti biurria izan bear al duzu, Serafin?

-Eta zu beti itxuratia, ala? Tira, tira, utzi ezaiozu gonabarrenari pakean, gomazkoa ere ez da-ta. Gaiñera, badakizu zure belaunak ikusi arren, aztoratuta koloregorri jarriko ez naizena. Aspaldi ikusi nizkizun nik zuri belaunak eta... biotza ere.

-Zu koloregorri jarri? Ezta, ezta!... Eta azkenengo esan duzun ori esateko kopeta duzu? Zuregatik, neska zaar, zimel eta lerindu izango nintzakean. Agian, orain nai izango duzu nirekin ezkondu. Beste bateri itza eskeiñi diodaneko abagune ontan bertan. Ai, ez, maitetxo, berandu da. Martintxo illedun zanak bere maitatzakoari kantatua berresan bearko emen:

«Julitxo, berandu nator;  
Julitxo, berandu da...  
Adi ezazu, kupida zaite,  
bestelan, ai, ni, galdua...».

-Zenbakarrena izango ote da senargai ori, Matilde?

-Lendabizikoa, maite, lendabizikoa. Beste guztiak, zuk dakusazu, utsaren pare izan dira.

-Ni ere bai?

-Zu aparteko lekuan eduki zaitut beti. Eta oraindik ere, badakit ongi zuregan nolako barru ona dagoan. Sentimentu geiegiz bizi izan zera zu beti, eta ezin izan duzu zure toki bedegarra aurkitu, bear zan denporan. Orrek galdu zaitu eta... Onezkero gu, zu eta ni, kemenik aski izan ba zendu aldi artan, aurtxo poxpoliñen jabe izan gindezkean. Ai!... Baiñan, egitasuna besterik da eta, alkarrengandik oraingoxean banandu bearra dugu. Zure kulpaz, e, zure erruz. Esan bezela, ni ezin ba, geiagorik onelan deslai eta soil egon beti. Ulertzen?

Arro arro jarri zan Serafin, neskatxa maitesarredunaren itz labanok entzunik. Eserita zegoan lekutik aren ondora joan zan, eta *divan* artan bertan eseri.

Matilde-ri eskuetarik eldu, eta an egon ziran biak unetxo batean isilik, eta alkarri begira. Zalantzako ta ezbaiko izakerak dakarren ondorena ager-arazten zuan Serafin-ek. Ez zuan bere gazte denporan adore naikorik izan eta, artean ez zaarrak ziralako, baiñan, nagi eta atzerakor biurtzeko giro egokia sortua zuten. Alkar maite izan eta ezkontzara joateko bildur; beste iñor baiño atsegingarriago izan alkarri buruz, eta aurrera sasoi egokian oiña botatzeko azku ta indarrrik ez izan gizasemeak. Eta Serafin-ek, tamalez, bere inguru ta sasoi orrelako asko ta asko ikusten zuan. Diru-urritasuna edota bizimodu jasoan bear diran eskuarte eta zerak, edonork ere ugari ta parrastaka izan nai dituan aldian, alaba ugari dutenak, eta apalago eskas dutenak ere, beuren buru-auste, ebazkizun eta koxkak inguruan oi dituzte.

Aspaldiko maitetasun zaarraren gar zarkilduak oraindio ere, distira berri berriak atera zizkien biek bietara maite-urruna antzekoz ari ziran gazte egin aiei. Mutillaren burugintzak ekarri omen zituan ein artara; gizonezkoaren norberekoikeriak.

-Utz ditzagun kontu itunak, Serafin! Akeita ekarriko dizut, oso ona. Orain gertu gerturik izango dugu berealakoan. Ementxe dut tubotxoa, ikusten? Lagun

birentzat oso egoki izango zaigu. Orrela izango dugu gure azkenetariko askaritxo.

-Tira, ba; gaur beintzat izango ditut gauza bi. Neska eta akeita.

-Neska teoriz, e? Akeita, benetan.

-Ez, biak batean. Ez al dio or neska-kafe?

-Txoroo!

Bere ibillera jatorrez tiki-taka joan zan neskatxa liraiña sukalderantz ur irakiña ekartera. Bea ta bea egon zitzaion mutilla joakeran, eta itzuli-arteke aldiari luze iritzirik, zerbait egin bearrez zegoan ekurugaitz.

Maitxo baten gaiñean neskatxaren kartera beltza artu zuan, eta etxekotasun aundiz idiki ere egin zuan, eta barruko zerak ikusten asi.

Zapitxo bat, txanpon batzuek, ezpaiñetarako gorrimiña, ispillu bat, beste zapitxo bat, eta libutxo antzeko zertxo bat, zeuden kartera-barruan.

Urduri ta jakin-miñez atera zuan auxe, eta iriki ere bai. Lendabiziko orrietan izenak, kale izenak, eta abar. Asko eta asko. Auek ez zituan irakurri ere egin Serafinnek. Ba zekian bere adiskide laztan arek jendeen aipamen eta ezagupidean izaten zuala bere argaltasuna, auleria. Geroago, orrialde bakoitzean argazki bat agiri zan, foto bat. Gazte eder, ondo jantzi, apain itxurako-

ak ziran geienak. Guztiak pasatu zituan, eta an ez zegoan ez Larrunberenik, ez bererik, Serafin-enik.

-Zertan ari zera, ausart ori? -galdetu zion garraixi antzeko oiu mintzoz, baiñan gazi-geza, asarrekuntza izpirik gabe-. Nork agindu ote dio oneri orrelako azterketak egitekorik? Ona nago ni, neure isilpekoak onen esku-urbil ba nitu!...

-Zure isilpeko asko jakin izan ditut nik.

-Oraiñarte bai, baiñan emendik gorakoak, zuretzat, baterez. Naikoa izango al duzu katillutxo au? Opil goxo auek ere zuretzat ekarri ditut. Tamalez, laister joan bear dut, arengana. Gaur zazpi ta erdietan adierazi dit, eta... ezin utsik egin ba.

-Niri egiten zenizkidan ba...

-Zu orduan, nireganago zeunden au dagoan baiño. Alaz ere, ez zazuila uste izan, atsegin ez zaidanik eta nire joera alde ez duanik. Zuk, badakizu zer adierazi nai dizudan.

-Beroa dago, arranotan! Ia erre naiz.

-Ez zera beingoan erreko zu. Entzun, zera aztu zait. Edaria ere edango duzu, ez? Ekarriko dizut.

-Ez, niregatik, aski duzu. Zure itzak naiago ditut, edari beroak baiño.

-Sasoi oneko arrantzak!



Neskatxa urrutiratu zanean berriro ere, ekin zion argazki aiek ikusi ta ikusi. Geroago esan ere bai

-Zertarako duzu albuntxo au, Matilde?

-Ortxe bildu nituan apurka apurka zer oiek, eta gogoangarri diranez, beude alkarren ondoan atsedean betean.

-Eta guzti oiek izan al dute aukera zurekin maite-tasuna banatzeko?

-Bai zera! Ezagupidea, eta naikoa da konturik. Beti batera ta bestera bizi bearra izan baitut, nik ume-zurtz onek, detua izan dut oiekin eguneroko nolabai-terko ori egiteko. Orain erreta ere, berdin samar izan-go litzake, baiñan.

-Au bai, polita arpegiz.

-Orrek? Txori politaren lumak izan zituan orrek. Bai nik aguro asko ezagutu ere! Bigarren egunerako galde, eske asi ez zitzaidan ba?

-Zeren eske?

-Edozer nai zuan, txankame orrek. Esan nion bil-botarra nintzala, eta kontuak ateratzeko. Eskuan izan nuan aterkiñak, puxka bategatik, a zer nolako maasti-jorratzea egin zukean aren bizkarrean!! Ba dira or, ordea mutil onak ere. Baiñan onenak, nik zera izanda-koak, ortik kanpora daude.

-Bat nor?

-Orixe entzun nairik zaude, ezta? Ez duzu entzungo ba, sugetzar orrek!

-Nire poza aundia da, oraiñarte zintzo ikusi izan zaitudalako. Orain, ba zoazela somatzen dut, eta betiko joan ere.

-Zuk ere zerbait egin bear zenduke. Ez al daude emen millaka neskatilla eder eta on, gizon bateri ezin esan alako poza eta atsegiña emateko?

-Bai, gure aldrako batek esan oi du, ez dirala berdiñak izaten emakumeak, ezkondu baiño leen eta ezkondu ta gero. Aurretiaz, *laztana* itz asko, eta andik aldi laburrean, kirtena, astoa, eta ortik gorako goxoki litxarrak. Ai, ai, ai!

-Asteak guztiak ba lira jai! Ni bezelako alperrak orixe nai.

-Gure amak daki ori esaten.

-Baita gure amonak ere bazekian. Eta orain ere, orixe gertatzen da. Gizon alper asko dagola eta emaztea ta seme alabak azteko ta zertzeko lanean jardun baiño naiago dutela bar txairoan sartuta egon, eta...

-Bear izanak ere izaten dituzte ta, ezta guztia osoa.

-Orduan, lotsagabeki or ibiliko dira bazterrik bazter nai duten inguma edo julis itxurakotxo baten billa. Eta aurrera! Ezagutuko ezpa genitu ere...! Mutil zaar santutzako askok, aldarea falta sasoia danean.

-Nola dakizu zuk orrenbeste erretolikarik? Gizasemeak, emakumeak baiño lotuago ta gurbillago izan oi dugu mingaiña, gure zerak gordetzeko-ta.

-Ez! Baiñan, azkenerako ere, esan egiten dituzte gizonak beuren abilkeriak, bestelan jakin ezik, ezerezean gelditzen omen dira-ta.

Txikare urdiñetara ateratako kafeari lurriña urriagotzen zioakion.

-Onezkero, onik egongo da, ez otz ez bero. Ederra dago! Etxekandre atsegiña izango du Larrunbe jaunak.

-Mermelada puxka ere dastatuko duzu, ezta?

-Esku oiek ematen dutena izan ezkero, nola ez ba?

Eta *cake* goxoari zati meeak ebaki zizkion neskatxak. Pastel mizkea ere atsegin izan oi zaio gizonari, eskain samurra danean. Eta antxen zeuden aspaldiko kontuak oroitu eta oroitu.

-Matilde, oroitzen al zera noiz egin nizun lenbiziko musua masail guri ortan?

-Ez, ez dakit. Aoan ordea, ez dizut beiñere utzi.

Egia ez al da?

-Bai egia. Kanpoan, ordea, gazteak beti musuka aritzen dira, entzun dudanez, eta pelikuletan ikusten dugunez.

-Euskaldunok ez gera lar musu-zaleak izan. Ortik entzuna izango duzu bein baiño sarriago arako esana: «musumerke». Bertzalde, kanpoko gauza asko emen ez dira atsegin.

-Esaterako?

-Esaterako... Emen ez duzute nai gizonak dendetara joan etxerako gauzak erostera eta gero besoetan ekartzeko. Aurren kotxeak ere, atzerrian sarri askotan aita diranak erabiltzen dituzte kalerik kale, eta ama begira dagoan artean. Emengo gizonak olakorik egin! Aizu, eta are geiago. Igandeetan, toki askotan gizonak etxeko lanak egiten omen dituzte... sala argizagitu eta, marruskatu eta, brotxatu, alegia, eta aurren pizioialak garbitu ere bai. Eta emakumeak, ere, musuak eta laztanak erraz eman bai, baiñan gero senarra bere zerean dan artean, beste... prakadunen batekin dantzatu eta... Eta! Kanpoko gauza asko ez ditugu nai emen, ao-miietan beste esanaldiak izan arren...

-Zer somatzen duzu nire bizkar aldean, maite? Etsairen bat al dut.

-Bai, Serafin, etsai bat duzu. Ez naiz konturatu ain belu danik, eta orduari orrek errai ankerrak ditu, azkar dabil eta gure gaurko batzartxoak bukatu bear dugu. Iruña-kafetxean itxarongo dit laister zerak. Baiña, askaritxoa amaitzeko beta izango dugu.

-Askaritxoa bakarrik?

-Zer duzu ba, zer? Gure artean esiak izan dira eta oraindiko ere ba dira. Ezin ba, besterik ezer eskaiñi. Gaur, zinera ere ezin joan, bear ba da, azkenengo aldiz. Muin egingo dizut, bat kopetan eta bestea masaillean. Anai-arreba bezela izan gera gutxigora-beera orain arte, eta gero ere, olaxen bearko. Egun gogorretan alkar ezagutu genduan, gogoratzen? Serafin, zu zuen aitarengana eta ni gure osabarengana joaten giñanetan? Aiek orduan, arrisku gogorretan bizi izan ziran, eta arnasa batek arnastu ginduzan orduan. Geroztik, munduak beste biderantz eraman gaitu eta...

Negar-malkoak erten ziran neskatxaren begi-leiarretara. Gozoki ma egin zion, esan bezela, mutillari bi aldiz, eta onek ere, arnasa bakan izan zuan une artan.

Orrelaxen agur egin zioten alkarri maite izaniko gazte ez-gazte bi aiek. Izaki bakoitzak barruan daraman zadorrik ezagutzerik ez da izaten ordu-ordudan.

Albiako arbola luzeen babesean, ba dira an eserlekuak ugari. Oietako batean zegoan eserita, geroxeago, arratsaldeko egunkaria irakurten bai legoan, beste askoren artean, zalduntxo bat. Noizean bein, Larreategi kale aldera beatzen zuan adi-adi. Serafin zan, eta zerbait berriro ikusi naiak eraman zuan eraman, toki artaraiño.

Ez zan, ordea, ikusgurea bakarrik. Barruan sortzen asi zitzaion espa eta bekaizkeri-sustertxoa ere ba zan, iñolare. Aspaldi ez zuan Matilde ez ikusi eta ez geiegi gogoratu. Orduan, alegia, lasai bizi zan, eskuarki bait zuan eta eskurakoi errez ere bai, aren ustez. Baiñan, osasunaz gertatu oi dana gertatuko zitzaion nunbait, Serafin-i ere. Danean, bonbon; eztanean egon. Gorputza, bere zer guztiekin egoki, jator eta indartsu dabileno, ez du iñortxok ere batere kezkarik izaten. Osasuna, saltzeko ere izan ba-ta, saltzeko lain ere...!

Gero, muturrak estu dituan mamarro urbiltzerakoan, orduan kontuak.

Eta Serafin-ek ere orixe ikusi zuan orduan. Otsoaren belarriak urbil. Eta kezka ta bildurra baiñon ere, zuana edota zuala uste zuana eskuartetik irrist egiteko gal-urren ordua somatzean, barrena larritu ta arbindu egin zitzaion. Matilde zoragarria, ainbestean laztan izaniko emakume kutuna, beste batek eraman bearra!...

Eta ikusi ta obeki siñistu eta egokiroago etsiko zualakoan edo, antxen zegoan gure gizona bere barruko zeraz mingostasuna gustorago milizkatzen, oiñazepean bere gogorapen-eiotzen. Samiña, samiña-gotzen; nekea laztantzen, agian.

Antziñatik ezagutzen zuten alkar. Ezagutzenago ta laztantzenago eraman izan zuten aldi batean, biitza. Geroago, tokiz banantzeak eta joerak zerbait alde-tzeak, otzagotu eta erkiñagotu zituan aien alkar-aiumak. Inguruko jende askok bestera uste izan arren, ez ziran, nunbait, alkarrentzako sortuak izan aiek...

Serafin-ek bildurra omen zion ezkontza-bizitzeari. Egia esan, ama bizirik zuan eta onen begiko ninia zan, beste anai-arrebak illak baitziran. Orregatik esaten

zioten uztarriak, ez zirala aren bizkarrerako edo sorbaldarako egin. Gaiñerakoan on utsa zan, gizarajoa.

Inguruko dendak asi ziran beuren argiak estaltzen, ateak bilduaz. Azken jolasak bukatuaz, aurrak eta beuren zaitzailleak ba zioazten etxeetarantz. Eta beste azitxoago batzuek eskolatik eta ikastetxeetatik, liburuak besapean, iragaiten ziran jardin aietan zear.

Alako batean ikusi zuan etortzen neska pertxenta, ogei urteko neskatxa askok ez duten ibilkera eta garri-eragiñez. Zapata-adarrak luxeak zituan, eta soiñekoa arro arroa, azpiko kan-kan gogorak ematen zion zabalkeraz, ballet antzeko iduri meekor burduntzia gogoratuaz. Polita zan, eder zoragarria ezpa zan ere! Gatza zuan, beiñepein, beste batzuek mami zardai-tuak baiño ez dituen ondoan. Atsegingarria zan, eta ordurarte ez zuan ainbeste pentsatu Serafin-ek.

Galdu-bearraren beartzun-ordua! Ura, ezkonduko zan, eta mutilla... Txirrita-ren bertsu zati ezten au bururatu zitzaion:

«Allegatu naiz irurogeita  
amaseigarren urtian;  
ze lastima dan ezkondu gabe  
sartu bearra lurpian...».



Ez zuan, noski, ainbeste urterik; urteak txirimara, uste izan gabe ugaltzen diran arren.

Matilde azkar eta bizkor, sartu zan «Iruña» kafe-txean. Eta bizkitartean, an zegoan Serafin, Shakes-peare zoliaren txotxa zutitu ala etzin bearrez. «Ba gaituk, ala ez gaituk». Orra or koxka.

Nork eramango zuan zera zerera? Serafin-ek ala besteak? Goiz gorrian jeiki arren, ez-paita eguna leenago zabalduko.

Egundoko masaillekoa eman nai izan zion Serafin-ek bere buruari. Txoriak iges egin ta gero zebillen kaiola egokia nola billatuko.

Albia-ko zugatz tantai aietan, besoak utsik eta billoiz geratzen zioazten. Orri panpoxa izaniko zer orlegi ta biziak, orduan, orbel biurturik, xirxir isilean zetozten lurrera, apal-kutsuz, azken-galdez, deusezaren eske. Adar maiteetatik erauziak, antxen sorturiko aur panpiñak. Durundu egin zioten arako neurtitz aiek, espa eme ta makalez.

«La feuille d'automne  
emporté par le vent  
en rond montone

tombe en tourbillonnant.  
Colchiques dans les prés fleurissent;  
Colchiques dans le prés,  
C'est la fin de l'été...».

Udazkeneko orbelak noren irudia, urrun xamar bederik, gogoratzen ote zion? Kemenik gabeko gizonaren kantu motela zebilkion barruan, adur biurriz, gun-gunetan, muiñetan, maitale-nai eta maitale-erdi-ra ere eldu etzan Serafin gizarajoari.

## VI

Ba du bai luzera ederrean txoko polit eta paketsurik Mazarredo kale bakanak. Batez ere illunabar eta jarrai dioazkon orduetan. Pakezale diranak antxen zear oi dute beuren gogarako ibillera eta orobat egotaldi ere. Gazte maitemindurik asko joaten baita arri aietan aurrera, eta gora eta beera. Amaika ametsen kabi epel, eserleku aiek!

Negu leeneko arrats batean, an egin zuten egotalditxoa Loli-k eta Manu-k ere. Artean, auen alkar-joerak mardul iraun-gogo zuan.

Lendabiziko otzaren oxkirriak uzkurtuxe, neguko jantzi lodikoteai deia egiñik ziran bilbotarrak. Batez ere emakumeak. Gizonezkoak, gabardiña zer bat izan ezkerro, jo ta aurrera. Eldu zan bada, sorbaldak eta paparra eta bizkar-aldea ere estaldu bearra. Pixu nekagarria egun luzeak eltzean; astuntasun maitagarria berriro aitona Negu makurra kalean eta mendian eta ibai-ertzean somatzean. Eta batean eta bestean, andrazkoen soiñekoak izaten du aldaketarik lurraren axalak aiña. Urak gora, urak beera; batean jasoago, bestean apalago. Eztu paralelo orrek beti marra zeatz,

ziur eta tinketza izaten. Orobat andreen soiñekoak ere. Iñoiz, belarrondotik belaun ganeraiño; iñoiz, bular-ingurutik aztal erdiraiño. Iñoiz, eskuturreraiño besoak; iñoiz soiñekoak batere besorik gabe; iñoiz, guante luzeak atzaparretatik asi eta besaperaiño eta gero, ezer gutxi gaiñerakoan.

Loli, txukun jantzia zegoan, aundizkeri gabe. Bere diruz egiten al zituan soiñekoak, ala Araibar-en ezkurrak ontzen al zuan aren ziskua? Kobalto koloreko gaiñekoa zuan; eta urdintasun arek ederki egiten omen zion, musuko kolorea zertuaz.

-Beiñere ez naiz alderdi ontan egon, Manu.

-Ni bai sarri egon naiz, ordea. Batez ere emendiek urbil bizi izan nintzanean.

-Orain nun bizi zera? Ain zuzen gaur da eguna orixe jakiteko betarik izan ez dudana.

Eta Manu-k isilari eutsi, ori aditu arren.

-Emendik urre bizi nintzanean... Txikia nintzan ni orduan, gaztetxea.

-Oraindiko ere ez zera zaarra.

-Ez, siñisten dizut, neuk ere orixe uste baitut. Bes-tela galduta nengoke.

-Galduta, zergatik?

-Oraindio bizitza ontan asegarri asko, atsegin ugari gozartu nai nukealako.

-Ez al duzu asiera izan nirekin ere?

-Asiera bai, baiñan, badakizu gizon baten zera asetzeko emakume bat naikoa eztana. Atsegiña! Orre-txegatik eldu nintzan zuregana, eta zuk, nik nai añañean eman ez didazuna.

-Ez dizut ulertzen. Ez al dizut nire maitetasuna eta neskatasuna zuri eman?

-Eta zer da ortan arrigarririk? Jakin bear zenduke ortarako ditugula munduan neskatzak.

-Bere denpora danean, agian...

-Beti da denpora, gazte geran bitartean. Berriketa utsaz, gizonak aspertu egiten dira. Berriketa ezta gorua!...

-Aspertu egiten al zera nirekin?

-Ez dizut orrelakorik aipatu. Gaur ez nuan beste iñoiz bezin gogo berorik, eta, utz dezagun solas ori.

Isilaldiñoa izan zan kale paketsu eta bakarti artan.

-Ikusten al duzu orain orko etxe berri aundi ori, artean amaitugabe dagoana? Ortxen, leenago, jardin polita zegoan, eta barruan txalet txanbeliña. Bazter batean beste etxe tipiagoa zegoan.

-Orrelakoxea gustatzen zait niri gu biok bizitzeko  
-esan zion lilluraz Loli atzipetuak.

Manu-k xistu egin zuan agiñartean, au esan nairik bezela: «ortarakoxe zegok egon, Manu-ren larrua, irekin ezkontzeko; zuntzuna ez bestena».

Ez zuan jaso neskatxak xistuketa destaiñazkoaren esanai ta iragarpena.

-Etxe txiki ortan -jarraitu zuan mutillak- bizi izan nintzan ni. Emengo aldean zegoan jardiñerako ate zabala eta beste txikerrago bat. Eta beste aldean beste ateño bat, jardiñerako eta gure etxetxorako. Aitarik, enuan ezagutu, eta ama doi doi. Zazpi urte nituala il baitzan; alborengo batek garbitu zuan. Alaz ere ni bizi nintzan ango andreak, gure ama penaz, bai, il zala esaten zuan.

-Gaztetxotik zera, beraz, umezurtza zu!

-Bai.

-Eta, zuen ama etxeño artan bizi izan zala esan al duzu?

-Ez. Aura or bizi, ez. Aura il zanean, ni ekarri ninduten orraxe. Or, senar-emazteak bizi ziran, eta aiek seme-alaba gabeak ziran. Orko ortulau bezela zan, eta iñoiz neskameak eta, txaletan bakarrik bildurrik izan

ez zezaten, senar-emazte biak zituzten zaitzaille ta lagun bezela.

-Orregatik zera zu ernaia ta pizkorra gai askotan.

-Eskerrik asko. Emakumeak bear bezela ezitzen ez dut ikasi ordea oraindio. Ez duzute zuek gure gura-ria eta jitea ezagutzen maiz.

-Gaur nire kontra al zagoz?

-Bai, egon bearko. Eskatzen dizudana orrenbestean zuk uka ezkerro, ezin gure artean batasun mamitsurik egon.

-Manu! Zuri ta beste iñori ez diot ba nik askatasunik eman. Batzuetan bildurrak artzen nau, eta urrutiegi joan gerala uste izaten dut. Manu, ez nuan ongi egin illuntze artan denpora baiño leen zuri utziaz...

-Loli! Asarretu egingo al zera orain? Norentzat dituzu begitxo oiek, norentzat? Eta masail politok eta aotxo eze ori, norentzat? Eta beste loretxo geiago ere...?

-Zuretzat, noski, zu lapur biurturik, nire zeron ebasle izan baitzera!

-Musutxu bat, Loli.

Batera eta bestera zioazten bidaztiak, bakartiak, biñakoak, saldozkoak, etzioten geienbat jaramonik egiten an eserlekuetan gauero maitaketan aritzen

ziran bikote pinpirrinduai. Izadiaren legeak berez oi dute indar sarkorra eta zabalkorra.

-Ez duzu ezeren bildur izan bear, Loli! Esango dizut egunen batean. Ni ez naiz, nornai bezelakoa gauz oietan. Ez duzu zertan izurik izan laztantxo!

Neguko gauak oi duten izerdi jarioa, intz otz eta ezoa izan oi da; eta aren igesi, jaiki ziran eserlekutik, eta bar dotore batera eraman zuan Loli bere xalantak.

Bar artan sartzeko unean bertan, andik neskakta eder batek kanporako bidea artu zuan. Manu-k nai bai ta nai ez, aren begietara so egin zuan, eta ezin ba esan zer ikusi uste zuan. Baiñan, bapatean, zalantzaz josia geratu zan Manu, eta ez barrura bai barrura, azkenean ere kanporantz egin zuan, atera zan neskatxari oles egin bearrez.

Artean neskakta eder aura, lurrak edo irentsi zuan, an iñun ezpaitzan agiri, Manuren damu aundiz. Loli konturatu zan egitada ortaz, eta Manu-ri besotik eta solapetatik ere eldu nai izan zion. Belarrondokoa jaso zuan, ostera, Loli izutu-berriak. Eta Manu, ari izan zan ara ona beatu ta beatu. Alperrik ordea.

Bizkitartean, Loli, miñez eta amurruz beterik, negar batean asi zan bar apain artan barruan. Ez zuan erraz igarten ordu erdian gauzak egin zuan aldaketa.



Teatru bateko bigarren ekitaldia zirudian, kaleko egoerak eta bar argitsu artako jokaerak. Maite-musu beroa eskaiñi zion mutillak, andik ordu erdigarrean, beste irudi eme bat ikusi zuaneko, saltoka ta goragoraka jardun baitzuan, izurda bokarta sail gizenaren inguru bezela. «Zer ote zedukan emakume arek, berak ez zedukanik?», -galdetzen zion bere buruari Loli atsekabetuak.

An zeuden bezeruak, batzuek berriketan asi ziran, ikusitakoaz, jakiña. Beste batzuek, irakurtzen edo edaten jarraitu zuten.

Manu-k norbait ikusi uste zuan. «Kolombine» alegia.

-Bai, bera izan da -ziotsan bere buruari-. Ene andre eder orrek esku-artetik iges egingo al dit bigarrez ere? Lendabiziko aldian baiñon zertuago nauka bere misterioz eta zador-itxuraz. Nora sartu ote da? Atadiren batean? Kotxeren bat izango zuan, agian, maitariren batekin. Sorgindutako andre begi berdea!...

Itzaldi orrek ez zion, ordea, batere onurarik ez emaitzik sortu.

Arako emakume ura ez zan iñondik iñora agiri. Kale erdian, ez kale ertzean, ez zegoan iñor. Ez zego-

an bada; begitandua ote? ardorik ezpait zuan egun artan edan, ez beste edaririk, bazkal-ostetik kanpo.

Etsita, leengo bideratzea erabaki zuan. «Obe da ezagutua eta eskuarki duguna, alegia, ederra eta urruti duguna baiño» -zion, nonbait, berekiko.

An, eserita maitxo baten gaiñean besoak zabal, makur eta negarrez zegoan Loli. Teatru artako ikusle ez zan, soillik; egille ere, jardulea ere bera baitzan doakabeki.

Gazte bat, mutil jator bat urreratu zan Loli-rengana.

-Zer gertatu zaizu, neska? -galdetu zion adiguri-tsu-. Bakarrik utzi al zaitu bezeru batek? Orain, libre baldin ba zaude, besteren bat izango duzu aldameneko ta lagun. Nai al duzu, ederra, gaur nirekin adiskide ta maikide izan?

Azken itz oiek entzuteko une-unean eldu zan Manu barrura, neskaren ondora.

-Zuri nork eskatu dizu ezer? -bota zion ausarki itza arpegira Manu-k gazte ari-. Zoaz emendik urrun, zeure bidean, gaiñerontzean gozo-gozo bat emango dizut «lau» esan baiño leen.

-Gozo bat nori? Besteok besamotxak gerala uste izanik bizi al zera?

-Naikoa da arrokeririk!

-Arrokera, e? Zurea izan da ori, eta iraiña ere bai.

Emen ez dugu papaukeririk bear eta... Eutsok!

Eta ori esanaz, egundoko muturretakoa irabazi zuan Manu-ren «kodastak». Zan giñoan lurrera erori arteraiñoa.

Iskanbilla sortu zan inguruan. Loli-k karraixi egin zuan, eta barmana an zebillen, bakeak nola egin asmatu eziñik. Andik eta emendik bildu ziran baranoan bezeru guztiak, eta gizonok banandu guraz ekin ere bai. Manu, lurretik jaso zuten, eta koipe gorriak, aspaldi ezta, ikusteko aukera bitxia izan zuan. Bestea, zartatzaillea, an zeukaten atxikia, lau lagun artean. Ontan, Manu-ren ezagun bat izan zan, gauzak beuren lekura eraman nairik asi zana; pake egoerara, alegia.

-Manu, Manu! -esan zion adiskide ark-. Baiña zertan sartzen zera zu naaste auetan?

-Nor da ori? Apurtu egin bear dut, birrindu!

-Geldi, lagun zarra, geldi. Aski duzu oraingoz zure odol-kolpe orrekin-eta. Zorioneko gonak orain ere, Manu? Noiz arte, baiña, noiz arte? Ba al dakizu nor dan ori? Borrokariak saioketan jartzen dituana duzuta? Pakea, obe. Zoazte emendik; tira, nik lagun egingo dizut, eta ari zerbait zuriketa esan bearko diot.

Loli, anartean, txuri txuri eginda zegoan, ez negar ez itz. Bere erriko mutil esgot eta traketsak bezela alkarrekin ikusi zituan, muturketan eta gogor gaiñera, iri aundiko zalduntxoak!

-Zuk duzu erru guztia, Loli! -jaiki zion zorrotz eta beazunez, Manu-k.

Orduan, katuak bezela zapart egin eta, an joan zan kalera Loli, bere senetik irtenda. Aguro joan ere aren jarraian, Manu; eta eskuturretik oratu zion gogor baiño gogorrago.

-Nora zoaz niregandik igesi?

-Ez dakit! Edonora! Ezin dut jasan geiagorik!...

-Edonora? Ez, etxera, eta oraintxen bertan, edota... neuk nai dudanean.

-Oraintxe bertan; bai.

-Gezurra aterako zaizu itz ori.

-Oiu egingo dut.

-Ito egingo zaitut, ito, ulertzen?

-Ba, gaiztoa izango zera, erale bat, gaizkin zakar bat!

Orduan, beragana teink-egin zion mutillak eta besapean sartu neskatxaren burua. Biguin antzez, esan zion Manu-k:

-Ez dakit zer gertatu zaidan, Loli. Emakume ori ikusi nuan bein, nirekin dantzan egin zuan, eta gero, bapatean aldendu zan. Iñauteriak ziran, eta berak, antifaz txuria zeukan. Eta erdian, zuloetan begi berde batzuek, gaur ikusi ditudanak. Geroago, karta bat egin zidan; ederra nintzala esaten zidan, baiña ni enintzala gai aren gorputzari atsegiña emateko. Irain orrek min eman zidan, eta...

-Alare, gaur, aren atzetik joan nai izan duzu, ni utzita...

-Zu utziaz, ez. Nora ote zioan jakin nai nuan. Kezka bat sartu zidan barnean eta batzuetan, gabetan bakarrik nagoenean, oian izaten ditut gogoeta beltzak, zazkarrak, latzak.

-Ni, orain, sobre banengo, esaidazu lenbailen!

-Ez, Loli. Joan zait aldi txar ori. Nik uste dut... sorgiña dala edo. Begi berde aiek! Ez al dakizu iñoiz sorgiñak andre zaar eta urrengoan andre eder eta urrengoan katu ere biurtzen diranik? Beiñola, katu bati arrikada itzala eman zioten, eta urrengo egunean sorgiña esaten zioten atso bat, erren eta erren zebillen oiñeko miña zuala ta...

-Eta nire begiak ez al dizute ezer esaten oraindik? Gizon aldakorrak!

-Entzun, txiki, ezta berdin. Arekin ez dut besterik egin, bein itz baizik. Zurekin, itz eta geiago. Ura baiño geiago zera gaur zu niretzat, Loli. Ura, utsa da, lillura. Zu, aragia zera.

-Aragia bakarrik, Manu? Eta besterik ezer ez al dut?

\* \* \*

Urtearen azkeneko astea eldu zanean, bere erri-txora joan zan Loli, kanpoko edertasun eta bikaintasunik ikusi ostean; eta auek eman oi duten atsegin, gogobetetze eta buru-azkartasuna somatu ondorean, berriro eldu zan bere sorleku apalera, Bilbon lendabiziko egadak egindako txori leen bakun eta gurbilla. Ez zan itzuli bere kabi aldera, andik atera zan bestean, oso eta ukigabe; ez. Egada nabar eta nabarmenak egiña zan ordurako, iri aundian aurkitu zuan gabirai aura zala-ta.

«Sibilia, Granada,  
Madril, Toledo...  
Kanpoak ikusi ta  
etxera gero»...

Erriko jende apal eta jatorrak ez zion ezer somatu ere egin, iri aundian urte bete inguru bizi izan zan neskatxa ari. Apaiñago zegoala, jantziago, dotoreago, besterik ez.

Neskatxak, beuren eta aren aldea, aundia eta nabarigarri zala esaten zuten. Andereño biurturik itzuli zala errixkara; señorita egiñik, alegia. Aren idurira egingo zituzten soiñekoak, aurrerantzean. Obeki esan, ark berak egingo zizkien modako jaztura panpoxak; gerria gorago, gerria beerago; batean luze, bestean motxago. Ez zuten izango erbestera joan bearrik. Errirako mesedea zan. Neskaxentzat gogo betetzea.

Mutillak, ordea, beste iritzi bateko ziran, batez ere, soldaduzka egiñik etxera biurtutakoak. Eta oien artean, lege ori Bilbon bete bear izan zuten batzuk. Oietarikoak, bein baiño sarriago ikusi izan zuten Loli gazte txairo baten besondotik; beste batzuetan, belbillean sartuta; orduan ere gazte bera izaten zuan lagun. Iñoiz, bakarrik ere bai; baiñan orduan erriko mutil ezagunai Loli-k jaramon askorik ez, kasu gutxi eta aurrera. Beste neska batzuekin aurkitzen zutenean, orduan bai izan oi zan Loli atsegiñago, xaloago

ta amultsuago bere erriko eta auzoko mutil soldaduekin. Baiñan, osterantzean...

Eta orain, Loli arroxko ura errian zegoan. Zer egin bear zuten? Nork egingo zion itz lendabizi? Jai eguneko dantzaldian, nork aterako ote zuan dantzaketara, bestek orduko? Eta zeinek lagun egingo ote zion gabaz neskatxari, etxera joan zediñean, musika ostean?

Ordurik atsegiñena izaten baita, mutil gazteen-tzat, gabeko illuntasunpean neska-laguntzen egitea.

Joango ote zan dantzaketara? Egingo ote zuan bere erritarrekin, leen bezela balseo saiorik? Edota, Bilboko zalduntxoari gordeko ote zion bere bakartadeko aldia, bestez laketik izan gabe, dantzaketan aritu gabe?



## VII

Lanerako orduak goizean asten zituzten Araibar-en landolan. Au agertu bitartean, dakigun bezela, an jarduten zuan nagusi-maillan aren apoderadu Serafin Gezala jaunak, eguneroko lan, arazu eta zeregiñak egokiro zuzendu-erazten.

Kale nagusietan ba zebillen ordurako aruntz onuntza, eta beribillen klaxon madarikatuak egundoko iskanbilla ateratzen zuten, nagien loa eta nagikeria bera ere astindu eta aizatu guraz bezela.

-Amabiak dira eta gure nagusia noiz agertuko ote zaigu? -zion Serafiñ-ek. Eta ori gaur emen, zer berria dugularik.

-Kanpuan al da? -galdetu zuan, orduan, emekiro ta goxo, lenbiziko aldiz ara eldu zan *meka* berriak.

-Ez dut uste -ziotsan Serafin-ek-. Ezpaitu ezer adierazi. Alaz ere, iñoiz, batbateko kanpora bearrak izaten ditu-ta, ez dugu jakiten bera agertu arte. Eta, zer, andereño, gustatzen al zaizu ofizina au?

-Tokia bai. Orain nagusia ezagutu bear eta... aren borondatea.

-Nagusia, zalduna duzu beti ere, eta aziera onekoa eta guztizko zera, batez ere andereñoekin. Ikusiko duzu. Ez al dizu esan biali zaituanak?

-Bai, bere ezaguna dala esan du eta.

-Orduan, naikoa esan dizu.

-Nola, nola?

-Ark ezagutzen baldin ba du... nik ere ezagutzen dudala, esan nai nuan, eta zuk ere...

-A, bai! -esanaz, isildu zan neskaxa, ezer ulertu ez zuan arren.

Andik geroxeago, idiki zan atea alderen alde, eta Araibar zalduna agertu zan bere ofizinara. Apain zeto-  
rren, ortioz, ezpaiñetan xistu-soiñua.

-Egunon, Araibar jauna -otsegin zion Serafin-ek malguki.

-Egunon guztioi! -jardetsi ere, nagusi adiguri-  
tsuak.

-Araibar jauna: auxe duzu gure *meka* berria.

-A, bai?... Neska argia dirudi. Egunon; nola zabiltz?

-Ba, ba... ederki. Eskerrik asko.

-Dorote deritza, ta deituraz, Zaldibar da, -geitu zion Serafin-ek.

-Lanean ongi jakingo duzu, ezta? Beste iñon egon al zera lanbide berdiñean?

-Bai, jauna; urte bi ta erdiz jardun izan dut, eta orain...

-Emendik aurrera ementxen, ez al da olantxe?

Barruan zekarren poza lasaiago ta mamitsuago egiten zitzaion Manu-ri. Beste neskatxa gazte bat zedukan beragandik ez urruti, eta berria gaiñera, antza.

-Serafin: ezer ba al duzu gerturik Zaldibar andereñoak makiñaz garbiroki jarri dezan?

Eta menpekoak eraman zizkion karta bi nagusiari, neskatxak bere lendabiziko lana asi zezan. Makiña berria zegoan alderdira eraman zuan Dorote, bere nagusi adiguritsuak. Eta an ere, argiak bizkar aldetik izateko eran jarri-arazi zuan. Bildurgarri iruditzen baitzitzaion, neska gazte batek illuntasun artan ikusmenaren zuurtasuna galdu ez zezan.

-Politak dituzu izan ere, ba, begiak! -ziotsan Manu-k poliki, neskatxa poxpolari.

-Eskerrik asko.

-Begiak eta... eskuak ere bai. Baiñan, berandu samar da-ta, egiteko ugari dugu. Emen dituzu paper berriak, txuriak, ezteri guztietakoak. Emen, azpirakoak; eta emen berritzekoak, ugaritzailleak. Emen, gomatxoa ere. Nai duzunean asi zaite, beraz. Auxen

duzu eredua. Etxe ontan taiu ontaz baliatzen gera. Goienean estu eta eskubira; beerago, zabal eta eroso. Karta bi oiek bukatzean zerari, jaun orri, Gezala jaunari eramango dizkiozu. Besterik ezertxo nai izan ezkerro, edota dudaren bat, niri edo ari esatea besterik ez duzu.

Dorote bere lanbide berriko esertokian eseri zanean eta baita zutik iraun bitartean ere, Manuk astiro ta neurritz beatu zion.

-Polita neskatxa, polita. Eztu, egitan, tratu txarra egin gure mutil zaarrak. Oraindio ba du gusto apurra, alazaiña!

Mutil zaarra, Serafin apoderaduari zeritzon, baiñan berekiko bakarrik, ez iñoren aurrean iñoiz ere.

Manu, bere tegian jarri ta asi zan arloan. Maieko kutxetatik paper pilla batzuek atera zituan. Batzuek alde batera jarri zituan, besteak beste aldean ipini. Garaitikoak, mai-erdian, atzerago zabaldu zituan.

Garatz eta negozio zenbaitetan arteko zan. Teatru bateko burukoa zan, eta «Fenix» hoteleko goraberen ardura gorengoa berak zuan. Baiñan batez ere, makiña eta tramankulu berezi batzuen ordezkoko edo saltzaille zan Euskalerrri osoan. Emendixerik zituan irabazpide nagusiak. Bost lagun zituan bere ofizinan, eta auen

nagusi bezela, Serafin zan, Manu-ren oiñordeko, arazu artan. Lanak geituaz eta besoak bear ba, eta Serafin-ek, ezagun baten alaba zintzoa zala-ta, aukeratu omen zuan neskatxa aura, ondo bearrez, eta irabapi-dea emateko gogo onez. Etzuan gogoan nonbait...

Paper asko atera zuan bai, Manu-k maiera, baiñan paper aiei baiñon sarriago beatzen zion neskatxa berri ari. Ezin ukatu gizonak, bere setaren giarra ernaia.

-Gaur eztugu, noski, negoziotan ekiteko goiz aukerakorik. Alare, Serafin-gatik ezin beste orrenbeste esan! Garatzaldi bakana gaurkoa; eztu, bada, balio txarrik ekarri gure baranora.

Eta Manu, diru-garatzetzi opor-pitan emanaz, gona-garatzetaz gogoetan asi zan. Ezin obeki eldu zan, agian, emakumetxo aura ofizina artara. Lanerako ego-kia zirudian, lenengo begiraldian eta azaletiko zerean. Eta gaiñera, *meka* oiek toki askotan ez dute lan geie-girik izaten, beti onelan jazo ezarren. Apaingarri beze-la ere izaten dira lantegietan; batez ere goikoen poz-garri, beeko langilleengandik urrutiago egoten baitira, nagusiagoengandik baiño.

-Txori berria dugu, beraz, Manu! -ziotsan bere buruari. Nai izango ote ditu onek nire maite-xistuak

aditu, eta geroago, nire aldamenara eldu, biok batean egatu gaitezan?

Loli-rekin aspertzen asia zegoan. Etzekian zergatik, neskatxa arengandik asko ta asko ardiesten asia bai zegoan, lendabizikoan zerbait traba ta atzerapen aurkitu arren. Erran zaar baten muiña ere ba zuan gogoan, orraitio: «Berria, obea». Ez zuan, noski, ori esan nai izango ardoagatik edota adiskideagatik. Otoz-otoan alako zer gustagarria begien aurrean izanik, barruko txingarrak bolara artzen zutela esan bear Manuri buruz. Ez zekian arek nola azaldu bere eziñegona, baiñan olako zerbait zan egiaren erro ta asiera. Bere aragian dei bat izan oi zuan noizean bein, baiño maiztxo, ordea. Adiskideak ere alakoxeak izaten zituan: parrandan asteko, ordea. Gero, gauzaren aria luzatu-alean, besteengandik iges egitea izaten zuan gogoko. Bakartia zan, berrizalea zan aiñean.

Bere denporan izualdi bi izan zituan. Lendabizikoa, andramiñez jairri zanean ogei urtetik lasterrean. Bigarrena, bere adiskide batek andremerke batengandik sastakada irabazi zuanean, atsegiñarozko gau zikin batean; odolak eta min-oiuak eman zioten barruan alako zarrada latza. Baiñan, geroago, osatu zanean eta bigarren zereko gertaera aaztu zitzaionean, leena

zuan gogoko, lera-jokoa atsegin. Edaten, ordea, neurria zuan geienbat. Marka batera eldu ezker, exti esaten zekian edari onenari ere; edaria oiñarri bezela ontzat ematen bait zuan, baiñan gerorantz logalea ematen zuan zerik ez zuan, nai izaten; emakumeak soilik, jaia legean bukatzeko. Eta auek aldatuak, trukatatuak, berriztuak izan ezker, zerik gozoena, moka-rurik zoragarriena artaz zale danarentzat. Oiek zituan asmo gure Manu-k.

Orregatik, aldakuntzan bait-zegoan ao-txuritasuna, eder-aztarna, ximen-ukia, Serafin-ek bai igarri ere bere nagusiaren gogo ta jitari, batere uste izan gabe. Eta Manu eder-zale zan, gona-zale zan aiñean.

Andik gerora telefonoak ots egin zuan. Neskatxaren mai gaiñean egin ere; baiñan beste despatxukoaz zuan elkar-kakoa eta lendabizi Dorote-k jaso arren, berealakoan utzi zuan urrutizkin-belarria, eta Manu-ri entzupidea igorri.

-Bai, ni naiz, Araibar. Esan ezazu esateko ori.

Eta gero isilaldia izan zan. Manu-k entzuten jarraitu zuan, eta geroago asi zan ezetza ezetzaren gaiñean ematen. Iñolaz ere ez. Utikan. Eta bat-batean laga

zuan tresna aura bere tegitxoan. Asarre gorrian utzi ere. Izan zuan adar aura berriro artzeko abiada ere, galantak botatzeko, ariaren beste aldean zegoanari.

-Galdu oiek, zer uste dute egitea? -zion bere kolkorako-. Eztute ez, nire xentimorik ere jasoko. Gaiñera etxe ortan ere eztute izango tokirik. Badakit etxe orren jabe nor dan eta esango diot; esango diot bai zer ari diran kultura itxurazko aldendu oiek. Nik eman niela ezer itxaropen? Ez egun ez eguzki; oker zaude. Ez, konpañeo!...

Dorote-k ez zuan tutik ulertu.

Manu bere tegitik urten, eta bere apoderadu Serafin-engana joan zan.

-Aizu, Serafin, ba al dakizu zer kantu eman didaten oraintxen bertan urrutizkiñez? Gure laguntasuna eta izena ere ba dituztela, ustez beintzat, esan dit orbatek, beuren bazkun ori eraberritzeko, indartzeko eta toki barrian ipintzeko. Ba al dakizu nortzuk diran oiek?

-Nortzuk?

-Nortzuk! Zera, belarri-ertzera esango dizut meka berri orrek olakorik entzutea komeni ere ez da-ta.

-Olakorik! Eta dirua eta izena diote?



-Bai, arrantzale ta eiztari bezela agertu nai dute beuren burua; baiñan, guk ere, lengo lepotik burua. Ez gera ain ergelak, ez. Oiek gutxi dakite Araibar... zera dala beti. Pekatari izan arren, gauzak beuren zeretik egokitzat ematen dituana, ez izaeraren mutur-joka. Gordiñak esan izango nizkion, neskatxa ori urbil egon ezpalitz.

-Arrituta nago.

-Arrituta ez, baiñan asarretuta bai ni, emeturiko lirdinga oiekin. Noraiño eldu bear ote du gure mamia-  
ren makurpenak?

-Aitaren eta Semearen...!

Goizaldia bukatutzear zegoala, Araibar-ek adierazi zion orixe neskatxa eldu berriari. Alegia, ordua zala lanaldi erdikoa bertan beera uzteko eta bazkari galdez abiatzeko.

-Arratsalderarte, bada, Zaldibar andereño!

-Arratsalderarte, jauna.

Manu-ren landolan zeregiña ugaritu ezezik, gaiak eta jardun-muetak ere ugaritu zirala esatea, agian, ziurrago zan.

Etxeen salerosketan aritzeko gogoan zuan aspaldi, eta ortan ere asiatu zan. Diru mardoska ederrak irabazteko, gait berebizikoa zan aldi artan. Dirua zorrean ematen ere asiatu zan, eta etxeen gaitnean ere bai, gero hipotekak eta egiñaz. Dirua irabazi ezkeron biderik geienak ziran onak. Orixe ikasi zuan, eta ikusi ere bai, bere denporakoak egin zuten bezela. Bat ordea, ezin eraman izan zuan, dirua uzte kontu orretan. Arako... eiztari eta arrantzaleen bazkuna zalakoa... Aura ez zan gizonen negozio jatorra, emetutakoen eta endekatuen joera likitsa baizik. Zaldun jaioa zan, bere ustez, eta zaldun azia eta bizia, eta ez bertzelakotua. Krotxoa beti ere, eta ez emea.

Goiz batean gizontxo bat eldu zitzaion apal, txeratsua eta guztizko zerean.

-Alegia... agiri danez emen ematen omen dute...

-Emen, zer ematen dute...? -ebaki zion itza garratz Manu-k.

-Zera, dirua; gero biurtzekotan, jakiña.

-A, ori bai, ematen dugu, ematen dugu. Eta zertarako bear duzu ba diru ori?

-Zertarako? Luzea da guztia zeazkiro azaldu bearra balitz, baiñan labur laburkiro ere adierazi nezakizuke. Nik, ba, moda-etxe bat jarriazi nai nuke.

-Moda-etxea? Ez da gaizki. Polita asmoa, polita.

-Bai. Baiñan, gauzaren zera da... moda oiek zaarrak eta berriak izango dirala, alegia.

-A, bai! Bakana orduan, zer berezia duana.

-Bai. Zer batzuek zarrak izango dira. Oiek geldi egotekoak betiere, geien bat. Eta besteak, alderantzikoak, ez zaarrak, berriak edo baizik, aldakorrak beintzat. Ulertzen al didazu?

-Tutik ere ez.

-Geldi egotekoak baiño zer aundiago izango dute, pleit aundiago besteak, berriagoak, atsegingarriago izango baitira oiek. Ulertzen?

-Gauza leen bezin argi dagola uste dut. Niretzat ez ordea.

-Esaterako: niri, zaarkuldua bai naiz, zaarrak diran zerak gustatzea izan liteke; baiñan, zuri, alegia, berriak gustatuago, eta ori enuxu-banuxu ibilli gabe, nik uste.

-Ori bai, nik berria beti ere naiago, maskildua baiño.

-Ikusten? Bat gatoz berealakoan zu eta ni.

-Alaz ere, ez dizut oraindaiño zure eskaera osoa jaso. Parkatu ba.

-Orregatik bada, batzuen eta besteen gogoia bete nairik, nik neure garatzetxoak borobildu eta antolatu nai nuke.

-Tira ba; gauza, egokia baldin ba da eta erantzupenik baldin ba duzu, dirua... iritxiko dugu. Eta ba al dituzu paper garbiak eta antolapen eta estudio-gaiak bear bezela?

-Ez, nire zerak ez du orain arte paper bearrik izan. Artueman labur besterik ez da-ta. Nai duanak aukeratzten du, egiten du bere zera, pagatzen du eta or konpon. Eta gura ez duanak, ikusi, bertan utzi eta kalera leen aiñean. Ez du egunero arpegi berdiña, baiña aste barrean gutxi gora-beera berdin.

-Ez, gauzak ezpaitira egunero erosten eta saltzen, salgei egon arren.

-Orixe ba.

-Eta zenbat bear izango duzu?

-Tokia apaintzeko eta txukuntzeko, orain edozer dago garesti-eta..., Baiñan gero, beste zerak, oiek etorri eta joan, eraman eta ekarri, beti aldatzen dira, osoro iñoiz pagatu gabe. Agertuko naiz urrengo batean zeetasun geiagoz itz egin dezagun. Eta, euneko zenbatean uzten duzute zorko, zuek, dirua?

-Euneko sei baiño apalago, merkeegi dala deritzat.

-Euneko sei? Mutillak! Jasotxoegi ez ote da, gero?

-Zenbat dan ere jakin bear dugu, eta erantzupe-naren giarra ta balioa eta oiek ikertu-ostean, orduan erabaki bear ko ziuur. Uzten duanak, ori jakin bear zenduke, utzi egiten du, eta ez eman. Ematea danean, ez dago zeri begiratu. Uztea danean bai, eta alaz ere...

-Tira ba, pentsatuko dut, eta laister arte, jauna.

-Aizu, gero urrutizkiñez-edo alkarrekin itz egin bear ba genu, zure izena aitortuko al didazu?

-Zera... Anton Mantar-en entzutea izango duzu, emengoa baldin ba zera. Ba, uraxe.

Eta gizontxoak alde egin zuan andik isil isilik baiña pizkor.

Manu-k ordea, joan zanak bestera uste izan arren, ez zekian izen aren jatorririk. Eta Gezala-ri otsegin zion. Agurearen azalpena adierazi zion, eta leen bestean geratu zala ere bai, ezer ulertu gabe muiñean, koxkan.

-Eta, zer nai zuan ba arek?

-Dirua nai du, zorrean, epeka ordaintzeko geroago.

-Eta zeren kontura eta zertarako?

-Orixe ez nizuke garbi adieraziko. Dirudianez, moda zaarren eta berrien etxea ipini nai omen du.

-Diru asko bearko du, bada.

-Ezetz dio. Obrak egiteko bai, baiñan gero, zerak joan, zerak etorri, beiñere ez omen dira osoro pagatzen.

-Nolako baldintzaz ote da ba, depositoan edo?

-Agiri danez, bai. Urrengo batean itzuliko omen da, eta orregatik, jakitun egon zaitean adierazi dizut. Izenik ez dit eman, eta orduan ba, galdegin diot nik. Oso ezaguna dala alegia, eta, nik ez dakit baiñan, Anton Mantar omen da.

-Eeee?... Anton Mantar? Elorrioak!

-Ezagutzen?

-Ez arpegiz, zorionez, baiñan kantatuko dizut erriko abestitxo auxe:

«Anton Mantar,  
Anton Zantar:  
zikiñentzat  
lagun bakar»...

-Ori ere...

-Ez, onek alako etxe bat du, eta zerbait geiago ere esaten dute beragatik. Agian, bizitzara datozenai bizitza orixe galerazteko tokia ere ba duela. Ekortaraz-leak dituala, emakumeak alegia, lanbide izengabeko ortan jarduten dutenak. Orrek ez al du, ezer mereziko, nik uste, makilla on bat baizik, bere bizkarrean!

-Ai, ai, ai! Ori jakin izan ba nu! Makilla! Makilla gutxi da! Urkatu egingo nituke nik endekatutako jende zatar oiek! Agure likiña! Ziri ederra sartu dit niri, bateko joan besteko etorri dabiltzan zer oiek dirala-ta! Emakume gaixoak eta aur zorigabeak!...

Eta berriro ere, isilik egoteko adierazi zion Serafini, Dorote-k ezertxore entzun ez zezan. Araibar ez baitzan iñoiz izan, errugabeko umeen Herodes!

Lanean asi zanetik, alako begiramen eta txera goxoa egin oi zion Manu-k Dorote-ri. Anartean, Loli, bere errian uste-uste gabe lotu baitzan; lendabizi zerbait lan eskuartean artu omen zuan eta tarrapatan kendu zioten lan ura eskuetatik, bezeruak pillaka agertuaz. Ba omen zuan esku artaduna soñekoak poli-

ki ateratzeko. Manu artaz aztutzen asia zan; bear bada, ura ere bai Manu-rekin, eta an inguruan norbait asi omen zan Loli-ren itzulinguruka.

Egun batean, goizean, ofizinara eldu zanean, Dorote-k lore txukun taxak aurkitu zituan bere maitxo gaiñean, egun onak emanaz bai leuden. Murko politetan zut, lirain, usaitu. Irriparre samurrak egaz egin zion aotik Dorote-ri. Etxeko oitura ote zan emakumea-ri iñoiz maitxoan lili meaxkak jartzea? Edota, edonori ez, baiña bai berari?...

-Bai lore politak auetxek! -jakiñarazi zion Serafini-. Nork ipiñi ote ditu emen goizean goiz?

Andik egun asko gabe, lore berriak eta politagoak ikusi zituzten Dorote-ren begiak ontzixka artan. Orduan, nagusia ere antxen zegoan, bere butaka lasaian, lanean edota neskatxaren joan-etorriai begira. Bai somatu ere Dorote, lore berri aiei usai eta usai, bestela baitakoan, papertzar artean kokatua zegoala Manu. Meka gaztearen ziñu eta zirkin guztiak oartzen zituan.

Geroago, ordea, lanaldia garratz asia zan eta len-dabiziko karta bukatu zuanean eta nagusietariko bat



edo bateri eramateko gertu, bapatean Manu-ri beatu zion, eta onek bai irriparre xamurraz erantzun ere. Neskak ere orobat egin zuan, eta bien artean zerbait zebillela zirudian, aize epel atsegingarriaren antzo.

Beste goiz batean, lore berriak eta aien ondoan pakete zapal bat zegoan, paper txuriez bildua eta gaiñean itz soil auxe zuala: «Dorote».

Ez zan, artean, eldurik landolara Araibar jauna. Serafin eta beste bost lagunak an zeuden, bestetan baiño apaiñagorik, dotoreagorik, ordea. Eta lanerako ere, ez zuten amorru larregirik.

-Zer da au, Gezala jauna? -gaildetu zion Dorote-k, bere arridura azalera bearrez.

-Gaur, ba, erdi astegun eta erdi jai izango dugu. Oitura olaxen baita. Zera, nagusi jaunaren eguna dugu, urtebetetzea, alegia. Eta arratsaldean, bazkalostean ez gera iñor itzuliko onera, nik uste.

-Ori ondo!

-Eta gaiñera... Tira, ori, gero jakingo dugu nolana ere. Iñoiz, eskupekoa ere izan dugula, esan nai nuan.

-Eta au?

-Orixe da zuretzakoa, noski, besteak beste. Ikus ezazu.

-Nolako lillura emango didan! Kartelatxoa dirudi. Bai, eta alaxen da, faktura ikusi baitut. Urratu ezazu azaleko paper mee ori.

-Ez, ez dut urratuko bera eldu dediño. Ilusio geiago egingo dit, eta... egingo dio. Ja, ja, ja!

Amaikak aldean eldu zan Manu. Atean agertu zaneke xe joan zitzazkion Serafin eta beste bostak zorion-agurra eskeintzera.

Dorote an zegoan bere tokian erdi lotsa, erdi maite-ukitua, Araibar jaunari zorion agurra egiteko eta... eskerrak eman nairik.

-Or, Dorote, ez al zegoan ezer loreengandik aparte?

-Bai... jauna.

-Eta oraindio ez al diozu gaiñeko paper single ori urratu?

Eta orduan, neskatxak, ingi singleari tarrat-eragiñaz, egundoko kartera bitxi ta xarmanta agertarazi zuan guztien aurrean. Orduan, besteak aldegin zuten bakoitzaren tegirantz.

Manu ta Doro bakarrik gelditu ziran. Mutillak bai zorrozki josi ere begiak neskaxarengan.

-Gustatzen al zaizu, Doro?

Lendabizikoz deitzen zion Doro izen osoaren orde, laburtuaz, barrukotasun zerarekin. Zer adiarazpen ote zuan orrek neskaxarentzat? Buruaz esan zion baietz, neskaxak; eta begiekin ere bai, ezin ukatu.

-Gaur, oitura dugu-ta, guztiok bazkalduko dugu txokoren batean; bostak, Serafin-ek, zuk eta nik. Eta gero, jai, bazkal ostean. Zer deritzazu?

«Matxinbentan» egin zuten, egin ere, bazkari itxurazkoa. Egokia ta ugaria, zortzi lagunentzat bereixi jarria. Arda txuri ta gorri, eta txanpan ernagarria azkenean. Eta gero gerokoak...

Serafin eta beste bostak, laurak aldean, joan egin ziran kanpoko aize ozkirriaren billa gorputzeratutako gaiak ematen zien berotasuna ibitu-ustez.

Geroago, ofizinan zerbait utzi zuala-ta, Manu eta Doro antxen egon ziran puxka batean, zinera joan baiño leen.

Egun artako txanpanaren pustillak izar berri bat goiratu zuten Araibar zaldunaren zeruan. Ba zuan, ustez, maite-alorrerako lagun berria laister.

Baiña baita ordurartekoaren beerazkaldia ere, aldabatera. Loli-ren oroipenak koxka gogorra, aizkora-kada sakona, urratzerik minkorrena izan zuan. Aren lillura-tantaiak laister joko zuan lurra. Obeki egiten zuan Bilbo aldera agertu ezaz. Baiñan ura ere...

## VIII

Igande artan, ez zuan Loli-k lanbide txarra izan, batbatean Bilbora eldu eta bere maitale Manu-rekin ibilliko zala uste izanaz. Artean, bi illabete eta geiago pasatuak ziran aura bere errian zebillenetik. Ez zan bada gauza jatorra izango Manu-ri Errekalde inguruan itxedotea, alperreko zera baizik.

Zana zala, egun artan ez zan Loli bere izebaren etxean lotu. Poliki jantzia, egokiro apaindua, masail zurbilxka aietan kolorete bizia jarri zuan. Egon zan Pumanleska-ra joateko bere leenagoko neska-lagunen galde. Baiña, ez zeritzon bidezko. Maitariak, bat izango zirala adierazi zionean, zergatik siñistarazi iñori orrelako itxurakeriak?

Maitatzeko ordua eltzen danean, maitaleetarik bat ager ez-pa ledi, zio eta errazoi aundiren bat bear izango litzake, eta orregatik, zurtzak bestearen mandatu eta dei-ordea jaso bear izango luke.

Oiek ziran Loli-ren buruan iñarika zebiltzan gogoe-tak.

Zalantzan zioan Loli, kaleetan zear. Teatrura joa-tea erabaki zuan. Iru teatruetara joan zan, baiñan ez

zioten batean ere, aren irudi egiazkorik agerrerazi. Irugarrenean, kanpotik edo zala, jakiñarazo zioten. Aren ofizinara ere joan zan, baiñan jai-eguna izanik, alperreko zera.

Orduko, iragan zuan neke-xamar bederik, ibai zikin beltzaren gaiñean alde biak batzen dituzten zubietarik bat. Aize gogorra zebillen eta inguru artan iñun baiño geiago somatu zuan neskatxak alako gogo txarra bere baitan. Barruko pena eta naigabeak nun-bait eragiten ziona. Igon zan Gran Via-n zear eta an saietsetan diran kaleetarik baten izena billatu zuan. Ezkerraldera egin gero, eta urrena, eskubira. Antxen zegoan berak nai zuan lumerua. Gero, barrenean, goian eta alde guztietan, aterik ugari ba zan an. Batzuek, gutxienak, etxe bizitzak ziran. Beste asko, ofizina ta despatxuak.

Jatsi zan Loli, eta atezain zegoan andre bati galdegin zion ziurki jakin bearrez. Ez zuan argitasun aundirik atera, atso arek kontatu zionaz. Ordezkoa zan, eta jai arratsaldetan soilki egoten zana lanbide artan. Bertako arduraduna ara edo orra, aizea artzera eta jolas-orduak lasai ematera joaten zanetan, atadian ordezko gelditzen zan andre ez-gaztea.

Urrengo egunerako bearko, beraz.

Ba zuan bere asmoa. Ez zuan geiago beiñere Manu apaiñak linburtuko. Ezkontzeko itzik eman ez zion ezkerro, itza eman bearro zion gauzak zeukan itxura, kontuan izanik. Edota bestelan, gutxienaz, diru mordoxka ederren bat bai beintzat.

Asko zan Loli-k galdua zuana, amodiozko itz txoroen kontura. Ez zuan iñolaz, bere izatea, Manu ezagutu zuanean bezela. Zerbait gutxiago zuan, eta neskatxa batek zintzoro eta tinki zaitu bear zuana zan ori, ain zuzen. Alabaiña, arrezkerro, ori eta geiago ere ba zegoan egon arengan.

Beranduegikoak ziran ba, argi argiro, Loli-ren asmo oiek. Bai, damurik eta aren kaltetan ziur asko. Zer esango ote zion zaldunak? Baietz ala beste zer berriren baten kantua aterako ote zion, bilbotar mutil azkarrak? Ura ere, ez zan ba, noski, babazorro bat, ezer etzekiana. Baiñan, Loli oso sinistua zegoan, egia bere alde zegoala.

Kantari asi zan bere lanetan, makiñari biziki ekin-arazi bitartean, Dorote, ofizinako bazter argi betean. Karta eta gutunak ere banatu eta beuren tokietan antolatzen zituan. Gogorakizun gozoak zituan barruan

eta bizitzako orduak, bazterrak eta notiñak, parra egi-  
ten zioten, irri goxoa, begitarte argia.

Tirrin-otsa egin zuan urrutizkiñak.

-Nor da? -erantzun zion alaiki Dorote-k.

-Dorote, bakarrik al zaude? -beste mutturrean  
emakume batek.

-Bai, oraiñarte. Nor zaitut?

-Ez al nauzu ezagutzen? Atzoko pelikula aura gus-  
tatu al zitzaizun? eta astartekoa «Trueba»-n?

-Baiñan, nor zera nire zelatari ori?

-Entzun, Dorote, Karmele naiz, Karmele... Orain  
konturatzen?

-Bai, eta... zer nai zenduke ba?

-Atzoko filme aura nolakoa ote zan galdetzen  
nizun, neska. Eztut uste zuk argumentuaren usairik  
ere sumatuko zenduanik.

-Neska! Orixe da zure ausardia! Zer esan nai duzu  
orrenbestez?

-Zuregandik urre-urre egon nintzala azaltzen ba  
dizut, orra guztia aitortu. Esan, Dorote: aspaldi ez naiz  
zurekin ibilli, baiña orrenbesteko fidantzia ba dugula  
bion artean uste dut. Barruak agintzen dit zuri esate-  
ko eta orra ba. Parkatu, badakit min emango dizuda-  
na-ta.



-Esan ezazu bein, zure piper-itz ori.

-Badakizu ni Andertxoren zera naizela. Badakizu ongi ere nor dan. Ba, onek esan dit zure adiskide berri ori nolako bizimoduaren zale dan. Eta egia azaldu bear dizut. Edota asko aldatua dago Araibar zaldun ori, edota zu ez zera, Ander-ek eta nik uste, orrekin ibiltekoa.

-Zer du Araibar zaldunak? A. bai, badakit, ziur asko. Askoren ezin-ikusia, orixe; iñartzi azpikia, bekaitz zatarra besterik ez.

-Dorote, egi-egitan erantzun ezadazu: zer nai du zugandik Manu dotore orrek? Beste neskaxa askok erantzungo lizukete nik baiño egokiago.

-Zergatik? Ez dizut ulertzen, Karmele.

-Ala ez al duzu ulertu nai? Ona ba itz bitan: Gaur bertan autsi ezazu orrekin asia duzun maite-joko arin ori. *Belu* itza ez dezazula zuk ezagutu, damurik, beste batzuek ezagutu duten arabera. Apur batean gozartu, eta gero, baztertu. Orixen izan da orren legea. Adorea bearreko zaizu, eta nik egingo dut otoi zure alde. Agur, Dorote!

-Agur... Karmele...

Leioetatik barrura zetozten eguzki-erraiñuak pozgarriak izan arren, une artan Dorote-ren begietan lau-

soa bezela sortu zan. Urrunera begiratu naitzuan eta an, urrutian, ez zuan ezer bestelakotzen, nabaritzen. Esku artean zituan kartak goikoaz beera ta izurrez bete zitzaizkion, eta batzuek lurrera erori ere bai, naasmenduan.

Urrutizkin zazkar arek zuan erru osoa. Zertarako jaso ote zuan, iñoren olesari jaramon egiñik?

Aurreko aldean zegoan egutegi aundiak, orman isekirik zintzilik zegoala, isilik ere kontuak esaten zizkion, nunbait. Leenago, zulotxo aiek maitetasun-eztiz beterik zeuden, esanbear pozgarriz, irudi irritsuz ta gozoz. Aberaska joria izana, orduan, ordean, illerri batzuetan oi diran ezurtoki zurbil eta austegi narrasak besterik ez ziruditen. Egutegia ere, zazkar bihurturik zekusan. Zertarako zegoan an orman, zutik, arro, zabal, erakus-miñez? Joandako egun gitxi aiek izan zuten gozotasun apurra mingostutzeko, zertarako zituan gero jarraika, kate luzean, egun zeken eta garratzak, zaurigarri ziran aldi makur ta illunak?

Idazteko makiña ere, zertarako zegoan an? Iñoiz, aren bigietan atzaparrak dantzaztean, soiñuka pianuan bezela ari zala uste izan baitzuan, maite-doiñua-arentzat letra berriak bezela asmatuaz eta asmatuaz... Zertarako?

Eta toki ura ere...

Zergatik eldu ote zan, eldu, ofizina artara, gozo apur bat dastatu ondorean, mingotsaren aokada erre-garriaz, gorazko larria jasan eziñik egoteko?

Manu-ren irudia an, maigaiñean zegoan. Irudi tipia, zillarrezko inguru-ezurretan kokatua. Artu, eta bea egon ondorean, antxen kutxaren batean ez gorde bai gorde, zalantzan asi zan Dorote.

-Neskatxen ezin-ikusiak ez ote? Alarik ere, Karmele neska jatorra da; adiskide zintzoa nik uste...

Orduak aurrera zioazten.

-Egunon, Doro! -entzun zuan geroxeago. Araibar zalduna eldu zan eta bere kapela utzi zuan an, iseki-goan.

-Egunon, -erantzun zion, ez kemen geiegiz bere *meka* eta adiskide berriak.

-Gaur ezin izango dut emen egon edo... Agian, Donostia-ra joango naiz. Zeer, Doro? Illunik al zaude? Nirekin joan nai al zenduke ara? Tira ba, ori ere, egingo genduke, pozik gaiñera. Etxean abisatu, zera, alegia, Serafin-ek ematen digula mutilletako azken-agurra eta...

-Serafin ez da ezkontzen, ordea. Beste batek eraman dio andregai.

-Berdin da, Doro. Serafin-i ba dakizu zergatik gertatu zitzaion txatxukeria? Zozoa dalako. Bear danean kemenik izan ez dualako. Iñori utziko dio, ba, emaztegeia kentzen? Iñori utzi zera eramaten?

-Beste batzuek, beurak uzten omen dituzte.

-Komeni izan ezkerro, ongi egiña dala esan bear.

-Asieran komeni izanik, geroago zergatik ez ba?

-Zera, Doro, asieran gizonak ez du maiz eta arruntenean jakiten emakumearen berri osorik, eta gero, egunak joan egunak etorri...

-Bestera ere jazo liteke, ordea, neskak ezer ez jakitea, eta...

-Ez, eztu faltarik ere egiten jakite orrek.

-Zuzen ez zaudela, esango nuke.

-Goizeon zer jan ote duzu, mingaiña edo?

-Ez, Araibar, ez. Belarriok ere gorri gorriak ditut eta...

-Bero egon emen nunbait. Berokin oiek guztia itozten dute, aizea ostuaz. Goieneko leioxka ori idikiko dizut.

-Berdin da. Nagoan toki ontan ez dut nire gorputza egoki aurkitzen, ez nago gustora. Etxera joango naizela uste dut.

-Ez al zagoz ondo? Nire popoan eramango zaitut.

-Ez, eskerrik asko, iñolare ez. Kanean, aize ozkiriak edo, arinduko dit astuntasun au.

-Nai duzuna. Orko mutillen batek lagunduko dizu. Onartzen?

-Bai.

-Biar arte, ba, maite. Eta pizkor osatu zaitezela.

Eta eskugaiñean muiñ-egin zion Manu-k adiguriki. Gero, zerbait geiago egiteko ere gogoz bezela somatu zuanean mutilla, ezetz adierazi zion Doro-k, an aurrean jendea zegoala-ta. Baiñan, ez zan ori benetako errazoia.

Dorote eta ofizinako gazteena joan ziranean, bai Manu-k bere kolkorako esan ere:

-«Auntzari eta andrazkoari, eman luzea lokarri». Itzuliko da. Ez ote?

Biamonean, osteran ez zan Dorote-rik agertu landolara, eta ezta ezertariko mezurik biali ere. Araibarrek umore txarrez jardun zuan lanean goiz osoan.

Arratsaldean, ordea, neskatxa bat eldu zan Manuren despatxura. Baiña ez zan Dorote, Loli baizik.

Oles-egin zuanean, ogipeko batek entzun zion eta aura atera zan. Serafin eta Manu alkarrekin zeuden, karten azken-izenak antolatzen.

-Araibar jauna? -galdetu zuan elduberriak.

-Bai, andrea, ementxen da. Noren izena adieraziko diot?

-Mena andereñoa, esaiozu.

Manu-k jakin zuanaz batean, aldegiteko gogoia senti izan zuan. Ez zuan Loli-rekin geiago itzik egin nai.

-Zergatik? -itaundu zion Serafin-ek bere nagusiarri.

-Ez dut uste gaur dakarren zera zintzoa danik.

-Eta nola dakizu ezer entzun gabe?

-Orrekin ibillia naiz illabete batzuetan, baiñan ximplea da eta barru utsa.

-Zer dala-ta diozu ori ba?

-Nola esango dizut... Erraxa izan dalako. Eta bein nai duguna iritxi ezker... ez dakit zer geiago adirazi.

Serafin-ek pena zuala jakiñarazi zion bere ugazabari.

-Tamala? Zuk bai ematen didazu niri. Matilde dan bezin jatorra eta gazduna izan eta, besteri uztea aura

eramaten. Gizona dan gizonak ez du beste ainbesterik egiten!

Geroxeago, Serafin joan zan Manu-ren despatxutlkanpora, eta emen ura ta Loli geratu ziran bakarrik. Manu-k galdetu zion ari, zertara zetorren, eta neskatxak bai esan ere, aura agertzen ez zan ezkerok, berberak etorri bearra izan zuala.

-Gure alkarren zera, zertan dan edo eztan, atzeraurrera, jakin nai nuke. Araibar jauna.

-Ba, bertatik jakingo duzu. Joan ziñan zeure erri txora urtezaarra baiño leen. Eta arrezkero, or konpon, ez dakit zure berririk. Eta iru illabete edo ba dira, luze samarrak. Zu aaztu ezkerok, joko berdiñean gaude; nik, beste ainbeste egin eta kito.

-Eta ezereztzat al dituzu, zuk niregan artu izan zenituan eskubide ta lasaipideak, Manu? Aaztu egin al zaizu zuregatik eta zuregandik izan ditudala nik, niregan galtzairik aundienak? Nire nesкатasuna eta geiagore...

-Andrazko guztien leloa! Zer nai duzu, dirua? Eta zenbat?

-Doillorra! Ardisemea dirudizu!...

-Eta, zu zer zera, urdanga bat ez-ta?

-Gezurra diote zure ezpain legun oriek! Ni galdu-rik baldin banengo, zu izango ziñake lendabiziko ta azkenengo galtzaille.

-Ai, Loli, oraintxe ikusten dut zure begien dirdiran egiaren kaltez ari zerala. Zure arpegiko zurbiltasuna, beluri kolore orrek zerbaiten salakuntza egin dit. Zu ez zera zintzoa izan nerekin. Zuk beste bideak ere ezagutu berri dituzu...

-Gaizkin alena! Zurea da dana, besterik ez du eza-gutu nire gorputzak.

-Ba dakusat, Loli, ba dakusat azterrenik zure begi-inguru, zure masail nakan, zure makal antzean. Lendabiziko kaltea nik egin ba nizun ere, zure soiñak beste norbaiten zera ere izan du. Zin egizu, zeruaren aurre!...

Negar-zotin aundian eraso zion neskatxa minduak. Gazte, berme, garbi eldu izan zan iri nagusira, eta an galdu bide zituan lendabiziko neskatasun ta garbido-aiak. Alaz ere, Manu-k, erru guztien bizkarkada berak jaso eta ontzat eman gabe, bere aldetik, senak emanik, barruko argitasun bereixi batek aizatuta, salaketak eta agindu zorrotzak bota zizkion neskatxari arpe-gira. Au arrituta geratu zan, Manu-ren barren-distirak zerbaiten berri jakin zezakeala somatuaz edo.



-Ez da diruz garbitzen emengo gauzarik asko.

-Diruaren indarra aundia da, Loli. Nik emango dizut zerbait zillar, eta... apain jantzi zaite, arpegian agiri duzun ezurberri-antza bestela baitakoan itxurapetu, eta aurkituko duzu oraindio gizon dexenteren bat. Alarik ere, aitortu bear didazu izor zaudenentz, eta orren aita nor dan. Zuregan ikusten dut argi; ez zazula ukatu. Lotazillean egon giñan gu azkenengoz, eta zenbat...? Iru, ez. Agian, bi, edo bat. Uste ez zenuana arkitu duzu emen. Ni ez naiz aitatzakoa; zedorek aitortu ezazu, biotzaren gaiñean eskua jarririk... Ikusten? Nire itza entzun duzu; eskeintzen dizut zillarra, baiñan nirea ez danik ezin nezake jaso eta niregain artu. Indarrezko biderik, epaitegiko zerik maneatu nai ba zendu, alperrik izango zenduke. Orain, laboratoriorioak asko irakasten ta erakusten dute. Ba dakit zuk ez dakizun zerbait. Eta aski dut.

-Zergaitik atzipetu ninduzun udaberri batean? Orain onela besteri errua egotzirik, ni bertan beera lotsagarriri uzteko? Zergatik, ezkontzeko usterik ez baldin ba zenduan?

-Ez nizun nik ezetzik esan.

-Ezta baietzik ere. Emen gure gizarte gezurtsuan, orrelako gizonak ziranik ez nuan iñoiz siñistuko. Alaz

ere, egia da. Bilbo osoak jakingo du, zu nor zeran eta ni zer nintzan.

-Zer egingo duzu, ba?

-Ez dakit. Bizimodu ontan jarraitzea eziña dut. Ona nintzan, baiñan aspertu naiz. Isilla; orain, ordea, itz egingo dut.

-Nik egin dizut itz, nik neuk, Loli. Dana dala, eta ezta au toki egokia onelako zeretari jarduteko, nai ba duzu, gero zortziretan «Arizonan» izango da tokia itz egiteko. Nire azken itza badakizu: emango dizut, lendarizko irristadaren ordain bezala; geroztikakoa, ez da nire. Alperrik zure mingaiñak gezurrik esan.

-«Arizonan» zortziretan.

Egundoko kanta ariñez ta soiñu lerdezkaz ari ziran Arizona-ko gazteak. Aots jasokiñak «Illargiaren kanta» adierazi zuan, eta neska mee batek, beltzez jantzia, illea luze bizkarrean beera, takoiak tantai, ekin dio, aldamenean kitarra-jotzaille bi dituala. Zigarro-kea eta barru-usai astuna ba zan zer artan.

Illargiaren dirdirak zurbil:

Maitarientzat zer dute?

Aizean dana, isil bai isil:  
Noiz izango naiz ni zure?  
Aoa iriki, ta begiok bil,  
alkarregana logure...

Neskatxa ugari zegoan inguruetako maitxoetan.  
Guztietarikoak ziran, zintzoak, ezbaiekoak, erabilliak...  
Mutillak, ingurari, orra-ona, erle ernaiaren antzera,  
lore-auts goxoena nun miazuko zalantzaz. An zegoan  
Loli ere, poliki jantzia. Abestiak zion bezela, maitaria  
laister eta adiskidetu-naiean elduko ote zitzaion?

Aoa iriki, ta begiok, bil...  
alkarregana logure...

Giroak an, lizun-sundatxoa zuan, eta kantariaren  
aots milinga ark, larriagotzen zuan kerru ori. Loli-ren  
ondora eldu zan gizonezkoa; ez ordea Manu, Serafin  
baizik. Aren zerak agertu zizkion; ezin izan zuala eto-  
rri adieraziaz. Loli-ri berdin xamar izan zitzaion, Arai-  
bar-ek azturu edo igarle-mintzoz esana neskatxaren  
erraietaraiño sartua izan baitzan. Nola somatu ote  
zion Araibar-ek bere zintzotasunik eza? An, bere erri-  
txoan ordezkariaren bat, salatari izan zitekean zelatari-

ren bat ote zedukan, diruz pagatua, Loli-ren joan-eto-  
rri ta azi-orraziak ikertzeko eta zaitzeko? Alaz ere,  
aren itzak, ori eta geiago esan zioten; garratz, gordin  
eta billoiz esan zion egia zitekeana. Loli-k, beste gizo-  
nen batekin edo geiagorekin izan zuan soin-jokoa;  
egia zan. Bai Manu-k izan begia; sorgiñaren pare aura  
ere! Ez zuan, ordea, guzti ori zeazki ulertzen Loli-k,  
eta, orregatik besterik ezpa-zan, diruaren itxaropena  
zuan, dirumordoarena, bere erriko andre «jakintsu»  
batek orixe eman bai zion onutzat eta jarraibidetzat:  
Dirua iritxi...

-Zer dio Araibar zaldunak? -ziotsan Loli-k Serafin-  
i. Zer uste du arek, gure alkar-zer au, diru-kontua  
bakarrik dala? Oker dago ortan, oso oker. Eta orrega-  
tik biali zaitu zu, apoderadua, garbiketa egin, eta bapo  
mutil! guztia amaitzeko.

-Arek esan dit bere iritzia garbi esan dizula, eta ia  
beste ezer aldakuntza berririk duan zure pentsaerak.

-Txapon zikiñen gorabeera ez da; berriro diotsut.  
Nor izango du aita nire sabelean dudan asikin onek,  
bizieske dudan onek?

-Araibar-ek dio...

-Arek esan dit bere iritzia garbi esan dizula, eta ea  
bere atsegin-aldia, eta besteri errua egotzi. Bidezkoa

al da ori? Iñor atzipetu lendabizi; eta bigarrenean itzez zuritu ni, eta bera, eskuak eta izen garbi geratzea... Polita kontua! Nire etxeokak ezer sumatzen ba didate sumatu, jo ta garbituko naute. Eta bildur naiz.

-Ni bitarteko bat baizik ez naiz. Alare, andereño, Manu-k diona egia balitz, zergatik ez zu beste gizon orrekin konpondu, eta Araibar-en dirua ere arturik, oker egiñak zuzendu?

Isilik lotu zan Loli, gizonezkoaren esanaldi zentzuzkoa entzunik.

-Emendik aldegin zenezake, eskuartean zerbait duzula; errira joatea komeni ezik, ez dakit ba, gaur Bilbo aundia da; eta emen inguru, esaterako, Barakaldo-n edo bizitzen asi zindezkete, ezkondu eta dena zerturik... Zer derizkiozu? Larriena da, gizon orrek maite ez ba zaitu; eta orduan, nor da doillorrago, Manu ala beste ori?

-Beste orrek aldegin du urez araindi, eta ez dakit noiz arte! Ez dut ulertzen nola gertatu izan zaidan au. Leen beiñola ere ez nuan orrelakorik izan, Manu-rekin ibilli arren. Eta orain, arengandik aldegin dudaneko eta besterentzat izan naizeneko... ona emen nagoen bezela.

-Utz dezagun lelo itun au, Mena andereñoa. Emen dituzu txeke onen pean, zuretzat 50.000 laurleko Manu-ren partez. Biar, etzi, nai duzunean kobra zenezake Banku ortan. Aren baldintza orixe duzu; lenbiziko kalteagatik, naizta gero izan dituzunak arengandikoak ez izan. Orain, ar ezazu papertxo au; eta mesedez aren bistara, al izanik, agertzea ez lukela nai zuri adierazteko esan dit. Orra ba; gaizki asia ezin geienetan bestela bukatu, berdintsu baizik: gaizki.

Eta Serafin-ek bere eginbearra bukatzeko ordua poliki eta txeratsu borobildua zuala uste zuanean, goragoraka asi zitzaion Loli.

-Ez, eta ez. Ez dut limosnarik bear. Ez dut nik kopetarik iñoren aurrean aitagabeko aurraren amaizateko! Eta gorde ezazu diru ori. Ez dut bear.

-Lasaitu zaitte, andereño.

-Ez dut bear txanpon erdoiturik. Zortzi eguneko epea ematen diot Manu-ri nirekin paketu dedin, nirekin adiskidetu dedin, eta leen bezela, ark esaten zekian itzez, alkarrentzat izan gaitezten. Zortzi eguneko epea! Andik gorakoan, erantzuna neuk emango diot, eta erantzun ori iri osoan entzungo dute. Ez du aren barruak, egun ta eguzki, bakerik izango! Nire odolak min emango dio erraietan, azken ordurarte!...

# IX

Filobusean eserlekuak artuak zeuden. Zutik eta nekez zeudenak ez ziran gutxi. Goizeko amarrak inguru ziran eta lozale goiztarrak, asiak ziran batera-bes-tera.

Zaldun txairo batek bere eserlekua adiguritsu eskeiñi zion andre gazte bati. Andreak, lendabizikoan ezetz, iñolare ezetz, adierazi zion gizonezkoari, arpe-gira begiratu ere gabe. Bigarrenez jasotzean eskeiñia, orduan bai, alkarri beatu zioten, eta biek alkarri irripa-rrre goxo bana erakutsi ere bai.

-Eskerrik asko, baiñan emen laister jatsi bear dut eta.

-Nik ere bai, laister. Berdintsu gaude, beraz, bai-ñan orain xalotasun-kanpaiña ontan gauden ezkerro, ni pozik, alegia, aziera onaren arauak betetzeko.

Emakumeak atsegin izan zuan, noski, zutik egona-ren nekea arintzeko ordua somatzean; gazte aren krinka ta sotiltasuna oartzean, ordea, atsegiñago zegoala zirudian. Artean, eskuak uts eta billoiz zera-mazkian emakumeak, baiña ordu artan bertan guan-teak, esku-zorroak jantzi zituan. Eseri eta kartera-

barrura bea ta bea asi zan. Noizbeinka, gazte txeratsuari beatzen zion, bestela-baitakoan, begi-ertzean zear, eta bereala betazalak nirrotuaz. Iruzpalau aldiz, bi bien ikusmen-dirdaiak topo egin zuten.

-Aizu, barkatu, zalduntxo; emen nun jatsi bear izango nuke Artekalera joateko? -ziotsan andre perxtentak.

-Ez du zertan ezer barkatu, ezpaita emen iraiñik izan. Nik neuk adieraziko diot laister, nik ere araxe...

-Orduan, lasai egon nindeke, ezta?

-Bai, alaxen da; ezin lasaiago. Nire kontu bego, ori.

Zaldun aura Manu zan. Emakumea, Manu-ren adiñeko edo, aren pare ibilliko zan. Jantzi zuriantzekoa zeraman, esnearen gaiñak duan kolore txuri-orixka; baiñan zati bikoia. Gonak, izurreztatuak, plisatuak alegia, zituan, ugariki gaiñera. Eta soiñaren goi-aldekoztat, marra fiñak zituan tela polita. Betartea ikusgarria zuan, agin txuri, begi polit, ille lastokara argia. Garri eta abar, lirain eta ongi zerdaituak eta armatuak, edozein gizonezkoren deigarri.

Urduria izan ba, egoneziña, eta karteratxotik zerbait atereaz, aren azalpean zedukan ispilluan bere bekurundea ikusi ta apaiñagotzen jarduan zuan. Len-



dabizi, alde batean jarri zuan ispillua, Manu-ri begira bai legoan, baiñan orrelakorik egin gabe. Urrena bizkarrez jarri zan, kalera begira bezela, eta orduan Manu-k ikusi al izan zion aukerara, emakumeak zuan lepondo guri ta bizkargoiti laban eta mardula. Eta oi zuan bezela, bai bere txosten edo diktamena bereala eman ere, bere baitako entzumenari:

-Neskato au ez da ain gaztetxo, baiñan...

Eta ao barruan mingaiñari zartako eragiton zion, mandoak aitzatzeko kemengarri oi dan mami-dardarez.

Emakumeak, berriz, egokera artan, ispillu-jokoz, Manu-ren irudia ikusten zuan, sorbalda gaiñez artaratu. Manu-k, bere aldetik, siñisgabeko otoia bezela egin zuan, jainkotxo biurriei eskerrak emanaz, filobus artan sartu izan zalako.

Santiago-ko elizaren saietsera eldu ziralarik, lurre-ratzeko eretia zala adierazi zion illetxurizko gonadunari.

-Ementxe gaude kale artatik urbil xamar gaiñera. Zu lendabizi...

-Eskerrik asko.

-Ni ere emen beeratuko naiz, eta zuk ezer atzera-piderik ez ba duzu...

-Batere ez, jauna. Eta gaiñera, zurekin ez naiz galduko edo.

Eztakigu nola, Manu jatsi zan lenengo eta eskua eskeiñi zion ximenkiro andere xalo ari. Onek, aren eskuari eldu zion, eta bapo, biak irriparreka aldendu ziran filobusaren geldilekutik.

-Ez al dituzu kale oiek ezagutzen?

-Iñoiz edo bein eman ditut emen egunen batzuek, baiña...

-Ezta axolarik; nik gogatsu erakutsiko dizkizut emengo zer batzuek, gaur egiteko larririk ere, ain zuzen, ez dut eta. Zera, Artekale esan al duzu?

-Bai, orixe esan dizut leen. Orain ordea, ez dakit ziur zein dan. Ezagun bateri agerraldia egin nai nion; ordea, ez dakit zein *ataditan* bizi dan.

-Berdin da; kale au ezta luzeegia ere. Izena jakin ezkerro, beingoan arki genezake notin ori.

-Izenik ere ez dakit, baiña.

-Gizona ala andrea da, alegia?

-Andrea. Adi ezazu, emen gauden ezkerro, ordea, zapatari on bat nun izango ote dugu?

-Ni naiz zapatari ona -jardetsi zion ao larriz Manuk, abentura berriren batean sartua zala oartu zualako,

berak ortarako zuan senaz-. Zer nai duzu, ba, zapatak konpondu, ala berriak erosi?

-Erosi, noski.

-A, bai!... Ba dira emen olako denda batzuek eta...

-Barruko jantzi fin batzuek ere, bear nituzke-ta.

Saltoka saltoka ugarituaz zioan poza Manu-ren kolkoan. Emakume arek, bere izketa lasaiaz ematen baitzion bidea ortarako.

-Orrek zerean... Andertxorenean izango ditugu franku. Andertxo ori ezagutzen dut nik, eta gauza asko izaten ditu beti ere. Araxe joango gera. Nik eztut emazterik, baiñan nire landolako gizonai entzunik dakit.

-Ofizina al duzu? Eta zertaz ari zera?

-Zertaz? Batean batean, bestean bestean, zerbait egiten dugu.

-Beraz lanera joan bear duzu, ezta? Eta ni iñor gabe emen bakarrik... Poza izan dut alkar aurkitzean baiñan, orain, ordea...

-Joan bearko dut, zuk aldamenetik bialtzen ba nauzu.

-Eta... bazkaltzeko ere, ez dakit. Zuk zeinetara eramango nindukezu?

-Ori ateraldia! Gero ikusiko dugu nola portatzen zeran. Orain, goazen zapatak erostera.

-Ene ba! Eta dirurik naikoa artu ote dut?

-Emengo dendariak, ba dute ustekida beren bezeruengan.

Artesania duan denda txukun batean sartu ziran. Ango neskameak edo otseiñemeak esertokia eskeiñi zien. Eseri zan Manu eta geroxeago, aren aurrez-aurre neskak agin txuria. Lotsagabe modua iruditu zitzaion Manuri, andre aren sillan jarkera; gonadunak ordea, ez zuan batere zimikorik. Nai izanik jarria zan, nunbait; aprapos. Manu-k, orduan, ori igarririk, uxatu zuan berealakoan kezka-zimikoa.

-Nundiko arraia ote dut -zion berekiko Araibar-ek-argose dagoan urruxuna au? Adur onak narabil, nik uste. Bata utzi bezin laister, bestea datorkit bidera. Izan ere, zeinbat Ebaren alaba dabiltzan gogait-egiñik, zerbait nai dutelarik! Gizonak, txepelak eta zuntzunak dira, noski, nai dutena eskuarki izan eta artaz baliatzen ez dakitelako!...

Zapata pare bat, bi, iru, zazpi, amar eta geiago ere ikusi, aztertu eta oiñetan zertu zituan. Dendako neskak, egonarri oiturazkoz zeuden; Manu, ordea, ez ainbestean.

-Zein gustatzen zaizu, zera?

-Niri? Zapata guzti oiek baiño areago, eroslea dudarik gabe.

-Jendetasunez betea zu beti, laztan. Aizu, neska, ekar itzazu oietakoak, lumeru bat apalago.

Dendari-neskak joatean, izena galdetu zion Manu-ri katigu zedukan zorarazle biurri arek.

-Manu dut izena. Eta zuk nola duzu?

-Nini, zu maitatzeko.

-Zaude isilik, ormak ere belarriak dituzte-ta.

-Txotxolokeriak.

Zapata geiago ekarri zizkieten erosle urduri ari, eta...

-Auetxek. Ipini itzazu kajatxo batean, eta orain, nora eramango ditugu, zera, Manu? Etxean iñor ez dut eta... Agian, zure despatxura, eta illuntzean bialiko dizkidazu ni nagoan etxeraiño, ezta, laztan?

Bere esperientziaz gaiñetiko eguna zeukan Arai-bar-ek goiz artan, eta arriturik eta bezaturik bezela zegoan. «Onetxek eman dizkit ederrak!» zion Manu-k bere baitan.

Dendariak ekarri zuan kajatxoa poliki estalia eta beste eskuan kontu-txartela. Kajatxoa Nini-k jaso zion aguro asko; eta beste zera zaldunari emateko agindu

zion arpegiko keiñuz, finkiro, bekaiñak uztai-itxuran jarriaz, eta aldamenera joera emanaz. Manu-k, bada, kokodrilo-laruzko bere kartera atera zuan, eta tasta-tasta zabaldu zituan euneko paper batzuek, txintxo gaiñera.

-Berritan nik pagatuko dizut -zion Manu-k bere kolkorako-; oraiñarte konturik parkatzen ez dut ikasi, ordea. Ai Nini, zure ausardia aundia da, baiñan nik ere ba dut nire ezkerreko eskua. Arduragabe egon!

Kalera ziranean, Araibar isilik zegoan. Besteari eman nai zion asi-eskua. Aurrera ta aurrera zioazten. Ontan arkuperaiño eldu ziran, Erribera kaleraiño. Ez zion emakumeak beatu ere egiten arpegira Manu-ri. Beste denda artara joateko zirala uste zuan Manu-k, baiñan gonaduna isilik zegoan ezkerreko, bera ere, isildu egingo zan. Aurrera berriz ere biak, ibaia urak beera dioan bidez. Inguru artan izan oi dan iskanbil eta zarak ez zieten zerik egiten aiei. Agian, zaparrada aien oiartzuna entzun gogo zuan emakumeak.

Manu-ren burua zalantzaz asi zan. Nor ote zan ura? Larrutik bizi ote zanen bat ote zan? Eta orren errazki lilluratu Manu gurizalea, marruskatua zan batek? Ortarako ba zituan aspalditxoko laguntxoak;

Ani eta Mimex, esaterako. Aparteko joan-etorriko txori beti aldakor eta berriak kontatu gabe...

Baiñan aren jazteko era eta txukuntasunak ez zuan, noski, orrelako itxurarik. Aren gauzak gusto aundikoak ziran, eta galduak beti oi dute, dirua ugari eralgiaz gauza apaiñak erosi eta aietaz antolatu arren, beuren moduko zer txarra eta orregatik ba... Eta, zergatik ez ote zan irugarren ordenakoa, alegia, Nini... ezkondua ez ote zan, ezkondu jareia, egalaria? Duda auxe, egia biurtzea atsegin izango zitzaion. Egoera berria, jokalege ezautugabea izango zuan. Eskuetara beatu zion, eta jakiña, guanteekin, ezin izan zuan erestunik ikusi. Gaiñera, ori utsaren pare zan: ba zekian erestuna askok, sakelean gordezten dutela, bai emakumeak eta bai gizonezkoak. Oietariko adiskide bat ba zuan atzaparra sarri sarri esparadrapoz inguratua erabiltzen zuana. Gizarajoak min artu eta...! Ain zuzen, erestuna izan oi zuan parean bertan!

Misteriozko korapillo orrek azkura ta imurtxi ere egiten zion Manu-ri, bere oiturazko patxada ta mana arbinduaraziaz. Ezin izan zuan luzaroago iraun.

-Aizu, Nini, eta beste arek ikus ba giniza?...

-Gaiztoa zera zu, Manu. Aura, urruti dago.

-Gaur?

-Gaur, eta egun askotan ere bai. Gaiñera berdin da. Entzun nai baldin ba dituzu, gero esango dizkizut kontu asko. Eta orain, nora? Ez dut beste denda ortarra joateko zer aundirik. Zuk esan ba!

-Taxi bat artuko dugu, eta *garagera* joango gera nirea artzera.

-Nolako popoa duzu? Txikia ala...

-Gaur, zabala aterako dut. Ba dut Diplomat bat, oso txairoa.

\* \* \*

Nini ezkondua zan. Ez zuan begi txarra izan Manu-k berriz ere, beingoan sumatu ez arren. Ba zuan arek bere senarra, baiñan erbestean zegoana orduan, itsasgizona zalako. Ez zuten ordurarte semerik ez alabarik izan, eta senar-emazteen arteko poza ta alkarbearra diran doai bikaiñak, izotzak jo zituan denpora baiño leen, eta zimur eta maskildurik utzi.

Olaxen jakin zuan Manu-k lendabiziko ezagutze egunean Nini-k esanik. Au ere, tamalez, ez zan birtute larregi zituan emakumea. Diruaren faltarik ere ez zuan, zapatak eta bazkaria ere Manu-k pagatu zizkion



arren. Ipui ugari zeukan emakume ongi jantzi eta txai-  
ro apaindutako arek.

Eta asi ere, asi zuan kate berria egun artarik,  
Manu aspertu eziñak. Nini gangarrak bigarren senar-  
tzakoa zedukan, geroztik, eta erraz gaiñera, apaizik  
gabe uztarturikoa. Manu-k, bere ustez, berriro ere zori  
adurtsua zuan. Zerbait aldatua, ordea. Debekatuzko  
emaitza deigarriago ta aokotsuagotzat zedukan.

Bakartadean zegoanaren laguntzaille izango zan,  
noski. Aren legezko lagunak zabarkeriaz utzitakoa,  
berak zaituko zuan, begiratuko, loisintxaz beteko, bizi-  
tzako une lazgarri eta nardatzailleak arindu eta alaitu  
bearrez. Filantropu egiñik zeukan ia bere burua Manu-  
k. Ongille bezela agertuko zan, andre gaixoei lagun  
egiñaz. Ez zuan arek makalean artu, Paul donearen  
esan gurbilla!

Senar biotz gogorraren ordezkari egin zan; aren  
utsegiteak gaiñezkatuaz betetzeko; andrearen gusto-  
ak egiteko; aren eskabide ta nai ta gurariak aintzat  
artzeko.

Urrena bildu ziranean, -Donostia-n alegia, an bizi  
baitzan Nini-, aopeko baten jabe ere egin zan Manu.  
Ezkontzausle eme arek, txoroki adierazi zion Manu-ri  
ezagutu zuanetik bertatik, artaz maite-zorabiatua

zegoala. Eta geroago, usoen antzera alkar-urruzaz  
zeudela, bai emakume kaxkarin arek kantatu ere  
arako bertsu auraz, Bilintxena, eta zerbait ukitutza alda-  
tua:

«Amodioak nire biotza zureganuntza darama...

.....

Aur batek berak izan gaitzala zu aita, eta ni  
ama...».

Isilpekoz betea zan ordu ezti artan, orrelaxen adie-  
razi zion, mingañean eta kopetan lotsarik aski ez zuan  
emakumetxo lirain arek bere maitale berriari, gurari  
donga baten txingarra.

# X

Lanean asi baiño leen, Serafin, goizeko nagiak eta geldi-egoatearen zerak astindu orduko zearo, egunerokoa irakurtzen asi zan. Gaiñeko albista borobil eta karraixigilleak irakurri ondorean, barruko orrialdeetarantz zuzendu zuan bere ikusmiña eta jakinmiña.

Berealakoan zerbaitengan kokatu zan aren arreta, eta berriro irakurtzen ekin zion, ikusten zuana obeto aditzeko bezela, begiak lazkiro igortziaz.

Auxe zan berri ura.

«Gau erdi inguruan edo, Portugaleteko trenak azpian artu zuan neskatilla bat, Mazarredotik moillara bideko zearkuntzan. Alik laisterren geldiarazi zuten trena, laburra baitzan, eta berealakoan zauritua jaso eta Basurtoko Eritegira eraman zuten bertatik. Andik ordu batzuetara il zan, iztar biak ebakita. Loli Mena zeritzan eta 21 urtekoa zan. Uste danez, berberak jarri zuan bere burua trenbidean, eriotz-eske. Epaitegikoak asi dute beuren arloa, gertaturikoa argituarazteko».

Besoak beerantz egin zioten Serafin-i, eta zeatz abaildurik, nola-ala eseri zan bere aulki zabalean.

Andik laisterrera, norbaitek oles-egin zuan ofizina-ko atean. Apaiz bat zan, eta Araibar zaldunaren galdea egin zuan. Serafin-ek lendabizikoan, berari laguntzeko ere egoki zetorrela uste izan zuan apaiz ura, ain zan aundia barruan sentitzen zuan larritasuna.

Serafin-en belarrietan durundi baten oiartzuna besterik ez zebillen.

-Zortzi eguneko epea ematen diot Araibar-i, pakea egiteko, adiskidetutzeko.

Oiartzunak orixe zion Serafin-en entzumenean. Bai, Loliren itzak, «Arizona»-ko azken-egiune antzukor artan.

-Eman du bai erantzuna, Jainko laztana! -agertu zion bere buruari Manu-ren arduradun nagusiak.

Apaiza, an zegoan geldi eta zutik, Gezala jaunaren erdi-toteltasuna oartuaz. Bere baitan somatu zuan Serafin-ek elizgizonaren agerraldi aura. Ez zuan, anartean apaizekin batere artuemanik, aspaldi ere, Araibar zaldunak. Agian, larregi da azalpen au, aren bizi-tzak zerbait iragarten baitzuan; alaz ere bestetariko arraiak ere ba dira-ta, bego oar ori.

-Laister eldu bide da, onezkero, gure nagusi jauna.

-Iraduz nago eta, ola ba-litz...

Apaiza gaztea zan, ogetazortzi urte inguru izango zituan. Ez zan luzea, bai ordea trinkoa. Arpegia beltzeran, begiak pizkor antxa, izkera nare ta ozena zuan.

Agertu zan Manu geroxeago. Arritu ere bai, bere landolan janzkera artakoa ikusiaz. Beingoan jakiñerazi zion Gezala-k noren galde joana zan.

-Ona emen Araibar jauna.

-Kaixo, nola zabiltz orain? -lasa lasa apaiz xaloak.

-Ongi, eta... berori?

-Ni ere bai, ustez beintzat. Zera, argi esan dezagun: zurekin bakarrean itz egin bearra dut, Araibar zalduna.

Onek, aitaren egin orduko, auxe pentsatu zuan berekiko: «Apaiza, eta iñoren etxera? Diru billa, noski». Uste ustela, ain zuzen.

-Zeren billa zatoz, bada, elizgizon ori?

-Labur azaltzeko auxe: lotsa billa nentorren, zigorbilla ere norbait ibilli zitekean, baiña.

-Lotsa?... Galdu egin ote da ba?

-Bai, gizon, ikusten duguna eta are entzuten duguna gezurra ez baldin ba da.

-Zuk esango duzu, ba.

-Ikusi al duzu egunkaria gaur?

-Oraindiño ez. Zer dakar ba, teatruko iragarki nabarmentxoren bat?

-Ez dakit ortaz ezer. Eriotza baten berri ematen du; ona emen, baiña laburrago esango dizut. Loli Mena il da; trenak azpian artuta il ere. Berak il du bere burua.

-Kontxo! Noiz eta nola?

-Bart, Portugaleteko trenak azpian artu zuan; bera jarri zalako, noski. Trena eltzeko zegoalarik, batbatean damutu zitzaion eta jaso eta trenbidetik ateratzeko alegiñak egin bide zituan. Beranduegi ordea; iztar biak ebakita an gel-ditu zan. Gel-arazi zuten noizbait orgategi aura, eta neska, bizirik eraman zuten Basurto-ra. An, aitortu eta nirekin izketalditxo egin ondorean il zan, gaixoa, odol usturik. Osagilleen zazpi alegiñak ez ziran aski izan. Pixkanaka pixkanaka zurbil eta jausia, apaldu eta aitu zan aren bizitza aragizkoa. Azken orduko itz aietan zuregatiko zer batzuek adierazi zizkidan. Orregatik eldu naiz zuregana, aren borondatea egiteko.

-Niretzat amorruez izango zan, noski, neskatxa aura.

-Ez uste. Jaunaren izenean eta aren otsein apale-  
na ta duiñezena bezala barkamena eman nionean,  
arek ere, neskatxa zoratu arek ere, barkamenezko  
itzak baizik etzituan nornairentzat. Zuretzat bereziki.  
Parkatu egiten zizula zure doillorkeria. Loli ezurberri  
zegoan eta lotsakizun ori eramán eziñik, orregatik  
beraganatu zuan, erabaki zentzugabeko eta doakabe  
aura.

Gizon biak isilik gelditu ziran, eta isillune ori Manu-  
rentzat urrakorra zan. Naiago zukean apaizaren itz  
gogorak ere entzun, isilik egon baiño.

-Ni jarri al nau errudun bakartzat? -galdetu zion  
Manu-k paketu guraz.

-Ez. Alarik ere, lendabiziko makurkeria zuregandik  
asi zala agertu zidan, autorkuntzatik aparte. Lendabi-  
ziko urratsak oker eta biurriki egin ondorean, neska-  
txa gajo arek nola ez zekiala, azken-aldian ama izate-  
ko bidean jarri zala oartu zuan, goizetik gabera. Ez  
zuan orren azalpenik iritxi, eta orrelan bere burua  
gero ta beroago, amai zorigaitzekora urbildu zan.  
Siñismen otza izatetik datorzkigun kalte ezin-esan ala-  
koak ditugu, Araibar jauna! Gure inguru, orixe zabal-  
tzen asi zaigu: axolagabekeria, oztasuna, guztiak  
katoliku izan naia eta bakoitzaren seta azke izan bea-

rra. Eta ori, eziña da. Baiñan, gauza bat esan bear dizut azkentzat, eta Loli zanak esan zidan ederrena, agian: bere bizitza, gazterik alegia, 21 urte mami baik ezpait zituan, zure bizitza obetutzearren eskeintzen zuala, zure ibillera makurrak zuzendu zitezen uzten ziola zeruko Aita errukiorrari.

Alaxen amaitu zan, ba, Loli-ren estura, txoraketa, ta erabaki oker eta lazgarria.

-Zer egin nezake nik aren alde? -ziotsan xamur xamur Manu-k elizgizon zintzo ari. Dirua ere eman nai izan nion, azken-erru larria nirea ez zala argi ta garbi siñistarazita gero. Ez zuan artu gura izan.

-Orra nola jakin zenezaketen negozio-gizonok, guztia ez dala diruz neurtzen. Andiak dira onen indarrak; ez dira sarri askotan bear aiñakoak, edota nai aiñakoak. Aren alde zer egin orain? Bai!... egintza onak eta opariak eskeiñi zenitzake. Baiñan batipat, eta aren esana egia dala uste izanik, zure alde egin dezakezu, zure anima zulatuaren alde.

-Eta auzitegian ezer izango al da?

-Bai edo. Medikiak parte eman zuan eta gero ere *autopsia* egin izango diote. Ez dakit, ordea, alde ontako gorabeerarik. Alaz ere, eriotzako erabakia berak



bere kabuz artu eta bete zuala agertu zion medikuari ere.

-Zer egin bear dut nik ba, labur esan?

-Aren esan ona aintzat artu: zure bizitza, baldin oker xamar ba darabiltzu, arteztu ta zuzendu bertatik. Oitura txarrak utzi; lagun gaiztoak bertan beera laga, elizara urbildu.

-Ezagutzen ditut nik, egunero ere elizazulo diranak eta...

-Eta aien bizitzak guztia-bearrekoak dirala, alegia? Baliteke. Alaz ere, apaldu egiten dira maiz, aitor-tutzeko, belaunbiko jartzeko. Ba dira aberatsen artean ere, garatz onak eta garatz txarrak dituztenak; auengandik aldegitearren ez ditu iñortxok ere, garatz guztiak or konpon uzten, ez. Garatz txarra egin ostean, garatz ona ugariagotzen alegindu oi dira. Janaria ona da beti, iñoiz guri kalte egin arren. Guban dago, ba, okerra, eria eta makalaldia.

-Azturik ditut nik esan oiek.

-Beiñere ez da berandu zer oiek ikasteko eta birtuteak irabazteko. Tira, ba, Araibar jauna, ez dut zertan geiago zuri lan-ordurik debekatu. Loli zanak eman dizu lezio odoltsua. Zuk duzu orain eretia joko garbiz jarduteko. Agur, ba, eta txarto esanak barkatu.

-Agur, jauna.

# XI

Diruaren egarriaz ere jarduten zuten aldi artakoak, iñoiz baiño sutsuago. Araibar-en arazu batzuk ez zebiltzan osoro gustora, hotel eta antzokiko bazkune artakoak beuren eztabai eta asmo bedegarrak bai zituzten. Irabaziak eta moral-arauak alkarri muturrak ausi bearrean ziranetan, orduan izaten ziran iskanbilibik politenak. Batzuen iritziz, diruaren iturri guztiak ur gardena eta emankorra zuten. Irabazi ezker, beste kontuak bakoitzaren lepo uztekoak ziran. Ur ona edan eta zindoro bizi edota ur likindua iretsi eta pozoiturik geratu, or konpon. Norberak daki zer gauza erosi; komeni zaiona; kaltegarriaz jabetu baldin ba da, eta dakiala, norena izango errua? Ez zan, gaiñera leenago bezela. Bai egunerokoetan eta bai elizako-ateetan ere, nai zuanak, ikus zezakean jaialdi bakoitzaren iritzia, zindotasunari buruz.

Batzarrera dei egin zuten igande batean.

Iñork ez zedukan hotelera joan bearrik; nai zuana joan zitekean, uraxe baiño garestiagorik eta merkeagorik ere ba zalako irian.

Eta teatrura, berdintsu zan. Ara zioana, bere gogoz ziran, iñolarez bearturik eta lotuta. Eta an, izan ere, berdin ematen zituzten monjen teatru-lanak, naiz «Las Leandras» doiñudun zarzuela ere; Calderon ospatsuaren lanen bat edota azken-soiñu ta baillet ari-ñez ornitutako dantzari zailuen *varietés* diralakoak, beti ere soiñekoz urri ta murriz, eragozpen baitira Madame Pompadour-en aldiko gona zabal, borobil eta anpatuak.

Eta filmen eztabaida aura berriz! Emen ere alde bitan bananduak ziran baltsu artako lagunak. Batzuek, modatik joandako gizon egiñak eta emakume elizkoi ta jaierratsiak geienbat, 2 baiño lumeru jasoagoko filmik ez zala, -zioten-, areto artan pasatu bear; erakutsarazpen orren erantzupenik ez zutela beuren barruak jasan nai. Oien iritziok, ordea, beste saillekoak irrika eta parreka artzen zituzten. Bai zera erantzupenik! Diruaren pozak isilaraz zezakean kezka txikerrenaren oiur motela.

Jakiña ba! Ez-ta alderatzekorik ere!!...

Kristo-ren pasioa ta santuen bizitzak edota erri-oidurazko teatru-kutsuzko pelikulak baiño mamitsuago, emankorrago ta aitorrago ziran, tokitan ere, *Rebeka*, *Aizeak eraman zuana* eta *Eguzkipean alkar-iltzen*,

esaterako... Oiek ematen zuten dirua, oiek! Eta zertarako sortua zan ba baltsu aura, dirua irabaztearren baizik?

-Garatzak, ortarako sortuak dira, sakelak gizen-tzeko geienbat -ziotsen Araibar-ek, arduradun edo gerente bezela-. Urtearen buruan, kontu-garbitasuna eta bidezko dan korbona nai duzute, eta nola banandu, eralgitakoak jasotakoak baiño murriztazo izan ezik, edo obeki esan, irabaziak ereindakoak baiño zati aundiaz gizenagoak ez baldin ba dira? Kezka ta zimikoz jardun bearra baldin ba dugu, gure aldetik uzteko gertu gaude. Talde bi oiek ba, erabaki batera jo bearra dute. Edota batzuek artu edota besteak jabetuaz, bazkune au dirutan zertu, eta bakoitzari berea emanaz, aurrera egingo dutenak guztia ordaindu dezatela. Orixe da alde batekoak, nire aldekoak uste dutena. Garatza, garatza da, eta ez txatxukeria.

-Ainbesterik zertan esan ez duzu, Araibar jauna -jardetsi zion Andertxo-k beste taldekoen izenean. Gure amaren mordoxkak ere nai luke bere bidezko irabazpena lortu, baiña, mailla zindoko zera ez baldin ba da, aurrerantzean garatz au uzteko gertu dagola adierazteko zuei, esan dit.

-Ederki itz egin du -zion adurra zeriola Martolo Fraille zeritzan gizon, bola antzekoak-. Emen agiri danez, aburu bitan banandu gindezke pertsonak. Bata: naiz eta diru eskasago etxeratu, barrua pake-pakean zaitu. Bestea: nola edo ala, urreez jabetu; etzaio axola, erriko ta erbesteko nabarmenkeria guztiak jendearen belarri-begietan jarri, eta barruko kontu oiek inpernuko Txomin-ek erabaki ditzala.

-Bai, olaxen da -gaiñeratu zion Andertxo-k, Usategiren billobak-. Guztiok batean jarraitzea eziña dala ikusi dugun ezkerro, egin dezatela eskeintza eta onartzen ba da, baldintza eta zeetasun guztiekin, geratu ditezela, bai hotel eta bai teatruarekin. Guk, gure aldetik, artuko dugu abiadura zintzoagoa beste bide-tik.

-Noiztik ona orrenbeste zintzotasun... Usategitarrak!

-Noiztik onera, ez dakit, Araibar, baiñan ain zuzen zuri, edo zurekin naastu bidean zioanari eman nion nire emaztegeiaren bitartez, irakaspén txiki bat. Eta ez zaio damutu animadun ari, gure oarkizun egokia.

-Noiz, alegia?

-Buru txarra ez baldin ba duzu, gomuta ezazu arako Dorote bat eta aski da, au ezpaita biren arteko zeartasunak auzipe jartzeko tokia... Orra argi esan.

-A, zu izan al zīñan? Nire bizitzan sartzeko eskubideak ere ba al dituzu?

-Zurean, zuk nai ez baldin ba duzu, ez. Neskak arenean, bai.

-Tira, jaunak, naikoa da -gaiñeratu zioten gizon sudur luze ta begi aundi batek-. Eztugu emen bear asarrerik ez astia alperrik galtzerik ere.

-Bukatzeke, ba, ona emen nirekin daudenen eskeintza: nireak -zion Araibar-ek- zio batzuk eta diru-neurri bat burutan artua dute. Zazpi milloer ta erdi emango ditugu, etxe ta beste zeren eskubideak gure esku geldi ba ditez. Bost urteren buruan, diru orren zorra garbitua izango da, osoro zuritua; bizkitartean euneko sei ordainduko dizuegu zintzillik dagoanaren emaitz bezala. Alegia, bost urteak bete orduko zero ordaiñi al ba geneza, eskubidea ere izango genduke, une artararteko korria soillik emanaz, irabazi bezela; diru-adarraren berezko etekiña. Zuek pentsa ezazute, ba, eta urrengo batzarrerako gertu izan erabakia artzeko.

-Ori ez da gaizki esana. Guk gure dirua jasoko dugu, eta negozio zikiñetan jardun nai duanak, ikus beza bere adua, eta or konpon.

Etixeratu zanean, pozez zegoala zirudian Araibar zaldunak.

Etixerik ez zeukan euki berak; apopillo zegoan alargun baten etxean, eta ostatu artan ba zeramazkian pare bat urte baiño geiago. Ez zegoan, esan oi danez, seme bat bezela, ez; semea izateak menpeko izatea esan nai baitu maiz. Zaldun bat bezela zegoan, pagatzen zuan, eta ori egin ezkerro, bere eskubideak zituan eta... beste egin bearrik gutxi edo baterez. Aren bizimodua bere gisakoa zanta, ugazabandre arek ez zuan besterik egiten etortzen zanean: jaten eman, eta osterontzean, aren gela apaiñik eta beti orniturik eduki, betiere txukun, ori bai, eta aren soiñekoak eta beste zerak ongi begiratu ta zaitu.

Ortaz gaiñera, Araibar-ek etxean edo ostatutzakotan, itz egiteko gogoia izaten zuanetan, egoki izaten zitzaion ugazabandreari, zaldunari arretaz entzutea. Bestelan ez zion arek asarrebide makala sortzen. Eta berriz, Manu-k kontu esateko aizerik ez zuanetan, ai



orduan, alperrekoak izaten ziran etxekandrearen sudurra sartzeko gurariak eta erreguak. Alperreko ezezik, kaltegarri ere bai, zaldunak ezpait zuan beiñere ontzat ematen berari galdekizunik egiterik, berberak aurretiaz baimen tertziokoa eman gabe.

Etxera zanean, ba, eguerdiko orduak iraganik ziran, eta alarik ere ez zuan gertu aurkitu maia, bazkaritarako agur txeratsua egiñaz.

-Igantetako bazkaria lauretan al da beti? -galdetuzion amarruki eta destaiñez Araibar-ek etxekandreari.

Mezatan izan ote zan ba etxekandrea, eta belukotan atan ere!, bazkaria gertu ez egoteko? Bai zera beluko mezatan! Eguna zabaldu baiño leenago zekian arek elizako ateak igarotzen, eta pare bat meza ere gutxienaz beti entzun.

Geroago zuan, geroago, andretxo arek bere seta edo detua, edonork oi duan bezela. Eguneroko pape-ra, asi aurretik eta azkeneraiño irakurri oi zuan, batez ere emakumeentzat irakurgarriena oi dan arian: ilberriak, ezkontzak, jaiotzak, esku eskatzeak, karrera-bukaerak, joan-etorriak, eun eta bost urteko atso baten bizimodua, orniketa-bazkunaren aginduak olloaren berriekin-eta, moden irudiak, zineetako gorabee-rak, elizako albistak ere bai, eta sal-erosian zebiltza-

nen iragarki bakanak. Politika, ekonomi eta esport-konturik, ez asko. Radiotik ere entzuten eta jarraitzen zituan adi-adi entzunarazten zituzten sailleri guztiak, lapurrenak eta, amodiozkoak eta, eriotzaz beterikoak eta...

Baiñan, eta arratsaldeko ordubiak eta geiago izanik, Manu geien aztoratzen zuan zergatia eta amorrazioz jarten zuana, beste aura zan: andre arek, asteko erropak eta, igandeetan garbitu bearreko seta, astele-nari itxedon gabe. Manu-ren alkandorak egunero garbitzen zituan, eta beste zerbait ere bai noski. Etxeko bukata nagusia, aurreko belaunaldikoak astelenetan egin oi zutena, ugazabandre elizarakoi arek, igandera-ko gertatzen zuan eta asi eta bukatu ere bai. Eta ori ezin jasan zuan Manu maitaketari ibiltaun arek.

-Atso barrabanaren jai-egunetarako jita biurria!  
Norengandik ikasi ote du onek orrelako gauza berririk, beñere irizulo ontatik atera ez da-ta!

Eta bein berriro, adierazi ere egin zion andre Filo-ri, auxe baitzan aren izen borobilla.

-Igandeetan egin bear al duzu lanik geien, andre Filo?

-Ez, besterik egitea ez dugu ta, ezin ezer egin gabe besoak antxumaturik egon, ba. Gaiñera lanik geien ez da egiten, orixe ez, Araibar jauna!

-Nik baietz uste dut ba. Mezarik ez al duzu entzun gaur?

-Bai, Jainkoa lagun, iru ere.

-Eta gero, nola saindutzen duzu zuk eguna? eskulan zakar oietan aritu izanik, atergabe, gelditu eziñik?

-Etxeko lanak ez dute amairik iñoiz, eta...

-Nai duzulako. Dana dala, jakin ezazu ori ere pekatu dala.

-Ni, pekatu egiten? Ona emen sermolari berria.

-Bai, nai duzuna esan ezazu. Txikitan ikasia dut, beste aazturiko zer askoren artean arako esaera: «irugarrena, jai-egunak jai-egitea». Eta zuk, andre Filo, ez duzu agindu ori be-te-tzen...!

-Arrigarri da, zera, zu bezelako bergante-xamar batek ni bezelako bati irakaspenak aurpegira jaurtikitzea!

-Bai, andre Filo, gauzak nola diran! Eta zorionen bategatik, ara, an beeko Peru Beltzaren sutegira joan gabe ateratzen ba zera, amaika bukata eta lexiba jo bearko duzu zeruan sartu baiño leen, ain zuzen ere

zerean, garbitokian! Nun leku egokiagorik bukata-giñean jarduteko antxen baiño!... Ja, ja, jai!

-Errekontxo! Oroipenean dituzu, alegia, betiko egia eder oiek, zu beti ortik-emendiko bizi modu narratsean ibilli arren!

-Bearko gomutan izan, andre Filo. Ez duzu beti zillegi iñoren pekatuak aztertzen eta astintzen ibiltzerik. Bakoitzak ditugu gureak, noski ba, eta... atso mezajale eta jai-zapaltzaille diranak ere bai, dudarik gabe.

Isilik geratu zan, isilik, andre Filo, Manu-k sartu zion zirikada zala ta etzala. Ba zegoan bear-izanik ere. Baiñan, esanok gorabeera, jai-arratsean, barlan, an isekiko zituan atsoak, leiorik leio zedukan lokarri luzean, egundoko bukatadaren emaitzak: maindire, buruko, zapi, atorra ta alkandora, barruko miesak, oerako jantziak, kortinak, eta beste zerik ugari.

Manu-ri seigarren eta bederatzigarren aginduai buruzko jardunak egiten zizkionak, galdua zuan irugarrenaren jatorri eta esan-naia. Eta bakoitzak, leengo lepotik zuan burua.

Manu-k atsegiñez asi zuan maitakeri-bide berria, ta jarraitu zuan, arako donostiar Nini-rekin. Emen, ordea, gauza bakana jazo zan.

Sarritan joan oi zan, beraz, giputz iri nagosian atera zitzazkion *garatzetara*. An ez zegoan batere arriskurik, eta etorkizunak ez zion ezertariko buruausterik ematen. Izadiaren legeak, baiña, batzuetan paradoxadun eta itzulelezko dirudite. Biak makurbideak izanik, neskaxa gazte doakabe arek eskatu ez zuana iritxi zuan, azalez aren ondamendirako. Nini gibelandiak, ordea, nai eta bear zuan emaitz guri, aur boro-bilxko bat izaterik, ez zuan lortu.

Asiera loretsua izandakoa, egunak joan egunak etorri, gogaikarri itzuli izan zitzaien biai, bai Manu-ri eta bai Nini-ri, laketak bere neurria medar eta mergatza dualako.

Eta orrelaxen zioan ibituaz ibituaz, makalduaz makalduaz ezkongia eta ezkondu saltzaille aien artean, kalean bertan ustekabean izetu zan griña-txinparta.

Gero ta ugariagoak izan ziran alkar-ikusi bitarte egunak, eta egoera arek ez zekarren beste ondorenik, beti oi dana baizik. Aaztutzen aaztutzen, noizbait gogoia epeldu, geiago batu ez, eta bakoitza bere alde-

tik antolatu. Nini-ren senarentelak susmoa edo norbaiten salakuntza jaso zuanean, ordurako joana zan aren emaztearen Manu-rengako jita leratsua. Ez zuan aurrik izan, eta Nini ren asmoak utsaren pare geratu ziran.

Ortik ez da ateratzen Manu-ren bide oneratzetik. Onek lendabizikoak zituan eskuarki aiengana urbildu ezker; bikote erregarriak ba zuan artean zima gaiztorako joera donga aura: alegia, Mimex eta Ani lilitxoak, bargastak, beti lausengurako gertu, prakadunai dirua zirin-zirin biltzeko eta lan zintzoren batean jardun orde, alperkerian eta likiskerian bizitzako urterik onenak emateko.

Araibar-en neska-saillan, Kolombine eta Dorote geratu ziran garbi ta goragarrien. Onek batzuetan zer pentsatu eman oi zion Araibar-i. Emakumeak, ordea, ona ta txarra batean omen zeuzkaten -aren iritzi berekoian. Azken aldikoak bakarrik aztertutik, barbarako: Loli, zintzoa izan zan, baiñan ximplea, erritxoko nexka, zuntzun-samarra agian; eta ona zalakoan... bere burua ez zuan il ba? Dorote ere, jasekoa, itxurazkoa zan, maita-erreza, polita; baiñan... barru gogorrekoa, biotz legorrekoa, ezker gaiztokoa, eta aren izterbegia? Saldukeria egin omen zion arek Manu-ri: alegia, den-

pora eldu baiño leen aldegin, bertzeak erori ziran jokoa irristatu gabe igesegin; eta ori ez zan barkakizun.

Eta Nini ere, zer ba? Emankor eta eskariberaa izan zan; baiñan asper-miñak jo zuan luzaroegi baiño leen. Xarmanta zan izan, amorante ona, batasun-asmoz biak ibilli ziran artean; bizi aundiko emakumea nolainai, ere. Iraupenik gabea, ordea.

Ainbat ezagutu ostean, ugariegi izan ondorean, soil izatea, bakarrik bizitzea ez zitzaion, egunetik egunera, ordurarte bezin bizigarri. Adiña, edota aragiaren nekea... Beste zerbaiten susmoa edo gurari-zimikoa sortzen zitzaion biozpean.

## XII

Goizean, laiñoak, bere miise txuriak zabaltzen jardun zuan, eta itsas-ertzeko lurraldeetan, lanbroz beterik zegoan ortzea lendabiziko orduetan.

Jai eguna zan, eta udaran lanik-ez egunetan oraingo aldian oi dan bezela, jendea ara-ona ibilli-bearreko lera sakonari eutsiaz, beribil, motozikleta, txirringuts eta al zuanak al zuana, bideak betean zetorren kaialde politera, Atxaga erritxora.

Odei sendo biurtzeko almenik ez nonbait eta, goiz artan «frantsesa» (eguzkia, alegia), garaitzaille aterako ote zaneko zantzuak ziran, laiño melgera ta meaxka aura, zirt-zart urratu ta aienaraziaz.

Lendabizi iparraldetik, geroago etziñaldetik, une urdiñak, zeruaren zirrikitu dunduxkak laiñoaren zulo eta urratune bai liran, egun on baten aztarna ukaezin eta siñisgarriak ziran, iñolaz.

Oiñez batzuek, gaiñetikoak leen alpaturiko ibilkiñetan zioazten ondartzetarantz.

Txuri, urdin, ori, orlegi ta bitarteko kolore ugariz jantziak agiri ziran ondartzako itzalgarrri ta toldo boro-bil eta luzanga aiek. Zein baño zein politago, bata



baiño bestea zoragarriago. Gai txukun auek, ordea, ezer gutxi ziran, geroago ikusi al izan zitezkenen ondoan.

An zebiltzan batera ta bestera, Makari igarile-zaia eta aren seme Peru ta alaba Agurne. Igande artan zeregiñik naikoa eta lar izango zuten, aurki. Makilla eta taketak zutik jartzen zituzten, gero toldo apaiñen euskarri, ardatz eta abe izateko.

Makil eta taket auei, Makari-k eta aren alaba Agurne-k oratzen zieten; eta mutillak, Peru-k, zurezko mailuka lodi batekin jotzen zituan goitik beera, erruki gabe jo ere, bigarren danbatekoan ondarrean barruan erroak sartuta txut, sendo ta indartsu geldi zitezen.

-Obe izan genduan atzo, makillok zearo atereaz, bai! -zion Makari-k-. Ez al duzute ikusten noraiño eldu dan bart, itsaso asarre au?

-Ba, gaur berdin litzake atzo bezela ba letor ere, -ziotsan Peru, seme beso ta bizkar sendoak-; taket auek legorrerago egonaz gaiñera, barrurago sartuak daudelako.

Makari, txikia izan arren, aren aurrak egundoko mardul eta airosak azi ziran. Amagana eman zuten, antza, semealabok, amaren aldekoak oi zuten gorputz bete eta trinkoaren jabe bait-ziran. Larregian mardoa

baiño ere, ondo egiña, egoki ornitua zedukan bere soiña Agurne-k. Gaztea zan, artean, eta udara artan zegoan lendabizikoz, aitari bere irabazpide-lanetan laguntzen.

Makari eta semea aspaldi ari ziran bearmodu aietan, eta bai erritarrak eta bai kanpotarrak -maiz araeltzen ziranak, beintzat- ezagun eta konpiantzazko ziran aita-semeengan; trebe, langille ta burutsuak ziralako. Agian, amultsu-usai eta mazaltasunik geiegi ez zuten izango, baiñan tira! Batere papertzar eta liburu gabe erabiltzen zituzten ango etxetxo ta kaixeten gorabeerak; dana buruz, guztia egin ta pasa. Udara artako zer berria, nobedade zirikagarria, askorentzat orixe izan zan ba: Agurneren agertuera; neskatxa polit bat zegoala antxen, askori serbitzeko.

Iñara batek udara ez baldin ba lekar ere, emazteki batek, andrazko batek... ondorengo asko bildu lezake: gonadunak batzuk; bizardunak beste batzuk. Bizardun itz au, esan bat besterik ez da egungo egunean; bearrik, labaiña zorrotz eta elektrika-makiña zailu ta artarakoak ugari baitdira bazterretan.

Agurne-ren agertze ori, zer bakana izan zan. Muti-llak pozik txalotu zuten aldakuntza, berrikuntza, edota geitze ori. Baiñan beste bandakoak ere...

Beribil zabal bat eldu zan, eta besteen buru-buruan jarri zan, bide zabalean. Marrubiaren kolorea ala otarraiñarena ote zan, ezin ziurki erabaki. Gazteak atera ziran automobilletik. Neskatoak iru; mutikoak bi. Erabiltzaille, gizon adiñekoa zan, illeak ia zuri, begi txikiak, lepondo gizen.

Neskatoak ez ziran liraiñak oso. Potolo xamarrak ziran, eta kolorez ezezik musu-tankeraz ere, urrutietakoak ziralara ziruditen. Jatorriz edo endaz batipat. Bi orrelakoak; irugarrena beste kasta batekoa zan.

Mutiko bi aiek, gaiñeko prakak erantzi, alkandora orobat, eta *slip* dalakoz, ipi-apan, soiñekoz arin eta txoil gelditu ziran. Neskaxa potoloak galtza urdiñak eta galtza gorriak zituzten, estu-estu, bizkarraren izen donea galtzen dan tokian; belaunperaiño eltzen diran emakume praktxo medar oiek. Izugarrizko aukeran zeuden, beraz, beuren *ponpis* guriak nabarmenkiro ikus-ulerrarazteko. Goitiko aldean, ba zituzten alako bermearrak oi zituzten alkandorak, zillaren pareraiño-koak, baiñan gerrian lasai eta aske, galtzetaz kanpo

deslai eta jarei. Galtza gorridunak, alkandoratxo beltz.  
Besteak, ori bizi-bizia.

Irugarrean neskatxak ingelesa zirudian, lendabiziko ikustaldian bertan; aura, beroaren bildur zan, eta beribillaren aldamentxoan zirt-zart erantzirik, jantzigose zan zerbaitekin agertu zan, mundu guztiaren aurrera.

Aur-jaioberriaren piz-oiala, baiñuko erropa egokia, nunbait, illegorri arentzat. Alako *bikini*-kume zazpikirik ez zuten, artean, Makari-ren begiak ikusi. Paradisutik igesitako Eba rubia zirudian! Bai laister esan ere baiñista begi zoliak bere alaba ederrari:

-Agurne!... Zoaz jaioberri orri mantatxoren bat eskeintzera. Zilla osaturik daukala dirudi, baiñan... apaizen bat billatzen dugun artean; toki au egoki-eza baita bataiatzeko!

Joan zan, ba, Agurne beingoan turista elduberriengana eta adierazi ere bai an, orma-kontran letra aundiz idatzirik zegoana:

«Ez bitzate gizonezkoak *slip* txoillak jantzi. Eta orobat, emakumeak, prenda bi diralakoak».

Neska illegorri arek arrituaren antza artu zuan, eta bereala, arrotz-izketaz kontaktzen asi ere bai:

-«One, two, three, four, and five» -esan eta urrengorik urrengo, zapatilla biak, gafak, piz-oiala eta bular-neurritzat inguruka zeukan zinta zabal bat kontatuaz, bost zirala gutxienaz, azaldu nai zuan.

Orduan, Agurne-k, ingeles jakin ezarren, jakiñarazi zion onelan, zeñuz eta begiz, eskuz eta zirkinkadaz: -Adiskide, auxe jarri nai nizuke begien aurrean; alegia, ni jantzia nagoan bezela egon bear zendukela, beintzat. Txatxukeri geiegizko gabe, noski.

Eta erakutsi zion: an ondartzza zabalean agiri ziranak; lokarri bi izan gabe, lokarri batekin ere arako soiñeko... «dexentea» izan litekela-ta. Kremalleratxo batekin, gertu dana, edota «jantzen» tankerakoa, lotura gabe.

Eta orduan, «oh, yes!» erantzun zion atzerritarrak, baiñan ez zuala ekarri-ta. Txanpon batzuen truke arkitzea, erreza zala ba; eta esan ta egin, Agurne-k utzi zion «jantzen» aietariko bat, ain zuzen berak soiñean zedukana une artararte.

Gizon zaarragoari dei egin zioten eta onek eman zuan, bear zan dirua, soiñeko *luzeago* artaz baliatzeko.

-Emen ez al duzute uretarako jantzirik, uzteko eta gero itzultzeko?

-Bai, -erantzun zion, Agurne-k-; ba ditugu gizon-  
nezkoentzat, baiña besteentzat ez.

-Eta zu, barkatu baiña, nor zaitut? -galdetu zion  
geroago.

-Zera, ni, baiñistaren alaba.

-Eta ez batere itxusia ere. Non dago zuen aita?  
Itzegin nai nuke berarekin. Edota berdin zait zurekin  
ere. Aizu, orain lanik ugari izango duzute, eta zein  
izango

litzake ordurik egokiena gero, bazkal-ondorean edo,  
itz egiteko?

-Laurak inguruan?

-Ederki.

Mutiko biak ere, beuren *slip* ariñen ordeztu, Makari-  
k utzitako *short* lasaiak zituzten soiñean, eta pelota  
aundi batekin jolasean ari ziran uraren ertzerago. Joan  
zitzaien ingeles neska ere, Agurneren «jantzen»  
motxarekin, eta geroago arako neska potolo beltzera-  
nak ere bai. Auek, endaz urruti-xamarrekoak ziruditen  
eta, ez zuten besteak aiña berotasun somatzen ondar-  
tza artan, aien antzean larrugorri-antxa jartzeko.

Uiñak eta bagak deigarri ziran nonbait gazte aien-tzat, eta eguzkiak azala erre orduko, uretarantz joan ziran illegorria zegoan bezela; eta mutillak shortak kendu eta berriro slip-ak jarriaz; uretan barruan eragozpenik ez bait zegoan.

Beste poxpola aiek, toldo baten aldamenean etzin ziran, ondar bero gaiñean luze luze. Aizpak ziruditen. Borobil xamarrek zituzten arpegiak; bekaiñetan illea eskas, ezpaiñak gizentsu aukeran, sudurrak zapal. Ederrak agiñak, baita gerrigaiñak ere. Urrundiko itsasoetan oi diran aien antzekoak. Izkera gozoa zuten, astirotsua, eta eskumuturretan pitxiak eta pitxiak.

Aiengandik ez urruti zegoan soiñeko axala kiskaltzen Araibar begi ederra. Erdilo egon oi zan geienbat, eguzki-galdak ematen zituan izpiak bere gorputzera nairik. Baiñan, geroago jaikitzen zan eta ondartzza zabal eta edatsu artan, alderen alde, eta gora ta beera ibilli oi zan, oillarra oillo artean bezala, emakumezko artalde gazte ta gustagarriaren erditik.

Ba zuten ordurako, ondartzako neskatxa gazte eta ez ain gazte guztiak, mutil txairo aren nortasunaren ikuspena, beintzat.

-Ori da galai ederra!

-Eguzkia da!

-Zer ote du begietan?

-Orrek, jainkotxoak emandako gorputza du.

-Dibortzioa eskatzeko ere, ori ezagutu ondorean!

-jaiki zuan andre ezkonberri batek.

-Ai, guztia du ederra Araibar-ek!

-Nola dakizu orrenbeste?

-Ikusi eza,... asmatu.

Zana zala, Araibar zalduna ezaguna zan ordurako itsasegi artan, batez ere gonagabeen artean...

Izan ere, mutiko gazte estudianteak izan ezik, astegunetan, ez zan egoten an gizonezkorik asko. Baiñan Manu, berak jakingo zuan nola eta zergatik, udara artan lendabizikoz, sarri ta maiz egoten zan astegunetan ere, egonaldi paketsuak eta etziñaldi luzeak egiteko.

Erdilo nagiak azkar aizatu zituan goiz-erdi artan Araibar-ek. Jende artean, «harem» ikusgarri artan oi zuan arauz, oillarkiro batera-besteraka ibiltzen asizanean, bai laister arin sumatu ere jende berriaren etorrera. Ba zekian jai egunetakoak zeintzuk oi ziran ere; beraz, oso berria zan arek sumatu zuana.



-Kontxote! -ziotsan bere buruari mutil ernaiak. Totolo bi oiek... bakarrik daude eta praka luzez jantzi-ta eta alkandora ere bai. Gaixoak, otz ote dira? Bakarrik al daude, ala orain somatzen ez dudan norbaitekin?

Eta ondartza osoan beste inguruketa bat egitea otu zitzaion, usakumetxo aiei itsumustuan erasogabe. Beste gizon bat ere lanbide berdiñean ari zan, ordea. Au ez zan, antzik emateko ere, Araibar-en adiñekoa, askozaz zaarrago baiño ; «otsoak otsoari, ostera, laz-tan», eta orra ba nundik bapatean...

-Araibar jauna! -ots egin zion, automobil marrubi koloreko gizonak.

-Berbera. Eta zu?

Orduan, gizon ia ille zuri arek, eguzkitarako zituan bere gafa zabalak kendu zituanean...

-Ene ba, gure Galdona jauna! Noiztik ondartza mamitsu ontan?

-Gaur etorri naiz, gaur goizeon. Egiazki diozu zuk ondartza mamitsua. Ikusi ditut bai, Ikusi ditut, ordu labur batean, emen erakusgarri dauden aragi beltzeran gazteak.

-Ai, Galdona, zu beti leena!

-Zu ere, oker ez baldin ba nago, aspaldi ontan...  
aspaldi ontakoa.

Eta alkarrri, estutze sendoak egin eta bizkarreko biguiñak emanaz, pare-pare asi ziran uraren ertzean batera-besteraka, antxen ozkirriago egoten baita, eta oinpeko ibilgarria gogorrago, ibil-giroago. Atsedean luze antzekoaren bearra zuala, adierazi zion Araibarrek, eta astean, Bilbora osterata bat edo bi egin ezkerro, gaiñerontzekoan antxen egoten zala.

-Emengo jendea, beraz, ezagutuko duzu onezkerro.

-Asko bai, batez ere onera etortzen diranak. Auen irudiak ba dakizkit gutxi gorabehera. Jende berria ere, nabaritzen dut pizkor xamar. Esaterako, eta ori ingurutxo bat besterik egin ez dudala, ba daude neskato borobiltxo bi, bakar antzean, gaiñera. Alde artan daude, eta... *exotiko* dirala esaten dute emengoak, oien idurikoak eldu ezkerro.

Parra zabala egin zuan une artan Galdona-k.

-Parra, eta zeri?

-Ez ote dira... Ea, ikus ditzagun.

Berberak ziran, Araibar-ek berritzat artu zituanak, alaxe ziran-ta; eta Galdonak berarekin ekarri zituanak. Aziera onekoak ziruditen neskak potolo aiek. Bikiak edo bikoitzak ziran.

-Oiek ere...

-Ez, Araibar. Oiek jende ona dituzu. Baiñan emen bero dago eta gaiñera egarri ere ba naiz eta, goazen zerbait edatera.

Andik urruti gabe zegoan bar txiki batera joan ziran gizon biak. Neskak ere, eskeintza berdiña egin zien; aiek, oster, naiago zuten an egon, pozago zeuden maindire beroan etziñik, beuren sorterriko berotasun-miñak ukituak bezela.

-Vermout bi atera itzazu, gazte.

-Aizpak dituzu oiek, nire adiskide min eta barruko baten alabak. Lendabizikoz eldu dira Europara. An, urrutian, ekaldeko lurretan jaioak dira. Australian alegia, baina ama filipinatarra zan, eta txikitatik antxen bizi dira, amaren alderdi artan.

Araibar-ek irriño gaixto egin zuan.

-Nire asmoak beraz, ezerezean gel bitez.

-Nolako asmoak zenituan, gero?

-Ez da orain beta egokia ainbesterik agertzeko, Galdona.

-Orduan, nik ere, ez dizut esango oraintxen bertan bururatu zitzaidan lanbidea.

-Zein, alegia?

-Ikusi al duzu or igarile-zaiak duan alaba liraiña?

-Bai, ikusten dut egun auetan. Eta zer ba?

-Beste zeregin berrietan asi nauzu udara ontan, belu xamar bedere. Urrengorako gertuago aurkituko nau udarak. Emen oraindio emakume-jantzi eredu gutxi darabilte ondartzarako, agiri danez.

-Bai, biko oriek galaziak daude, eta gustatu ere, ez dira egiten emen.

-Zu ere, moral-kume egin al zera orain?

-Ez da ori nire alderdi samurrena, baiña, tira! Zu ere, iñoren alabak zaitzen asi zerala jakiteak, ni ere bide... zuzenagoan jarriko al nau!

-Azeria, illeak galduta ere...

-...beti azeri.

-Erretzen al duzu?

Paper meia urratu gaiñean, eta tabaku fin eta usaitsutiko zigarrotxoa eskeiñi zion zaarragoak.

-Zein marka duzu ori?

-Marka berezia, adiskide. Neskatxa oien aitak bi-  
lia da, eta oso atsegin zait; nire aorakoa da, iñolare. Ez  
du gaiñera, opiorik batere.

Itz au entzun zuanean, Araibar-ek esnaldia bezela  
izan zuan gorputzean. Gero, artu zuan eskuetan ziga-  
rrotxoa, ezpaiñetan jarri eta biak asi ziran, ao ta  
sudur, keia botatzen.

-Ta?

-Gustatzen zait. Beste alako saiñetea du, ziñez.

Galdonak bere asmo sorberria agertu zion. Mode-  
lu aien erakusketa bizia ta egunerokoa egiteko, bai  
errikoentzat eta bai ara zetoztenai, gorputz lirain ura  
artu zuan gogotan. Alegia, Agurne jantzi, bere soiñe-  
ko-eredu aietaz, eta antxen ibilli zedilla egunero era-  
kusketan bezela, bere lana utzi gabe, eta guztien ikus-  
garri. Irabazpide izango zan neskatxarentzat, eta egi-  
lleentzat ere bai, auek bear izanean zeudenak omen  
ziran-ta, Galdona-k zionez.

-Zentzatu zerala guztiro, esango nuke -ziotsan  
narritari Manu-k besteari, azken aldera.

-Danetara, adiskide. Emen jaiki eta or erori, aurre-  
ra beti.

-Gizon urduriaren bizitzaldia!...

Gaiñeko egunetan, ondartzara zioazten emakumeak eta bestetarikoak ere, arritu egiten ziran Agur-neren busti-jantzi apain eta panpoxak ikustean. Arritu eta mingaiñai burrundara eta askatasun izugarria eman.

-Aizu, Katalin, atzo ez nizun ezertxore esan, pentsatu arren. Baiñan, ez al zera konturatu Agurne igarizalemeak irugarren eguna eta irugarren modelua daukanik soñean?

-Bai, Ketitxo. Ez dagoz lo nire ikusmenaren zerak.

-Zu beti apartekoa gauzak adierazteko.

-Bai, erretolika ikasten asi danetik...

-Or konpon. Auxe da kontua: nundik nora daukan gaur Agurne-k, beste jantzi berri bat. Orrek ez dauka ainbeste dirurik, besteok egiten duguna baiño geiago egiteko.

-Ondamuz al zagoz, Marilyn?

-Ez ni, baiña, ez al da egia?

-Ori jakin nai baldin ba duzute, galdetu Agurneri eta kito.

Laugarren egunean, laugarren jantzia eta boskarrenean boskarrena, beti berria agertzean, neskatxen eta neskatx-ostekoen jakin-miña zoldu zan galanki, eta emakumeen mii errukitsuak, axut-intziriak egiten asiak ziran.

-Nundik nora arraio ateratzen ote du neskatxa orrek, ainbeste soiñeko? Bolu onekoa ote da gero, irin ori?...

-Ori esan ba!

-Apurtxo bat atzeratuak bizi zerate -ebaki zien batek.

-Zer ba? Ezer al dakizu zuk?

-Jakin ez, baiña... Ementxen ibiltzen dan norbaiten eskutik jasotzen ote dituan, zerak, neskatxa erakusgarri orrek. Nola du izena?

-Agurne, andrea.

-Beiñere erakusgura izan ez dana ere, badakigu, alegia.

-Oitu arte, guztia izan oi da berria, eta gero...

-Bukatu nai al duzu, andrea, asitako ipui ori?

-Ementxen ibiltzen dan batek ematen omen dizkio.

-Zerbaiten truke izango da, noski.

-Baita zera ere!! -esan zuan aots gogorrez eldu berria zan batek. Diruagaitik, laztanok, diruagaitik jantzi oi ditu modelu berriok Agurne-k.

-Ez dago argi, zer ori!

-Ez dagola argi? Ez al dakizute Bilbotik bialtzen dizkiola, bai, etxe batek eredu oiek, emen lanari uko egin gabe erakutsiaz, zerbait diru irabazi dezan?

-Angela Maria!

-Ori beste konturik da!

-Jakín izan ba gendu!...

Baiñan ezer jakiteke, asiak ziran egundoko fabula iraintsuak asmatzen eta barreatzen. Orain, ba zekiten: eredu bitxia nai zuanak, Agurne-ri esatea baiño ez zedukan. Zein numeru, zein margo, eta andik egun gutxiren buruan, gertu, batez ere neurriak zuzen jasotak izan ezkerro.

\* \* \*

Beste egun bateko illuntzea zan. Leentxoago eldu eta geratuta zegoan, Makari-ren txabola gorriaren ondoan, Araibar-en beribil txukuna.

-Agurne, emen dut zuretzat paketetxea; Bilbotik dakart -ziotsan Manu-k.



-Bai? Geiagorik ez zutela igorriko uste nuan, ba.

-Zenbat eredu erabilli dituzu, zeure sointxo polit ortan, dagoneko?

-Eztakit ziur; katalogua emen dut, ordea. Gutxienez, ogei bai, eta oraiñarteko guztiak bai politikak ere!

-Zeu politagoa, Agurne. Orregatik dira txanbeliñago *traje* oiek!

Arpegiko koloreak gorri-eske asi zitzaizkion Agurne-ri. Iraganiko asteetan an ikusita ezagutzen zuan Araibar, eta geroago, iruzpalau bider jantzi-pardeltxoak bere eskuz eman zizkiolako.

Neskatxaren asalda biguindu naiean, bestela-baitakoan katalogua ikusten asi zan mutilla, eta neskatxari bizkarra emanaz jardun zuan apur batean.

-Eta zenbat eskari izan dituzu?

-Jendeak jakin duanetik, bi, iru, bost ere bai, egunean. Emen daudenentzat eta inguruko errietatik eltzen diranentzat. Neurriak artzea ere, erreza dirudita, oraiñartekoak pozik geratu dira beuren soiñekoa artu eta soiñean ikusita gero.

-Eta zein eratakoak izan dute fleitik geien?

-Ertaiña izenekoak. Gazi-gozo oietakoak ere, poli ki, ordea.

-Eta onelakoak?

Eta ori esanik, an liburuan zegoan eredu berezi bat erakusten zion Manu-k.

-«Dernier eri» oietakoak?

-Ez, emen ez oietakorik batere. Gure artean ez dute beiñere *exitu* ta arrakesta aundirik izango, nik uste.

-Zergatik? -ziotsan Manu-k neskatzari, begiak tinki-tinki zituala aren begietan.

-Oiek... larregi diralako alderdi auetarako, beintzat. Kanpoan, zikinuzulo asko dira.

-Niri gustatzen zait, ba.

-Ba, niri ez! -jardetsi zion deplauki neskatzak.

-Ez zaiteala asarratu uskeri orregatik, txantxetan esan dizut-eta.

Agurne-k urrundik entzun zizkion itz oiek, bere lanak bukatzarren txabola barrura sartu zalako. Egun artan alkilaturiko soiñekoak, euren sorbalda-makiltxoetan isekirik zeuden, bigaramonerako legortu zitezten. Alde batean zeuden emakumeenak. Erdi inguruan, gizonezkoen shortak eta beste baztertxoan, eredu berrien tokia zeukan, neskatzak langilleak.

Jantzi berri aiek gora aundia izan zuten inguruetan, eta poliki saltzen asia zan Agurne. Alarik ere, tankerak polit aien ardatza, batipat, *traje* aiei gatza ta jasa

eman oi ziena, Agurneren gorputz liraiña zan. Orrela zeritzan Araibar-ek ere. Eta au, asko ibillia zan.

Manu-k eskeiñi zion beribilla Agurne-ri, erriraiño joan nai zuan, esanaz.

Une artan, gizonezko baten geriza eskutatu zan txabola-atzean.

Araibar sartu zan bere popora, eta beingoan abiatu zan, ibiltzen asi eta gero ere, ostera beatuaz, neskatxari agur eta agur egiteko. Onek ere aoz eta eskuaz eta besoaz ere, egin zion agur txeratsua. Suntsitu zan bideukalandoan popoa eta neskatxak zartada bat jaso zuan bere esku gaiñean. Ikara aundiz bira egin zuan eta gazte bat aurkitu zuan, begiak amorruez, eta agiñak estutuaz.

-Zertan ari zera or gozokerietan eta agurka zalduntxo orrekin?

-Ni? Gizarteko legeen aginduz bakarrik ari naiz orrekin izketan.

-Eta orregatik gorritzen al zaizu masailla?

Gazte au Martzel zan, lanik geiegi egin gabe bizi zan aitaren seme kutun bat. Aspaldi asia zan Agurneren atzetik, baiñan gauza zerik ez zion beiñere adierazi. Alkarrentzat izango zirala bai, esan zion iñoiz. Makari-k ez zuan atsegin aundirik izaten, aura bere

alabaren albotiko ikusten zuanean. Karrera bukatu gabe zegoan Martzel ori, eta egongo ere bai, azterketak bein betiko eragotzi ta baztertzen ez ba zituzten, beintzat.

-Ez al dakizu ori zalduntxoia dana, eta zure begira ez dagona? Eta gaiñera, ba lego ere, zu nire mende-koa zaitut, zuregan eskubideak nik ditut, lendabiziko-ak oi duan berezko legez. Azkenengo aldiz egin duzu, bada, orrekin itz. Aita joan al da?

-Ez, or dabil aulkiak biltzen.

-Orduan, ba noa bidetxior ontatik. Agiñaundirene-ko taskan egongo naiz zuri itxedoten, eta andik pasa-tzen zeranean, oles egingo didazu, joan dan astean bezela.

-Joan dan astean bezela? Orduan, zeu eldu ziñan nire galdez Maritxunera. Nik ez nizun otsik egin.

-Berdin da. Gaurtik aurrera, beti alkarrekin ibilliko gera, eta orrelan ez dut gero lorik galduko, nirea zera-na jakingo dut eta.

-Zuk loa galdu? Ez al da izango ikasten aritzen zeralako, gaueko ordu isilletan, ikasle zintzoak bezela!

-Nik ere ikasten dut. Gaiñera, ez du gizonak libu-ruetan geien ikasten. Bizitzako berri dakit nik. Eta sakon, gaiñera.

-Bai, zaragiaren sakona somatzen jakingo duzu zuk.

-Isilik! -eta ori esanik, eskua jarri zion ao aurrean neskatxari.

-Ez dut zure bildurrik, Martzel. Zu baiño morroskoagoak ikusi ditut nik izeba Martareneko taskan egoten nintzanean, isiltzen eta ospa-egiten ere.

-Joko al zaitut!

-Jo nagizu, eta begi oiek, seguru egon, ez dute geiago izarren argirik ikusiko.

-Katua al zera begiak beuren tokitik erauzteko niri? Emakumeen indarra mingañean. Eta gero, ukitu bezin laister, bai olioaren ere franku begietan beera.

-Aizu, aski da. Zer nolako maitari izan nai duzu, orrelako itz zakarrak esanaz, zuk maite duzula adierazi nai diozunari? Aitari dei egingo diot, eta ementxen ikusiko dugu zakur amorratuaren igesia.

-Ez duzu ainbesterik egingo. Neska, esan ezadazu egia: zuk maite duzu mutil dotore ori, ala ni nauzu begikoago?

Esku txuriak iraintzen ez dutela egia baldin ba da, alaxen izango da ; baiñan Martzel-ek irabazi zuan masaillekoaren otsa, an dantzari ari ziran olatuen marrua baiño zoliago izan zan.

Martzel-en agiñak kirriskada latza egin zuten, eta ez zekian zer egin. Batbatean otu zitzaion neskatxak oiuren bat egin ezker, aita eta Peru ere eldu izango zirala, eta orduan, bere asmoak osoro galduaz batean, egundoko jipoirik mamitsuena gorputzeratu zezakea-la. Eta, Agurne-k esan antzean, zakur astindua bezela joan zan Martzel errirantz, apal-apal eta isil.

Azkenik esan zion

-Agurne, Agiñaundiarenean itxedongo dizut.

-Bai, aitarekin eta Perurekin joango naiz araxe.

Zaude lasa.

\* \* \*

Luze iritzi zion Araibar-ek Bilbon eman zuan aste osoari. Garagarrilleko egun beroak izugarritzko labe nardagarri biurtzen ditu Bilbo-ko kaleak, eta ezertari-ko aize ozkirri gabe, zigorpean bizi bearra izaten dute ango biztanleak, urteko egun batzuetan.

Itsasaldearen falta zedukan Araibar-ek, eta adiskideai eta artu-emanetako ezagunai ere orixe esaten zien. Berekiko, geiago ere ba zekian arek. Udarako opera-jaiak, eder eta aundikiro ospatzeko antolapene-tan jardun bearrak zeukaten lotua, Bizkaiko iri nagu-

sian, gure zalduna. Beste lotugarriak ere, ba zituan, eta irakurleak ba dakizki sobera ere. Griña jakiñean asi zan ezkerro, ez zan aste beteko ez illabeteko zera, bide aski ibillietatik bestelakotzea, nai izan arren. Osiñeko lagunak, batean bestean, dei egiten zioten; bazkari bat zala, afariren bat iñoiz, eta adiskide zaar eta berriei ere, agur malgua egin bearra...

Araibar-ek, ezarian-ezarian aldakuntza gogo-izpia somatu arren, ez zuan aski kemenik, egin gogo zuana, bertatik zirt-zart egiteko.

Bere etsaia ikusten ez zuanean, Martzel ere pozik bizi zan, eta neskatxari pakean uzten zion. Estraperlu-gaietan aritzen zan eta gaberako edari neurri dexentea izan ezkerro, naiago izaten zuan, egia esan, gizon-zkoen artean eta batez ere ardo bizigarritzan egon, eserita eta berriketari, bere maitetzakoaren atzetik edo ondotik batera ta bestera paseo nekagarrian ibilli baiño. Orregatik esaten zioten Agurneri bere neska lagunak, arekin ezkondu ezkerro, beti ere alargun bizi izango zala neskatxa, eta Martzel, berriz, Agurne il arren ere, leen bezin laguntzadun, aren laguna, zara-gi gerri gizona baitzan.

Manu-k pakete zabal eta zapal bat man zion Agur-  
ne-ri Atxaga-ra eldu eta ondartzako txabolara joan  
zitzaionean.

-Bestetakoa baiño luzeagoa da au, orratio -jaiki  
zion Makari-ren alaba liraiñak.

-Bai, ezin ukatu.

Azaleko lokarria guraize dirdaitsuz ebaki eta gai-  
ñeko estalkia jasotzen:

-Enei! -oiuxka egin zuan neskak, karraixi alai  
bezela. Au ez da, bestetakoan tankerakoa. Zera, Arai-  
bar, au ez da uretaratzekoa; kalerakoa da au! Kalera-  
koa, Araibar jauna!...

-Noiz arte deitu bear duzu «jauna» itz ori? -esan  
zion gozoro ta labankiro Manu-k neskatxari.

-Aziera gabekoa naizela esatea ez ba duzu nai....

Eta jantzi politari bea eta bea ari zan. Eta ari beste  
ainbeste egiñaz zegoan zaldun apaiña. Ea gustatzen  
zitzaion, adierazi zion. Neskak, isilik, artu zuan jantzia  
eta zintzilik ipiñiaz, bere gorputzaren pare jarri zuan,  
zutik, sorbalda ingurutik eta beerantz, jantziak berez  
oi duan erorkera antza emanaz. Soiñean sartuta,  
egoki izango zuala jakiñerazo zion mutillari.

-Zure neurriak ikasi dituztela esan bearuko.



-Olaxen da -erantzun zion. Ezta arritzeko ere, ainbeste egin bai dizkidate, eta auek baiño zaillago diranak, gaiñera. Uretarakoak; estuagoak; neurri betekoak. Arrigarri, ordea. Ez dago emen notatxo bat ere, bestetan bezela.

-Negozio ori aurrera dioaneko agiria duzu. Naiz itsasorako naiz legorrerako jantziak egiten dituztela adierazi nai du orrek.

-Ala dirudi, eta omen ditugu agergarriak; bat beintzat. Emengo modistak ez dute oraindaiño onelako taiu txanbeliñik atera. Zakua ere ezta, eta...

-Soiñekoa izango da beti ere egokiago, gorputzaren liraintasunerako.

-Ez uste, Araibar jau... Ba dira batzuek, zaku-lerro ori soiñeratuta ere, txairo ta ikusgarri agertzen diranak.

-Ba liteke. Baiñan nik neuk B. B.-ren tankera artzen diet, pelikula batean ikusi nuanez.

-Ez dut beiñere ikusi neska modu ori.

-Ezta nik ere bera, baiña film batzuetan bai.

-Ai! Lotsagarria da emakume bat orrenbestean beeratzea, eta edonoren begiak ikusteko aiñean. Entzun ditut orren gainerako kontu batzuek.

-Eta oneratzen diran atzerritarrak?

-Oiek ez dute jazteko guk bezelako gustorik. Ondartzara, geienak, motx motx agertzen dira; alaz ere, galerazia dagola jakiñarazi ezkeru, bereala uler-tzen dute eta ez dute naasterik eta asarrerik nai iza-ten.

-Eta, noiz jantziko duzu soiñeko berri ori, Agurne?

-Ilgandean, mezatarako, eta illuntzean, plazarako. Onelan apain jantzita ea norbait xuritzen eta kutur-tzen dudan.

-Ori jantzi aurretik, ba duzu zuk bat baiño geiago xuriturik.

-Egia adierazi bear dizut. Beste askoren artean, bat da niri aspaldion paketan utzi nai ez didana. Mar-tzel du izena, eta sarri askotan ibiltzen zait atzetik, maite-eskean eta zemaika, meatxuka. Ez zait batere atsegin mutil ori. Ez du lana maite; edaria bai, ordea. Aren aita ez dago egokera txarrean, diruari buruz; bai-ñan Martzel-ek, etorkizun beltza izango du, bapatean aldaketa izugarriren bat egin ezik. Eta ezta uste izate-koa.

-Ezagutzen al dut nik?

-Ez dakit, baiñan arek zu bai. Leengoan ere emen-txe agertu zitzaidan illun-abarrean, zuk emendik niri

aldegiteko agurra egin ondoan. Orduan ere, ni bildurrazazi guraz zetorren; ez zuan ardietsi, ordea.

-Zer egin zenion ba?

-Masailleko gozo bat eman!... Gaiñera, gure aitak ere, ez du orrelako mutillik nai niretzat. Alpenra, azkena da izan ere, zerbait esku-arteak izan arren. Kendu eta ipiñi ez, guenerako baterez.

-Eta nolakoa nai luke, ba?

Neskatillak ez zion erantzun. Ez zekian zen esan ere. Jenderik ez zegoan ordurako, ondartzan. Eguzkiaren erraiñuak galduak ziran, eta gau leeneko arre koloreko giroak, bere illun-miña bazterretan barreetzen ziarduan. Peru ta aren aita Makari, azkeneko zerak biltzen ari ziran, etxe-alderantz berealakoan joateko.

-Eta zuk, ba, nolakoa nai zenduke, Agurne?

Neskatxa konkorturik zegoan, eta une artan, Manu-k biguinkiro eldu zion aren eskuari. Arek, eskua libre uzteko indar egin zuan, eta baita utzi ere aske mutil apaiñak.

-Min egiten al dizu nire eskuak, Agurne?

-Miñik ez, baiñan...

Utziko al didazu berriro zure eskuak igorzen? Zerbait esan nai nizuke eta orregatik nago gaur emen

oraindiño. Zuk ez al duzu iñoiz senti izan mundu ontan, ainbat lagunen artean egon arren, bakartadearen estura, larri-antxa, barrenean? Agian, ez, gazte xamarra zeralako. Nik ere ez nuan leen somatzen, eta orregatik leku batean eta bestean, eta lagun batzuekin eta beste batzuekin ere lasa ta pozez ibiltzen nintzan. Lasaiegi ere bai, ibillia naiz; egia aundia da, eta... agian nire konturen batzuk entzuna zera.

-Gizonak beti izaten dute zer kontatu. Sarritan iñori ikasitakoa ematen digute beurak bizitakoa baiditzen. Ba dira emen orrelakoak, eta nik iñoiz, an ize-baren ardandegian nengoanetan, gertakari berdin berdiña entzunik nuan bein baiño maizago, eta arrigarria! kontatzen zutenak, bakoitzari jazotzat botatzen zuten, eta alkarrekin zer ikusi gabeak ziran. Ba dira neskatzak, historio aundien jabe diran mutillekin ibilli naiago dutenak; ez dakit zergatik.

-Zuk ez dakizu, agian, nolakoa aukeratu.

-Ai, gure esku ba lego! Ba ditut nik begi-aurre ta gogoan zenbaitzuk. Dantza orduan eta, guztiak izaten dira atsegin eta adiguritsuak. Jolastutzeko gogoia oi dutenean; gero...

-Zure iduria, Agurne, atsegin zait niri ere. Beste asko ere izan zazkit. Orregatik jardun dut, loka ta

zoroxka baten antzean. Zentzatu nai nuke, eta neure bidea arkitu. Bai, txiki; ulertuko duzu nik ez ditudala ogei ta bi urte, maitetasun-itz beroak esateko. Baiñan, gure bigarren gazte-aldian, barruko zer oiek, beste baretasun bat naiago dute. Eta zuregan, Agurne, egi-ten ditut zenbait amets, eta ez dakit lillura utsa ez ote diran. Ez al zera konturatu, txiki, zurekin nagoenetan beste zer guztiak alde batera uzten ditudanik?

Mutillak, malguki, libre utzi zizkion eskuak artu bezin askar. Neska, bere gauzak gordetzen ari zan, aguro.

-Zer diozu, Agurne?

-Zure itzok naasturik utzi naute.

-Ez al zera nire adiskide orain? Leen bezenbat, ala... geixeago?

-Leen bezenbat.

-Ez, gutxi da, Agurne. Gizon batek emakume bati bere barruko sentipen gordeak esatean, aien artean ezin diteke geroztik gauza, leengo zerean gelditu. Edota asarratu egingo dira; edota sakonago, atxikiago ta tinkoago izango da, biak bietara duten gogo edo susmo arrunta; erkide izango dira eta beraz, leen baiño adiskideago. Eta bestelan, erritxoetako neska-

txak, arroak, buru-iritziak eta... eskergabeak dirala esan bear izango dut.

-Arroak, ez, Manu; eta eskergabeak, are gutxiago.

Bakarrik zeuden une artan txabola barruan. Arai-bar-ek amaika aldiz bere-bereak izan oi zituan amarrukeri ta loixintxak neskatxak biotz-xamurtzeko, ez zituan une aukerako artan baliagarri izan. Saio alek, ainbeste bider egindakoak, ez zuten eretirik izan une artan, azari-joko ezagunak zituan arren.

Araibar-en kolkoan indar berri baten aztarnak zebiltzan, iñolaz ere. Odolaren lendabiziko beroaldia joatean, zaiñak tinkotasunaz aspertuta nare ta bare dan giroaz zaletzen asten diranean, sortu oi dan egoera malgua, biguiñagoa. Eta ori zala-ta, Agurne-k ez zion, nunbait, beste ainbeste neskatxa gordiñek bezela, alako leratasunik eta griña-pindarrik piztuarazten. Aldakuntza artaz, arrimenez zegoan. Bere bizitzako mailla ez-ezagunera igoa zan, eta maitetasunaren lendabiziko zimikoak eta sentipenak ote ziran, galdetzen zion bere buruari.

Gurari berri baten ernamin lotsatia; nai ardiesgarria zitzaion barruko arnas-zabaltzearen kilima uxterra bezela.

«Araibar maitemindurik?» -ziotsan bere barruko beste anima-zatiari-. Eta orrela, lagun bat bakarra soil-izketan ez baiña elkarrizketan ari zan. Berberak esan eta berberak entzun eta erantzun.

Eta zergatik ez ba, biotzak, iñoiz edo bein uzta mardul eta aitorrik erakarri ez, bizitzaldi soil ontan? Ba dira, loriazki, belar txarrak, lupetza zikiñetik erraldaturik, betiko bizitzazko emaitz zoragarriak eman dituztenak.

Gaiñera, Agurne-ri beatzen zion bakoitzean, arako «Kolombine»-zaz oroitzen zan; izkutu-guna zuan «Kolombine»-zaz; misteriozko emakume eder, begi berde artaz...

## XIII

Udaerdiko egun paketsua zetorren, mendiak zear eta itsas zabalean barna. Udazaleak ainbeste atseginduten aietakoa. Iparraldetiko aize legunak dardarazten zituan, ordurako ondartzan ezarritako toldo txuri, urdin eta beste kolore askotakoak.

Beribil aundi bat eldu zan, beste txiki askoren artean, plai bazterreko bide zabaleraiño. Barrutik, eta gaiñeko tokitik ere, neskatxa sail ugaritsua jatsi zan. Araibar ere antxen zan gustora, jende gaztea ikusi nairik. Gonazabal, galtza-gonak, galtza estuak, guztietarikoak zeuzkaten poxpolin alai aiek. Ez du iñork esango, beribillean gora ta beera ibiltzeko eta, mendian ibiltzeko eta, txirringutsean naiz eta *vespetan* ibiltzeko ere, galtza-gona oiek egokiago ta zindoago ez diranik; andrak galtzak dituztela beti, zer jakiña baita, sarri askotan agerian izan ezarren.

Apaiz bat ere ba zetorren, aien gidaritzat, noski.

Eldu berri oiek, ba zekiten bai, nora zioazten. Ez ziran ara bestela-baitakoan eldu, ez. Bost minutu baiño leen, neskatxetarik geienak soiñekoz aldatuak agiri ziran. Berogarri zitzaizkien gaiñeko jantziak eran-



tzi; eta arin, zal eta airos, batzuek politak ziran; besteak ez ainbeste, gizonak ere, oro, ederrak ez diran bezelaxe.

Ondartzaleen gisan zeuden beraz: soiñeko bakar bat, eserlekutik galtzarperaiño. Oin eta iztarrak aske, esku ta besoak alatsu. Eta lepondoa batez ere; eguzki goxoaren distirak eta itsasoak duan lurrin xamurraz azalak larru polit, beltzeran, erakusgarri jarri zezazkieten. Nork ukatuko dizkio, bada, xotiltasuna eta ederukia ta ximenernamiña dan emakumeari, bere izake-ra ta kuntza-inguruak txukunagotzeko ta erakusgarriagotzeko egin nai dituan saio ta alegin bitxiak? Erraz da noski, aldikada bateko moden kaltez, lerroak lerro ematea. Alabaiña, nork ez du naiago egungo egunean, neskatxa beltzeran bat aldamenean ikusi, eguzkiak mamitsuki gantzutua, emakume zurbil azal-txuria baiño?

Ondartzan, geroxeago, guztiak ziran antzeko; betiko bezeruak eta eldu berriak, lendabizikoz joanak, eta bertako egiñik bezela, olatuen joan-etorriak, uraren tiraiña, aitzarteetako kresalaren zurrunbilloa eta egun bakoitzean itsas-azal eta barruak, ordurako zeukan seta biurria ala mana barea ezagutu uste zutenak.

An zeuden bada, guztiak barreaturik, sakabanaturik; erriko, erbesteko, kanpoko, eta atzerriko. Asko ta asko, ondar berotuaren gaiñean etziñik, besoak zabal, lotsati itxurarik gabe; beste batzuek uraren ondorago, saltoka, pelota aundi koloretsuekin jolas alai eta liraingarrietan. Atzerritarrak, egia esan, geinetan nabarmentxoago zeuden, jantzi urriago, motxago, atzekaldeetan medarrago ere bai, ipur-mami zatiak ere, eskeiñi guraz bezala iñoiz... Ikasleak ere, erraz biltzen baitira gai oietarako, nai izan zezaketen aiei antzeman, baiña...

Apaiza, aitzartera joan zan; eta an, magurio, lapak eta beste zerbait arrapatzen ote zuan, denpora pasa, ari zan.

Araibar-ek bizkitartean, ara ta ona egiten zituan inguruketa eta ibiltaldiak, batean ondar igarra zegoan aldean; ondar ezea zegoanean, urrena. Ikusgarri zana ikustatu zuan, eta eguneroko aldaketaz jabetua zan. Agurnerengana jo zuan, eta agur gozoaz txeratu ondorean, jende kanpotar aura, nontarra ote zan ea zekian, galdetu ere bai.

-Bilbotarrak dirala, esan dute. Zein eliz-barrutikoak, ezdakit. Ez al duzu iñortxo ere ezagutu?

-Ez. Politik al dira bilbotarrak?

-Zuk jakingo duzu ori, nik baiño obeki.

-Bai, badira an politak; emen ere bai. Gaur ondartzatza ori, «ninfaz» bete da.

Neskatxak ez tul egin zuan, ez tul-gaizto, ezer entzun ez bai luan; eta an nunbaitetik otsegin zioten eta, utzi zuan Manu bere zerera.

-Egunon, apaiz jauna, zertan ari gera? -erran zion Manu-k an aitzartean magurioak biltzen ziarduan elizgizon gazteari. Karramarruren bat ere, artuta zeukan, aitzaren zulagune batean utzia, sabelaz gora, eta agiñak ausita.

-Ementxe ba, zertan edo artan. Txikiak dira bildu ditudan zer oiek, eta jateko, ez dakit ezer izango ote duten.

-Berotasuna ere gorputzeratuko zuan ba emen, galanki. Aitzarte ontan beti ere itoago eta kixkalgarriago oi da eguzkiaren sua, aizeak ezpaitu lasai artzen bazter onen kolkoa. Zergatik ez du etorri nai ara, gure toldopera?

-Ez, ba, eskerrik asko; emen ez diot iñori kalterik egiten eta...

-Kalterik, an ere ez. Apaiz batek ez dut uste, iñon ere kalterik egin dezakenik.

Parre samur egin zuan apaiz gazteak ezer erantzun gabe, elizkoi aundiren batekin topo egin zuala uste izanik.

-Gaiñera, beste gauza bat ere bai, apaiz jauna. Zergatik ez du emen bustialdi gozo bat artzen?

-Emen? Jende asko dago-ta.

-Orra ba. Erriko apaizak ordu inguru auetan ez dira etortzen beiñere, ori ez. Oiek, goizean edo illuntzean agertu oi dira murgilaldia egitera, gorputza ur garbi eder ortaz ezotzera. Baiñan erbestetik datozten apaizak, nik ikusten ditut sarri; oiek, beste edonor bezela, gure antzean ibiltzen dira emen. Nai baldin ba du, or baztertxorago eta uretan ere, alde ontarago. Baiñan, batere... kerri gabe. Apaizak ere, bere eskubidea du...! Nik diodana! ... An dut gerizpe atsegiña eta etxola eroso, jazteko eta erazteko. Ur-praka motzik ez baldin ba du, ba ditut nik oietaz beste batzuk, eta utzi dezazkioket.

-O, millesker, jauna. Orren bestean kuturtu nauan ezkerro, mustatu bear izango dugu ba, ur garbi ori. Apaizgei nintzanean ez nintzan makalena igarian. An,

Saturraran-en egiten genituan gure saio izugarriak. Orain, ez dugu ainbeste aukerarik, ez astirik.

Manu-k eskeiñi zion galtza motza artu, eta sartu zan etxola batean. Aguro gertu zan igarilari soiñekoz, eta agertu berriro, bere laguntzaillearengana.

-Ikusten al dituzu gazte beltzeran bi oiek? -ziotsan Manu-k, leen esandakoaren bermagarri bezela.

-Bai.

-Apezak dituzu. Barkatu, jauna, orain zuka eraso ba diot.

-Barkaturik dago. Beraz, apezak, e?

-Alaxen, jauna. Alemanak gaiñera, illeak beltz xamarrak dituzten arren.

-Eiki.

-Geroago ikusi al izango dituzu beuren apaiz jantziekin. Galtza luzeekin, noski, eta burutsik, beti burutsik, emen beintzat, egun eder auetan. Automobilla ere ekarri dute, norena ez dakit; agian, norbaitek utzia...

-Guk ere ekarri dugu ba, beribil galanta.

-Apaizarena, ez ordea.

-Ori ez. Gure irabaziak ez digute ainbesterako ematen, eta bear ere ez dugu; bear gorririk beintzat.

-Bilbotik elduak, ezta? Jendea erruz etortzen da andik onera. Batzuek, eguzkia artzera edo... Besteak, kresalaz, itsasertzeko uraz soiña bustitzera. Eta ardandegiko ur beltzez barrua bustitzera ere, bai. Guztietarako zaletasunak ditugu-ta. Eta aizu, nai al duzu uraren ezpaignerago joan gaitezen, emen baiño ozkirriago egon oi da-ta?

Elizgizonak bestearen onua aintzat arturik, joan ziran itsasalderago.

-Ikusten al duzu zeinbat kristau emen, amak emandako jantzia baiño zertxobat geiago dutelarik? Emakumeak ugariago dira, noski; gizonak lanean eta beste zeretan jardun bearra dutelako, nonbait. Baiñan betiere, emakumeak zaleago dira ondartzan ere, euren buruak agertzeko. Gizasemeak, noiznai ta nunai, beti lotsatiago, nik uste.

-Nola dan.

-Bai, ziur asko. Ara: elizan bertan ere, ez al dituzue ikusten? Ni oroitzen naiz beintzat, gazte nintzan nean zer gertatzen zitzaidan. Joaten nintzan lenengotarik jaunartzera, eta ez dakit nundik edo nola, baiñan emakumeak, gaztetxoak ez ainbeste, baiñan zer-bait adiñekoak, oiek besteentzat begiramenik gabe, sartzen ziran aurreko aldean, beraiei tokatu gabe. Eta

ortarako, bultz emendik, oiñak zapaldu bestetik; eta iñoiz, emen, urdaillean bertan ere, ukalondoz sekulako takatekoak emanaz, niri eta edozeiñi, batere kezka ta zer gabe. Lotsatiak aiek?... Eta emen ere, esan bezela, mutil sasoiko batek lotsa geiago izango du, bat-batean eta oituragabe egonik, galtza motxetan soil geiditzeko, neska batek «jantzen» oietako batez... *ikusgarri* agertzeko baiño.

-Alarik ere, oraindiño ba dira neurriak zorionez, neskaxa zintzoengan, emakume guztiak ezpaitira aziera berdiñekoak ez aiurri berekoak; eta batez ere, barrubizitza garbia daramatenak, oiek, ba dute beuren antza, beuren zera, alegia, osoro lotsagabe eta nabarmen gorri ez agertzeko.

-Eta zurekin etorri diran neska oriek ongi ezagutzen al dituzu?

-Baietz uste dut.

-Eta ementxen daude, egunero etortzen diranekin batean. Ikusi ditut asko, eta liraiñak ere ba dira, nire iritziz. Aien gogoak ezagutzea...

-Aien *gogoak* ia osoro ikusten ditut, baztertxoren bat, agian, izan ezik; iñor gutxik agertzen baitu alde-renalde gogoia, luze-sakon-zabalean.

-Eta nik, apaiz jauna, nola esango nuke... Nik, emen dauden neskaxen *gorputzak* ia osoro ikusi ditut, baztertxoren bat izan ezik, zuk esan bezela.

-Gogortxo ez ote duzu itzegin?

-Ez dut uste, ez dan gauzarik esan dudarik.

Apaiza oldozkor jarri zan eta itsasoko uin en joan-  
etorrian sortzen zan apar txuria, bits garbia ikusi ta  
ikusi jardun zuan.

-Apaiz jauna...

-Barkatu. Pentsatzen ari nintzan. Olatu sendo  
oiek, burrukan ari dirala, alkarrekin, aizearekin, naas-  
pil eta odol-antzeko burruka ortatik zikiña besterik ez  
luketela sortu bear, iduri du. Eta alaz ere, ekaitzaldi  
gordienetan izan ezik, bits txuria, apar gardena eskein-  
tzen digute...

-Jauna, alberdanian esan dizut zirikada ori eta...

-Ez, ez kezkarik izan, esan duzun ezkeru, adiskide.  
Pentsamentu ori gogoan izango dut, ene apaiz gogo-  
an. Alegia, zorrotza baita izan ere... «Anima, ia osorik  
apaizari erakutsi; eta gorputza, ia osorik, edozein  
gizoneri». Gogortxo ezik, gogorra ere ba da.

-Ni, ario ortaz jarraiturik, geiago ere pentsaturik  
nago. Nik an, Bilbon, teatru baten goi-mallako ardura  
dut. Eta nire kolporako esan ere bai: antxen jai eder



batzuek emtateko, kanpotik datozen tiple oiek baiño, neskatxa zurbil eta mee eta gosekil antzeko oiek baiño, naiago izango ez ote nitukean, (esaterako, ondartza ontan dauden berrogei edo irurogei neskatxa mardulenak) an, *eszenarioan* agertu. Jantziak, berdin xamarak dituzte, eta gaiñera alde aundia: larrua beltz eta eder, eguzkiz betea eta gose itxura gabe.

-Lasaiki mintzatzen zatzait. Dana dala, gezurtia ez dirudizu.

-An, teatruan, minuto laburretan pasatzen dira batetik bestera, aurreko xubinko artatik ere. Gaiñera distiraz beterik, pitxi dirdaiez, eta beti ere, soiñupean edota dantza ariñez; soiñuak eman oi duan eder-giro ta bizitasunez. Emen ordea, or daude ordu luzeetan, gure ondoan ere, metro batera, eta urbillago ere bai, eskuaz ukitzeko moduan, edonoren aurrean; eta urrurik, duan, ikuskariak. Nun oiek baiño *vedette* jatorragorik?...

-Barkatu, adiskide. Igari egimgo al dugu?

-Bai jauna, kunplimentu gabe.

«Aitaren eta Semearen» egin zuan apaizak, eta Manu-k ere bai, ur txikian eskuak kresalez bustiaz. Onek egin zuan lendabizi zanga, -buruz aurrera urpean sartu-; orrela asierako ozkirri ximikoa bapa-

tean aitzatzeko. Apaizak ere pozik egiten zituan bere saioak; gaztetxotan egindakoak, nonbait, atsegin aundiz oroituaz.

Udaran batez ere, itsasertzeko ur garbiak duan erakarpen gozo eta laketez betea, gorputzentzat, guztientzat erabat, eskaiñigarri da izan. Ordea...

«Zuk, animak ikusi ia billoiz; nik, gorputzak, alatsu»...

Esanera onek, durundu egiten zion belarrietan apaiz animazale gartsu ari. Durundu eta kilika, kilika eta imurtxi. Mingarria agian, mingarria...

Uretatik irtetzean, Araibar, apaizari zerbait geiago esateko asmotan zegoan. Apaizaren kolkoan kezka sartu zuan; baiñan bere barnean ere, Manu-k, ba zuan, iñolaz ere, bere arbintasuna,kezka-nekea.

Alkar ezagutzen ote zuteneko zera, agertu edo ez, zalantzan zebillen mutilla. Alaz ere, bere esku ibiltzen oiturik bait zegoan, apaizaren ezagupideak edo adiskidetasunak, askatasun aura urritu eta eskastuko ote zion, bildur-susmoa bezela zuan. Bide zabala estutzea ez zitzaion atsegin. Buruenik ere, mintzatu gogoan agertu zion apaizari. Eta ortarako ez zituan gero jarri, leen ipiñita izan zituan betaurreko beltzak.

-Nik geienetan, ementxen ibiltzen dakit berriro ere, azalean ditugun bustialdiko ur-tantoak legortu arte -ziotsan Manu-k apaiz mazalari-. Atsegingarri izaten da, batez ere otzik ez dagoanean. Orrela, axala gozatu eta beltz-igurtziz jazten da, eta oraingo modako kolore ortaz jabetzen gera, gizonok ere. Beste batzuen ustez, ordea, kaltegarri da orrelakorik egitea. Eguzkiak berebiziko aukera izaten omen du gure azalean jorraketa mamia egiteko, gorri-gorri utzi eta geroago zauritxoak sortuaraziaz. Ta gerri inguruan ere, soiñeko bustiz irauteak, ez omen du batere onik egiten.

-Beraz, beingoan legortzea ta aldatzea izango da egokien, ezta?

-Nai duzun bezela. Ta... gustatu al zaizu emengo ur garbi ederra? Emengo ondartza txukuna, emengo edertasun guztiak?

-Bai, aspaldi ez naiz emen egon, eta orra, gure neskatxak asmo ona izan dute onera etorriaz. Bustialdia ere artu dugu ba, eta ori, zuri eskerrak eta gure Jaunari ere bai. Zenbat zor diogun Berari! Zenbat edertasun eta zenbat onura, sarritan aietaz gaizki baliatzeko!

-Ondartzak buruauste aundia ematen diete elizgizonai Euskalerrria-n, ezta?

-Bai, olaxen da. Gauzen neurria, izari egokia aurkitzea ez da beti erraz izaten; eta bizkitartean, izaten dira, bai, oker-ulertze, ezin-aditu eta naasmendu ta asalda biurriak.

-Nik neuk, neurri edo esteri kontu orixe da, egundo zertu ezin izan dudana. Jainkoak gizona libre egin zualarik, gero uztarri oiek... Gaztetxotan ikasia dut, e? Geroztik ez dut batere sakondu gai ori; egia.

-Aske ta bere esku, bai. Eta orain, galerazpenak eta neurriak eta esiak arkitzen dituzu nunai, ezta?

-Bai, nik nai nukean baiño maizago bai beintzat. Eta ori, nik uste, arako teori-buruaz mutur-joka dabil. Ez dakit nik.

-Teoriak gure animaren iduria du, ez du neurrirík sarri askotan. Baiñan gure gorputzak bai, neurria du, eta motxa gaiñera. Eta biok ditugu guk alkarrekin, bata bestean sartua edo iregazia, oraingo ibillaldi ontan.

-Barkatu, apaiz jauna. Zigarrotxo bat orain, atsegarri bezela?

-Ez, gaur ez dut erreko ba. Ori ere, neurri bat dugu, borondatezkoa ordea. Legeak, neurriak eta

loturak dituan bezela, borondateak ere, esi eta naiko-  
espenak ditu.

-Nire borondateak, atea zabal izaten ditu, gein-  
bat. Ez naiz zale izaten langa estuak ipintzeko, bitarte  
aundidunak baizik.

-Esaterako...

-Ba, esango dizut. Ni, ezkongei naiz, eta uztarri ori  
artu bearrak alako narda erakarten dit biozpera.

-Eta, ez al duzu beiñere neskaten batez maiteta-  
sun gorabeerarik izan? Ba dira gizonezko batzuek,  
lotsor edo lotsatiagatik izanik, emakumeenganako  
narda edo destaiña-kerrua izaten dutenak. Oraingo  
*gutxiesmen* ospatsu orren kutsua edo, dutenak.

-Ai, olakorik ez, Aita. Emakumeak ezagutzen ez  
ditudalako ez da, eiki. Larregi ere ezagutu ditud,  
agian. Emakumearen gogoak ez du niretzat misterio  
ta zador geiegirik, uste dut.

-Orduan,... franku ibillia zera, beraz? Gai sakona  
artu dugu eta tamala litzake... Zera, barkatu; ze ordu  
da orain?

-Ordu biak ez dira oraindio, iñolaz ere.

-Ederki. Jantzi egingo naiz beingoan eta... solas  
orri eutsiko diogu. Nirekin bat al zatoz?

-Bai, jauna.

Etxolan berriro sartu eta izan ere, berealakoan agertu zan apaiza, bere oi-jantziz apaindua. Manu-k ere beste ainbeste egin zuan. Apaizak ez zuan, artean, asitako aririk naastu ez eten.

-Orra ba. Esan nai nizun, emakumeen gogoia eza-gutzeko, urte asko ta asko bear dirala entzuna naiz; eta zuk, ez duzu ainbeste urterik.

-Eldu gera ba, zerera. Leentxoago ere agertu nai izan dizut, baiña ez dut egin eta, oraingoan bai. Zera, iñoiz alkarrekin itz egin dugula, gaur baiña leen. Orixe diotsut.

-Baaai? Ez naiz gogoratzen. Ni, ortarako aaztube-raa naiz eta. Gaiñera zenbat gauza entzun, eta beste ainbeste aantzi bearreko baita, apaiza! Barkatu, bada, nire axolagabekeria, ta nire buru txar au.

Eta orduan, Manu-k azaldu zion bere buruaren zera. Bilbon trenbidean il zan edota trenak azpian arturik andik laisterrera garbitu zan neskatxa aura. Apaiz batekin izan zuala, aitorpena eta beste argitasun batzuek esateko aukera doi-doia. Zerbait oroitzen zan apaiza, eta abizena ere Okendo, Ayala, edo...

-Ez, jauna, Mena zan. Loli Mena. Eta aren adiskide lendabiziko izandako aura, ni nintzan; eta nire ofizinan itzegin genduan.

Bizitza aldatu ote zuan, galdetu zion apaizak berealakoan. Eta besteak, orrenbeste ez, baiñan aldatu gogo ba zuala, erantzun zion. Ez zan egia osoa ori. Ez zuan aren barruan kezka zorrotzak egonezin aundi-rik sortu. Ordurarteko akuillukadak ez zuten bear aintabateko azku ta indarrrik izan. Aldaketa ea komeni ez ote zitzaion uste zuan, galdetu zion apaizak. Agian, aldaketa, izan zitekela osoro ez erraza. Neurriaz eta askatasunaz leen jardunik zeuden. Min ematen zion zaldunari, askatasuna galtzeko susmorik txikerrenak ere.

-Min ematen dizu, ezta? -ziotsan apaizak-. Baiñan beldurrik ez, eztut siñisten. Askatasuna, barkatu baiña, aspaldi galdu zenduan zuk. Bai, zeuk. Griña orrek menpean artu zinduanean. Zeure gogoaren askatasuna. Eta zure nagusia, gogo ez, baiñan aragi ilkorra izan da.

Jendea bildu zan an arrapatakan uraren ertzean. Betikoa izango zan: norbait uretatik atera erdi-itoan, geienetan erbesteko norbait; edota oiñean min arturik zegoan kristauren bat; alegia, xabiroiak isil isillik ezpia, bere bizar zorrotza, oinpean sartuta miñez zegoanen bat. Manu eta apaiza ere abiatu ziran, an, zurrunbillo artan zerbait ikusteko edo entzuteko

ustez. Izan ere, an zegoan mutiko bat, frantsesa bera, oipean zuan miñaren aundiz, negarrez; eta bere oiñari gogor elduaz; ordubete inguru edo izango baitzuan ala espatsu ori. Arrak edo usanak ipintzen zazkie zauri ondoan, edota tintura batez igurtzia eman; oiñazea ibitu eta makalagotu dedin. Arraitxo oiek ur txikian eta ondarpean-edo egoten dakite.

-Min artu du orrek etaurrengoan kontuz jokatu du toki oietan. Aragian artutako-miñak ematen digun kezka eta nekea! Ori, ikusi bezela egiten dugu, gorputzeko miña; eta ikusten ez duguna, gure gogoaren eria, gure animaren geisoa, gure barruko zauria izan oi da -ziotsan apaizak Manu-ri-. Eman dezagun zuk dirua poliki duzula; gaur bertan kenduko ba lizukete, izango zenduke miña; jakiña ba, gogoan, ez gorputzean. Emazte on bat ba zendu, eta olaxen izango al da luzaro baiño leen! eta bapatean, eriotzak edota gizon gaizto batek eramango ba lizu, nun izango zenduke miña, gorputzean? Ez, zeure sentipenean, barruan. Gurasoak bizi al dituzu?

-Ez. Aitarik ez nuan ezagutu ere egin. Eta ama, nik zazpi urte edo nituala il zan.

-Betikoa !... Ama gabe azia zera zu ere, zorigaitzez; zure bizitzako urterik xamur eta zailenetan, zure



gogoia eder-kimetez beterik zegoan aro bikain artan. Auxe adierazi nai nizun: aita edo ama batez ere, il zitzaizunean izan zenduan utsa, uts-miña, gabezia, zerbaiten ezunea. Tamalez, erkatze onek ustel irten dit. Labur: zure bizitza zergatik ez duzu aldatu, zer zio duzu, zer eragozpen, edota graziaren eskabiderik ez al duzu bear aiñean egin? Askatasuna izan duzu oraiñarte.

-Ori bai, askatasuna beti.

-Adiskide, leengo arira bertara jo dugu. Zuk ez duzu askatasunik izan. Bizitzak zarama koloregabeko malda arreska batean barruna. Dirua, gonak, edaria... agian? Orixe duzute gizonok, trilogiarik atsegiñen. Laugarren almena, aginpidea, indarra izan oi da. Askatasuna, ustez, norberarentzat; lege estuak, txonilla zutik, inbutua, zabala gure aldera; estua... geidea-arentzat. Jauntxokeria, itz batean esateko. Zuetarikoan okerrik aundiena ta larriena auxe da: bide soil batez noizbait abiatu izana, eta beste biderik danik ere ez uste izatea. Mundukotarren zidorraz zaletu ta begililluratu, ta gogoak uzi aundien lukean bidea, Jainko bidea ain zuzen, gutxiestea edota iraizean ere, ez ezagutztea.

-Ta nun billatzen dute batzuek bide ori? Nik neuk, ez dut nire ibilaldian besterik aurkitu auxe, nire au baik.

-Jakiña! Nik ere, gaur arte bezela jarraitzekotan, esaterako... ez dut beiñere txinatarren izkuntzarik jakingo. Ezpaitut ortarako sentimenturik nabari eta ezta zaletasun pitiñik ere. Alarik, ez da berdintze au egokia. Eta, ba al dakizu zergatik? Nik, noski, ez dut izango onezkero -ez jakin ba, agian- txinatarren izkuntza jakin bearrik. Jainkoarekikoa, ordea, luza dezakegu, ez beti, amar urte, ogei, irurogei, eun. Alabaiñan elduko da ordu latza, gure kontuaren garbike-ta zeatza eman-bear ordua.

-Ori ere, betiko leloa da.

-Noski, ez atsegingarria alaz ere geien geienentzat. Baiñan, garbi esan: zu ba al zera eriotzaren bildur? Ni neu, bai. Besterik esatea, gezurra zabaltzea litzake.

-Eriotzaren bildur guztiok izan oi gera.

-Orduan, askatasun-zaleak ere, ba dute bildur ori.

-Bai.

-Beraz, bide biok okerrak dirala esango al didazu? Bi biok azken berdiñera jotzen bai dute. Ona emen gure lerro asarreak, non egin duten bat. Bildurra?...

Bai zera! Askatasuna duanak ez du iñoren ez ezeren bildurrik. Edota... ez du askatasun ori!

-Bukatu egin zait oraintxe nire gogoetaren aria.

-Ondorena billa dezagun bertatik. Zure esanak nireak aiñean ez baldin ba dira zindo ta tinkoak, zu, galtzaille, nire aldera zaite. Eta azkenean ere, apaiz nauzu; ta apostolugintza ezin dezakegu, ziñez, iñoiz ez iñon alde batera laga bertanbeera.

-Eta zuek ez al duzute oporraldirik?

-Gaia saiestu nai duzu, adiskide. Ezta axolik ordea, orain. Ba ez; ezdukegu guk oporraldirik, iñoiz atsedeen egunak izan arren. Medikiak ere, esanera betean, gure idurikoak dira. Aiek ordea, erantzun lezaketete iñoiz: «orain ez, ez da ordu; gaba da; berandu da...». Eta apaizak, ez. Anima bat bizirik eta laguntasun eske baldin ba dago; iltamuan dagoenean; iltagero ere... apaiza an joango da pertsonaren ondora, aldamenara, aura aitortzeko, poza emateko, animarentzako indarra eramateko, barkapena eskeintzeko; iltagero ere, aren gogoaren alde otoi egiteko. Medikuen lanak, beraz, muga motxagoak ditu apaizarenak baiño. Ez da munduan agian, iñor zoritxarrekoagorik izango, bere izatea ukatu nai izan duan elizgizon

ordenatua baiño. Ain zuzen, ikusi al duzu oraintsu *Le défroqué* film izugarri ori?

-Bai, eta barruan alako zerbait...

-Zeeer? Zimikoren bat sentitu al zenduan? Zer adierazi zion zure animari apaiz biotz gogor aren jokaerak? Egia esan, ez du edonork alaere, bear litza-ken prestaera, orrelako film gordiñak ulertzeko.

-Niri neuri, neke larria, tristea barnera zidan. Eta sarri askotan, orixe berbera somatzen dut katolikoen gauzetan. Alegia, tristezi-bidea dala zuena. Ainbeste galerazpenez, bizitza au nekez betea jartzen duzutela.

-Ai, adiskide, zure bizitza esigabearen azkenean ere, larritasun berdiña aurkitu dugula leen, ez ezazu aaztu. Baiñan, beste zer bat agertuko dizut. Zure itz oietan gauza bat bakarra dakusat argi ta garbi: zure animan aspaldi ez dala graziaren kutsurik batere izan. Bestelan... Ikusi al dituzu, esaterako, bai monja gazteen komenturen bateko barne-bizitzako gorabeerak, eta fraile-etxe askotako gizasemeen bizitzaro, pozez ta gozotasunez beteak? Ez noski, ez duzu ikusi; eta ezta ortaz ezertxo pentsatu ere. Ori, lau orma tartean sartuta daudenetaz. Eta, beste gure gaztedi ederrak, berriz! Nirekin etorri diran neskatilla gazte oiek ere, ez duzu esango, alai, alasoko ta artadunak ez diranik.

Oiek ordea, ez dute geientsuak bakartade-bizitzarako deirik izan. Ala ta guztiz ere, ikusi beuren gatza, jasa, tankera. Ez dute oiek memel-itxurarik ez zuntzun-aizerik.

-Zer nai duzu, ba? Nire begietan ala izan oi da.

-Apaizarentzat ere, barruko pakerik gabeko gizonak berdintsu azaltzen dira: irudi triste, azalez koloregorri ta irritsu agertu arren. Gose-egarri, ase-antza eman arren. Griñapetuak edo nekapetuak, jauntxo bete ta bizitza-isurtzaille bezela agertu arren.

«Mobylette» batean eldu zan gazte bat ondartzertzeko bidezabalean zear. Jatsi zan. Eta Peru-rengana zuzen joan zan. Norbaiten galde zetorren, enura gabe. Telegrafuetako morroia zan. Peru asi zan batera ta bestera bea ta bea. Ikuskatu zituan inguruak eta bai begiz jo ere billatu nai zutena.

-Araibar jauna, antxen daudenetarik apaiza ez, baiña bestea duzu, gafa belzduna.

Manu-k papertxoa artu, firmatu ta eman zion; eskupekotxoa ere bai. Askatu zuan bildurik zegoana, eta beingoan irakurri ere.

-Ikusten al duzu? Bart nire etxekandrea, min egin-da dago. Iztar-ezurra edo puxkatu omen zaio. Jakiña! Ba duzu esaera bat: «Ibillian ibillian...». Zera, andre

onek igande arratsaldetan egiten du etxean oi dan asteko bukata, garbitasuna.

-Igandeetan, e?

-Bai jauna, moda berria; igandeetan. Goizean entzungo ditu, ori bai, iru edo lau meza; ortarako *kupo* zabala du arek betiere. Baiñan, geroago, asiko zaizu, esan bezela, asteko ikuzketan, eta Illuntze inguruan, garbitu berri dituan erropa ta oialak guztiak isekiko ditu barlan, alderen alde lokarri luzeak egokiro erabili-  
liaz. Eta orra, atzo, bere karga ta guzti erori da lurre-  
ra, sukaldean bertan, zorionez; leiotik kanpora ere izan zitekean eta; min artu du gaixoak, eta eraman dute klinikara. Joan bearko dut bereala. Onek ere ederki santutzen du jai-eguna! ... Esaten diot ba nik! Arraio arraioa!

-Ai, adiskide, aditzen duzu zein errez dan eta zein aise, iñoren begiko zamarra ikustea.

-Tamalez, atsekabe ematen dit egia esan; baiñan, atso langillegi orrek zerbait merezi zuan.

-Guk ere maiz, aundiagorik ez dezagula merezi-  
erantzun zion apaizak.

Biaramonean, Araibar bere iri nagusira eldu, etxe-kandrea ikustatu eta bere ofizinara eldu zanean, Serafin, beti bezela ere bai, baiña zerbait erneago ta artatsuago somatu zuan. Lanen gora-beera laburki adierazi zion, eta eguneko korreoa batere atzerapen gabe zegoala. Gai bi edo iru soli soillik ikasteko eta erabakitzeko. Ez zuala nai, alegia, zer asko utzi pillaturik. Oporraldia izango ote zuan, galdetu zion Araibar-ek, leen ere zerbait arturik zuala-ta. Oporraldi luzetxoagoaren ustea, ulertarazi zion nagusiari.

-Jauna, garbi esan, beste zerik dut, eta laisterrean gaiñera.

-Zer gero?

-Ezkondu egingo naizela -erantzun zion Serafin-ek.

-Ezkondu...? Eta norekin?

-Matilde-rekin.

-Aura beste batekin ez al zan ba ezkondu?

-Ez, ba. Alegia, senargeiak ez bear aundia izan du leengoan, eta ezertarako gauza ez dala geratu da. Makiña batek tartean artu zuan, eta nola ez zekiala, oxta oxta bizirik atera zan. Eta burua argi duala, bere zerarekin itz egin du, eta gizarajoa bat etorri da Matilde-rekin, eta ezkontza, utzi egin dute bertanbeera.

Matilde, Bilbon zegoan, aste batzuek leenagotik, Manu-k ori ez jakin arren. Orregatik zirikatu zuan berriro ere, Manu-k bere menpekoa:

-Eta aste betean limurtu al zaitu uztarpean jartze-ko? Arrigarria da. Leen amar urtetan egin ez dana, orain amar egunetan...

-Ez, karta batzuek ere egin zizkidan eta...

-Noizko izango dugu ba, zorioneko egunsenti ori? Eta bera pozik al dago? Zure egoneziña ta alaitasuna, begien bistako gauza bai ditut. Ai, ai, ai!

-Bera eldu da nire galde-ta!... Udazkenean edo, belu xamarrean ba da ere.

-Tira ba, ez lo egon. Arek berak gerturik izango ditu zer guztiak. Zuk bear dituzu orain amabost urte-ko nagiak astindu eta aurrerako urratsa leenbaileen egin. Leen gazteago zanean, eta ziñanean, lo egon. Orain, batbatean dira joan-etorriak. Zaartzako bildu-rrak jorik bezela.

-Besoetakoak edo aitamabitxiak bear ditut. Gure ama zaarra da, eta, gaiñera, nik auxe nai nuan: aita-bitxi, zeu, Araibar jauna; eta amabitxi, zure... ernazte-geia. Neskatxa politen bat ba omen da or itsasaldean, eta...



-Nork esan du ainbesteko berri aurreraturik? Nik oraindiño...

-Ez da, alaz ere, itxedopen-argla iñoiz itzalitzat eman bear. Badakizu; erbiaren ipuia: gutxien uste danean... an zia!

-Orixe ez nizuke ukatuko.

Araibar-en biozpean beste kezka edo kilima igurtzia sortarazi edo ernarazi zuten Serafin-en itz pake-tsu baiña esangiñak. Bere barneko zadorra iñork eza-gutzen ez zualakoan bizi izana zan, egiazki, beintzat, gogo-jauntxokerian, askatasunean, zer nai eta uraxe, bizimoduan. Orain, ordea, apaizak zer aundiak agerrarazi zizkion. Eta gero, Serafin xaloak ere, nunbait usai artu, antxen izpazterrean omen zegoan neskatxak, bere nagusiari barruan maite-ikutua egin ote zion.

Eta diotenean zerbait izan oi da ta, bere buruaz eta beste norbaitenaz ere pentsatzen asi bide zan Araibar, zaldun jarei eta eragozpen-zale ez zana.

## XIV

Itsasertzetan, udako gauak ere, ba dute beuren ordu eme ta malgua, gorputzak laket-eske edota irrits-egarri oi diranean. Batipat, erri-jai luzeetan.

Goienkaleko baztertxo batean, soiñu berri zekarren beribil bat gelditu zan. Illuntzea zan, eta eguzkiaren izpiak, beste lurralde ta itsasoetarantz bialiak zituzten bero -zizta zuzen eta zorrotzenak.

Gazte bi, mutil sendokoteak, atera ziran eta kalean batera-bestera beatu ostean, etxe baten orma zutak arakatuaz, leioak ikuskatuaz, teillaturaiño soaldi atsegiñak egin zituzten. Jantzietan zuten agiri: Amerika aldetik zetozten. Anaiak ziran, sei urte leenago diru-gosez joanak, Venezuelako lur zabaletara.

Bata, Tomas zan, eta aren anai gazteagoa, Martin. Gazte azkar, langille ta jolastiak. Urteroko jaien usaiñak bultzarazita zetozten, eta adian, beste asmotxoren bat ere... Etxean ama aurkitu zuten; uste-uste gabeko etorrera artaz zerbait arritua, noski, seme eder aiek etxera orrela isil-isillik agertzean.

Auek ere, Algorta-ko arako indianuak egin zuana bera, berriztu gogo zuten, antza. Gizontxo aura, Ame-

rika aldera joana zan aspaldi. Urteak joan, urteak etorri, eta senarraren berririk eskas zuten etxe artan. Iñoiz edo bein bai, andik zetorren norbaitekin edo, bialtzen zizkion emazte egoarritsuari goraintziak eta zerbaixka diru, beiñere ez larregirik. Dana dala; beiñola, Algortako amerikano ori etxemiñak jo zuan, eta ez karta ta ez albista, dan-dan-dan! etxeko atean ots egin zuan. Artean, iñork ez zekian arnasik ere, etorri artaz.

Emazteak, atea iriki eta itzetik ortzera bere senar ederra aurrez-aurre ikustean, arrimenez eta pozkarioz, bai esan ere

-Ene! Kartatxo bat ere, ez diguzu igorri ta... guk ezertxo ere ez jakin, ba.

-Kartatxoa? Zertarako, ordea? Ni neu baiño karta zeragorik aurkitu al zenezake ba, emazte laztan?

\* \* \*

Elduberriok, etxeko ta senideen galdea egin ostean, geiago ere egiteko gogoia izango zuten nonbait. Eta izan ere, kanpotik datorrenak beste gauza oiek entzun baiño naiago izaten ditu bere begi-belarriz eta sentipenez somatu ta biziz-bete.

Kalera ziran eta beta ironagorik!... Neskatxa bat ikusi zuten lendabizi. Agurne zan aura. Tomas-en begietan zeru-zatiaren irudia barruratu zala esatea, ez litzake larregikeri ausart izango. Azken urteetan ikusi ez zuan neskatxa aren baitan aldakuntza zoragarriak nabari zitezkean: arpegian ba zuan alako samur-keiñua, osotara bekurunde eder izan gabe. Begiak ez zituan aundiak, bilduak, erdi izkutatuak baizik. Sudurra fiña zedukan, ongi lerrokatua. Irri egikeran, gozotasuna zerion. Gorputza luzea aski, bizkar ta aintzin eder, ibilkera jasekoa. Tomas-en guraria mamitu-ernamin jarri zan. Entzunik zegoan Agurne-ren sotiltasunaz. Ez zuan, orraitio, ainbesterik antzemana.

Neskatilla liraiña, etxerantz zioan. Geroago, dantzaldian izango zuten aukera, gabaz alkar ikusteko, patxadaz eta egokitsuago.

Bigaramonean izan zan kai artan, beste egikizun berezien artean, jatorra ta ikusgarria izan oi dan jaikune bat.

Kaiaren erdian, alderen alde, lokarri luze bat zegoan tantai biren muturretan lotua, erpin biok alkartubearrez bezela. Goibee, lau bost metro ur axialaren gain. Tantai bateko lokarri-burua, geldia ta erabat lotua da. Beste erpiñean, ordea, lokarriak luzera geia-

go du eta mutur ori kaigaiñeraiño jeisten da, eta emen sei zortzi gizonek egiten dituzte lanak, batean jaso eta lokarri bildu; urrena, bertanbeera utzi, eta laga, atezu zegoan soka luzea ur-axalera arte.

Moilla gaiñetan jendea ugari zegoan, eta alaber ontzi ta potiñetan. Antzarren jaia zan. Eta esandako lokarri luze artatik, kaiaren erdi-erdi inguruan, albertxioan, zintzilik, anketatik lotuak, dindilizka burua, egon oi dira antzarrak bizirik, lotzeiki eme batez lotuak; urrenik urren, bata kendu ildakoan, bestea jarri bizia; egoak eta mokoak azke, eta saman koipez naro igurtziak.

Asi dira ontziak banan banan lokarri luze azpitik igarotzen. Ontzikoak aurretiaz eman dute izena joko ortan arteko izateko. Ontzia, aintziña bezela, arraunen bitartez joango da, astiro bederik. Ontziaren popan, atzekaldean, mutil gazte bat zutik, zintzillik dagoan antzarrari eltzeko gertu, an portu erdian, arako lokarri luzearen azpitik joatean. Oratzaille edo atzemaille onek, 60 kiloz beetikoa bearko du izan. Antzarraren lepoa, samea, koipez igurtzia ta betea egongo da, gaiñera...

Joko-ontzietako lagunak, maizenik, urdiñez jantzi-rik daude, bai galtza ta bai alkandora. Ortaz gaiñera,

iñauteri-kutsuxka ere izaten du iñoiz, gazteen gogaro onak ortarako saioa egiten duenean. Alegia, lagunetarik asko burutsik joan oi da; baiñan batzuek, kapela luzeak, motxak, mexikotarrenak, kolorez betezkoak eramango dituzte. Ontziaren saietsetann, idazkunak ere bai, letra zuriz egiñak. Batek dio: «Emakumeak ba ditugu; antzarra nai dugu». Beste batek: «Mutil zaararen promesa, iñork ikusi nai eza; illobarentzat utzi bearra bere interesa». Irugarrenak: «Jan beza nai duanak; baiñan edan, guztiok». Eta abar, eta abar.

Txistularia daramate barruan ontzi batzuek, inguru osoan poza sentiaraziaz. Ardorik ez da falta enbarkazio bakoitzean. Ardo onak ematen baitu indarra; eta gaiñera, errotik edo aldi batekotz kendu samin-ondarra. Zatoak eta garrafoiak dabiltz eman-alean, jendea-ri eztarri-urdaillak berotu nairik. Ardo-edontzitzat gauza nabarmenagorik ere ikusi diteke; zera, gauean opean edo, oi dugun potoa...

Asi dira musika-taldeak egundoko doiñu alaiak jotzen. An dioa lendabiziko ontzia, arraunak airoski, jardun politean. Jatsi dute lokarri luzea, popan zutik dioan mutillak bere beso bietaz egoki eldu dezakion antzar zintzillari. Eta orra! Eldu dio, eldu; sartu ditu besapean antzarraren egal bat eta lepoa; baiñan

berealakoan, txintol ariñaren bidez igo dituzte soka luze ta antzar ta mutil atxikia. Igo dute, igo dute iru metro, lau, bost ur-azalaren gaiñez; eta gizonezkoa zintzillik dagoala, bapatean, *arria* dute, laga diote lokarriari, eta mutilla, antzarrari oraturik, erori da, uraz buru, uraz bizkar, uraz sorbalda, nola dan... Dana dala, sekulako zartakoa jasan bearko du aren gorputzak. Busti da burutik beazetara, eta alaz ere ez dio aske utzi antzarraren lepoari. Berriro ere jasoko dute, eta ai, ai, ai, eroriko da, eta bizkarreko gozoa artuko du. Eta lau bidar, bost bidar olaxen, eta azkenez, nekatua, unaturik, eskuak zabaldu eta an dioa antzarra, artean, burua bere tokian duala. Uretan geldituko da, bere ontzikoak, itzuleran artu arte. Bigarren datoren ontzikoak lan errezagoa izango du antzarrari lepoa kentzeko, besteak makaldu bait dio. Eta kentzean bertan, potiñeko aren lagunak zapart eta zapart egingo dute uretara, batzuek buruez aurrera, zipriztiñak ugari jasoaz. Oiu ta iskanbil artean, ontzia ia iñor gabe gelditu da. Ez dio axolik. Norbaiten ardurak zaituko du eta ontziratuko dira berriro ontzigizon guztiak, eta mutillak ekarriko du artezki eta garbiro atzeman duan antzarra, lepoa urratu diolako.

Antzar galant orrekin afaria egingo dute «tostarte-koak». Antzarra, gogor xamarra dala uste duanak, beste zerbait eskatuko du, samurragoa, biguiñagoa dana. Esaterako, zelaieko «arrai»-saieskia edo; alegia, oillaskoren bat... Edari beltzetik asi eta geroago, mueta askotarikoak barrura-arriskuz izango dituzte. Etxera itzultzeko ordurik, ostera, ez dute zenbaitzuek izango. Orduaririk ez du iñork izango; bustitzeko edo apurtzeko bildurrez...

Zortzi antzar dira joku osorako. Geienak, kresalez kanpo z busti diran arabera, gero, barruz, maastietako salda ederrez bustiko, agian. Mama gozoa dan ezogarririk bikain!...

Antzar-jai ostean, nasa-muturrean etziñik, tantai luze zuzena dago zertxobait aldapaz, masta-puntakoa egiteko. Erpiñean, zut, ikurrin txuria, makilla mee bati lotua. Tantai orrek ere koipea ugari izango du bizkarrean, eta ortxe zear, oiñetan artillezko galtzerdiak dituztela joan bear dute, bandera aura atzeman gogoz. Asi dira lanbide berrion, mutillak. Iru, lau, bost urrats egin... eta dendua zaitu eziñik, oiñak irriska egin bearrez, eta ezin ba, geiago aurrerantz eta gorantz egin. Orduan, besoak zabal, ekuru, orekan egon nairik; baiñan azkenerako ere, itsasora zapart egin bear,



eta igari egiñaz, armailletan gora legorrerantz, berriro moilla-gaiñera igo. Artean, masta edo tantai luzea dardaraka, zambuluka ari da, kaiganean atxikia eta beste muturra aske, dantza-dantzari.

Bigarren mutillak egin ditu bere susmoak eta abiatu da tantaian zear. Koipeari, lazgarri litzaioken zerbait ezarriko dio, irradan jaurtiaz, garia ereiten ari bai litzan: ondarra, area, itsasegian bildua. Kolkoan darama, erruz eraman ere, gizon gizona dirudi-ta; garri inguruan gizen-tubular joriak iduri. Ondarra botako du apurka, eta al izanik, oiñak poliki poliki aurrerago ezarriko ditu. Eta ez bigarren saioan, eta ez irugarrenean ez dute atzemango ikurriña. Amaika, amabost edo ogei ekiñaldi ere bearko dira, agian. Galtzerdiak aldatu, ondarra bota eta alaz ere errez ez ba litz, guenez, zutik ezin danean, lau oiñean, au da, beso eta anka tantaiari laztanduaz, pixkanaka pixkanaka elduko da norbait muturreraiño eta artuko du makilla ta ikurriña.

\* \* \*

Agurne ez zan joan antzarrik artzen, ikusten baik. Alarik ere ez zuan bere etxean afaldu. Silbe neskatxa izan zuan lagun, eta Tomas, eta Martin lauga-

rrentzat zala, «Oñati»-neko jatetxe zaarrean egin zuten indianu berrien elduerako afaria.

Plazan, soiñua ugari zan; bizpairu banda eder ari ziran soiñu joten. Bitarteetan, erriko txistulari jatorrak ekiten zion euskal-doiñu alai, gozo ta zuzpergarriak jo ta jo. Guztientzat zegoan jende dantzaria. Tuntunean, batez ere, aurrak eta neskatxak ari ziran. Mutil gazte batzuek ere bai. Geienak, dantza biguin eta errezero emanak, jakiña; dantza lotura...

Antzar-lumak ikustea ez zan gauza zaila ordu artan. Askok zeramaten paparrean, ginbaillean, txapelean, belarri-ertzean, gizonezkoak naiz emakumezkoak. *Tonua* ematen du egun ortan zertxo orrek!...

Baiñan plazara joateko ardua ta ataza aundirik ez zuan Tomas-ek. Agurne-rekin egon ezker, naikoa pozik zuan aren barruak, erromeriarako irrintzi alaikorrak entzun gabe ere. Ordea, Martin-ek eta Silbe-k aldegin zuten, kafetxera zioaztela adiraziaz. Oiek, dantzan ere jardun zuten berealakoan.

Tomas-ek barruko ametsa agertzeko iraduz ziar-duan. Eta zador ori, ain zuzen, Agurne-ri azaldu nai zion. Eta egun bat galtzea, abagune apartekoa uztea zala zeritzan. Bearrik, ordu egokian eldua baitzan. Anartean, aren ustez eta egia zan, Agurne iñori ezkon-

tzeko itzik eman gabe zegoan, inguru-minguru gazte bi izan arren: Martzel eta Manu.

Jaietan, erriko ta auzoko neskatxak atzera-aurrera aundiak izan oi dituzte, maiz. Alegia, maite-eskabi-deen agerkundea, nesken xalotasuna dala edota aien soiñeko berriak ematen dien txukuntasunak, berezko graziaz gaiñera, eraginda; eta mutillak jaien berotasunean oi duten ausarkuntza ta guraria dirala bide.

Eta antxen, «Oñati»-neko ostatu zaarreko txoko zaragiz betean, Tomas-ek, Venezuelako lan eta neke ta arrenkurak azaldu zizkion Agurne-ri. Baiñan, bati-pat, bere kolkoan izan zuan zerbaiten joan-etorria. Erritik aldegitean, Agurne atsegin zitzaion, ango beste zenbait neskatxa polit bezela; artean, ordea, gaztea zan. Ameriketako neskatxak ezagutu zituan, geroago, eta arinkerirako ta aragikerirako erraz ta goxoak ba ziran ere, Iparragirre bizartsuari bezela, barruko oi-uak oiartzun berbera ematen zion: «baiña biotzak dio: zoaz Euskalerrira», emazte billa, maite-kabikidearen galde.

Tomas, neskatxak aztoratua zegoan. Eta mutilla, aspaldi bakar-izketa izandakoa, alkar-izketa biurtzeko eretia eldurik zala siñistuta bizi zan une artan. Agurne-

k parra eta parra egiten zuan, gaztearen itzak, su ta gar irtetzen oarturik.

Egun artan, Manu berandu eldu zan Bilbotik. Baiñan, txalupetxe batean izan zuan aukera, antzar-jana egiteko. Bilbotar ikasle ta udazaleak ziran ontzi batekoak, eta auekin batean nai eta nai-ez, joan bearra izan zuan, errira eldu eta popotik irten zuan bezelaxe. Tabernarik taberna ibilli ziran leendabizi, emen edan, urrengoan irauli. Egun artan ez zuan, egia esan, Agur-neri ezer esateko bear gorririk. Erri koxkor artara joten duten gazte ta gaztetzako guztiak, burugin eta berekoi dira gau artan; eta andreekandik aparte, aske ta loka, ederki ematen dituzte pozaldi eta askatasun-orduak.

Alaz ere, jakiña, ba ziran dantzari ari ziran gazteak ere, ta ugari gaiñera. Batzuek afal-aurrez, besteak afal-ostean, dantza-dantzari jardun zuten, neskatxa lirañai elduta, biguin ala ertsi, gozo ala sendoro, ta gerritik bada ezpadan ere... Musikaren ariora bai batzuek gogotsu kantatu ere:

«Tenía una casita

chiquitita  
en Canadá;  
con un estanque y flores  
las mejores  
que hay allá...».

Neskatxa maite-goseak, irriño xamur egiten zuten, gizonzkoen ao-ezpaiñetan zearka esandako laztan-itzak bai ziruditen. Geiago edo zeatzago adierazteko, kemen ta adore mamiagorik gabe...

Goizaldeko lauretan, dantzaketa amaitu eta geroetan, azkenengo taska ertsi ondorean, loretegi inguruko baztertxo batean, alkarri agurrak bukatu eziñik zeuden bederatzi mutil eta neskatxa bi. Auek, frantse sak ziran, neskatxa gordin mamiz ongi beteak, baiñan ez gure inguruko asko aiñean. Aiek betiere fiñagoak; zume-tajua ta liraintasuna gureen artean baiño poli kiago zaitzen baitute.

Inguruka zeuden gizonzkoak, danak gazteak, alkandora utsik, otzik ez zegoan-eta. Erdi erdian, preso bezela, neskatoak. Ez alegia alkarrengandik urrutiegi, alkar jotzen baizik. Eskuak eman, bostekoak

luzatu, masalletan eta, lepatxokoan eta, egundoko igurtzi samur ta ukitzeak egin ondorean, batzuek itz eta pitz, besteak erdi-merdizka, ezin ba gazte gaztanbera aiek alkarri azken agurrik egin. Orduan asi zan musuketa banaketa. Urrengorik urrengo, mutillai neskatxak pa gozo bana.

Betiko agurra ote zan?

Manu ere aien artean zebillen, aldraka ibiltzea, ari, geienbat atsegin izan ezarren. Baiñan jaiak ziran eta... gorostian gorosti. Neskaxengandik aldegitoko ordua eldua zan, antza. Alabearrak, ordea, bildurik zeuzkan; neskaxen enkantuetaz aspertu eziñik, nunbait, mutil biozperaa aiek. Eta ordurako isil isilik zegoan erri politeko kale luzeetan zear ba zioan, talde polit aura... Arako kantaren anotsak durundia egiten zuan aizetan: «Neskatilla dantzatu da, sei mutillen artean». Auek, neskaxa bi ziran; mutillak bederatzi.

Eta Goienkale inguruan, izketa eta parre goxorik ba zerabilten frantsez emeak eta garaitiko bizardunak.

Eta berriro asi zuten an, agurraldiko musuketa. Auzoetako norbaitzuek ba zuten, ordurako, lendabiziko loa egiñik. Eta zer da gutziagarriagorik iritxo batean, gau-txorien ibillera eta esanak, zelatean jaso-

tzea baiño? Eta batez ere, kalean, gaueko orduetan, emakumeen itza entzun ezkeror, saltza usaia baitu orrek?...

Eta antxen bizi ere ta, Agurne ere jaiki zan, eta gurbilki leioratu.

Ikusi zituan an neska ariñak, eta mutil astunak. Ardoak ere bazerabilen aien esteetan «atmosferarik» ugari ta...

Eta ikusi zuan banan-banako musuketa berria. An zeuden erlikia bi: neska aien ezpain irten eta aitorrak; eta antxen zear igarotzen ziran, jaiera ta debozio aundiz, mutillen arpegi eskar-eskaleak. Ikuskari bitxia goizaldeko lauretan! Eta aien artean Manu, bilbotar aura ere...

Agurne-ren biotzaldia nolakoa izango ote zan? Manu ere, nornai neskaren ezpain adurretan ezotzen? Erkiña ta axalekoa agian, onen maite-eskeintza.

\* \* \*

Eguerdi alderantz agertu zan Manu ondartzara. An ziarduten, beste egunetan bezela, Makari-k eta aren seme-alabak igarileai zerak ematen, toldoak taiutzen, aulkiak uzten, bazterrak zaitzen.

Manu, egun-agurra egiñaz joan zitzaion Agurne-ri. Laztankiro itz egin zion, biengan, ustez, jaio-nairik-edo zegoan alkar-naikundea erdi-aipatuaz. Agurne-k ordea, ez zuan ezer ezkutatu bearrik, eta Venezuelatik etorritako adiskide aundiaren berri eman zion. Alegia, Tomas, betiko auzokidea, eta orain, zerbait geiago izateko uziaz beterik somatu zuana.

Zalantzaz ba zegoan, leenbaileen erabaki zezala, adierazi zion Manu-k. Biotzak, ain zuzen, ez zirala erdi-bi egin oi. Orduan, bai neskatzak erantzun ere deplauki:

-Neskatxen ma gozoak, batez ere frantsesenak, atsegingarriak omen dira goizaldeko lauretan...

Manu, Agurne-ri bea lotu zan, orma egiñik. Entzun egin ote zuan, norbaitek berariz gaztigaturik edo? Atsoen esanak ere, ugari, eder ta borobillak omen dirala, geitu zion Araibar-ek.

-Ikusgarri ta entzungarri dana, begi-belarrien mende dagoke.

-Antzarren eguna zan-ta...

Zana zala, burruka sorturik zegoan; eta Manu-k argiro nabari izan zuan. Gau illunean etsaiak garitza gizenean zalgia erein oi duan antzera, Agurne-ren biotzean ere, arerioak -Tomas elduberriak, jakiña zan-



erein zuan bai erein, ari uztagarri zitzaion belar mardula.

Manu-ren barruan, ozpiñaren ontziak isurki auta aurkitu zuan. Azkenengo asteetan emaro ongarriz betetzen asi zan alorra, etsaiak azi berria ereiteko izango ote zan zearo? Oraintsurengo maite-burrualdiak, urrenik urren, galduaz, bere gizatasun-ardatza makaltzen eta malgutzen asia ote zegoan? Neskatxak linburtzeko zedukan maite-sarea zart egiñik ote zegoan?

Bertatik garbi jokatu bearra zuan Manu-k.

Emakumeak, lendabiziko izakera-legea, maitakuntza oi dute; griña, amodioa. Bigarren mailla, geiengetan, gutiziaz ta irrika biziaz itxedotea ba liteke. Bigarren itz ori, oro adierazgarria da: ezkondu. Lendabizikoaz geiegi jardun duten askok, ez dute zorigaitzez ezer iritxi, bigarren ele aztoragarria belarrietan barna, malgu malgu jaso ez baldin ba dute: Zurekin ezkondu nai nuke!

\* \* \*

Eta Manu-k ere ez zeritzan egoki, Agurne-ri une artan leengo aldiari buruzko itzaldirik egiterik. Eza-

guera, igari-jantziak ekarri, oparitxoak, erregalu txiker batzuek, maite-eskabidearen ezaugarri ziran lendabiziko itz oretu ta erdi naastuak...

Ez. Ez zan sasoi egokia berriketan jarduteko.

Garatz berri batean sartua zegoala, eta ordurako damaturik ba zegoan ere, negozio orixe bukatu ostean izango zuala pakea eta artea erabaki aundi bat artzeko; ezkontzeko alegia, -ziotsan Manu-k Agurneri. Eta jarraitu zuan:

-Eta ba al dakizu norekin, Agurne? Ni maite izango nauanarekin. Neskaxa ori, zeu izango ziñalakoan, pozarren bizi izan naiz aste auetan. Ez nintzan ni zure billa etorri, ezpait nekian ziñanik ere. Baiñan ementxe, apurka apurka, egunero ikusiaz, zure irudiak enegan ispillua bezela aurkitu du. Ta zure beso ta zangoak, zure begi apalen argia, zure irriparrearen leguna, zure sudurraren lerro polit ori, nire baitan sumatu izan ditut, zuregandik aparte egonik ere. Aste auetan doiñu berriak entzun eta kanta arin alaiak ikasi ditut, eta zure irudia ta doiñu auen durundia enegan biltzen dira bateratsu. Soiñu ta irudi, itz eta tankera zureak, niretzat izango zirala osoro uste izanik bizi izan naiz. Ez dut iñondik iñora ere sumatu, egiatasun onen aldaketa garratzik. Emakumea... egoaizea omen. Zer

diozu, Agurne? Elduberri dan Tomas galai orrek, nik baiño geiago merezi al du?

Orixe esan eta pentsatzeko ta erantzuteko epea bigaramonerartekoa emanik, joan zan Manu, ondartzan zear, itsasoak eskeintzen zizkion baga bigun eta dantzarietan gorputzaren atsegiñaz batean, gogoaren lasaitasuna ta askatasuna gozartu zezan.

Eta antxen, ikusgarri zebillen Araibar zalduna, ainbeste ta ainbeste, neskaxa lirain eta gazte ederren artean, uin borobillen bizkar gaiñetan jauzka ta jauzka egiñaz, Pampa aldean zaldi ezigaitzen bizkarrean zaldun ezleak ausarki ta izukaitz jauzka egin oi dutenez...

\* \* \*

Gabaz, «Agiñaundi»-neko taskan, beste adiskide batek alkar ezagutu-arazita, Martzel eta Manu izketan ari ziran, lasai, mana gozoan, ardoari noizean bein teink egiñaz. Biak, auzo-lanean egiteko zerbait zuten, noski, euren artean.

Irailla-erdirantz oi dan uso-pasa edo usoen aldaketaz baliatzeko asmoa izan zuan Manu-k, eizealdi oparo ta mamitsua egiteko. Martzel-ek ongi zekizkian ortarako bazterrik egokienak, erritik urruti gabe. Manu-k ere

bai agian, ordurako, baiñan asmoak asmo... Udazke-  
neko aldako usoak gozoak omen dira-ta!

Iñoiz, arbola-tantai goienetan ipiñi oi zituzten  
ezkutatoki bereziak, eiztariak aietan gordetzeko, eta  
uso mordoia gain-gaiñean zetorrelarik bapatean su  
egiñaz, egazti uzta ugari biltzeko. Ez zan oitura an  
sareak edatzea, Nafarroan nunbaiten oi duten bezela.  
Joko garbiagoa zan. Sutanpaz soil-soilik atzeman, ez  
isillean. Perdigoien gain zegoan, beraz, zulatze ta atxi-  
kitze lana.

Alkarrekin erabaki zuten bezela, joan ziran egun  
berrian, argitan, mendi-aldapa ospatsua ikustera.  
Usoen igaro-lekua oi zana. Itsasegitik berbertan dago  
toki ori, eta aldatz orren eta ur-ezpondaren bitartean,  
bide zabala dago, betiere, itsaslerroaren parezpare  
dioana. Karabiñeruen ibiltoki ta zelata-muga lerroa  
zan, itsas zabalari beatuz ta beatuz.

Bide zabalean zear zioazten itz eta pitz Martzel eta  
Manu. Itsas-ezpondara ta mendi-aldera Manu-k, soaldi  
naro ta astirotsuak egiten zituan. Ez zan egun bakarra  
ori egiten zuana. Aspaldi ere egiñak zituan oiñezko  
txango oiek. Inguru aiek txit ezagun egitea, atsegin-

garri zitzaion, nunbait. Geroxeago bide bakar ori, bitan banantzen da; bata, beerantz dioa, emeki emeki ondartza edatsuan bukatzeraiño.

Anartean,iñor gabe zegoan ondartza; udazaleak nagiz ta loguraz, noski.

Lirain eta txairo, Agurne bere bidean zioan, otarra bat esku batean, bestean saretxo bat. Alako batean, mutil biak ikustatu zituan, ea poz-zirkiñaz batera, kezka ta burutapenak sumatzen asi zan bere barruan. Pekuz ta goganbeartsu jarri zan Agurne-ren gogoan.

Bezperan edo, Tomas-ek eta Manu-k antzeko itzak adierazi zizkieten. Maite itzak. Are geiago: ezkon-itzak, bakoitzak bere aldetik, jakiña. Ba zuan naikoa buruauste neskatxa xaloak.

Mutillak, bizkor, aurrera ta aurrera zioazten, eta ondartzarako bidea aldebat utzi, ta goienekotik joan ziran. Agurne, atzetxotik atzetxotik, beekoan zear joan zan, urertzerantz, aiek ikusia izan gabe.

Zer ote zerabilten bere lendabiziko maitale-gei Martzel alperrak eta bigarren maite-eskale Manu apaiñak alkarrekin? Batzar bakana zan benetan ere, aura. Besterik ez zan falta Tomas ere aiekin biltzea baizik. Martzel eta Manu alkarrekin!... Leenago etsai ziranak, edota etsaitzakoak, nolatan geroago autu ta ele gozo-

an, bide bakartietaz gaiñera? Arrigarria zan, baiñan ulergarria iñolaz ere ez, Agurne-rentzat beiñepein.

Manu-k Martzel-engandik, Agurne-ri buruzko zerbait isilleko gaizto edo okerrik jakin nai ote zuan? Orrelako jokabide makurretan jarduteko ere gai ote zan Araibar zalduna? Edota, Tomas-en kontra, sapoke-rian, azpijoko ziztriñen bat antolatzen ez ote zebillen Manu, Martzel alprojatzar arekin?

Erantzun eldurik ez zuten jaso galdekizun auek, Agurne-ren baitan.

Ba zuan, ziñez, Makari-ren alaba gustagarriak beregan naaspillik aski, mutil aien arteko artu-emanaz ain zuzen buruketan ari gabe.

Etorkizunaren koxka zedukan aurrez aurre. Senar-gai bi, pare bat egunen buruan, eta ezkontzarik aldi berean, bat baizik ez izan egingarri. Zer esan bear zion Tomas-i? Zer erantzun Manu-ri? Irugarrenak, Martzel-ek, dakigunez, ez zion batere kezkarik ematen.

Tomas-ek zerbait zedukan eragozpen, beste alde guztiak onak eta gogokoak izan arren. Tomas-ekin ezkondu ezkerro, ara, urrutira, zerera... Venezuela-ko puntaraiño joan beariko zuan, antxen zituztelako Tomas-ek eta aren anai Martiñ-ek, irabazgarri egoki ta ondo arteztuak; lendabizi zor eta lor, lerrenak egin

bearra izan zuten arren. Baiñan burua jaso zuten, eta geroztik diruaren urioltxoak zetorkien garatz-merkatutik, euren sakel gero ta gizenagoetara. Eta egia esan, Tomas-en mintzoak eta esakera zintzoak barruan maite-kili ta azkura biguiña egin zioten arren, Agurne-k ez zedukan beiñere bere sorterritik urruntzeko gogorik. Kanpoetako diru-soiñu lilluragarriak aditu arren, aberri-miñak eragiñik, jaio-eskualdean geratu diran seme-alaba zintzoen geldi-dei isil eta zoragarriak egi-ten zion durundu bere zaiñetan, odolean, gogoan eta izkuntza-sentipenean. Aberritik urruntzea, etxetik urruntzea baino geiago baita. Giro, arnas, zeru, odol-taupa, senide-dardare, alderdien ikusmen-miña, lekuen mintzoa, mendi ta ibarren ertz maitagarrien irudia, adiskideen beroa, bakoitzaren aurtzaroko kate ikuseziña austea zan!

Manu-k, bertzalde, bere tankera ta gizabide ta eskuarte ez-urriaren ondoan, akats bat zuan, iñoiz geideagandik entzuna eta Agurne-k bere begiez arestian nabaria: Manu andrezale itsua zan, batekin bakarrik naikotzen ez zekiana, lorez loreetariko galai oldarra.

Ezkurrez, diruz, erosotasunez, aski zuan Agurne-k, bai bataz nai besteaz; ongi bizitzeko lain izango zuan noski.

Guztion korapilloa zan Makari-ren alabarena ere. Bide egokia aukeratu-naia. Egin-urratsa zeatz onuratsua ta ziurra egin-naia.

Urrunera-bearra eta zintzotasun-froga, alderdi bi oiek zeukaten egundoko burruka suarra Agurne-ren biotzean.



## XV

Lau egun barru, illargi berria zan. Ori ongi zekian Manu-k, eta ereti ori galtzerik ez zuan iñolaz ere.

Lau egun, bitarte; eta zerzelada batzuek antolatu gabe zituan. Batzuek Bilbon egitekoak ziran; besteak erritxoan bertan. Ez zuan nai azkeneraiño iñortxok ere jakiterik, komeni ere ez zitzaion-eta.

Martzel-ekin bide ta mendixka-ikusketa egin ostean, ur-ertzetarantz joan zan bustialdi laketezkoaz atsegindu nairik. Martzel, an inguruko taska batean amaiketako litxarra eginda, lasai joan zan erri-alderantz.

Bezpera gauaz, trumoe ta tximista ugari izan zan arren, plai ingurua atsegingarri agiri zan. Uiñak saltokari ziarduten etorri ta etorri, ta legor-mugan urak ondarra astinduaz, zikin eta gogor-antza ematen ba zuan ere, an itsas-barrurago, sekulako giroa zegoan igari egiteko, edota oraingo aize-koltxa malgu gaiñean luze luze, gustora jolasean aritzeko.

Ura, epela zegoan, amatxo artatsuak etxeko ezko-tegian maneatu oi duana bezin arotsua.

Manu-k Agurne-rengana jo zuan, zuzen jo ere. Garatz askoren artean, garatz burua zerabilen orduan besteen gain.

Agurne-k, oi zuanez, irriño legunez artu zuan aren agurritza. Erantzunaren eske zebillen mutilla.

-Zer esan ba neki -jardetsi zion Agurne-k- ez nintzake zalantzaz ta durduziaz egongo. Zure zintzotasunak uts eman dit aurtemein eta...

-Baldin, ergela ta xoroa izan ba naiz ere, sinista zazu, Agurne, errotu ta lotu nai dudala ene buru au. Emazte on baten bear-izana sentitu izan dut oraintsu, eta badakizu nor aukeratu nai izan dudan. Alik laisterren bear dut jakin zure jita. Biar, berandu liteke...

\* \* \*

Iru egun geiago iragan ziran, eta itsasoak nare, apal ta bare zirauan.

Azken-orduko udazaleak zeru-tipi aurkitu zuten Kantauriko txoko kriket artan. Eguzkia ta kresala, aizegarbi ta epela, inguruak urre kolorez beteak, gai zoragarriak ziran larrazken-kuadru artan. Eder ta xar-mant agiri zan benetan Euskalerria, literatu atzerritar-rak azaldu ta irakatsi diguten bezela.

Agurne-ren baietza eldukatxa zan, agian; idortek jo duan artotza mengelaren iduri;ra. Eltzaurrondoak ba zuten frutu alerik aski adarretan, baiñan, artean, oskol berdea zuten gaiñeko jantzizat; eta barruko emaitzaren berri, mardo ala erkin, zindo ala iro, iñork ez zekian. Buruera auek zituan Manu-k ere, bere neskatxa autatuari buruz. Au, berez, gizon artetsua zan, baiñan arterik artu eziñik zegoan. Bilbo aldeko gora-beerak egoki atondurik zituan.

Eskurakoi ta atzeman erraz uste zuan neskatxa panpoxaren gogoia, zut zegoan; amor-eman nai ez duanaren dorre ardatz eta abea iduri.

Itxaroten zuan egunaren argia zabaldu zan, legorrean eta itsasoan. «Borobiltxo»-neko ardandegian, atetik ez urruti, gosaltzen ari zan eiztari bat. Ez zuan zakurrik, baiña eskopeta ederra bai. Gerogarrenean eldu zan beste eiztari bat ere, txapel aundia buruan, sorbaldan zizpa dirdaria.

Berealakoan, etxeko alaba gaztena, kalera irten eta eskui aldeko kantoian gora joan zan. Andik luzarora gabe, ba zetorren etorri, itzuli, ta irugarren eiztaria atzetik.

Manu, Martzel eta beste bilbotar gazte bat ziran eiztariok. Manu-k atera zuan gordagutik bere *Opel* ariña. Eta txipirri txaparra joan zan beingoan, ekaldekobidean zear. Zeru aldean, odei zoranga ta lokak ari ziran arantz onantz. Uiñak naastuago zebiltzan, iragan egunetan baiño. Ur-ertzean, azken-lerroetan biurri samar jokutzen zuten bagak, eta azpiko ondarrak irauliaz, bits eta apar eta ondar naasmen itsusi ta arrisku-antzekoan, itsasoaren eraso gogorberaa agerrarazten zuten.

Agarrebasora ziran eiztariak. Piñu errenkada luzeak dira barrenean, eta gorago beste zuaitz muetak ba dira, eta azkenez, eukaliptu tantai luze ta burduntziak. Antxen zuten autetsia usotarako lekua. Sekulako umore onez zeuden irurak eta eiztarien kontagai izugarriak esateko aukera oberik ez zuten, eizatu-uste zutena ager zekien arte. Noizean bein, zintzur nekatuari ezoaldi samurra emanaz, alegia.

Egubendirarte ez zuten ikusi batere usorik. An goiengan, gabirai bat edo beste ta bele batzuek nabari izan zituzten. Itsasalderago, kalatxori ta antxetaren batzuk sumatu ere bai. Ontzi batzuek iragan ziran, arrantzale atunzaleenak.

Bazkal-ordua eldu zanean, Manu joan zan errira, jateko ongi maneatua ontzitzo egokietan zertu eta eiztarientzat eramateko. Kotxearen atzekaldean poliki ezarri murkoak eta abiatu zan basorantz.

Goiz artan Agurne-k, ondartzan, alako utsunea oartu zuan. Tomas, maite-eskale berria, auzo-errieta-ra joana zan bere anaiarekin, Ameriketatik ekarritako zerak, angoen emengo senideai banatzera joana, ain zuzen. Eta Manu ere, orduak aurrera, eta ez zitzaion beste egun askotan bezela agertu ara, ondartzaldera, goiz-agurra egitera, eta galankiro itz goxo ta limurtzailleak belarri-ertzera esatera. Eta bazekian erritxotan zegoana, bai. Biotz-eskatzaille biak zeuden oportetan eta egun guztian bata ere, berarengana agertu ez!... Gizonen sentipena ta beroaldia aldartetsuak ziran, nunbait ere, ta ez zintzo, trinko ta atxikiak.

Egun aura ez zitzaion gozo ta bare izan. Itsasoaren egun artako begitarte ta itxura bezela, asaldaz ore-tua zedukan kolko-barruko giroa.

Eguzkiak bildu zituan bere izpiak, beste arratsaldetan baño goizago.

Pasa-usoen zai zeuden eiztariak bota zituzten erre kara egun artako azkenengo itxaropen-bizarrak. Alperreko eguna eizaketarako. Eta gaiñeratzeko, laiño ziriña asi zan inguruko utsuneak betetzen. Itsasaldean, gurma lanbroa loditzenago eta gauaren maindire meeak zabaltzenago.

-Laiño madarikatua! -zion berekiko Manu-k-. Eta itsaso naastua ere bai. Guztiak batean jarriko zaizkigu biurriago gure egingoa zaillago izan dakigun. Baiñan agian, obe izango dugu.

Eta berealakoan, basoan, zugatz luze aien pean zeuzkan lagun biai esan ere bai, aots sendoz:

-Mutillak: gaur ez dugu girorik gaua emen emateko. Laiño likin onek, ezotasun eta busti-antza besterik ez digu emango. Alaz ere, pentsatu bezela, afaria emen jango dugu, ta ni ostatura, billa nioan artean, zuek, gertu ezazute or egur-meta borobil bat, eta ni natorrenean sua egingo dugu, afaria, eiztari-afaria antolatzeko. Eta gero, giro zatar au dala-ta, joan egingo gera bakoitzaren oe biguiñean lo gozo gozo egite-ra.

Araibar-en beribillak laister aguro egin zituan erri-txorako bideak. Enparantza aldetik, porturantz egin zuan eta an, txalupetxe batean sartu zan. Erloiuari beatu ta ordu egokia zala-ta, eseri zan lasai, eta arrantzale jatorren araura, pitxar zuri bete ardo beltz aterarazi zuan. Zazpi ta erdiak inguru izan arren, laiño zarratu arek gau-leenari goizako dei-egin ziola esan zitekean.

Geroxeago eldu zan «Zarbasta» zeritzan arrantza-lea, ta ondoren aren seme «Zarbasta» gaztea, igarian oso aipatua, urpetia itsasoan, uraren barruan luzaro-an ibiltzen erriko gazteen artean buru zana; mutil bizkar zabala, bekoki illun, begi aundia.

-Manu jauna -ziotsan «Zarbasta» zaarrak, ez gogara antzean-, egundoko gurma zitalak inguratu gaitu.

-Bildurrik? -galdetu zien ausarki Manu-k, aita-semne bipil aiei.

-Nik ez.

-Ezta nik ere.

-Orduan, gertu?

-Bai.

-Entzun ba. Emen ditut linterna indar aundiko bi. Ar itzazute. Ongi gorde; sartu atabakan. Aletxo oni

muturrerantz eragiñik, izetu egiten dira. Tutu-alderantz eraginda, berriz, itzali. Beti ere, itasaldean, ateko bandan, legorrari bizkar esan nai dut, bear dituzute isiotu eta itzali ere bai. Batek brankaldean, besteak popan, lau bidar piztu-itzali. Guk egingo dugu sua, amarrak aldetik aurrera. Amabiak orduko bukatua bego guztion lana. Zuek, lanbro zikiñ ori dala-ta, ez duzute ikusi al izango. Berdin da; orduariari kontu. Arrasteko ontzia, amaikak baiño leen izan bear du zuen inguru, laiño ta ez laiño. Luze bi ta lau soiñukada labor egingo ditu arek bakoitzean. Aren fokua edo soiñua, bost minutu bitarteka. Agurritza, badakizute: «erregarri ugari» ta «iparreko alderantz» aien erantzuna. Oien ondorean, aldamenara; eta botako dizkizute lau paketeak, elkarri lotuak, kortxozko azalez jantziak. Eta ba dakizute... habanuak, txokorrek edo andoillak dirana! Ederki. Egin al duzute goiz-afari? Orain bete ardoz zuen garrafotxoa, eta... txipiroitara!! Gazte, badakizu nun utzi zerak: arako artzulo artan. Goizalderako, ez dira an egongo, urrutiago baizik. Tira ba! Zori egokia... eta biar arte.

-Bai, egingo dugu alegin.

-Saria ere alakoxea izango dugu guztiok.



Arrantzaleak, andik laisterrera irten ziran kaletik. Txipiroiak artu oi zituzten sasoia zan. Illuntzero jarduten zuten lanbide ortan udaran. Eta lanbro ta guzti ere, urrundu gabe egiten dan zeregiña baita, euren oiturazko lanetara zioazten «Zarbasta» zaarra ta gaztea.

Gau-leen artako jarduna, berezia zan, ordea. Tresnak eraman arren, gau artan ez zuten jardungo ortan bakarrik, bestetako garrez; erloiuari adi-adi egon bearra izango zuten, ontzitik ontzirako arrantzu bedegarra egiteko ustetan, itsasoa bitarte zala. Eta txipiroi asko jasotzea gertatu ezkeru, ainbat obe!

Agurne, bere barruan xirixiri zebilkinson ar egonezin ta xume batek aizaturik, Manu egon oi zan ostaturantz joan zan; aura nun ikusiko, edota zerbait jakiteko asmo kilikagarriaz. Leentxoago aldegiña zala adierazi zioten, afari ta guzti, alegia.

-Afari ta guzti?

-Bai, ba. Ez al dakizu gaur eta biar beintzat, pasako usoen eiztariketean jardun bear dutena?

-Eta, nortzuek?

-Araibar jauna, onen adiskide bilbotar bat eta Martzel, emakumea!

-Aaaa...!

Baretu zan zertxobait Agurne-ren gogoaren larri-tanta. Eta oartu ere bai Manu biotz ximurreko gizona ez zana ere, Martzel-entzat goganbear-seta izan ordez, adiskidearen esku lasaia zualako. Alkarrekin zeuden eta! Eizan, ta bazkaltzen eta afaltzen...!

Manu, biotz onekoa zan. Agian, iñork ezi gabea, neurri ta era egokian, beintzat. Egun bi aietan ez zuan ikusi Agurne-k, eta mingotsaren zera nabari izan zuan, nai eta naiez. Manu... atsegin zitzaion; aren itza beti aditu izan zuan lotsadun, begirunetsu, samur. Zaldun asko-ibillia omen zan: baiñan ari berari egundo itz egokiezik ez zion jaso Agurne-k. Zergatik agertu ote zan Tomas egun aietan, irudia artzen zioan lerroa, dardarati ta durduziatsu biurtzeko?

Ez zekian Agurne-k. Tomas, begiko zitzaion beti-danik, ezaguna ta eskola-lagun adiñez. Manu, irudi atsegin samarra aspalditxo.

Agarrebaso barrenean, bide zabala baiño urrats batzuek gorago, adar igerrak xir-xor ziarduten su ta

gar. Inguruan iru eiztari zeuden, murko ta erratilluak zaitzen eta berotzen; afari-gordailu aitorrak ziralako. Erretura arek ingurua argitzen zuan galanki, eta ontzietako jatekoak ere pilpil jartzen zituan. Txipiroi erratillukada orixe zuten lendabiziko jakia. Eta urrenik txopetekoa, au da, gisadu usaitsua. Txuleta dotoreak ere bai, erre-ala jateko. Gero, gozokiak ere bai eta udare urtsu ta maats mordo borobillak. Ardo ta edaria, eskatu-alean.

Amarrak inguru ziran.

Geroago, noizean bein, Martzel bidezabalera joaten zan. Laiñoa leen baiño zarratuago zetorren. Ekitaldi ederra egin zioten afariari eta gazte arek zigarro lodia izetu zuan. Zigarroaren pindarra, begibakar gorria, ara ta ona zebillen pizti erensugearen ikuskailu izugarriaren antzekoa zan.

Toki jakin baterantz alkarrekin joan oi diran karabiñeru pareta bidean gora zioan, izketan izketan. Sartu-berriak ziran, zaiketa-orduak betetzeko.

-Gau beltzagorik, dagoan baiño...! -ziotsan batak besteari.

-Zer bi oiek alkarri eskua eman diote: gaua illargi berri eta gero lanbro ezo zikin au. Biar oean geldituko naiz birika-aldeak ertsirik!

-Ez litzake giro txarra lotaldi mamia egiteko bigarren etxolan!

-Ori esan, ba.

-Ene, ikusten al duzu zer gorri ori? Txirrindulariren bat izango da, noski. Argi motel orrekin ikusiko du bai, arraiopola! bideko bazter-txuloren bat, auzpez erortzeko!

-Txirringutsa? Ez dirudi.

Ez, izan ere ez zan; Martzel-en zigarro lodiaren sua edo garra baizik. Andik lau urratsera alkar bat egin zuten. Eta egundoko solasean asi zan gazte aura aiekin. Afaria erdi bukatua zuten arren, azkenaldiko gozagarriak eskiñi zizkien, gauaren jenda-giro eskasa nolabait zertu gurarik. Ezetz ba, erantzun zioten, serbitzuan ari zirala eta ordu aietan ez zutela janaldirik egin bear. Piztugarria ez zala, ordea, kaltegarri, esna iraun-bear zuanarentzat; eta, erretura baranoan, tantaipean, eta bidetik urbil, laiñotzan *laiñoa atera* zioten goxokiai eta batez ere bostak bateratsu mama gozori ta edari fiñai. Eguneroko aukera ezpait zan alako kopako markakoak edatea!...

Gauerdi alderantz, itzaliz zioan Agarrebasoan egin zuten sutzarra, erretura. Karabiñeru on-uts bi aien urdailletan egundoko berotasun eta garra isiotu

zuten botilla fiñ aietako edari likurtak. Martzel, Manu ta onen adiskide Panta, aiei agur-agurka urrundu ziran beribil ariñean, bigaramonerarte oe biguiñetan lo bare ta lasaia egitera zioaztela jakin-erazirik...

Errira eldu, eta Martzel bai, beingoan lotaratu zan, aldean *legatz* ederra zuala. Ez ordea Manu ta Panta. Auek Opel-ean joan ziran, zati batean beintzat, etorritako bidetik berriro, atzerantz. Urertzerako bide zabal utzi ta laisterrean basobide illunbezu batean barna sartu zuten beribilla. Eskopetak gorde, atepak giltzez ertsi eta oiñez joan ziran zidor berezi batez aurrera beti beerantz, aztamuka ta alkarri ukutuka. Aurretiaz, zapata lodiak erantzi zituzten eta abarketa azpi latz zakar batzuek oiñetaratu.

Gaua, illuna zan, illargi berri. Zerua estalia zegoan gaiñera; odeien oztopoaz, izarrak ez zuten jotas-eskeintzarik mundutarrentzat. Laiñoa zerbait meatzago zegoan.

Manuk orduariari beatu zion. Dirdai urdiñezko zifrak ikuzkizun zituan. Esan ere bai, Panta bere adiskideari:

-Adu onik izan baldin ba da, lau zerak emen ditugu urbil, eta onezkero «Zarbasta» biak, maindire zuri artean sartzeko gertu, etxekandreari txipiroien batzuek eman ondorean...

Zidorrean, or oztopo ta emen tostor, ba zioazten adiskide bilbotarrak.

-Bertan al gaude? -ziotsan aspertuta ta beatz muturrak minberatuta, Panta-k bere lagun biderakusleari.

-Bai. Ixi! Oraintxen dugu emen jatsialdi pike ta pendiza, garriko miña astintzeko bezelakoa. Eta gero, bereala dana eroso ta erraz.

Jatsi ziran eztarria bezelako toki medar ta kiribildu artan; urak bere narran idikia duan erorbide estu artan. Legorraren muga zan, urrena itsasoaren ezponda-aitzak ziran, urondoko arrokak. Oiñak lurrari atxikiak, eskuak inguruko belar, ira ta oteabarrai eltzeko gertu, larrari ta arriai igurtzika. Panta-k sekulako irristada egin zuan, eta atzazalen bat urratu ere bai, zerbaiteri oratu bearrez.

-Ementxen utziko al ditugu ezurrak, Manu?

-Ixi, ba, Panta. Lapak isillago dakite aitzari atxikitzen.

-Noski. Baiñan ni ez izan lapa...!

Egin zuten geiagoko okerrik gabe ibillaldi estu aura. Beste jatsialdi bat, erosoagoa eta lau-lau samarra zegoan, arbela bezala, eta urrena ondartzat koxkor batzuek. Manu-ren orpoz orpo zioan Panta, eta lantzean lantzean bizkarrean ukitzen zion. Itsu-mutilla ta itsua ziruditen. Alaxen ibilli oi dira lapurrak gau beltzetan. Alaxen gudariak, gerraldia danean, burruka-suinguruko mendi maldetan gora edo behera, argi gabe, zigarrotxoena ere arreta aundiz itzalierazoaz.

An zegoan artzuloa, Pantak ez ikusten ez igarten ez zuan arren. Itsas-mingaiñak laztankiro ta gogor milizkatzen zituzten, alderatxoago zeuden aitz erpin eta luzangak. Ura gorantz zetorren, urteko ur bizienak ziran sasoian. Aizatu xamarrik zegoan orduan, gurma edo itsaslaiñoa. Bapatean ziotsan Manu-k:

-Ikusten, Panta! Emen ditugu lau paketeok. Ona!! «Drogaz» beterik daude. Diru asko balio dute. Egin dezagun bada, lendabizikoa ta azkena, arrisku aundiko zera da-ta. Etzait gogoko niri toxiko-tratu au. Obe neskatxa gazteak ezitzen, jardun ontan baiño...! Je, je, je!

Argi xume bat izetarazi zuan Manu-k, esku barru. Artzuloan zeuden lau loturak eskuetaratu zituzten, bakoitzak biña. Ez ziran txikiegiak bide makur artara-

ko. Lo karri bakarra eten zuten. Kortxozkoak ziran. Barruan zuten izatekoa, gutapertxaz azaleztaturik.

-Orain, azkar gorantz. Zidorra galdu gabe, leengo bera; baiñan geroago, beste bat aukeratuko dugu. Eta zu an geldituko zera, ta nik aterako dut beribilla gordelekutik. Gero ostatura, eta biar, raka! emendik urruti azterrenik gabe. Beti ez dira ibilliko latin-itsaso aldean naaspil oiek!

Gorde zuan argitxoa. Kortxozko atabaka zapal zapal aiek artu eta aurrera asi ziran, bideak gora. Berriro une biur ta medar artan zear, eta besapean bakoitzak zati zabal aiek. Izugarrizko marruz, jardun zakarrean ari zan itsasoa atergabe. Gizonak leen baiño zarrada aundiago zuten gorputzean, pisu edentsu ta legez kanpoko zerak ematen duan barneko artegasun sor-gorrez. Eta kontrabandista-ikasle aiek, lendabiziko arrisku-ibilleran, dardare ta kilima sentitzen zuten bizi-biziro.

-Onelakorik ez dugu gure denporan amestu ere!

-Izango dugu gure aurren aurrai zer kontatu, Manu!...

Illunaldi artako itsas burrunbak taupaka jarri zitan aien biotzak azkar, eta aldapa ikusiezin arek, areago.



-Nun egongo ote dira karabiñeruak?

-Or goitian, etxola inguruan, emendik 100 metro-ra edo! Lo egongo al dira!

Oiñetakotzat abarketak izan arren, zipirri zaparra entzun zitezkean gazte bien urratsak, noizean bein arri koxkor lokak maldan beera birinbolaka erortzen ziran-ta. Ontan izugarrizko irristada egin zuan Manu-k txoko malkartsuan, eta gorputz osoaz jo zuan lurra. Ai! -esan zuan agiñartean, oiu latzez, min artu bai luan.

-Min artu dut, Panta.

-Nun?

-Belaunetan. Baiñan ezkerreko eskumuturrean artzen dut geiago. Arraio arraioa...! Orain ez genduan ba, orrelakorik bear! Utz itzazu loturak, Panta, eta neuri lagundu.

-Emen gaizki gaude, Manu.

-Bai, ba dakit. Nork esango zigun onelakorik...!

Panta-k lagunduta eseri zan Manu aldapa malkor artan. Belaunak igurtzi zizkion lagunak, eta osorik zeudela ziruditen. Tira!... Ibilli al izan ezkerro, ez zeuden galduak; baiñan osterantzean...

Ezkerreko besoak ematen zion lorra. Geroago ta min aundiago nabaitzen zuan eskuturrean. Bizkar

aldean ere bai. Ez zuten, ordea, astirik galtzeko. Miñak min, beingoan ibilli bearra zuten. Orduak euren mar-txa izango zuten noski, nagirik gabe. Izerdi larriak irte-tzen zion Manu-ri, naaspil aren azkena urruti ta beltz ikusten zualako. Tankateko artaz, erloiu-a lo ta geldi zegoala oartu zuan.

-Aupa, Panta, aurrera adoretzu; -ziotsan, barruko makaleria itz suarez txurikatu naiean-. Zuk ar itzazu iru pakete, ta nik jasoko dut laugarrena, ezkerreko beso ontan indarrik ez dut sumatzen-eta.

Nola edo ala burutu zuten zidorraren une pike ta biur aura. Manu-k poz aundia bereganatu zuan, oiñen gaiñean ibilteko gauza zala igarri zuanean, gorpu-tzean miña ta izua somatu arren. Ez zuten lipar bat ere alperrik galduko. Ekin zioten bada, euren boronda-tez asitako kontrabandutze-ari; irabazpen-arioko kal-bario xume arritsu ari. Zerua bezin illunbezu zegoan ezponda-belartegi ta larre antzeko aura. Sasi-adar eta iratze garaien soiñak, noizean bein, trabagarri zitzaz-kien, eta unean unean, anima aora eltzen zitzaien, edariz ezoturiko karabiñeruen atzapar zintzoak zirala uste izaten zutelarik.

Panta usatu zan sator-ibillera artaz, eta Manu-ri, kemen-zitzakadak egiten zizkion, ebainduta zituan

gorputz eta gogoan. Bide-zatia egin oudorean, Arai-bar-ek gero ta minberago zuan bere besoa, eta larrituta, erortzear zegoala adierazi zion Panta-ri.

-Ez larritu orain, Manu, ez orain. Gaiñerontzean, ondatuta gaude-ta...

-Ezin, baiña, geiago ibilli... Etzin nazazu, apurtxo batean, bederik. Orrelaxe. Ezurren bat autsi zaidala esango nuke. Illuntasuna datorkit, Panta; ia kordegabe nago... Eta karabiñeruak zuzpertzeko orduko...

Isildu zan Manu. Panta-ren kolkoan ikaragarritzko ikotikan asi zan biotz-kuskua. Lapurren ipui aiek! Gezurra zirudian, baiñan... Nork agindu ote zion, ustez zerik errazena zan ezkutuketa artan, ez atzera ez aurrera ganorarik gabe, esi-barrutian bezela, kasik atxilloturik gelditzeko? Ura zan egoera! Bide biurri aiek ez zekizkialarik, baso txikerrean naastua bezela; eta laguna, berriz, kordegabe, konorta utzia. Zer egin hear ote zuan? Kartzelako leio-burnien irudi otz ta zorrotza zetorkion gogora, ta ezur-gunetaraiño asten zitzaion, bildur-dardakada. Benetan ere, ez batere opagarri arrisku-urren zan egoera.

Zorionez aizatu zan Manu, ta batbatez, itzartu. Beingoan, ezagun ezagunean berpizi zan Araibar. Panta-ren laguntasunaz jaiki ere egin zan, eta ekin

zioten berriro bidezidorrari. Gaitzaldiaren ostean, oi dan bezela maizenik, adoretu zan, eta aguro asko eldu ziran bidezabalaren ezpaiñetara.

-Emen poliki gaude, Panta -ziotsan ernagarri Manu-k-. Ni ez naiz gei, *Opel*-a erabiltzeko. Ar itzazu giltzok. Emendik eun metro inguru, alde artarantz eta eskubitara, aurkituko duzu basobidea, aitz arre erpin batzuek igarota laister. Zoaz eta ekar idazu popoa. Beerako argietarik bat bakarra isiotu ezazu, soil soilik, entzun? Andik onera, lau biurgune dituzu, txandaka onelatsu: ezkerretara, eskubitara, ezkerretara, esku-bitara. Zu sumatzean, ni irtengo naiz bide erdira, ta linternatxo au izetuko dizut, bi ta bi, ta orrela beti.

Giltzak artu eta abiatu zan illunzulo artako sabel beltzean zear Panta, kontrabandista ustegabekoa. Ezin zitekean an argi gabe ezer ikusi, baiñan Panta-k lau aldeetan ikusten zituan, ikusteko etsai izugarriak. Bide zabalak ez zuan, egunez oi duan txuritasunik ez arre-kolorerik. Eltze zikiñaren ipurdiaren pare, geienbat ere.

Panta-k bere burua, sateliteren batetik eroria zala-edo, uste zuan berekiko. Ura zan bakartadearen erraiagabekeria! Eta bearrik!... Are xumeenik gabe eta giltz tatan batzuek sakelean, orrela zioan kristau

zantzurik ez zan bide lakar beltz artan zear. Orraitio, eldu zan aitz erpin eskerga-samar aien ondora. Urrats batzuk geiago eta basobidea; eta bertan, isilleko lo asean, *Opel* apala. Eskuaz aztamuka idoro zuan ateko giltz-xuloa.

Idiki zuan atea ta barruan sartu. Ta balazta kendu edo biguinduaz, gozoki eraman zuan atze-atzeka basobidean beerantz. Bidezabalera eldu zanean, motelkiro, jarri zuan igikunez motorra, eta beerako argi-begiñoa izetuaz, abiatu zan poliki. Eskuetan zedukan *volante* gurpillari, muiñ-egin zion, barruko poza-ren pozez. Geldi geldia zioan errialderantz. Lau okerguneak iragan bezin laister, itzali zuan argitxoa, lagunaren biñako disdira-keiñuak sumatzeko. Baita!... Alkarrekin zeuden berriro, ta kotxe ta guzti. Orduan biotzak, bira egin zion atsegiñaren aundiz. Lotu zan burtariña. Manu miñez zegoan, baiñan zoraturik, giro onak zeñu garaitzaillea egin bai zien, osterera ere.

Sartu zituzten atzeko zerean lau loturak, eta Panta erabiltzaille ta Manu aren aldamenean, ariñak arin eta motorra isilkiro oso, abiatu ziran erritxorantz. Ostatu-ko argiak erdi itzaliak zeuden; ateko maillan aurkitu

zuten nagusia. Manu-k bigaramon goizean, arazu gora aundikoa zuala ta, lo egiten araxe joango zirala adierazi zioten, eta baita egin ere. Bertatik irten ziran Bilborantz. Ez Manu-ren ezur-autsia izan ez ba litz...

Bilbo-ra baiño leen, Ibaizabal-en uraz gora, ba dira erritxo batzuek. Bizkor bai bizkor egin zituan *Opel* ariñak arunzko bideak. Luzea izan, alarik ere, Manurentzat une aura. Goian aipaturiko erritxoetarik batean, *botika* bat idikia zegoan. Bide ertzean, gaiñera. Geldiarazi zuten popoa. Besoko miñaren aringarrizat zer-bait eskatuko zuten. Eta ordeztu, beste zer aiek utzi. Lan biok ziran egiteko. Botikarioak laister igarri zuan bigarren eginbearra, baiñan lenbizikoaz ez zuan arretarik izan txantxetan zalakoan... Baiñan, ez, bere eskuz aztatu zuan eta oartu ezur autsi-aterrea zana. Kortxo-zko atabaka baliosak axolatsu ezkutatuta gero, botikarioak bere anai sendagillari ots egin zion urrutizkiñez, ezurkonponketa aura berealakoan antolatzekeo. Erraz ulertu zuten bakoitzaren guraria.

Klinikara bidean joango zan Manu, eta bestalde, osagillea oetik jaikita. Ikusi zion besoa ta gorputz osoko ezurak ere igurtzi ta arakatu. Bai. Besobarreneko ezurretarik bat, grak-eginda zeukan, autsia alegia. Rasioetatik ere beatu zuan ta ikertu gorputz osoa. Beste ausiurraturik ez zegoan, zorionez. Igeltsoa ezarri zion. Asti laburreko koxka zan; beingoan gogortu ta osatuko zan ezur zertua. Ukalondotik asi eta atzaparrak izan ezik, burduntzia bezin txut eta ormatuak jarri zizkion beso ta eskuturra. Miña ibitzen zioakion eta Manu-k andik ordubetera lo gozoa bereganatu zuan, iru-lau ordu leenago alako naasmendu ta izu-lauorrian ibilli arren. Belaun inguruko miña, eroraldiko tankatekoa besterik ez zan izan.

Loak artu orduko, bere etxekandreaz oroitu zan, aura ere beste klinika batean bai zegoan; arako igandeetako zorioneko bukata urduriak zirala medio. Etxekandre ta apopillo, bide berezietatik ibilliaz, -biak zuzenaren kalteko jardunean alegia- azken berdintsura jo zuten: erori ta min artu, eta osatetxera joan bearez aurkitu.

Panta-k agur laztankorra egin zion Manu-ri, au lo jarri orduko. Aren Opel-a *garagean* utzi zuan. Bere «Lau-Lau» polita artu, ta etxerantz aldegin. Bigaramon goizean, lo llabur egin ostean, kuku-loa, sartu bere gurditxoan eta simpathina arturik, bezperan egon zan erritxorantz abiatu zan, gauzari kanpo eder emateko, gertaturikoa itxura apaiñez ezarteko asmoz. Berrero ere, eizan joan bear zuten, errian zabaldu bezela eta karabiñeruai adierazi zioten arauz. Iritxora eldu, eta Martzel lo zegoan bitartean, Panta, Manu-ren aginduak beteaz, «Kezulo»-neko ardandegian zegoan goizeko bederatziak aldean. An agertu ziran, txintxo, «Zarbasta» biak ere, zaarra ta gaztea, alegia. Manu-ren ez-bearraz tamal aundia agertu zuten. Gau artan, txipiroi-jana egingo zuten irurak, laugarrenaren utsa bestek bete eziñik. Manu-ren utsa argi esan.

Alakoren batean, azaldu zan Martzel plaza-ondora. Ta beribillean sarturik, eraman zuan Panta-k itxaropen eskasa zuten uso-eizaketara, Agarrebaso aldera. An bazkaldu zuten, bezperan bezela, baiñan, illuntzean, errira urreratu ziran; eta an bukatu zan aien eiztari-biltzarra, urrengo aldikada bat arte.

«Kezulo»-nean egin zuten afariaren gozoa! Panta eztitan zegoan, arrantzaleak, gizon ala emakume,



maneatu oi duten janariaren zeraz. Ez zan an Frantzia-ko koziña elerik bear!... «Zarbasta» bien auzo-lana ez omen zan oso zailla izan. Kontatu zioten bai, lasai asko ta irri eta parre ugariz, basokada arda beltzari muiñ ederrak egin bitartean.

Gurma zarratua, itsas-laiñoa izan zuten etsairik okerrena. Ordua eldurik, legorretik milla bat inguru, esan bezela, agertu omen zitzaien arrasteko ontzia. Lanbroa gero bat batean meaztu zan eta ontziaren aldekalako argi orlegi-gorriak eta topeko txuria, eza-gungarri nabari izan zituzten. Linterna bien keiñukadak egin ostean, alkarren barri berealakoan jakin zuten, eta agurraldiko eta erantzuneko itzak, irakur-leak dakizkianak izan ziran.

Orduan, ontzitik bota zizkieten «Zarbasta» bai, lau fardotxoak, eta beingoan joan ziran bakoitza bere zerean. Bai geroago gogotsu kantatu ere mariñel gazteak itsasoaren illuntasunean, ta aren marruak lagun-durik:

Udazkeneko illargi berri,  
itsasura gaur dantzari:  
batzuek artu, besteak utzi;  
ba dugu erregai aski...

Ez ziran, ordea, erregaiak, ez; ez zegoan an tabakurik. Toxikoak ziran. Opio ta aren alaba morfina ta abar. Gai auen zaleak ugari baitira, eri egon ezarren, aien bidez ametsezko zeruan sartu nai dutenak; lillura-giroaren egarri diran jende leratsu ta kutsatuak.

Bereala utzi zioten txipiroketari, eta ontzia erriko bandan ezarri zuten. Agarrebaso alderantz begira. Ez zuten ikusi an besteak egin zuten sua, laiñoak galera-zi bait zioten. Ur ertzetik urbil zeudenean, «Zarbasta» gaztea, soñean galtza motxak bakarrik zituala, gertu zan uretara zapart egiteko. Araibar-ek, «gizon-igelen» tresnak utzi nai izan zizkion aldiz aurretik, baiñan arrantzale gazte azkar arek, uretan ibiltzeko, igari-egiteko besterik ezer ez zuala bear, siñistarazi zion. Soil soilik, oiñetan jartzen dituzten gomazko egaxka oiek erabilli zituan.

Illargiberri gau batean naikoa zan orrenbestez, an goiko bidetik iñork ez ikusi al izateko. Ta gaiñera, erabakirik zuten bezela, zaitzailleai afari ta edari ta berriketa ugari ematea lortu ezker... Legorretik eun metro ingurura geratu zan potiña, arrantzale zaarraren arraunen pentzura. Gaztea, esandako jantzi urriz, uretara bezin laister, zaarrak eman zizkion lau loturak,

eta laurak ur-axalean baiñan elkarri loturik, bular inguru atxiki zituan, eta an joan zan gazte zangarra lau zeren eramaille bakan.

Ur-zingo eskasera eltzean, zutitu zan; eta oiñez, jo zuan beti aurrera, arkaitzetaraiño; eta an, leku jakiñean zegoan artzuloaren babespe, utzi zituan lau paketeak. «Aitaren» egin, berriro uretaratu, igari egin eta aitaren potiñera eldu zan. Bereala jantzi, eta beste txipiroi batzuek artu, eta andik ordubetera edo, apurka apurka kai ingururantz zioazten, arraitxo txuri-beltz aiek batuta; portura jo, Borobiltxuneko taskan mama gozoa zarra-zarra edan, eta etxera ta lotara joateko.

Panta-k egundoko barreak egin zituan, aita- seme arrantzaleen jardun gozoa aditzean. Aien lana erreza izan omen zan. Gero, beste zeregin bakarra baiño ez zuten: eskaiñiriko sari mordoxka jasotzea, Manu osatu zediñean. Gau illun artako istorio laburra ondo gorde-rik izango zuten urte askotan; bai arraiopola!

Txipiroketa dirutsuagorik ez zuten egin beuren bizian. Baiñan ezta nai ere, «Zarbasta» zaarrak zio- nez;

-Txiroa izateko, ezpait dago kontrabandista zere- tan jardun bearrik!...

Agurne-k (etxetik atera zanean, eguberdiko eguneroko belbillerako asmoz, ta Manu Bilbon ikusteko uste osoz -Panta-k goizean goizetik adierazi-ta zekialako-) kalean bertan Tomas aurkitu zuan. Onek pozez egin zion agur txeratsua, baiñan beste aldetik galdetu ere bai, ain apain jantzita zioala oartzean.

Neskatxak egia esan zion, baiñan ez osoa. Bilbora-ko asmotan zegoala; alegia, eskubide batzuen gorabeerako baimena lortzekotan edo, araxe joan bearra zuala. Orduan, Tomas-ek eskeiñi zion kunplimentu gabe bere popoa, alkarrekin pozik eta gogara joan zitezke-la-ta. Agurne-ren barrua artegatu zan, zegoan baiño areago, Tomas ikusi zuanetik. Demorriozko aurkitze aura! Eta Tomas-ek, ekin eta ekin, jo ta jo untze berbera, matraka astuna egitan ere, Agurne-ri, kotxea zala ta osterea zala.

Agian, onelako egoeretan gizonak emakumeak baiño burugogorrago dira, biotz zanbuluaren joera norantz dioa sumatzeko. Orixe ziotzan bere baitan, itzetan ebaki gabe, neskatxak Tomas-i: «Ez al duzu ulertzen, maitemindu-zale, nire barruko jita norengantz dagoan?».

Mutillaren ekiñari, ez zion gaiñetiko gezur-mintzo ipuirik siñistarazi nai. Esatea erabaki zuan, eta esan ere egin zion, bai.

Ortan zintzoa zan Agurne. Emakumeak geroago oi diran bezelakoa, urteak gizentzen asten diranean. Enuxu-banuxu jokoari, argi ta garbi bukaera ematen diotenean. Tomas arri ta zur geratu zan. Ez zuan uste alakorik, Agurneren ibillaldi asmoaz. «Beste mutilla» ikustera zioan. Uso-eizatik itzultzean min arturik, klinikan zegoan beste mutilla ikustera... Aren maite-zistuak, urrunetik ere, dardare eragiten zion nunbait neskatilla pertxentari. Pausoa egiñik zuan, antza, orrela erbesteraíño joateko.

Larri ta goibel jarri zan Tomas-en barrua. Bere kolko-loretegian ukan uste zuan landarerik ximenena, ametsik bikaiñena, izotzak bapatean jo ta eriotzurren jarriko zala igarri zuanean.

Asparen egin zion bularrak mutillari. Ameriketatik eldu ta lendabizi burua txorabildurik jarri zion irudi maitagarria, ez zegoan arentzat. Alaz ere, berealakoan orrenbesteko dolu-miñez bizi nai ez-ta, itxedopen-arnastxoá bederik eskatu zion Agurne-ri. Onek, irriparre biguiña eskaiñi zion, esker onaren agergarri arintzat.

Tamalez eta penaz beterik estutu zion eskua Tomas-ek, maitatzen asitako neskatxa ederrari. Laburreko agurra egin nai zion, itzuli artekoa. Luzarorako agurra ezpaitzan egoki, neska ta mutil gazte bi, iñoiz baiño sarriago, alkarri begira isillik eta eztitan egonik geroz.

Azkar joan zan neskatxa autobusera. Ori gorabee-  
ra, ba zuan bere kezka Manu-zaz. Artaz entzundakoa, auntzaren gaberdiko eztula ez zalako.

Bazkal-osteko ordu paketsuan, Klinikian, agerral-  
dia izan zuan Manu-k. Bere apoderadu Serafin eta emaztegeia, Matilde, antxen agertu zitzazkion.

Laneko atzera-aurrerak argitu ondorean, gaiñean zuten ezkontza-elea azaldu zion Serafin-ek bere uga-  
zabari. Aita-amabitxien korapilloa zutik zegoan, era-  
baki gabe, gordin. Araibar jauna izango zan bata, eta... bestea? Matilde-k ez zuan seniderik urrutietan baizik, eta orregatik alde batekoak izanik ere, ez zegoan axolik, ez asarrebiderik. Ez zegoan an, olakoetan aaideen aldetik oi diran seta ta targokeririk.

Jardun betean ari zirala, norbaitek ots egin zuan atean. Matilde joan zan aterantz. Idiki, eta aurrez

aurre neskatxa gazte erakusgarria topatu zuan; kolorez ta osasunez egokia zirudian.

-Ene, barkatu, -esan zuan elduberriak- ez al da ementxe Araibar jauna?

Onek, Matilde-k ezer erantzuteko astirik gabe, aots samur aura laister bai laister ezagutu zuan eta, zetzan oetik oi u egin zion:

-Bai, bat. Aurrera, Agurne!

Ingurukoak, arrituta eta garbi ezer jakin gabe, isilik lotu ziran, zer ikusiko ta zer entzungo. Agurne-k zir-tizarta, aurrerantz egin zituan bere pausuak, zalantzarik gabe, sendoro antzean.

-Arratsaldeon guztioi!

-Agurne: zer esan bear diet nik auei zuri buruz? Nire apoderatu Gezala duzu zaldun au, ta ori bere emaztegei Matilde. Urrengo illean izango dute, J. L., euren ezkontza. Nik neuk, nai nuke, minki nai ere, joan oien eztegura. Zuk, nai izango al duzu, Agurne, nirekin batean joan?

-Nik ere bai. Ezkonberrien inguru emandako eguna, beti izan oi da, geroetan ere, gogoangarri.

-Beraz... -jarraitu zuan Manu-k-, auek amabitxi baten bearrizanean daude ta, ni aitabitxi izanik, zeu izango... amabitxi?

-Ba... bai.

-Eskerrik asko, Agurne. Zure erabaki biotz-zabal orregatik, nire esker ona izango duzu betiko.

Orduan, Serafin-ek eta Matilde-k, une xamur artan oztopo egiten zutela oarturik, bertatik aldegitoko zera egin zuten. Baiñan ez zuten beingoan ori iritxi, lau lagunak, gizonezkoak batetik eta emakumeak bestetik, elkarrekin jardun labur egin gabe.

Gaiñera, Matilde ere, Agurne bezela, euskalduna zan. Gurasoengandik ikasi zuten bi biak asabengandiko izkera zaar, eder ta maitagarria. Eta edonork daki euskaldunak alkar-soiñuko txori dirala somatzen dutenaz batera, izaten duten barru-isuri ta zabaltasuna, sentipen arrunta, erdikitza, batasun-arnasa ta alkarpoza. Ta euskal-alaba biak alakoxe berriketa bero ta eztitsua asi zuten alkarren artean, ordurarte ezagunak izan ezarren.

Ziñez ere, euskal-semeen artean, egungo egunean guztiak izkuntza berberaz ez mintzatzetik, egundoko leze sakon ta galgarria eratu zaio euskaldunen erriari. Ta euskaldungoak, jakiña ba, jasan bear izan du bere bular-bizkarretan, ondamendiaren zauri odolusgarria. Euskera izan dan lokarria ta euskarria urra-



tu ta deus eztutzean, barneko giroak betiere bi izango dira, edo iru.

Jatorrizko mintzaira galurren dan belaunaldikoen barru-giroa, naasmendu-kabia izan oi dalako. Artegatasuna, goragalea ta larria ditu ezaugarri.

\* \* \*

Klinikan, gauza bear bezela erabaki baiño leen, Serafin eta laister aren emazte izango zanarekin topogitea eta esandakoa era artan esatea, ez zitzaion osoro gogoko izan Agurne-ri. Alabaiña, nonbaiten sartzan edo jartzen geranean, olaxen jazo oi da: ez da geldi-aldirik izaten. Are gutxiago, atzerakadarik. Aurrera ekin bear izaten da, alak eta lerrak egin, burukatu, eta garaitu edota garaitua izan, menperatua ta ondatua.

Bapatean, zimiko biurri batek zulatzen zion barrua Agurne-ri. Manu-ren elizarako joerarik eza. Leendik ere entzunik zeukan ori. Baiñan apaiz arekin ondartzan izan zuan izketaldi luzeaz konturaturik, eta solas aren mamiak zuan garrantzia gogoan arturik, Agurneren ametsak borobiltzen asiak izan ziran.

Egunak joan, egunak etorri, an or emen galdekizunak egiten zituan neskatzak, Araibar-en jokaerari buruz: gizon zintzo bihurtzear zegoanentz, ala leen bezin gonadun ugarizale jarraitzen zuan, eta, noski, bizimodu askatuegian. Eta egia esan, mutilla, zer ortan, asko artezturik eta gizondurik omen zebillen. Goizeko lauretan nexka frantses lirain aiekin musuketan berberak ikusi zuanaz aparte...

Orregatik, Gezala ta aren saieski-gela aienatzean, eta bakarrik gelditu Manu-rekin, berebiziko eretia zuala antzeman zion, Agurne-k, puntu ortaz jarduteko. Eta argi ta garbi itz egin zion zalduntxoari. Ezkontzeko itza eskeñi zion ezkeru, ezkontza ori ta ezkon-bizitza ere batipat, berak nai zuan bezela, kristau-arabera bearko ziran izan. Eta elizatik aparte zebillen gizonak, zer asmo ote zuan gerorako?

Agurne-ren azalpen-eskaria borobilla zan, zeatza, bipilla. Ez zuan nai sasi-ezkontzarik. Ez zuan opa, siñismen bageko bizitzarik, senar-emazte berri izango ziranentzat, beraientzat.

Neskatzak, bide zuzenez zioan, ustez eta agiriko zanez. Eta Araibar? Zein izan zan onen siñismen-bizitza? Utsa? Utzia? Etsaigoko jarduna?

Maitetasuna egiazkoa ba zan, arek aitortu zion bezela, leenagoko txorakeriak eta maitakeriak bein betiko utzi eta gaiztetsiaz, bide zindo ta onoiementuan zear abiatu bearra zuan Manu-k. Ez zegoan norarik. Agurne-k ez zuan, guztia-bearreko ezkontza-iradurik. Beste aldekoak zedukan, beraz, bere asmo ta gurariak zeeki ta larrugorri agertu bearra.

-Agurne -jaiki zion ipi-apan Manu-k-. Zureganako maite-lera xamurra sentitzen asi nintzala aitortu nizunean, ez nizun gerurrik esan. Ondorengo asteetan, lendabiziko nire aizekai edo begitandua noski zitekeana, mardultzen, gizentzen eta kozkontzen ikusi dut, nire erraietako poz aundiaz. Eskabidea egin nizun, eta egun batzuetan -leen luze ta mingots zitzazkidanak, orain lahur eta bigun iruditzen zaizkit- itxedon eta itxedon nai ta ez egon naiz: ta ikusi dut, eta egia dala siñisten dut, zure erantzupen zintzoa. Bai, Agur; emakume asko ezagutu izan ditut, agian geiegi zarigaitzez. Zertarako oroitu!... Baiña, auxe bai aldakuntza: zuri, oraindaiño, musutxo bat ere ez dizut eskatu. Nai nuke nire bizitza arteztu, eta osoro beranduegi danik, ez dut uste. Nire okerrak, alegiñean, zuzendu nai nituke, guztiak egitea eziña izango dan arren... Orra ba, nire asmoak. Zuk nai ba duzu, zure erriko elizan

ezkonduko gera; osterontzean, emen Begoiñako Amaren oiñetan. Biar edo etzi, klinika ontatik irtetzean, lendabizi, eliza maitagarri ortara joango naiz, eta nire zerok zertzen asiko naiz, ziñez.

Ortan amaitu zan Manu-ren itzaldia.

Buruena, mardulena ulertu zion Agurne-k eta atsegiñezko zarrada nabaritu zuan barru-barruan. Antxen, ipurtargia bezela distira xee ta ñoz zedukan argibizarrara, geroago ta pindartsuago ta txuriago ta ikusgarriago itzuli zitzaion.

Ez zuan, ordea, neskatxak, aski ezaguerarik, arek esan zizkion itz guztien esan-nai betea bereganatzeko.

Geroago, agian, izango zuan ereti beregarra, adierazpen zeatz-meatza errotik ezagutzeko. Baiñan, utz dezagun geroa, Jaunaren eskuetan...

# XVI

Maite-loraketaren ondorengo aroa dan biguin!

Udazkeneko goiz eme ta bizigarri batean, Matilde-ren parrokiako lau ormen artean, giro gozo eta askorentzat bekaizkarria sortu zan, batez ere neskazaar-goan lendabiziko ta bigarren saioak ere egiñik zeuden neskatilla ezagunentzat.

Serafin eta Matilde-ren ezkontza eguna eldu zan. Zeruak, iradu ta artegatasunik gabe, poliki poliki bete-razi oi dituan zerak, beuren eldu-mugara gozaro iritxi diranean...

Aita-amabitxiak ere antxen zeuden, zintzoro egon ere: Araibar zalduna eta Agurne Zelaia, apain baiñan geiegikeri gabe.

Elizkizun aren oiartzun eta iduripen samurrak klix-ka zorrotza egin zioten Manu-ri. Munduko neskatxa galdu ta urdanga ta paillardizengan beiñere aurkitu ez zuan usai ta kerru ezin-esanekoa nabari izan zuan, atsegingarriro. Nun bizi izan ote zan, bada, Manu, ain-beste urtetan, bere jaioterrian bertan ba zituan izan, mendeak mende, orrelako elizkizun gogaratsu ta graziz beteak?...

Basatien artera joan eta joaten mixiolariak; eta kristau-giro uste eskualdeetan orrelako *basatiko*iak izan?... Mende arrigarria XX-garrena; gizabide jasoak utzirik, europar-arloko gizakiak, buru-jantziak, siñismenik gabe edota siñismen arauetaz billoizturik, gorputz eta anima larrugorrikiro bizi diran mende arro, uts eta bidez-itzuria!

«Eta zuen semeak, olibu-altxuma bezela izango dituzute, zeuen mai-inguruan»...

Apaizaren esakune bitxi ta egiati onek ere, egin zion bai biozpean Manu-ri alako zirrara. Serafin tutulaturik zegoan, txunditua zearo. Irriparre ta besterik ez, orixe egiten zuan ezkontza-elizkizuna bukatu zanean. Eztaieko oturuntzan, -ogei bat lagun gutxi gorabeerra-, gogaro zindo, umore ona ta kantu alairik izan zan, batez ere, senar-emazte berriak aldegitako, agur-egiten asi ziranean.

Gau beranduko orduak euren grazi ta kilima oi dute; taskazulo diranak, munduko lazka ta gizarteko auzi latzak erabakitzeko, kritika zeatz eta epaitsuak egiten dakitelako. Maixiaketa-burduntziak gertuak

izan oi dituzte gizonak, aldi umotu ortan, eta albisten trukeak egitea, eguneroko zera izaten da.

Martzel jakitun zegoan, Manu ta Agurne erdi zerturik zeudela. Labur; alkarri itza emanik bizi zirala, batez ere, arako ezkontzan egin zuten egingoagatik.

Maite izan zuan iñoiz Martzel-ek Agurne. Beintzat iñoiz, artaz zaleturik ibilli zan, lera-aize burrundatsua poparean joanik. Aro ori, ordea, deuseztua zan, maitaritzakoa Manu-k kendu ziolako. Alaz ere, mingostasun-ondarra zuan barruan; eta norbere zital-usaia, besteren samin-igurtziz samurtu ta ordezkatu nairik, billatu zuan billatu, jasangarri izan zitekean norbait.

Eta ortik drungu eta emendik zurrut, naiago zuten dudarik gabe, ardandegi artako bezeruak, gau beranduan maatsaren orpotiko ur otza, sutan maneaturiko salda epela baiño.

-Emen ere ba dira -ziotsan Martzel-ek, entzun nai zionari-, emen, ere; indietara joan ezer gabe, jakiña! eta an diru ederrak egin dituztenak. An diruz atsitu-tzea ez omen zaie zaillegi izan. Baiñan ango diru otsera, emengo neskatxak eskuratzea, ai! ori ez zaie ain erreza.

Eta parre eroa egin zuan.

Alboan zeuden Tomas, onen anaia ta beste adiskide bat. Onek sumatu zuan gazte alper aren esan edentsua norentzat zan, eta bai aopeka jakiñerazi ere Tomas-i. Onen atsegiñeko ez zan izan, noski, esaera aura. Berriz ere, alabaiña, entzun zuten azalpen berdintsua, bar artan zeudenak. Eta gazteen odol beroa zuzpertzzen asi zan.

-Bai, alafede -geitu zuan Tomas-en adiskideak-. Ba dira errion berton ere, euren bizian ezertxo ere ez lortzearren, nagia ren nagiaz, erriko alaba baten biotza ere, erbesteko txoriren batek eramatea ontzat ematen dutenak...

Aguro jaso zuten Martzel-en belarriak ziri orren eztenkada fiña.

-Dirurik eza eta dirutza diran tokian, emakumeak ba dakige betiere nora joten duten; ezkurrera, mutil. Txintxiña, otsik desiragarriena da andrazkoentzat. Ordea, txanpon-kontu bi berdintsuak diranean, orduan, ,ai... gatzak eta jasadak irabazi oi dute garaitza-estuna, uztai.

-Bai, eta... nai duana esaten duanak, iñoiz edo bein irabazten du bere sari gozoa ere! Txintxiñak bakarrik ez du soiñua; ukabillak ere, batzuetan, musika xaloa sortzen dute!



Eta geiagoko gabe, Martzel-en masaillak zertada borobilla bereganatu zuan. Ai eta oi! Bat bakarrik ez, alazaiña; zartada geiago ere aren buru inguru erori ziran, pausa-leku billa, nunbait...!

Eta ez bat eta ez bi, bata bataren alde eta bestea bestearen bando, kanpoko aize ozkirriak otzituriko esku eta betarteak, ederki eta egundokoan berotu zituzten.

Agurne-ren ezkontzak, aldiz aurretik banandu zituan erritar mutil gazteen artean, sekulako goxo ongi maneatuak.

Eta eldu zan aldarte aura ere. Alegia, Manu-ren zoro-gaztezaroa gizon betegiña bilakatuko zana. Bilbon zuten gerturik etxe-bizitza berria.

Albotiko txairoak autetsi zituan Agurne-k bere emaztetza-jai gogoangarrirako. Gizon eta emakume, senideen artekoak; neska lirain eta mutil zal eta lerdenak, adiskide artekoak. Tamalez, jakiña zan, Tomas eta Martzel ez ziran ezta maikide izan; auek aurretiaz ospatu bait zuten, goxoketa berarizkoz, jaikune aura.

Agurne, zoragarri zegoan, dana zuriz jantzia, garbitasunaren ezaugarri. Arpegi legun, azal beltzeran,

sudur fiña, begiak ez aundi baiñan bai esale, berrieketari, biziz beteak. Luzez, bestetan baiño luzeago zirudian, soiñeko tatarrezko artaz. Irudi liraiña, ezin uka.

Aren senargeia, laisterrean senar jauna izango zana, beti bezela, gartxukiro jantzia, dotore zegoan. Bekokian, naretasun aztarna erakusten zuan. Begietan, ordea, etsipen-tantoak eman oi duan distira itsa, begirakune makaltxoak zedukan. Ez ote zegoan seguru, bere joera-aldaketa artaz? Ez ote zuan sakonkiro sentitu bizitza berriaren esan-naia? Galdu-urren zedukan askatasun joriak, zimiko-kilikilia egiten ote zion kolkoan?

Begoiña-ko Amaren oiñetan, eliza zabal artan ospatu zuten ezkontza. Argi ta soiñuz, lore ta usaiez bete zan giro aura, bertan zeudenentzat.

Emazte berriak atsegiñez beatzen zion mezatan, bere eskuiko erestun urrezkoari, eta aldizka bere senar jaunari. Manu-k erantzun nai zion aren xalotasunari, eta alegiña egiten zuan. Ez zion, ordea, irriparrak orren aise irtetzen beti.

Kanporakoan, txistua eta tuntuna entzunarazi zieten senar-emazte berriai eta aien jarraigo osoari.

Geroago, eztaibazkari mamiaren azken-aldera, zauta ugari artan gogaro jan eta galanki edan ondorean, euskal-kanta samurrak ere izan zuten aldi.

«Ezkonberriak pozkidaz daude  
egin diralako gaur  
elkarren jabe, elizan...  
Gauza ederragorik ezin izan;  
ai, orain ba nengo ni zuen gisan...».

Eta gauaz, izarrek ere, ezkonberrien omenez, isil eta alai egon oi diran une gozatsuan, ezkonberriak, iritik urruti, oturuntzan entzun zituzten kantu txukunen oiartzun eme sarkorrak gogora zituzten, euren batasun bakartadekoan:

«Mingaiñak isil, biotzak itzegin...  
Lo puxkatxoren bat nai dute egin».

Lendabiziko illabeteetan, gero izan oi ez duan zer-txobait ba du, agian, ezkonberrien bizitzak. Geroago beste jazoera ta gertapenak izango ditu bizimoduak aientzat, baiñan beti aldatuak, bestelakotuak.

Batzuek alaiak, besteak bare-samararak; urrenak, larriagoak; azken-aldera egipen aulak, luzeak, itsak...

Asierako egunetan eta asteetan, bateratsuko bizi-modua taiutu bearrez, etxeko junguran eta alkar-gurazko mailluketapean jo ta jo egitea, noraezeko arloa izango dute; bakoitzaren jita bereziak, joera bedegarrak bear bezela ezi ta menperaturik, bide bakarrerantz irristarazi nai baldin ba dituzte. Eta osterontzean, galdua da, zearo ondatua senar-emazteen gurari makalezko lillura goiztarra. Aurretiaz amestutako batasuna, ezta osokiro zertzen egun distiratsu artan. Bizitza berriko kate astunaren lendabiziko estuntza besterik ezpaita.

Maitaleak kalez-kale ta bidez-bide ta bazterrik bazter dabiltzanean, lekuko anitz, testigu ugari izan oi dituzte; beti zer ikusiko ta zer entzungo ari diran jakingura ipurdierreak. Baiñan gero ere, ezkonberriak euren kabitxoan, egoitza epelean erdi izkutuzko zerean bizi diralarik ere, auzokoen begiak eta entzumenak, ernai bai ernai jarraitu oi dute.

Eta asteak aste, eta illabeteak illabete, auzoko emakume errukiorrak andre gaztea zertzen asi dan ezaugarriarik igarri ezpa lezate, orduan ere izanen dute labetik-arako albisterik.

-Aizu! Serafin-en emaztea ikusi al duzu oraintsu?

-Ez ba.

-Eeeez? Orra ba. Berdin da, nik esango dizut-eta.

Zera, ezurberritan dago, neska!

-Kontxo! Orren laister, e? Gazte-gazteak ere ez dira bañan...

-Aren nagusiaren emazte liraiñak ordea, Araibar-enak alegia, ezdu ezer gauza berririk agiri.

-Ikusten? Ainbeste denpora eta...

-Egia esan, Serafin leenago ezkondu zan eta...

-Ai! Ez nekian.

-Berdin da ez jakinda ere. Dana dala, auek ere, lege onean, zerbait bear zuten onezkero zertu.

-Ori esan ba. Ain emakume gordin eta zera izanta...

-Bai, baiñan irudia ez da guztia.

Berriketa bai, ordea. Berriketa, guztia zan, emakumezkoen egiunetan geienbat oi danez.

Eta auzoetako emakume begirari, zelatari ta amultsuak aldarrikatu zutenez, illabeteak bete ziran eta arako jokabide zaarrak, ekarri zuan emaitz jator eta kutiziatua. Albistea, bete betea izan zan.

-Serafin-en emazteak aur bi izan ditu. Bikiak, alajaiña. Mutiko eta neska. Ta zorionez, gaiñera.

Berri ori, bala bala zabaldu zan auzoan. kalean eta Araibar-en ofizinan. Emen txaloka artu zuten albiste alaia. Bearko! Manu,k, ostera, sudurrak astindu zituan eta betozkoa jarri, iñork oartzeko.

Etixeratzean, Agurne-ri adierazi bearco zion jaiotze bikoitza. Nola jasoko ote zuan Manu-ren emazteak albiste pozgarri ori? Pozarren? Samiñez? Bekaitzez?

Gai ortaz, maiz itzegiñak ziran auzoko ta inguruko emakumeak Agurne-rekin, mingots-antuziñak beste-labaitakoan eskeiñiaz. Galdera ez-egoki orrek, entzuleari ematen dion min-sorraren berri, ez dakite, agian, egoera berdintsuz pasatu ez diranak. Ama izan nai eta ezin izan diranai, inguruko en itaune zitalak barnera oi dien mingotsa, errea izan oi da betiere. Leenago ez zekian Agurne-k, neskatxa denporan ain zuzen, auzokoak malgukiro isuri oi duten ozpin zakar orren berri, dagokionak nardaz ta esturaz xurgatu dezan.

Eta albistek ba zuan bere mamia eta koxkorra ere. Aur bat izan bakarrik, ez; bi, alegia. Ta gaiñera nexka-mutil potoloak!

Egun distiratsu batean, euren bizimodu berri ta lilluragarri antzekoa, egoera minkatx-sundazko bilaka-

tu zan. Auzoan aurrak pareka; etxean, antzik ere ez. Biotz biren artean, naiaren arabera bete ezin zuten utsune tipi ta aundia, biak batean...

Aurrik gabeko sukalde legor ta itsa! Arbintasuna bazterretan, ekuru urriko egoera bein-beiñekoa dirudiana. Bitarteko antza duana. Aoan ozkirri emanaz, agiñak kirrikirrika jarten dituan idurikoa. Ezkon-ontzia zambuluka ari oi da, eta ekaitzik ariñena ere, aloxuan gainditzen du...

Ez da miresgarri aurrik ez duan emazte gaztearen biotza arbintzen eta larritzen astea. Gabetasunak, ezak xiri-xiri sortzen duan bekaitz-sustraiatz gaiñera, maitetasunak, senar-emazteen arteko alkar-beirak geien geienetan, zauri ta arrakala ezagunak agertu oi ditu. Guraso berrien artean, lokarririk egokienak baitira zeruak emandako aurrak.

Orregatik, Agurne-ren biotzak larritasun eta urduri-miñak ezagutzen zituan, gero ta areago, zoritxarrez. Emakume adiskideak ere, ortan egin zuten satorlana; alegia, burua berotu larregian, geiegi.

-Zoaz Urlia osagillearengana! Agian, zerbait... uskeriaren bat izan diteke eta, tamala litzake.

Orraitio, Manu,k, ez zion pakerik austen arazu orri buruz. Ez zion zipla-itzik beiñere zuzentzen. Iñoiz, Agurne-k, asperen eta zinkuriñen bat egiñaz, besteen aurtxoan irriparrak, begiak, beso potoloak eta abar aipatu arren, itzegitean, ez zion aren senarrak destaiñarik ez zirikada-solas lotsagaberik azaltzen.

-Manu, noiz izango ote dugu guk kimatxoa?

-Askori ez die zeruak aurrik bapatean ematen. Urteen buruan, bai ordea, bialtzen die. Ta alaz ere, ez guztiai.

Itxuraz, manatan eta pake-giroz artzen zituan ele oiek Manu-k. Aren emazte maratzaren gogoan ostera, erresumin ta egoneziña ugarituaz zioan. Baiñan, zana zala, Agurne, bestalde, pozkidaz zegoan bere senarra-ekin. Ez zuan geroztik oartu arengan, leengo bizimoduko arinkeririk ez bidekatzerik. Zintzotua zegoan, eta lanean eta garatz kontuetan oi zuanez, jokutzen zuan bere emazteari buruz ere. Noizean bein, erregalu ta bezuza bitxiak egiten zizkion. Erloiu berria zala, idune-ko polita zala, paparrerako txirlarizko zer dirdiratsua zala; neguan, *vison*-aren berogarri txairoa; etxerako tresna aurreratuetan zer esanik ez: garbikaillu, txi-mist-erratz, irabiatzaille laisterra, ozkutxa, ta abar. Eta aldizka aldizka, ara-onako ibiltaldiak, erbesteko



irriak ikusi, toki txanbeliñetan bazkari edo afari gozoak jan; teatru kinema nabarienak ikertu...

Ez zion, ez, egia, Manu-ri beiñere itz gaizto laburrenik ere entzun, semerik eskeintzen ez ziola-ta. Baiñan, itzez entzun ezarren, Agurne-ren barruan susmo okerrerako, peku ta goganbear doillorrerako, lur ongi zimaurtua bezela zegoan, alditik aldira.

Manu-k ez zuan asarre mintzoric agertu egundo. Alaz ere, ez zeritzan aren emazteak, ezkongei zerean bezin alai ta parrezale zebillenik. Oietxek ziran Agurne-ren gogoetak, bakarrik gelditzen zanean batez ere. Etxeko neskamea, txoria bezin ariña gorputzez eta animaz ere, beti aritzen zan gogorik onenaz bere uga-zabandrearen *aillemua* jasoerazi nairik. Iñoiz iritxi zuan ori ere, eta orduan, andre ta neskame, egundo-ko parra karkaixa ta iskanbillez ari oi ziran etxeko lanetan. Onelako batean aurkitu zituan beiñola Manu-k, lanetik etxera zanean, ta bere giltzez atea isilik iriki ta gelartean zear aurrera zioalarik.

Kuadru alai arek begiak esnatu zizkion eta ordu-rarte egin ez zituan gogoetak egiten jarri zan. Aspaldi, egia zan, ez zuan alako poztasunik somatu bere emazte gazte laztanarengan. Zergatik ote zebillen Agurne aldi antan, errenkuraz eta triste samar?...

Amatasun-gurari biziak eraginda, mediku baten-gana ta bestearengana ta urrengoarengana joan zan Agurne. Bakoitzak adierazi zion bere iritzia eta eman ere bai sendabide-zeren errezeta. Senarraren isilik zebillen, atzera-aurrera auetan. Aolkari bikaiñenak adiskideak zituan, puntarengoak; emakumeak, alegia.

Baiñan illabeteak aurrera eta ez zuan bere baitan ezer berriren zerik, illaunenik ere, nabaritzen. Beste osagille batzuen izenkada lerroa ere lortu zuan. Sendagilleok, entzute aundikoak ziran. Eta adore ta uzi tinkoaz asi zan urrenik urren, aienganatzen. Eta gauza bakana. Mediku auek berdin samarreko aburua erakutsi zioten, bakoitzak gauza berdingak adierazi gabe. Orrek jarri zuan Agurne gogor, bere asmo fierrean. Ama izatearren, egin bear zana egiteko gertu zegoan. Erabaki au betetzeko, txut eta bipil zuan gogoia. Lendabiziko eretia ez zuala galduko; orra arek bere buruari egin zion ziña.

Atzerrira joateko kinka sortu zitzaion Manu-ri. Alegia, makiña-erakusketa aipu aundikoa izango zan Ale-

mania-n, eta Paris-en ere bai, beribillena. Beste errialde batzuek ikertzeko aukera polita izango zuan, bide-nabar. Izango zuan, ez; izango zuten, Agurne-ri ere agertu bait zion asmo atsegin ori, eta alkarrekin egingo zutela, adierazi ere bai.

Arrituta gelditu zan Araibar, emazteak ezezko kontua azaldu zionean. Ezkontza-aldian egin zuten eztaiondoko ibilleraren oroipen gozoaz aski zuala, alegia, erantzun zion arek, berriro ere extranjeri aldera joan gabe. Gaiñeratu zizkion zenbait apuko: makal antzean zebillela, kirioak zerbait asaldaturik zituala; aita ere, an bere erritxoan, ondoezik zebillela eta ara joango ote zan egun batzuetarako; katekesis berri batzuek antolatzen ere ari zirala esturaz eta ariñeketan, eta abar. Labur: barkatzeko, baiñan ez zuala egitan, bate-re gogorik, ibillaldi luzexko ortan abiatzeko.

Eta Manu-k, goganbear izpirik gabe, onez onean dana siñistu, eta emazteari pa gozoa egiñaz, bere txangoari asiera eman zion, *Opel* ariña lagun izanik.

Gelditu zan ba, Agurne, bakarrik eta bere esku. Bereala joan zan azkenengo ikusi zuan osagillearen-gana.

Onek ikertu zuan berriro ere aren gorputzaren alde bat, ermainu edo akasdun zala uste zutena. Biga-

ramonean klinikarako zan, eta uki-ebakia egingo zion. Operazio erreza omen zan, aurretiaz geienak izan omen diranez. Agurne-k, umontzia zedukan okertu xamarra egoeraz, eta beste akats txiker bat, zuzengarria, agian. Oietxek omen ziran eragozpen, emazte aura ama izatera ez eltzeko.

Egun artan, goizean goiz jaiki, meza entzun, autor-tu ta jaunartu eta etxera zan, Agurne. Ordurako, an zedukan itxaroten, senarraren telegrama samurra, bidetik bialia:

«Atzerrian nago, osasunez ondo. Utsune bat inguru: zurea. Alabaiña, nire biotzean zagoz, lendabiziko egunean bezela. Zaitu zure burua. Urrenarte, laztan-musu.

MANU».

Osatetxean, atzerapidea izan zuan, eta berriro etxera bearra. Medikua beste norabaitera joana zan, iraduz, eta beste -egun bian ez zan itzuliko-. Iguñez artu zuan albista atsekabegarri ori, emazte gazteak.

Egun bi alperrik galtzea, asko zan; larregi zeritzan luzapide orri, senarrak zortzi bat egun baiño geiago ezpaitzuan egingo etxetik kanpo. Egun osoan buruari

bira ta bira eragiñaz jardun zuan emakume arek. Illu-nabarrean, zalantzaren orratzak zistaka izugarria egin zion biotz-gaiñean.

-Ez ote dut atzerapide au -ziotsan bere buruari-, oarkuntza bezela, egin gogo dudana, egin gabe, leenean uzteko?

Irugarren eguna zabaltzean, ordea, zalantza ta ezpaiak alde batera jaurti, eta joan zan joan, berriren berri, klinikara. Beste *kasu* bi, il ala bizikoak, izan zituan goiz artan osagilleak, eta urrengo egunerako utzi bearra izan zuan Agurne-ren osatebakuntza, onek asarrea ta gogo txarra agertu arren.

Jarri zuten operazio-maiean, Araibar-en emaztea. Ustez erreza zan ebaketa egiten asi ziran. Emendik zabal-erazi, ortik ebaki, andik josi. Odol-jari geiegitxo izan zala oartu zuan bai zirujau arek; baiñan, iñoiz, gertatu oi zala-ta, txertu pare bat sartu zioten azal-pean ariñeketan. Ez zan ordea, bapatean atertu, emoi aura. Medikuak buruari eragiten zion, erreta bezela, eta bekaiñak batean uztaitu, bestean zimurtu.

Amaitzat eman zuten epaiketa jarduna, eta oe luzera eraman andre lokartua, botikaren zeraren mende. Anestesista gaztea birritan joan zitzaion gela-

ra, ta eskuturreko tintiña ukitu ta betazalak jaso ta ikusi.

Andik geroetan esnatzen asi zan Agurne, begiak larri ta erkin. An zegokion, josita bezela, adiguritsu ta gertu, bere neskame alai ta jatorra. Neke aundia zedukan barruan, ostera, bere ugazabandre ona ain eroria ta jausia ikustean... Zergatik ote zegoan etxe-kandre maratza kilnikan, egoera artan, zuzen zuzenean ere, zalduna kanpoan zebillen aldarte labur artan? -ziotsan bere barruari otsein arraiak-. Ezin ba ulertu, arrotzak, senar-emazteen arteko gertari isillekorik.

Eldu zan gaua, bere ao beltzez ta erpe sarrakiozalez. Egunez bipilla izanik ere, gauez edonor da bildurperaa.

Gau-erdi aldera, neskamea, ordurako lo betean, intziri batzuek itzarri zuten. Izu-ikaraz jaramon egin nai zion andre maiteari, ta onek zerbait adierazita, oegaiñekoak arputxo bat alderatu zituan, eta begiak zabal zabal, lau darduan jarri zan. Odola agiri zan, odola, andre eriaren iztarretan eta aztaletan eta maindoretan... Jo zituan tirriñak neskameak, eta itsumustuan irten zan iragangura norbaiten eske, el-oiu latza kanporatuaz.

Lendabizi monjatxo bat agertu zan, eta alakoren batean eri-laguntzaille morroia. Sarri bai sarri gertatzen dan bezela, ez zegoan batere medikurik klinikan. Axolakabekeri barkagaitza, agian. Noraezean, txertu pare berria sartu zion mutil arek, mami-mamian; azer-tatu ala ez.

Zorionez, atertu zala zirudian, odol-iturriaren erio-na. Geisoari neke berriak emanik, aldatu zizkioten maindire ta osterontzekoak. Medikua ere, tira ba, telefonoz deitua, azaldu zan estularria iragan ondorean.

Neskamea baiño beste seniderik ez zegoan an, ain zuzen, eta oni egin zion azalpen xee ta murrizta medikuak.

-Arrituta nago, ori nola izan dan asmatu eziñik. Odola ta odolura ezarriko dizkiogu, eta laister osatuko da.

Artu zituan, zulaketa bidez, Agurne-ren gorputz ebainduak, osasun-lagungarri oiek. Ura, ur pixka, besterik ez zuan eskatzen emazte errukarriak, egarriz.

\* \* \*

Eldu zan etxeko atadira, atzerritik itzuli, Manu. Popoa kale-ertzean zuan. Jo suan tirriña, beetik, bai-

ñan erantzunik jaso gabe, bigarrenez eta irugarrenez. Gaba zan eta kaleko atea itxirik zegoan. Orduan, atezaiari jo zion tinbrea eta au agertzean, ezer berririk zan galdetu zion.

Emaztearen egiteaz jakitun geratu zan bezin laister, beribillean sartu eta an joan zan, tximista iduri, klinikarantz. Ernen, ez zioten sartzen utzi nai, ez-ordua zalata. Alaz ere, arren eta arren, azalduarazi zien atzerritiko etorrera.

Biotza erdibi egin zitzaion Manu-ri, emaztearen egoera nabaritzean. Illunabarrean, lotunea izan zuan aren biotzak. Guztiak isillik egon bear zuten; oekoari itzik ere ez egin.

Baiñan erdibituago egin zitzaion, lekaimeak operazioaren berri eman zionean. Ama izateko uziak eragin zion andre gazteari, alako eskintza odoltsua, alako neke ta arrisku aundia; ainbesteraíño elduko zana jakin gabe, noski.

-Agurne! -ziotsan isilkiro senarrak-. Nolatan egin duzu buru-arinkeri ori? Jesu! Jesu!... Beste ainbeste egiteko ere!...

Orduak aurrera, adu onak eman zion Agurne-ri goraldi-aize osasungarria. Zertxobait zuzpeltu zan, eta gero lo gogoak artu zuan. Goizalderarte ez zan



itzartu. Bere senarraren irriparrerik samurrena ta mintzorik legunena oartzean, oberantza egin zuan, igarri igarrian, Agurne-ren gorputzak; orobat gogoak. Zerbait edari edan zuan, eta beste loxumaren ondorean, eguerdirantz erne ta itzezin nairik zegoan. Ordu latz eta gordiña bientzat.

-Agurne: neuk dut errua zure egoera auengarri ontaz. neuk -esan zion erdi negarrez, senar urrikal-tsuak.

-Zure isillean nai izan dut, Manu, ama izateko gertu jarri, eta...

-Doakabe ori! Eman al dizut iñoiz erdeiñurik, aurrik eskeintzen ez zenidalako? Ez, noski. Ez zitzakidaken zillegi, eiki. Ez nizun esan beiñola, aitortu bear nizun oro, tamalez. Gaztetan izan nituan, pekatuzko bide makurrak eman oi dituan emaitzak; andremiñak izan nituan. Geroztik, erialdi orren xaki ta lorratza niregan ditut; antzu-zigorra, gaurdaiño alegiñak egin arren, osapenik iritxi gabe. Nire zirtzilkeri ta doillorke-riaren ordaiña, nunbait. Atsegin geiegizkoan jarritako usteak, uzta auxe opaldu dit. Ene xangrinaren aundia! Atsekabearen larria!... Urte eroak gaztetan. eta orain aita izan nairik bizi naizenean, nire utsen ordaingarritzat, zeruak eman dit, noski, neke biurri auxe. Ta zu,

errugabe ori, nire akatsen garbigarri ta xautzaille zaitut, oiñazeak arestian jasan eta orain miñaren mende, aul eta eroria...

Negarrari eman zion, asperen sakonak azalera-tuaz.

Senar-emazte bien malkoak bat egin zuten, mundu ontan naitaezeco dan maite-batasuna sortarazi, zuzpeltu ta trinkotu bearrez.

-Barkatzen al didazu, barkatzen, ene emazte laz-tan orrek?...

# AZKEN-MUTUR

Illabete batzuek iragan ziran, eta beiñola, Manu bere despatxuan lanean ari zala, urrutizkiñak ots berezia bezelakoa egin zuan, doiñu alaia edatuaz. Jaso zuan belarri-adarra eta...

-Ez, ez duzu negozio konturik, Araibar; ez. Nik orrelakorik ezpaitakit.

Alastui zan, botikario zaarra; aspaldiko adiskidea. Manu-k konkortuta, txunditurik entzuten zion.

-Eta nolakoa da?

-.....

-Bai?... Emaztea bialaraziko dut arrapaladan. Eduki ezazu or, arren.

-.....

-Laister arte, adiskide, ta eskerrik asko. Aingeru zaitzaillea al zera? Abejondeizula.

Eta solas ori eten, eta bere emazteari deitu zion senarrak. Txoilki auxe esan ere:

-Zoaz bertatik, Alastui-ren botikara. Badakizu. Nirekin mintzatu berri da. Berri pozgarria da. Arek esango dizu geiago. Dana dala, zuk ere dei egikedazu andixek, leenbaileen.

Emaztea, Agurne alegia, zerbait buruera bakanen bat izango ote zalakoan, eta jakinguraz erretzen, gogaro onez, ordu laurden baiño leen, an zan, Alastuirenean.

Onek, begiak arrai, aoan irriparra, erakutsi zion erakustekoa. Aurtxo bat, mantar zaarretan bildua, zikin xamar, egundo ba da. Baiñan aurtxo aren arpegia, betartea, xalo, amultsu ta erakargarria zan. Bost illabete zituan eta mutikoa zan. Zurtzaren pare zegoan, eta aitaren eta amaren eske, ain zuzen.

Alastui-k kontatu zion, llabur.

-Orain ordu bete eldu zait emakumetxo bat, aurra besoetan, negar eta negar ume eder au. Arrenkuraz eta estularriz, aura. Emakume orretzek ekarri du gaur goizean aurtxo au bere sorterritik, itsasaldeko erri polit batetik. Emakume orrek, aurraren amaren orde, utzi nai izan du «Amatasun-etxean». Baiñan, alperreko guraria. Guraso ezagunak eta jakiñak dituan ezkerro, ezin ba an aurrik bertanbeera utzi. Eta orduan etorri da onera. Zer egin bear duala aurrarekin? Ezin berriro amari eraman etxera; ark ezpaitu nai, etxean dituanak baiño besterik. Auxen kontu polita!... Aurra negar eta negar asi zaio; gosez, errukarria! Eta onera sartu da, elikatura eske, janari billa, botikario zaarrak

zerbait izango duala-ta... Egin diogu uresnea edo ala, egin diogu! Bai aurrak zanga-zanga edan ere, eta bertatik bukatu ditu negarrak eta irri gozoak eskeiñi dizkigu geroztik. Nola eramango dut berriro? -zion emakumeak-. Eta erabaki du; poliki, alajaiña. Neuri utzi nai izan dit, agure zimel oni... eta nik, orduan, dapa! izan dut buruera jatorrena. Araibar jaunari dei egin, alegia. Zer derizkiozu...?

-Bai ume potoloa! Nik ez dut zalantzarik. Datorrela Manu, eta...

-Bion badetza noraezekoa dugu. Laister biurtuko da emakume aura.

-Lendabizi, garbitu eta jantzi berriz apaindu bear dugu. «Goya»-nera nioa aur-jantzi politen billa. Taxi-an joango naiz. Aurki arte.

Andik aldi laburrean, aurra, txukun, garbi ta ikusgarri zegoan. Leengoa izanik, beste bat zirudian. Buruko illeak arro, muxu kolore gorri, begi aundi ta eder.

Eldu zan emakumetxoa. Ikusten zuana ikusirik, damurik bezela zegoan iñoren ume zoragarri aura, gurasotzako berrien kontura laga bearrez. Eldu zan Manu ere, eta itz egin orduko, tratua amaitu-urren zegoan. Senar-emazteak erdi eroturik, lillurazko jardur-

nean ari ziran begi distiren bidez, eta irriño xamurrak agertuaz. Andretxoak negar egin nai zuan, eta malkoekin naasian, parra egiten zuan. Botikario zaarra, aintziñako gizon zintzo ta zuzenaren irudi berbisia zan.

Manu ta Agurne-ren gogoak aurkitu zuten, bearreko zitzaien eldu-antxa ta dendua.

Zuzen zuzenean aurrik eman ezarren, zeruak egin zien zearka, gurasoak maiteen duten emaitz onetsia. Griñen geiegikeriak galerazitako berezko aragi-bidez kanpo, errukiz eta maitetasun-tankeran iritxi zuten doai berdingabe ori.

Geroago, asteak aste igatu ondorean, albiste batek egin zuan bide, sendi atsegindu artara. Obeki esan, dei bat izan zan, senide-arteko deia, notario batek egiña.

Agurne, ezer ulertu gabe zegoan, eta senarrari itxedoten. bazkaltzera eldu zedin. Aurtxoak, batean negar, irri bestean, Araibar-tarren egoitza bizi-dardare sarkorrez bete zuan. Manu-k ere, etxera ta besterik gabe, ez zuan ezer ulertu. Orraitio, bere buruko eiaran, aleak eiotzen ta birrintzen asi zan.

-Senideak? Senide-batzarra? Egia, izan ere. Gutxi da munduan, iñor seniderik ez duanik.

Senar-emazteak joan ziran notarioarengana. Onek, beingoan itzegin zien. Aoa zabalik zegoan Manu; zabalago, Agurne. Manu-ren aaideak bizirik zirauten, eta ba zuan bere jatorria, noski. Eta ez ori soillik. Ondasun-banaketa jaia ere, egingo zuten. Zer bi, beraz, egitada batean: alkar ezagutu eta jatorri-errotiko ondarea, arau zeatzez, banatu.

Aien buru-biotzak orrelaxen gerturik, aldameneko gelara eraman zituan poliki poliki eskribau azkarrak.

Emen zeuden norbaitzuek. Barrena jauna, gizon egiña; Alastui botikarioa; «Seiko» apaiz ospatsua. Eta Balbiñe Usategi ta aren seme-alaba Andertxo ta bere emazte Karmele; Jone ta Libe. Eta arako «Kolombine»...

Manu-ren biotza dilindan asi zan, orman zegoan orduariaren isatsa bezela. Ezin zuan siñistu ikusten ari zana. Kolombine ikustean, ez zuan oraikoan iñoizko ziztada suarik sentitu. Gantzu goxo batek igurtzi ote zion barrua, *aita* berri atsegin beteari? Pentsamentu bakarra josi zitzaion buruan, arako karta gogoangarria oroiturik. Bai. Kolombine, orduan berberak aitortu bezela, senide zan, iñolaz ere.

Notarioa-k, papera irakurtzen asi orduko, argi ta garbi esan zien, testigu zaar aiek baietsi zezaketena. Manu ta Balbiñe ta «Kolombine» anai-arrebak ziran, aita batengandik eta iru amagandik sortuak. Aita, Martin Usategi eta Astepe izan zan, eta legez abizena, lendabiziko alabari, Balbiñe-ri, eman zion, ala baitzan. Besteak, bakoitzaren amarena artu zuten, eta orrela, Manu Insua Araibar eta Ane Etxabe Subero zeritzaten. Gaztetan, aiek jakin gabe, aita eman zien, zearka ta azpitik, diru-laguntasuna.

Buruenik, Usategi il zanetik epe jakin batean, arek il-burukoan ezarri bezela, egin zuten senide-ezagutza, neba-arreba ezagutza alegia, eta aita bakoitzarentzat utzitakoaren banaketa.

Biozkadaz ta barru-pilpiraz besarkatu zuten alkar, aaide zaar-berri guztiak. Ane, kanpotik eratorria izan zan, egikizun artarako. Lekaimea zan, baiñan jende arruntaren araura jantzia, lagun urkoari mesede geiago egiteko asmoz sortuberri diran bazkune oietarikoa baitzan. Agurne-k, etxean zuten aurtxo zoragarriari buruz itzegin zionean, guztien poza nabarigarriagoa izan zan.

Alaz ere, «Seiko» apaiz jatorrak, bota zuan bere jardungai guztietako zirikada zorrotza



-Zenbat naaspil gutxiago ez litzaken mundu ontan izango, seigarren eta bederatzigarren aginduak zintzoago beteko ba genitu! ... Eta zenbat anima ez litzaken zuzenik zeruan sartuko, betiko su garretan gano-ragabe ondatu bearrean!...

AMAIA

1958 Udazkena